*Beste*-ren agerraldi mugatu batek eragiten dituen perpausak alde batera utzirik, literatur tradizioa bitan banatua agertzen da testurik zaharrenetan: Iparraldean Etxeparek eta Leizarragak, *batetan*, *batetako*, *batetara*, *batetarik* formak erabiltzen dituzte beti, baina Hegoaldean, Bizkaitik Erronkarira, ez da inoiz *batean* (Bizkaieraz *baten*), *bateko*, *batera*, *batetik* (edo *baterik*) besterik ikusten. Bestalde, XVII. mendean bertan, Iparraldean *batean*-en saileko formak hasten dira agertzen: Etxeberri Ziburukoak, Argainaratsek eta Gazteluzarrek ez dute ia bestelakorik erabiltzen, eta Axularrek maiztasun berarekin erabiltzen ditu bi sailak. Hurrengo mendean areagotuz doaz *batean*-en saileko agerraldiak, eta hemeretzigarren mendean erabat nagusi agertzen dira. Zuberoako euskalkia da *batetan* saileko formei eusten dien bakarra.

Hortaz, literatur tradizioaren bilakaera hau gogoan harturik, leku-denborazko kasuei dagokienez, forma hauek gomendatzen ditu Euskaltzaindiak euskara baturako:

<i>batean</i>	<i>batera</i>
<i>bateko</i>	<i>batetik</i>

Eguerdiaz ondoko ordua adierazteko, *ordu batean* edo *ordu batetan* erabiltzen da, euskalkien arabera. Puntu hau, orduak oro har adierazteko emango duen gomendioan erabakiko du Euskaltzaindiak..

...

*Bat* hitzak, plurala, *-zu* atzizkiaren bitartez egiten du. Dena dela, kasu-atzizkiak hartzean ez dute euskalki guztiek berdín jokatu literatur tradizioan.

Lehen arazoa NOR eta NORK kasuei dagokie. Badirudi bereizkuntza hori pluralean egiten duten euskalkietan, *batzu*-ren kasuan ere, gehien bat bederen, egiten dela. Hortaz, euskara batuak absolutu eta ergatiboaren arteko bereizte hori gorde beharko luke. Nolanahi ere, kontua da bereizkuntza hori ez dela beti era berean egin: Leizarragak *batzu/batzuk* erabiltzen zuen, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek *batzuk/batzuek*, eta gaur egun Iparraldean (ez haatik Zuberoan) erabiltzen dena, *batzu/batzuek*, ez zen XIX.mendearen bukaera arte finkatu. Bereizterik egiten ez duten euskalkietan, bizkaieraz *batzuk* erabili izan da bietarako, eta gipuzkeraz, *batzuek*. Zertzelada hauek guztiak kontuan izanik, badirudi Axularren eta sistema hobetsi beharko litzatekeela.

Bigarren arazoa gainerako kasuei dagokiena da. Hauetan bada euskalki guztietan *batzui*, *batzuen*, *batzuetan* saileko formak erabiltzeko joera nabarmen bat: salbuespenak gutxi dira, eta batez ere Iparraldeko autore zahar batzuegan, ez guztiengan eta ez kasu guztietan, aurkitzen dira: adibidez Leizarragak *batzuen* eta *batzuren*, biak erabiltzen ditu, bereizkuntzarik gabe agidanez, baina *batzui*, inoiz ez *batzuri*. Hortaz, badirudi formalki mugatu pluralak diren erak hobetsi behar direla euskara baturako.

Hortaz, forma hauek gomendatzen ditu Euskaltzaindiak *batzuk*-en deklinabideari dagokionez:

*batzuk*  
*batzuek*  
*batzuei*  
*batzuen* (*batzuegan*, *batzuegana*, *batzuegan(d)ik*)  
*batzuekin*  
*batzuentzat*  
*batzuetan*  
*batzuetako*  
*batzuetara*  
*batzuetatik* (-tarik)

*Batzuak* gisako erak, *bat*-en kasuan ez bezala, aski bakan eta oso idazle gutxitan agertzen dira eta beti *beste*-ren agerraldi mugatuaren eraginpean, noski. Hortaz badirudi horrelako formak baztergarritzat hartu behar direla euskara batuan.

...

Bibliografia:

- A. IRIGOYEN: "Deklinabideaz", *Euskera* XXV (1978), batez ere 752hh orr.  
 K. MITXELENA: *Orotariko Euskal Hiztegia*, **bat** eta **batzu** sarrerak.

*Euskaltzaindiak 1991ko maiatzaren 31an onartua*

## Arabera/arauera

Iparraldeko eta Nafarroako literatur tradizioetako hitz hau hainbat eratan agertu da testuetan: *araura*, *arauera*, *arauiala*, *arabera*, etab. Dena dela, XVIII.mendeaz gero erdarazko “*según / selon*”-en kide bezala *arabera* da literaturan erabili den forma ia bakarra.

Hala ere, euskara batuan, hainbat idazlek, hobe beharrez, *arauera* forma hautatu dute, *arau*-ren adlatiboa delakoan, hitzak lortua zuen idazkera-batasuna hautsiz.

Euskaltzaindiarentzat literatur tradizioa da, eta ez etimologiari buruzko usteak, hitz baten era gomendagarriena erabakitzeko erabili behar den irizpidea. Nolanahi ere *arabera*-ren kasuan, badirudi ez dagoela oinarri etimologikorik *arauera* hobesteko. Hitzaren lehen lekukotasunek, Etxepare eta Leizarragarenek, *araura* era agertzen dute. Hau azpimarragarria da, zeren Leizarragak bederen *au* diptongoa kontsonante gisa hartzen baitu, *gauean* eta erabiliz. Bestalde, K. Mitxelenaren ustez (*FHV* 119) hitzaren etimologi forma, “zalantzarik gabe” *\*arao*-ra da. Badirudi *arau* izena, lehen aldiz Leizarragagan agertzen dena, *araura*-tik erakarria dela, eta ez alderantziz, eta hortaz, aski idazle gutxik erabiltzen duten *arauera* aldaera ez dela *araura* zaharragoaren berrinterpretazio bat besterik, *arau* “asma-tu”aren argitan egiten dena. Bestalde, ezin daiteke esan *arabera*-ren delako *-b-* hori fonetikoki dialektala denik, hots, *gabean* < *gauean*-en kide denik, bigarrenagoa inoiz egiten ez duten idazleengan gertatzen baita lehenengo. Areago dirudi oraindik ezagutzen ez dugun hots-lege edo fosiltze baten ondoriozko gertakari bat, Iparraldeko idazle zaharrarengan agertzen diren *garabik*, *garabetan* (Etxeberri Ziburukoaren (*Eliz* 189 ap. *DRA*) *Iguzkiak ez du egun garabetan argitzen* adibidez) eta antzekoetan gertatzen denaren kidekoa.

Hortaz, badirudu hitzak lortua zuen batasuna hausteko arrazoirik, are etimologiaren ikuspuntutik, ez dagoela, eta beraz, euskara baturako gomendatu behar den forma *arabera* dela.

Bibliografia:

K. MITXELENA: *Orotariko Euskal Hiztegia*, **arabera** eta **arau** sarrerak.

*Euskaltzaindiak 1991ko ekainaren 28an onartua*

### ***Iritzi/eritzi***

Euskal literatur tradizioan hainbat formatan agertzen da hitz hau: *eretxi*, *eritxi*, *eritzi*, *iritxi* eta *iritzi* formetan gutxienez. Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze-prozesuan, hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan.

Literatur tradizioaren azterketa zehatzak gauzak ez direla horrela erakusten du. Idatziz lehen agertzen den forma, Juan de Zumarragaren gutunean (1537) jadanik, *eretxi* da, eta hori berori da bizkaierazko literatur tradizioan erabat nagusi agertzen dena. Bestalde, forma hori da etimologikoki jatorrizkotzat hartu behar den *ereitzi*-tik (ik. Mitxelena, FHV 106 orr.) gertuen dagoena. *Eritzi*, Iparraldeko eta Gipuzkoa aldeko testu zaharretan agertzen da, gehien bat *oneritzi*, *gaitzeritzi* eta antzeko elkartuetan, eta inoiz ez izen bezala. Bestalde, forma hau erabat desagertzen da Iparraldean XVII. mendean. Gipuzkoa aldean, haren ordez *iritzi* agertzen da XVIII. mendean (1713an jadanik) eta hau bakarrik erabiltzen da mende horren azkenaldeaz gero.

Azkenengo bi mendeetan, *iritzi* da, alde handiz gehien erabiltzen den forma. Bizkaieraz ere, 1800-1970 epean, oro har, *eretxi*-ren erabilera gutxituz doa eta *iritzi*-rena gehituz, eta dirudienez, 1970a inguruan *iritzi* zen bizkaierazko idazleen artean gehien erabiltzen zen forma, *eretxi*-ren (eta, noski *eritzi*-ren) gainetik. Bestalde, azken hamarraldiotan hitza sartzen hasia da Iparraldean, *iritzi* forman hain zuzen.

Hortaz, badirudi, euskara baturako gomendatu behar den era *iritzi* dela nahiz izen, nahiz aditz bezala. Inork ez du zalantzan jartzen *e-z* hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkituztat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

#### Bibliografia:

- I. SARASOLA: "Bizkaiera eta euskara batua: *eritzi-iritzi* eta *nire-nere* literatur tradizioan". *IKER-6* L. Villasanteri Omenaldia, 451-457 orr.

*Euskaltzaindiak 1991ko ekainaren 28an onartua*

## Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiez baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zatitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoa jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoa silabak bereiziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirateke hitzak: *zakurr-a; due-la; dute-n; gizon-ik, maitasun-a*, e.a.

Morfemen ordeztan silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: *za-ku-rra; du-e-la; du-ten; nik, gi-zo-nik, mai-ta-su-na*, e.a.

Ikusten den bezala, zein den aukeratzen den irizpidea, ondorioak ere aski desberdinak dira, nahiz batzuetan bat etor daitezkeen bi irizpideak: *ke-a* hitzean, esate baterako.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (*duzue-n; de-n-a*); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (*gizon-e-k; g-en-bil-tza-n; Andonire-kin*) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dutela silabaren intuizioa morfemarena baino, Euskaltzaindiak hitzak **silabaka** zatitzea gomendatzen du.

*Euskaltzaindiak 1991ko irailaren 27an onartua*

## Ordinalak

Ordinalei buruz Euskaltzaindiak 1971ko maiatzaren 28an onartutakoa honela laburbil daiteke:

- 1) Zenbakien ondoan (berdin da erromatarra nahiz arabiarra izan) puntua jarri: *X. mendea, 10. etxea, 19. mendea.*
- 2) Deklinazio kasua jarri behar denean, puntuaren ondoan atzizkia: *X.ean, 10.ean.*
- 3) Puntuaren ordezkari "garren" oso osorik jar daiteke "zenbakitik tarte batez aldentua": *X garren mendea, 2 garren lasterkaria.*

Hala ere, Euskaltzaindiaren erabaki hauek ez dira beti betetzen:

- 1) Zenbait idazlek "garren" hori beti zenbakiari loturik idazteko ohitura du: *Xgarren mendea, 10garren lasterkaria.*
- 2) Batzuen ustetan, erromatar zenbakiak berez dira ordinalak eta orduan ez dute puntua jartzeko ohiturarik: *XX mendea, Federiko II, e.a.*

Punturik zalantzarik badira ere, beste hainbat kasutan koherentzia baten falta ikusten da, batez ere artikulua eta kasu marka eransteko orduan:

<i>Federiko II</i>	(ezer ez)
<i>Federiko II.a</i>	(puntua eta artikulua)
<i>Federiko IIa</i>	(artikulua bakarrik)
<i>Federiko IIa.</i>	(artikulua eta puntua)
<i>Federiko II-a</i>	(marratxoa eta artikulua)
<i>Federiko IIk</i>	(kasu marka bakarrik)
<i>Federiko II.ak</i>	(puntua, artikulua eta kasu marka)
<i>Federiko IIak.</i>	(artikulua, kasu marka eta puntua)
<i>Federiko II-ak</i>	(marratxoa, artikulua eta kasu marka)
<i>Juan Karlos I</i>	(ezer ez)
<i>Juan Karlos I-tzat</i>	(marratxoa eta kasu marka)
<i>e.a.</i>	

Hau guztia kontuan izanik, bidezkoa dirudi proposamen zehatz bat egitea, zalantzarik gutxien sor lezakeena eta ahalik eta homogoneoa izan litekeena, euskaraz idatzi nahi duen orok berehala ulertzeko modukoa.

Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: Ordinalak adierazteko orduan euskal literaturan eta idazleen artean erabili izan diren aukera guztien artean, Euskaltzaindiak beti puntu bat jartzea gomendatzen du. Alegia, “garren” esango litzatekeen tokian puntua jartzea sistematikoki, inolako bereizketarik egin gabe erromatar eta beste sistemetako zenbakien artean. Horrenbestez zenbakien ondoren puntua erabiliko da eta “garren” zenbakiak letraz idazten direneko bakarrik utziko da. Ordinala adierazteko marka horri artikulua eta kasu marka gaineratuko zaizkio, hala beharko balitz, edozein sintagmarekin gertatzen den bezala:

*XX. mendea*

*hogeigarren mendea*

*10. mendea*

*hamargarren mendea*

*10. lasterkaria*

*2. etxea*

*3.ak esan du*

*Hau da 4.a eta beste hori 5.a*

*XIX.mendean ez zen halako buruhausterik izan, baina XX.ean, ordea,*

*bai.*

*III. kapitulua polita da. Aldiz, IV.a ez zaio hain ongi atera.*

*XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan*

*XVII, XVIII eta XIX. mendeetan*

*Juan Karlos I.ak esan duenez*

*e.a.*

Irakurtzeko orduan “hogeigarren mendea”, “hamargarren mendea”, e.a. irakurriko dira. Azkeneko adibideak, berriz, honela: “hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetan”, “hamazazpi, hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetan”, “Juan Karlos lehengoak esan duenez”, e.a.

*Euskaltzaindiak 1991ko urriaren 21ean onartua*





## **EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK**



Baionako Mercure hotelean, 1991ko maiatzaren 31an egin dute euskaltzain osoek euron hilabeteroko batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, eta J.J. Zearreta ekonomi eragilea, urgazleak, dagozkien ataletan.

P. Altuna eta F. Krutwig jaunek ezin etorria adierazi dute.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

### **Euskara Batuko batzordea**

Aspaldi aurkeztutako “bat” eta “batzu”-en deklinabidez mintzatu da I. Sarasola bere txostenean. Sistema redundantea deitu duen hitzen bikoiztasuna bateratzearekin ez dela ezer galtzen esanez, hasi du agerpena. Hori dela eta, “bat” hitzak dituen forma bikoitzak bateratzeko proposamena egin du, mugagabearen deklinabidea, mugatuarena eta leku-denborazko kasuena, sailkatuz. *Batzu/batzuk* formak direla eta, euskara baturako bigarrena gomendatzea proposatu du.

Bere kezka agertu du A. Irigoienek idazki baten bidez. *Batean / batetan* formei buruz, eredu bi daudela zuzenak eta biak bizitzea hobe dela, bakoitza non eta noiz erabili kontuan harturik, esan du. “Batzu” nominatiborako finkatzeaz 1978an berak esana errepikatu du egun. Ez du uste Euskaltzaindia gauza horietan gehiegi sartzea merezi lukeenik.

Salbuespenak baztertu gabe, txostengileak proposatutako eredu batuak onartu dira.

*Eritzi / iritzi* forma bien artean euskara baturako *iritzi* gomendatzearen alde agertu da Sarasola, *e* letraz hasten diren formak euskaraz zaharragoak direla aitortu arren. Bizkaian *eretxi* da nagusi, eta Debarroan ere, dio J. San Martinek. Biak ontzat emanak ditu Euskaltzaindiak eta ez litzateke horrelakoetan eztabaida berririk sortu behar, J.M. Satrustegiren ustez.

Beste batzarre batean ikusteko utzi da gaia.

### **Kanpo-izendapenak**

Madrilgo Kultura Ministeritzatik 1991ko *Letras Españolas* delako izendapenaren epaimahairako ordezkaria eskatu dute. Berandu iritsi zelarik gutuna, ezin bestean euskaltzainburuak J.M. Lekuona bidali behar izan zuen batzarrearekin kondatu gabe.

Era berean eskatu dute Kultura Ministeritza horretatik *Haurren Literatura* sariketarako ohi den ordezkariaren izena, eta Pakita Arregi joango da Zuzendari-zaren erabakiz.

Azkenik, *Creación Literaria* delako literatur sorketako epaimahaira Euskaltzaindiaren izenean E. Knörr proposatzea onartu da.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Eneko Oregi, Itzulpen-zerbitzu Ofizialeko buruak, gutun baten bidez "Letra Larrien Erabileraz" Euskaltzaindiak hartutako erabakiei oharrik egiten dizkio. Astirik ezean, datorren batzarrean aztertuko da gaia.

Erakunde berak bidalitako beste idazki bat ere jaso da, HAEE / IVAPek Herri-Administrazioen esku ipini nahi duen Euskalterm, UZEIko terminologi-bankuaren berri emanez. Hitzarmena lehenbaitlehen garatzeko Lotura batzordea sortu nahi da, Euskaltzaindiko partaide bat barne delarik. Izendapena egin da eta A. Urrutiaren izena bidaliko zaie, M. Azkarate izango delarik haren ordezkoa.

Zarauzko Udalak eratu ohi duen X. Xabier Lizardi sariketarako epaimahaikide J.A. Mujika izendatu da.

Getxoko Kultur Etxeak sortu duen I Juan Gorostiaga Euskal Literatura leihaketako epaimahairako J.A. Arana Martija izendatzen du Euskaltzaindiak.

Urteroko "Orixe" sarian P. Altuna egongo da Erakunde honen izenean.

Bilboko Burtsak bere Boletín elebiduna atera nahi duela-ta, zenbait hitz teknikoren itzulpena eskatu du. E. Erkiaga eta X. Gereño gai horietan ikasiak direnez, beren esku utzi da eginkizun hau.

### **Eskuarteoak**

B. Oihartzabalen euskaltzain sarrerako joan-etorriak zehaztu dira. Hori dela eta euskaltzain oso guztien zerrenda banatu du Idazkariordeak euron adina eta euskaltzain izendapenaren datekin.

P. Charritonek aditzera eman du J. Mendiague olerkariaren jaioteguna eta heriotze-data aurkitu dituela (Aldude 1845 - Montevideo 1937).

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

## **BATZAR IREKIA**

Angeluko Udaletxean, 1991.eko ekainaren lean, egin du Euskaltzaindiak Beñat Oihartzabalen sarrera dela eta batzar irekia. Goizeko 10 t'erdietan bildu dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, J.M. Satrustegi, J.A. Arana Martija, P. Charriton,

J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; G. Alfaro, P. Andiaza-bal, G. Aurrekoetxea, M. Azkarate, R. Badiola, R. Camblong, J. Camino, J.B. Dirassar, A. Eguzkitza, M. Goienetxe, B. Goity, M. Itzaina, X. Kintana, J. Lakarra, D. Landart, J.M. Larrarte, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J.L. Lizundia, J.A. Mujika, L.M. Mujika, G. Rebuschi, A. Sagarna, X. Videgain eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Mahaiburuan eseri da V. Mendiboure, Angeluko auzapeza, eta lehen lerrokadan jaun hauek: Sapéd, Baionako jaun suprefeta; A. Lamassoure, frantses eta eurodiputatu; A. Luberriaga, Azkaingo auzapeza; Aniotzbehete, Sarako auzapeza; J.P. Destrade, kontseilari orokorra; C. Harlouxet eta A. Noblia, Baionako zinegotziak; J. Abeberry, Miarrizteko zinegotzia; Tx. Heguy, Euskal Kultur Era-kundeke zuzendaria eta R. Berriozabal, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko zuzendaria.

Victor Mendiboure herriko auzapezak bere agurra kaskoinez lehendabizi eta frantsesez gero egiten du, bera kaskoin hiztuna baita. Adierazten du Angelu jende hizkuntza desberdinez populatua dela, "ongi etorri" hitzekin amaitzen duelarik.

Arrapostu gisa J. Haritschelhar euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren berri ematen du, nola eta nortzuk sortu zuten euskararen Akademia azalduz. Baita ere Hegoaldean lau Diputazioek 1918an, Espainiako Estatuak 1976an eta harrezkerotik Euskadiko Gobernu eta Nafarroakoak eman diotela ofizialtasuna, Iparraldean ordea, ez Frantziako Estatutik, ez Departamendutik, ez bestengandik ez du horrelako aitopenik jaso. Horrez gain Euskaltzaindiak eskuartean darabiltzan eginkizun nagusiak aipatu ditu.

Jarraian, Arautegiaren 36. artikulua eta Barne Erregelaren 45. artikulua agintzen duena betez, bi euskaltzain joan dira B. Oihartzabalen bila, hain zuzen, J.L. Davant eta J.A. Arana Martija.

Beñat Oihartzabal euskaltzain oso berria sartzen da aretoan eta sarrera hitzaldia egiten du. Hastapenean P. Lafittek berarengan izan zuen eragin berezia azpimarratu du. Mintzaldi sakon batetan aulkidun zendua gogoratzen duelarik ez bere antzinakoa omentzeko bakarrik, ohitura den bezala, baizik eta iker gaitzat ere Jean Hiriart Urrutyren obra hartuz. Elizgizona eta bere herrian errotutako euskaltzalea agertuz alorrik alor, *Herria*, *Gazte*, *Etxea* eta beste zenbait aldizkaritako kronikalariaren hizkuntza eta estiloa zehazki aztertu ditu. Haren familiako beste Hiriart Urruty kazetariarekin gonparaketa ere egin du, belaunaldi eta izakera desberdinetakoak izanik, biok Euskal Herriko tradizioei atxikiak.

Jean Haritschelhar euskaltzainak eman dio erantzuna. Beñat Oihartzabalen bizitza eta batez ere, beronen ikasketa eta ikerlanez xehetasun franko ematen ditu. Parisen sortua izanik, lapurtar jatorrikoa, legegizon egin zen aurreneko eta hizkuntzalari gero, honetan doktoradutza tesi bikaina burutuz. Gramatikari espezializatu dela dio, bereziki sintasian. L. Dassance, lehendabizi, eta J. Hiriart Urruty gero eseritako 16.aulkiaren jabe egin den honek, bere gaztetasunean lan oparoa eskaini diola euskarari eta Euskaltzaindiari, esan du erantzuleak.

Erantzun hitzaldiaren ondotik, denak zutik, J. Haritschelhar euskaltzainburuak euskaltzain-agiria eskuratzen dio eta Erakundearen domina ezarri. Euskal-

tzain berria zoriondu eta, jarraian, gauza bera egiten dute beste mahaipuruko eta gainontzeko euskaltzain oso guztiek.

Angeluko Herriko Kontseilu edo Udalak eskainitako aperitifarekin amaitu da egungo eginkizuna.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi*  
*idazkaria*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko ekainaren 28an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

X. Diharce eta E. Larrek ezin etorria adierazi dute Maiatzeko batzar-agiria onartu da.

### **Euskara Batuko batzardea**

Maiatzeko batzarrean eztabaidatzen hasitako *eritzi/iritzi* formak bateratzeko proposamenarekin jarraitu aurretik, X. Kintanak bidalitako guntun bat ikusi da. Euskaltzain urgazleek aurrez gaien berri jakin gabe erabakiak hartzeko modu hau salatzen du, bere kezka eta kexua azalduz. Urgazleek berez boturik ez badute ere, Arautegiak erabakiei buruz mintzatzeko eskubidea ematen die. Eskuarteko gaietan interesatuak nor diren jakitea da arazoa eta urgazle guztiei gutun bana igortzea erabaki da, nahi dutenei aurkeztuak bidaliko zaizkiela aditzera emanez. Jasotako erantzunen arabera zabalduko dira proposamenak. Buruak osoen batzar- rera dei ditzake hala beharrez.

J.M. Satrustegik egindako idazkia aipatu da gero. Euskarak une honetan nozitzen duen trakeskeria eta joera desegokien uholde beldurgarria ikusita *eritzi/iritzi* eta antzeko gauzatxoek eztabaidan sartu behar ote lukeen Euskaltzaindiak, dio funtsean izkribuak. Behar gorrien ildotik ez baino, maiztasunaren izenean beste nonbaitetik desbideratzen dela eztabaida ikusirik, erretiratu egin du idazkariak bere galdera.

Eguneko gaietan sartuz, *iritzi* hitzaren forma onartzea proposatzen du Euskara Batuko batzardeak, *eritzi* hitza baztertuz. Aditza ere sartzen den erabakian galdetu delarik, ezetz esan da, partizipioa bakarrik sartuz izen bezala. Bozketa egin da gero, batzordearen proposamenari bai ala ez erantzutekotan. A. Irigoien eta F. Krutwig jaunek euron adostasun-eza azaltzeko, ez dute parterik hartu

bozketan. Hamabost dira, horrela, bozkatu duten beste euskaltzainak, eta ondorea hau izan da: 13 *bai*, ez bat, eta *zuri* bat.

*Arabera/arauera* forma bien artean euskara baturako gomendatu behar dena *arabera* dela onartzea, proposatu du batzordeak. Bozketan ez dute berriro ere parterik hartu A. Irigoien eta F. Krutwig jaunek, eta beste hamabost euskaltzainek aho batez onartu dute proposamena.

Aurreko batzarrean onartutako testuari egindako zuzenketak eta estilo orrazketak azaldu ditu P. Salaburuk. Zabalkundearen kezka aipatu da berriro. Argitaratuak diren erabakiekin batera elkartzuz liburuska batean plazaratuko dira oraingo eta gaien zerrenda ekartzekotan gelditu da batzordea. *Euskera* agerkariaren atal eta separata bezala banatuko da.

Euskara Batuko batzordearen izenean gogorki gaitzetsi du P. Salaburuk euskaltzain osoen batzarrean esandakoak egunkarietan argitaratzea.

A. Irigoienek erantzun dio, gauza zientifikoak direla eta bertan usteltzen ez uzteko haiztzea komeni dela.

Gai zientifikoak badira, zergatik batzarreetan azterketa hasi aurretik ez diren aipatzen, esan da; eta batez ere, pertsonen izenak ematea ezin dela inola ere onartu.

Hemengo gauzak hemen behar direla utzi, esan du euskaltzainburuak.

*Bilbao* aldizkarian argitaratutako F. Krutwigen agerpenak ere ez direla egundaino ezeztatu, ez zuzendu, dio E. Knörrek.

Aldizkari berorren geldotasunagatik izan dela, erantzun dio F. Krutwig jaunak, zuzentzeko asmoa ziurtatuz.

## **Euskaltzaindiaren ikurra**

Bulegoetako inpreseria berriztatu behar dela-ta Euskaltzaindiaren ikurra egokitzea proposatu du J.A. Arana Martijak. Logotipoko zuhaitzak hasieratik izan dituen aldaketen bilduma aurkeztu du, orain proposatutako bi irudi berrirekin. Eztabaidan bi iritzi agertu dira: dagoen moduan zuhaitza solterik uztea, edota hasierako ikurrera itzultzea inguruko erronda eta guzti. Euskaltzainen domina era horrelakoa da. 1921ekoa hartu da eredutzat. Bozketan, 8 txartel izan dira hasiera-koaren alde, 5 oraingoa nahiago dutenenak, eta 4 zuri.

## **Kanpo-izendapenak**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailetik hartutako gutun baten bidez, euskarazko literatur lanak sortarazi eta beste hizkuntza batzutura itzultzeko beka emango dituen epaimahai balioemailerako ordezkaria izendatzeko eskaria dago. E. Knörr izendatu da, eta ezinean J.M. Lekuonak ordezkaturiko du.



1992an Luxemburgen egin nahi den Europear Idazleen Kongresurako gomi-ta jaso da. B. Oihartzabal joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsital Eskolan 3. kurtsuko ikasleei bizkaieraz-ko gaitasun-frogak egiteko ordezkari bat eskatzen dute. Gotzon Aurrekoetxea joango da.

1991ko azaroan egitekoa den "Elebiko irakaskuntzako ereduak" izeneko Mintegirako deia jaso da Barcelonako Unibertsitatetik, eta Euskaltzaindiaren ize-nean M. Zalbide bidaltzea onartu da.

### **Eskuartekoak**

Egoitza berriko bibliotekan apalategi tinko eta mugikorren ezartzeko eta argigailuen horniketarako proposamenak jasotzeko epea amaitu dela, esan du J.A. Arana Martijak. Dagokion batzordea bildurik, etxerik ganorazkoenei eta aurre-kontutan iragarritakoa baino merkeago hartu zaizkie. Uztailean egin behar dira lan biak. Denbora berean aldatuko dira etxez liburuak. Mahai, aulki eta beste altzarien konkurtsu iragarpena orain egingo da eta uztailaren azken aldera amai-tuko da eskaintzak egiteko epea, irailaren erdi alderako amaitzeko moduan. Bidriera bi bakarrik ezarriko dira azkenean.

Gortina eta antzeko apaingarriak konkurtsurik gabe hitzartuko dira.

Iruñeko Udal Ikastolan ez dituzte hartu eskaria egina zuten haur guztiak eta gurasoak kalera atera dira tokia eskatzen. Bestalde, Maribel Beriain zinegotziak bideratuak ziren haur euskaldunen oporraldiak baztertu ditu kargua hartu bezain laster. Jagon Sailak gutun bat idatziko dio.

Ermuko Udalean egindako euskal itzulpen txarren salaketa egin zaio Euskal-tzaindiari. Hori ez da euskara, noski. Udalak ez zuen bere aldetik izendapena egitean epaimahairako Euskaltzaindiaren ordezkariarik eskatu.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

### **BATZAR OROKORRA**

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan 1991.eko ekainaren 28an, arratsal-deko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M.<sup>a</sup> Lekuona buruor-dea, J.M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkaria, J.A. Arana diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, B. Oyhartzabal, F. Ondarra, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzain osoak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa, J.A. Arkotxa, R. Badiola, F. Esnal, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

Goizeko bilkuraren berri ematen du J.M. Satrustegi idazkariak, gai azpima-rragarriak hauek direlarik: Euskara Batuko batzordearen proposamen bi onartu dira: *eritzi/iritziren artean iritzi* hobestea, *arauera/arabera* formen artean *arabera*.

Euskara Batuko batzordearen proposamen en berri jakitea nahiko lukeen edozein urgazleri gonbidatzen zaio; Euskaltzaindiaren egoitza berrira joatea dela-ta Erakundearen ikur, logotipo eta inpreseria berriztatzea, sorrerako eredu hartuz; zenbait izendapen egin dira: Bizkaiko Unibertsital Irakaslegoaren Eskolarako eta Eusko Jaurilaritzako literatur lanen sorketa bekatarako, epaimahaikideak; Luxemburgen izango den Europako Idazleen eta elebidun irakaskuntzari buruzko Barcelonako biltzarretarako ordezkariak.

Onomastika batzordearen bezperako bilkuraren azalpena egin du J.L. Lizundia batzorde-idazkariak, bertan lehen Onomastika Jardunaldien liburua aurkeztuz gain, gai nagusi hauek tratatu zirelarik: ponte-izen eta historikoen azterketarako lan talde bat sortzea, munduko leku-izen eta exonimoen azterketarako beste bat, deituei buruzko langintza eta bekez, Nafarroako toponimia-bilketen dudak eztabaidatzea, Hernaniko udalbarrutiko toponimia bilketari gainbegirada eta beste zenbait gai labur.

*Fr. Migelek darabiltzan zenbait hitzez.* Hamazortzigarren mendearen hondarretan idatziriko sermoi batzuen bilketatik atera ditu oharrok F. Ondarra euskaltzainak. Sermoiok Fr. Migel karmeldarrarenak direla adierazi du Ondarra jaunak. Sermoiotako testu-iruzkina egin du txostengileak zenbait hitz (*antzina, atzerabide, eguipidia,...*) eta aditzei buruz (*erantsi, irauntsi, eretxi...*) xehetasunak eskainirik. Berauetaz hainbat adibide eman ditu. Azkenik, zenbait euskaltzain eta urgazlek itaun batzuk egin eztabaida aberasgarria eman dute.

*La notion d'âge dans le terme "ami" en basque et en tcherkesse* eta *A propos de'un ancien nom du vaurien en japonais* izeneko Michel Morvan jaunaren txosten labur bi irakurtzen ditu J. Haritschelhar euskaltzainburuak. Lehendabizikoan egileak euskarari *adin* eta *adiskide* hitzek eta Iparmendebal Kaukasiako txerkese-razko nozio berdinekoak erro eta atzizki antzerakoak dituztela dio, gisa bereko eratorpenez. Bigarreanean, japoniera zaharreko ezezkotasuna, euskararekikoarekin parekide dela aipatzen du.

Azkenik euskaltzain ohorezko berriei diploma banatzea edo aipamena egiten da. Yu. VI. Zytsar' Georgian bizi baita bertara igorri zaiola aditzera ematen da; Rudolf de Rijk jaunak telegrama bat bidaliz bere ezin etorria adierazten du Kaliforniatik, esker onezko gutun bat ere igorri zuelarik holandar euskalari honek; J.M. Jimeno Juriari, J.M. Satrustegi idazkariak eraman dio euskaltzain ohorezko diploma, Iruñeko ospitalean bait dago; laugarren euskaltzain ohorezkoari, Jon Etxaide jaunari, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak ematen dio diploma, berak euskararen alde egin dituen ahalegin, idatzi eta ikerketak azpimarratuz eta bilduen txalo beroak jasoz.

Horrela, amaitutzat ematen da bilkura.

*Jean Haritschelhar*  
euskaltzainburua

*J.M. Satrustegi*  
idazkaria

1991.VII.26

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko uztailaren 26an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, X. Diharce, P. Charritton, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; hala nola J.L. Lizundia idazkariordea, R. Badiola argitarapenen-eragilea eta J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, urgazleak.

J.L. Davant, E. Knörr eta Tx. Peillen jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ekaineko batzar-agiria onartu da.

### **Letra larrien erabileraz**

Maiuskulei buruz Euskaltzaindiak hartutako erabakiak direla eta, **HABE/IVAPen** Itzulpen-zerbitzu ofizialeko buru den Eneko Oregi jaunaren gutuna jaso da, zenbait argibide eskatuz. Labur erantzunez:

a) *Autonomia Elkarte*a izen ofiziala denez, maiuskulekin idatziko da. Galde-  
ra hau c) atalarekin loturik dago. Erakundeen izenei dagokienez, alegia, izen ofizialak letra larriekin idatziko dira, hala nola *Eusko Jaurjaritza* eta *Nafarroako Gobernua*. Izen ofizialak ez badira, letra xenekin: euskal gobernua, Nafarroako jaurjaritza edo gobernu nafarra.

b) *Ararteko* hitza pertsonari dagokion kargu izena da, eta izen propioaren ondoan minuskularekin idatzi behar da, alkate, ministrari, errege, e.a. kasu horretan idatzi ohi diren bezala.

c) Singularra nahiz plurala izan, generikoa bada minuskulaz idaztea gomendatzen da.

d) Hitz elkartuen araurik ez da eman une honetan, ikergai den beste alor bateko arazoa delako. Dagokion batzordea lanean ari da eta bere garaian emango da ondoreen berri. Nola nahi ere, gutunean aipatutako *Legebiltzara* hitz batean eman ohi da gehien bat, eta horrela idazten jarraitzea da elkargo honen gomendioa.

*Eguberri* baina *Besta Berri*, aipatzen da atal horretan bertan. Hitz-elkarketen arazoa alde batera utziz, bi horietan batak ez du bestea lotzen, *Eguberri* tradizio oso zaharrean oinarritutakoa baita.

e) Lege-testuetan nahiz bestelako edozein izenetan, hitz elkartuak marra-txoarekin joan ala gabe, izen propioak badira maiuskulekin joango dira, hala nola *Langile-Batzordeak* (Erdarazko CC.OO. esateko), *Lege-Dekretua*, e.a.; bestela minuskulekin: *kultura-batzordea*, generikoa baita.

### **Euskara Batuko batzordea**

Zuzendaritzan ikusitakoaren arabera, Euskara Batuko batzordearen lana aurre-ramateko prozedura finkatu beharraren kezka agertu du euskaltzainburuak. Erabakigaiak sailkatu eta plangintza baten barnean hemendik bi urtera egitekoa den kongresurako prestatzen joatea da asmoa. Urgazleen eskaria ere hor dago eta harremanak bideratu behar dira.

P. Salaburuk erantzun dio, badagoela hasieran egindako plangintza bat, idazkera, morfologia, ebakera eta hiztegi-gintza kontutan hartzen dituenak. Une honetan errazena diren puntuetatik abiatu badira ere, zailtasun gehiagoko arazoak badituztela aurrean eta gaien zerrenda irekia dela, sor daitezkeen beste batzuk gehitzeko. Batzordeak proposaturiko erabakigaiak eta bakoitzak leharzkeenak maila berean eztabaidatu behar diren, galdetu dute gero. Orain arte lanean ari diren batzordeetan kanpokoak ez dutela parterik hartzen, eta zergatik hemen bai, izan da beste kezka bat.

A. Irigoienek dio berari iritzia eskatu izan zaiola, eta batzordeak itxiak izatea ez dela ona. Jardunaldiak, bestalde, irekitasun osoz egiten dira eta ohar guziak jasota aurkeztu ohi dira erabakigaiak.

Euskara Batuko batzordearen egitasmoak azalduz gutun bat irakurri zela bere egunean, dio P. Altunak, eta erantzun zitzaiola batzarrean. Euskaltzainburuak orain atzera egin duelako beldurra agertzera eman du.

J.M. Satrustegik erantzun dio, atzera ez baina aurrerapausu bat ematea dela euskaltzainburuak proposaturiko prozedura zehaztea.

Gaia bideratuz, hiru dira prozedurari buruz onartutako abiapuntuak:

a) Hileroko batzarretan onartutako araei dagokienez, gomendioak direla esan da, jardunaldietan ikusi eta gero Euskaltzaindiak erabakiko dituenak.

b) Besteren partaidetza lanaren gehiegizko luzapenik gabe ikusteko bidea, honela mugatuko da: Hileroko batzarrean aurkeztuko da batzordearen proposamena eta berehala banatuko zaie joan ez diren euskaltzainei eta interesatu diren urgazleei. Hurrengo hilaren 20a baino lehen igortzen ahalko dira bakoitzaren oharrak Bilboko egoitzara eta handik helaraziko zaizkie batzordekideei. Horrela hurrengo batzarrean eztabaida daiteke proposatutako gaia. Oharren bat interesgarria gerta baledi, eskubidea du batzordeak egileari dei egiteko eta, hala balegokio, txostena berari eskatzeko.

c) Arantzazuko kongresuaren hogeitabostgarren urteburuko Jardunaldiak izango dira, azken finean, aurrelan guzti honen helburua.

Egungo batzarrean banatu diren bi orriekin hasiko da horrela egiten.

A. Irigoienek, bere aldetik, txosten bat banatu du ekainaren 28an Euskaltzaindiak *arabera/arauera* formei buruz egindako adierazpenaren aurkako arrazoiak azalduz.

### **Kanpo-izendapena**

“Scripta Manent” izeneko kongresua antolatu dute datorren urteko irailerako Frisian hizkuntza ttipituetakoa liburuen sorketa, argitarapen eta zabalkundeaz aritzeko. Bertara joateko gomita jaso da. J.A. Arana Martija eta J.M. Torrealdai izendatu dira.

### **Burtsa-hiztegia**

E. Erkiaga, G. Ansola eta X. Gereño jaunek bidali dituzte burtsa-hiztegiari buruz eskatu zitzaizkien itzulpenak. J.A. Arana Martijak dio, abuztuaren 26an bilduko dela bera hiruekin eta oharrik egin nahi duenak aurretik egin beza. Desberdintasunak bateratu ondoren zerrenda batua ekarriko zaio Euskaltzaindiari azken begiratua emateko.

### **Eskuartekoak**

Zuzendaritzak ohi duenez Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusi berria agurtu du batzarrea hasi aurretik, hil honen 11an J.A. Pradera jaunarekin egin zuen bezala.

Urriari Bilbon egingo diren Nazioarteko Dialektologia Biltzarren aurkezpena egin dela Iruñean UEUaren ekintzen artean, esan du J.M. Satrustegik. Kazetari asko egon zen eta egunkarien mozkinak banatu ditu. Ekainaren 18an egin zela Baionan gogoratu du euskaltzainburuak.

Diruzainak datorren urteko aurrekontua aurkeztu du eta onartua izan da.

A. Garatek gutun baten bidez judaierak euskaran izan duen eragina aztertzea proposatu du 1992ko ospakizunak kontutan izanik.

Urriko batzarrea 21ean izango dela aditzera eman du euskaltzainburuak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

## **BATZAR OROKORRA**

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1991.eko uztailaren 26an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, X. Di-

harce, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J.M. Aranalde, X. Aranburu, J.A. Arkotxa, R. Badiola, X. Kintana, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, M.M. Ruiz Urrestarazu, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute: J.L. Davant, E. Knörr eta Tx. Peillen euskaltzainek.

Goizeko bilkuraren berri eman du J.M. Satrustegi idazkariak, gairik azpimaragarrienak hauek izanik: HAEE/IVAPeko itzulpen zerbitzu ofizialeko buruaren eskariz letra larrien erabileraz zenbait puntu hobeki zehaztu dira; Euskara Batuko batzordearen lan prozedura finkatu da; burtsa-hiztegiak izendaturiko batzordeñoaren lana ezagutu da; Frisian, 1992an egingo den hizkuntza ttipietako liburgintzari buruzko nazioarteko konferentziarako ordezkari Jose Antonio Arana Martija eta Juan Mari Torrealdei izendatu dira; egoitza berriaren horniketakoen enkantearen albisteak eman da; 1992ko aurrekontuen egitasmoa aurkeztu eta onartu da.

Dagozkien batzordeen sailean, Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren prentsaurreko eta aurkezpena Iruñeko Udako Euskal Unibertsitatean, joan den asteazkenean, emandakoaren berri eman du J.M. Satrustegi idazkari eta Nafarroako ordezkari denak. Lehenago Baionan egindakoa ere aipatu da, bide batez.

“Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan” izeneko txostena irakurtzen du J. San Martin euskaltzainak. Hirurogeitamabi orritako txosten mardularen zertzeladarik aipagarrienak azaltzen edo irakurtzen ditu. Atzizkien zerrenda, 1373an hasi eta etxe-izenen dokumentu iturriak urtez urtezko aipamenekin, aldakuntzen erakusgarriak, bibliografia eta “Repertorio de casas de Elgueta” deritzan eranskina izeneko sailetan bana daiteke txostena. Bestalde, udalbarruti barnean 1928rarte zeuden Angiozak eta Ubera ere aintzakotzat hartzen ditu, oraingo Elgeta murriztuaz gain. Lanean etxe bakoitzak agiri edo lekukotasun desberdinetan izan dituen aldakuntzak ere agertzen dira.

Jarraian bilduen artetik galdera eta iritzi ugariri erantzun zehatzak ematen ahalegindu da txostengilea, eztabaida akademiko aberasgarri bat sortzen delarik.

Eta besterik gabe, oporraldi on batzuk opatuz, amaitutzat ematen du bilkura euskaltzainburuak.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi*  
*idazkaria*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko irailaren 27an bildu dira euskaltzain osoak hileroko batzarrea egiteko. Goizeko hamarretan eta erdietan honako jaun hauek etorri dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariordea eta J.J. Zearreta Ekonomi-eragilea, urgazleak.

X. Diharce jaunak ezin etorria adierazi du.

Uztaileko batzar-agiria onartu da.

Aita Lino Akesolo euskaltzain urgazlearen hil-berria eman du euskaltzainburuak. Patxi Uribarrenek egingo du hurrengo batean bere merezimenduen aipamena.

## **Burtsa-hiztegia**

Burtsa-hiztegiari buruz batzordeñoako lau partaideek egindako proposamenak aurkeztu ditu elkarrekin parekatuz J.A. Arana Martija arduradunak. Zerrenda horietako hitzak izenburu bezala ontzat eman arren, izen sintagma mailan nola erabili behar diren ez dela esaten, aditzera eman du P. Salaburu jaunak. Euskaltzaindiak ezin ditu izen guztiak berrikusi, hitz batzuen esanahia ezagutzen ez duelako, besteak beste. Batzordeñoak espezialista batekin denon iritziak bateratzea eskatu du batzarreak, eta beraien ustez duda-mudakoak diren hitzak ikusiko dira euskaltzainen artean.

Batzordeñoa bildu aurretik bilduma honen kopia bidaliko diola bakoitzari, esan du J.A. Arana Martijak.

Hiztegigintzako batzordeen izenean jardunaldi batzuk egitea proposatu du I. Sarasolak. Hiru lantalde dira programa desberdinekin hiztegigintza lanetan ari direnak, OEH, EEBS eta LEF, alegia, eta gai batzuk lantzea merezi lukeela, euskal hitz-altxorrari dagozkion puntuetan zenbait erabaki hartzen ari denez Euskaltzaindia. Erakunde batek edo bestek eskatutako hitz-zerrende banaka edo

multzoka erantzuten jarraitzeak eragozpenak sor ditzakeela batzordeen proposamenak zertan diren jakin gabe.

Arazoaren 28an bildu eta egun osoa gai hauentzat ematea onartu da. Biharamonean egingo da hileroko batzarrea.

### **Euskara Batuko batzardea**

Idazkitan lerroz aldatzean marratxoan erabilera zehazten duen proposamena aurkeztu du Euskara Batuko batzardeak. Hiru gutun jaso dira oharrekin. Batzardearen ekintzan interesatuak direla erantzun dutenen izenak ere aipatu dira eta proposamenak bidaliko zaizkie euskaltzainei bezala.

Egungo erabakigaiari dagokionez, hitz-elkartuen arazoa ez da ukitzen LEF batzardearen ondorio eta erabakigaiak ez baldintzatzeko. Proposamena eztabaidatu ondoren, lerro amaierako hitzak morfemak ez baino silabak banatzea gomendatzen du Euskaltzaindiak.

### **Egoitza eta ikurra**

Bilboko egoitzako lanen berri eman du J.A. Arana Martijak. Altxariak jarrita egongo omen dira Biltzarra hasiko den urriaren 21erako. Liburuak ere aldatu-rik daudela dio, eta telefonoari buruz, 4158371 zenbakiduna ezarria da oraingoz egoitzan.

Ekaineko batzarrean hartutako erabakiaren ildotik, 1921eko ikurra egokitu du David Abajo jaunak aurrerantzean Euskaltzaindiaren logotipo ofiziala izan dadin. Apainketa guztien berri eman du inprimaki bakoitzaren ereduak azalduz Guezalaren diseinu zaharrak hobekuntza nabarmena lortu du jatorrizko itxura aldatu gabe. Batzarreak ontzat eman du aurkezlearen lana.

### **Eskuartekoak**

Eusko Jaurlearitzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro saileko Arkitektura zuzendaria den Juan Ignazio Lasagabaster jaunak bere arloko hiztegi eta datuen altxor informatizatu baten beharra agertzen du gutun baten bidez.

E. Knörr jaunak erantzun dio, baina informazioaren gehigarri, duela zenbait urte Euskaltzaindiak bildutako etxegintza-hiztegiaren berri ematea erabaki da.

Juduak Espainiatik lekutuak izan zireneko V. mendeurren honetan, semitismoak hebraieraren aldetik nahiz arabierarenetik euskarari izandako eragina azterteaz proposatzen du Alberto Garatek idazki baten bidez. Euskaltzaindiaren egitekoa baino gehiago, tesi lana dela esan da. Horrela erantzungo zaio A. Garate jaunari.



Barcelonako Unibertsitateak eleanizdun herri eta estatuei buruzko simposiuma iragarri du “Estat i població plurilingüe” izenburuarekin, datorren abendura-ko. I. Sarasola izendatu du Euskaltzaindiak bere ordezkari.

Amerikara iristearen V. mendeurreneko ekintzen barnean Terminologiari buruzko III. Simposiuma egin gogo da 1992ko azaroan, Palma de Mallorca-n, eta ohorezko batzordean agertzeko gomita bidali diote euskaltzainburuari. Onartzen duela erantzungo zaie antolatzaileei.

“Association Internationale d'Études Occitanes” izeneko elkarteak hizkuntza horri buruzko IV. Kongresua egin nahi du Gasteizen 1993ko abuztuan, eta Euskaltzaindiaren babes zientifiko eta morala eskatzen du.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

### BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1991.eko irailaren 27an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoien, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzainak; J.A. Arkotxa, R. Badiola, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak, P. Uribarren jaunak Lino Akesolo Olibares euskaltzain urgazlearen heriotzearen albistearen ematen duen gutuna irakurriz hasten du batzarrea, euskal lanentzat izan den galera aitortuz eta azpimarratuz. P. Uribarren bera izendatzen da hurrengo bilkura batetan urgazle zendu berriari buruzko hil-berri txostena egiteko.

#### Goizeko bilkuraren berri.

J.M. Satrustegi idazkariak goizeko bilkuraren laburpena ematen du, gai hauek azpimarra daitezkeelarik: Burtsa-hiztegiari buruz, horretarako izendaturiko batzordearen emaitza aztertu da; Euskara Batuko batzordeak aurkeztutako “marra-txoak lerroz aldatzea nola idatzi behar den” gomendio-araua onartu da; Eusko Jaurlaritzako Arkitektura zuzendariak Etxegintza Hiztegiaren proposamena ikusi da, arkitekturakoa landu zela aditzera emanez; semitismoak euskarari ikertzeari buruzko proposamenaz hitz egin da; Euskaltzaindiaren logotipo berria zehaztu eta onartu da; azkenik, zenbait simposium eta kongresuren albiste eman da.

J.A. Arana Martija eta J.L. Lizundiak, Bilboko Plaza Barrian, urriaren 21ean, egoitza inauguratuko dela eta argitasun zenbait ematen dituzte. Baita ere Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren xehetasunak.

“Fray Juan Ajuriaren idazlanak” izeneko txostena irakurtzen du F. Ondarra euskaltzainak. Txostengileak Juan Ajuria predikariaren zenbait testu aztertu eta ikertu ditu, hala nola, haren bizitza eta lana. Bestalde arakaturiko testuei oharrak egin dizkie eta baita hiztegia, adiztegia eta garaiko hizkuntzaren berezitasunak miatu eta nabarmendu ere.

“Baztango hizkeraz ohar batzuk” izeneko txostena, euskaltzainei dagokion txandakoa hain zuzen, irakurri du P. Salaburu jaunak. Baztan aldean azken urteotan bilduriko zenbait esaera eta hitzen berri eman du. Lekukotasun ugari ageri da hor, euskalki honen ezaugarritzat hartzen direnak. Txosten hau amaitzean, aurrekoan bezalaxe, elkarriketa aberasgarria izan dute batzarkideek.

Eta besterik gabe amaitzen da arratsaldeko batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*J.M. Satrustegi*  
*idazkaria*

Bilbon, Plaza Barriko egoitza berrian egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea 1991ko urriaren 21ean, goizeko hamarretan. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J.L. Lizundia euskaltzain urgazle idazkariordea.

J.L. Davant, E. Larre eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute.

Euskal Herriko Unibertsitatean iragan-berri diren hauteskundeetan erreko-reordetza lortu duten P. Salaburu eta P. Goenaga zoriendu ditu euskaltzainburuak.

Egoitza berrian sartzean, Euskaltzaindiaren poza eta esker-ona aitortu ditu J. Haritschelhar jaunak. Azken batzarreko agiria onartu da.

### **Euskara Batuaren batzardea**

Euskaltzaindiak ordinalai buruz 1971an onartutako puntu nagusiak laburki bilduz hasi du bere proposamen-txostena Euskara Batuko Batzardeak. Bete izan ez diren zenbait gauza aipatzen ditu gero. A. Irigoien eta X. Kintanak euren oharrak egin dizkiote idatziz batzardearen proposamenari. Irigoien ustez, artikularen eta deklinabidearen markak marra baten bidez ipini behar lirateke, *Alfonso III-ak*, *-ari*, bezala. Numero arabiarretan, ordea, puntu batez ipini daiteke marra-rik erantsi nahi ez balitz, hala nola 3. *kapitulu*a. Zilegi dela, bestalde, 1.<sup>a</sup>, 3.<sup>a</sup> eta horrelakoak ipintzea, hala nola 5<sup>a</sup>, 6<sup>a</sup> alea eta abar. Jokabidea bateratu nahi dugun ala ez, erantzun dio P. Altunak.

X. Kintana ados dator batzardearen proposamenarekin, baina ez du ikusten erromatar zenbakiekin ere *garren* horren ordez puntua ipini behar den, inguruko hizkuntzek ez dutelarik erabiltzen. Euskaraz irakurketa nahasten duelako batzuetan esan da, eta batez ere arau orokorraren mesedetan, bereizketarik ez egitea komenigarriago ikusi da.

Eztabaidaren ondoren proposamena egokiturik, erromatarren nahiz arabiarren zenbakien artean bereizketarik egin gabe *garren* hitzaren esanahia adierazte-

ko orain arte erabili diren formen artean, puntu bat ezartzea hobesten du Euskaltzaindiak. Marka honi artikulua nahiz kasuen adierazpena erantsiko zaio, hala behar balitz, edozein sintagmarekin gerta ohi den bezala: *Alfonso II.ak, Karlos V.ari eta abar.*

Esaldi berean bi zenbaki edo gehiago baldin badatoz elkarren ondoan, puntua azkenekoan ezartzea ere aski izan daiteke: *V, VI eta VII. mendeetan.*

Hamasei euskaltzainen artean bozketa egin da, eta hauetako 12 proposamenaren alde azaldu dira; 3 txartel atera ditu beste proposamenak, eta zuri bat egon da.

Gehiengo nagusiaz onartu da beraz erabakia.

### **Kanpo-izendapena**

Euskaraz bozgora ongienik irakurtzen duten eskolaumeentzat Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuak antolatu duen Abelino Barriola sarirako ordezkaria izendatzea eskatzen zaio, gutun baten bidez, Euskaltzaindiari. P. Altuna joango da, eta ezinean Miren Azkaratek ordezkatu du.

### **Eskuarteko gaiak**

Iragan asteko urriaren 18an L.L. Bonaparteren idazlanen bilduma aurkeztu zela Iberdrolaren Bilboko bulegoetan, aditzera eman du euskaltzainburuak. Argitarapen hau prestatzen egindako lan haundiagatik zoriondu du J.A. Arana Martija.

### **ETXE-SARTZE ofiziala**

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria Jose Antonio Ardanza eta Nafarroako Gobernuko burua Juan Kruz Alli jaunak iritsi orduko eman zaio hasiera, eguerdiko hamabietan, Plaza Barriko egoitzaren mustutze edo inaugurazioari. Behereko aretoan egin da ospakizuna eta mahaiburuan eseri dira aipatutako bi agintari nagusiekin, J. Haritschelhar euskaltzainburua, Josu Ortuondo Bilboko alkatea, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Aldundiko Kultura diputatua, J.A. Pradera diputatu nagusiaren orde, Alberto Ansola eta Eli Galdos, Araba eta Gipuzkoako diputatu nagusiak. Jarleku berezietan, bestalde, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Kultura Sail eta Euskara Zerbitzutako arduradunekin batera hiru Diputazioetako ordezkariak eta Luis Maria Larrea Bilboko gotzaia egon dira.

Unibertsitateetako eta euskal kultur elkarte nagusietako partaideekin batera Euskal Herriko alderdi politiko gehienetako burukideak ere etorri dira.

Hasieran esan direnez bestalde, E. Erkiaga euskaltzaina, J. Allières eta J. Bilbao euskaltzain ohorezkoak eta urgazle hauek aipa ditzakegu: X. Aranburu, P.

Arregi, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, F. Barrenengoa, J. Berrojalbiz, R. Camblong, A. Eguzkitza, A.M. Etxaide, J.A. Etxebarria, Juan Manuel Etxebarria, K. Etxenagusia, X. Gereño, P. Goenaga, J.L. Goikoetxea, J. Intxausti, A. Iñigo, J.M. Iriondo, X. Kintana, D. Landart, M.P. Lasarte, A. Muniategi, J. Oleaga, J.A. Retolaza, K. Rotaetxe, M. Ruiz Urrestarazu, I. Segurola, P. Uribarren, P. Urkizu, Andres Urrutia, X. Videgain eta J.J. Zearreta.

Josu Ortuondo Bilboko alkateak ongiatorria eman die batzartuei.

Euskaltzainburuak gero, egun haundia dela Euskaltzaindiarentzat esanez, duela berrogeita hamabost urte Jose Antonio Agirre lehendakariak Azkue zenari hitzemandako egoitza gogoratu du, hitz hura gaur bete dela aitortuz. Bide luze horretan eskaintza gauzatzen ahalegindu diren agintariak aipatu ditu denei eskerrik beroenak eman dizkielarik. Zor haundi hau ordaintzeko ez du lana beste ondasunik Euskaltzaindiak, eta lanaren bidez burutuko duela bere eginkizuna, hitzeman du.

Tomas Uribeetxebarria Kulturako diputatuak bere aldetik, J.A. Pradera diputatu nagusia atzerrian dela esan du, eta atsegin duela garrantzi honetako eginkizunean berak ordezkatzea. Gainditu behar izandako oztopo eta zailtasunak atzean utzirik, hizkuntzak uztartzen duela gizarte bat, esan du, eta euskarak beteko duela gure artean eginkizun hau.

Juan Kruz Alli Nafarroako Gobernuak buruak bere txostenean Euskaltzaindiarekin sorreratik Nafarroak izandako lotura, eten gabe emandako babesa eta dirulaguntza, hala nola lurralde hartan egindako ekintza akademiko eta jardunaldiak aipatu ditu, horrela jarraitzeko xedea azalduz. Zorixarrez euskara politikaz kutsaturik datorkigula aspalditik bere kaltetan, esan du, kultura altxorreko herrien nortasun- agiri eta berezitasun nagusia delarik hizkuntza. Akats hori gainditu beharra ikusten du, eta mintzaira zahar hau zaintzen duen elkargoak alderdi politiko guztien laguntza merezi duela, aitortu du.

Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak egun honen garrantzia aipatu du bertan burutzen diren urrats guziak kontuan izanik, eta behar den dirulaguntza eta babesa eskaini dizkio gerora ere Euskaltzaindiari, honako bi eskariotan erantzun tinkoa finkatuz: Euskal Herri osoko erakundea denez, euskara guztien ondareztat hartzen lagundu behar die herritar guztiei, alderdikeriak eta taldekeriak baztertuz. Eta jakina, Euskaltzaindiak, bereziki, hizkuntzari dagozkion arazoetan jakin behar du zentzuz eta batasunez jokatzeko, norberaren uste eta iritziei amore emanez, hizkuntza gaurko premietara moldatu behar duen akademia bati dagokion gisara lan eginez. Bigarren oharra lanen bizkortasunari dago, ez geroko gerora atzeratuz, lan moldeak astindu eta hartutako eginkizunak epe barruan burutzen saiatuz. Hitz batez, Euskal Herriak duen presa azaldu du eta molde berberaz erantzutea eskatu dio Euskaltzaindiari.

### **Dialektologia Biltzarra**

Jarraian, Nazioarteko Dialektologia Biltzarrari hasiera eman zaio J.A. Arana Martijaren "Bonaparte, Europako dialektologia eta euskalkiak" izeneko hitzaldiarekin.

Bigarren hitzaldia Wolfgang Viereck, Bamberg Unibertsitateko irakaslearena izan da, "Prince Louis Lucien Bonaparte and English Dialectology" gaitzat harturik.

Batzargela nagusian, azkenik, egungo gertakizunen zilarrezko domina banatu zaie agintariei, J.M. Makua Bizkaiko diputatu nagusi ohiaren alarguntsari eta duela hamaika urteko "Bai euskarari" kanpainaren antolatzaileei.

Eta horrela amaitu dira goiz honetako ospakizunak.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*J.M. Satrustegi*  
*idazkaria*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko azaroaren 29an egin dute euskaltzain osoek hileroko euron batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; hala nola J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

P. Altunak ezin etorria adierazi du.

J.P. Hiratchet euskaltzain ohorezkoaren hil-berria eman du J. Haritschelhar-ek, E. Larrek egingo duelarik beste batzar batean merezimenduen aipamena.

J.M. Lekuonak "Euskadi" poesia saria ukan du, eta Iñaki Eizmendi "Basarrik" Euskal Letrena. Goresmenak eman zaizkie bie.

Iragan urrian egindako Dialektologia Biltzarra dela-ta jasotako ikerleen esker onezko gutunak aipatu ditu euskaltzainburuak, goraki aitortzen bait dute bost egun haietan aurkeztu ziren lanen maila ona.

Urriko batzar-agiria onartu da.

## **Burtsa-hiztegia**

Berriro Burtsa-hiztegia aurkeztu du J.A. Arana Martijak, dagokion batzorde-ñoaren izenean. Zalantzazko zenbait puntu banan-banan aztertu ondoren, begi onez ikusten da azkenean zerrenda hori, eta *Euskera* agerkarian argitaratuko da.

Bezperan Hiztegitantzako batzordeak bere kezka arrazoituak azaldu zituen horrelako zerrendei buruz Laurgainen, Euskaltzaindiaren egitekoa den galdetuz. Orain arte onartutako hiztegi bereziak profesionalek nahiz beste lantalde batzuek egindako lanei legezko begiratu emateko etorri izan dira. Aurrerantzean ere, itzulpenarekin datozen zerrendak bakarrik ikusiko ditu Euskaltzaindiak, ez erdaraz soilik eginak, eta dagozkien batzordeen esku utziko ditu. Batzordearen iritzia jasota emango dio bere onarpena.

## Hiztegi gintza

Atzo Laurgainen egun osoko jardunaldian aditzera eman zenez, baliotsua da orain arte egindako hiztegi hiritartuaren bilketa, eta altxorra zazpi giltzaz itxitako kutxan gordetzekotan, alferrik egindako lana gerta daiteke. Bere mozkina atera nahi bazaio, datozen bost urteotan zehar lortu beharreko helburu garrantzitsu bat OEH eta EEBS ekintzetako corpus informatizatuak ustiatzeko moduan jartzea izango da. Hori dela eta aho batez onartu dira batzorde arduradunek aurkeztutako proposamen hauek: 1.Euskera batuko hiztegiaren batzordea sortzea. 2.OEH eta EEBSren corpusekin *Euskararen datu-base lexikografikoa* aurrera eramatea. 3.Datozen bost urteetan euskara baturako hitz-zerrenda moldatzeko asmoa bideratzea.

Bildumari buruz bere zalantzak dituela, esan du I. Sarasolak eta, hiztegi horren beharra ukatu gabe, beste bide bat balegokeela. Proiektu desberdinak Hiztegi gintza batzordearen barnean bateratzea eskatu zaie.

## Bilboko aretoaren erabilpena

Egoitza berriko aretoa euskara ez den beste zerbaitetarako erabiltzeko eskari bat etorri zaio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak ezetza eman dio, noski, baina azkena izango ez delakoan, aretoaren erabilpenerako arautegi bereziaren beharra ikusten du Zuzendaritzak. Lehen zirriborro bat aurkeztu du J.A. Arana Martijak eta banan-banan irakurri dira puntu guztiak. Eztabaidatu ondoren, bakoitzak lekarzkeen oharrak ikusita onartuko da bere egunean.

Ekintzen iragarpenari buruz, euskara ere erabili behar dela, aditzera emango da, arau onartuen arabera idatzirik eta Euskaltzaindiaren onikusia izango duelarik.

## Eskuarteko gaiak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik datorren idazki baten arabera, Euskal Herriko herri erakundeen barruko errotulazioa normalizatzeko lantaldea sortu nahi da, eta Euskaltzaindiari bere ordezkaria izendatzea eskatzen zaio. Miren Azkarate izango da eta ezinean P. Uribarren joango da.

Emakunde elkarteak bere aldetik, gure Komunitate honetako hizkuntza ofizialeetan sexista izango ez den hizkera erabiltzea bultzatu nahi duela-ta lantaldea sortu nahi du. Euskaltzaindiari ordezkaria izendatzea eskatzen dio eta Pakita Arregi arduratuko da, Miren Azkaratek ordezkatzeko duelarik.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin izenpetutako Hitzarmenari dagokionez P. Salaburu orain errektoreorde delarik, J.A. Arana izango da Euskaltzaindiaren solaskide berria.

Abenduko batzarrea Saran izango dela, oroitarazi du euskaltzainburuak. Hilaren hogeian, goizeko bederatzia eta erdietan hasiko da batzarrea. Arratsaldeko 3etan emango zaie hasiera J.B. Elizanbururen mendeurrenako Jardunaldi, biha-



ramonean jarraituko dutelarik. Ospakizunen eta txostenen egitaraua irakurri du gero.

Lekeitioko Udalak egindako galdera bati erantzunez, *Gurutze Gorria* dela elkartea honen euskarazko izen zuzena, esan du batzarreak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

## BATZAR OROKORRA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1991.eko azaroaren 29an, arratsaldeko 4etan, bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria eta J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola eta L. Villasante euskaltzainak; X. Aranburu, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, A. Iñigo, X. Kintana, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J.A. Loidi, P. Uribarren, A. Urrutia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

### Goizeko bilkuraren berri

J.M. Satrustegi idazkariak goizeko bilkuraren laburpena eman du, gai hauek azpimarra daitezkeelarik: Burtsa-hiztegiaren zerrenda onartu da, guztira 112 hitz hartzen dituena; Euskaltzaindiaren Egoitzaren erabilpenerako arau eta barne prozedurak onartu dira; Gurutze Gorria ala "Gurutz Gorria" galderaz *Gurutze Gorria* hobetsi da; izendapenetan Administrazioako erakunde barne-errotulazioaren normalkuntza lantalderako Euskaltzaindiaren izenean Miren Azkarate izendatu da eta ordeko Patxi Uribarren; Emakunde erakundeak hizkuntza ez sexistari buruzko lantalderako Pakita Arregi eta Miren Azkarate; Euskal Herriko Unibertsitate eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren jarraipen batzordekide, Pello Salaburren orde, Jose Antonio Arana Martija.

### Dagozkien batzordeen azalpena

Euskara Batuko batzordea gaur goizean bildu da, beraren lanekin jarraitzen duelarik. Atzo III. Hiztegegintza Jardunaldiak egin ziren Aia-Laurgainen, bertan euskaltzain eta Hiztegegintzako hiru azpibatzerdeetako kideez gain, zenbait erakundetako kideak ere egon zirelarik. Euskara Batuko hiztegiaren batzordearen sortzea, O.E.H. eta EEBS-ren corpusekin *Euskararen datu-base lexikografikoa* eta datozen bost urteetan euskara batuko hitz-zerrenda moldatzeaz izan ziren han erabilitako gaiak.

Jarraian, Patxi Uribarren jaunak Lino Akesolo euskaltzain urgazle zenduaren bizitza eta lanei buruzko txosten mardul eta zehatza eman du, haren bibliografia eta guzti hurrengo *Eusker*a agerkarian argitaratuko dena.

"Exotoponimoen euskal formaz" izeneko txostena, euskaltzainei dagozkien txandakoa hain zuzen, irakurtzen du Ibon Sarasola jaunak. Lehenengo puntuan bi hautakizun aipatzen ditu: bata, grekozko iturburuari dagozkion eran idazten dutenena eta bestea, hitz arrunten ortografi-sistemaren arauera ematen dituztenena; bigarrenean: literatur tradizioan bertakoan nahiz kanpoko izan, leku-izenak

erabiltzen dituztenena eta hitz arrotzen eta erabiligabeak gertatzen direnena. Hau guztiau kontuan izanda, euskaraz kanpoko izenak nola erabili diren eta erabili beharko liratekeen aztertzen ditu, zenbait adibide emanez. Hirugarren puntuan, eransgarri, kanpoko geografi-izen arruntenak eta adierazi dituen irizpideen arabera nola eman behar liratekeen euskaraz zerrendatzen ditu, guztira 438 izen emanik. Txostengile eta bildutako zenbaiten artean eztabaida interesgarria sortzen da jarraian.

1992rako Euskaltzaindiaren batzar-egutegia izeneko txostena aurkezten du J.L. Lizundia idazkariordeak. Gertakizun nagusi hauek programatu dira: Oihenartean jaiotzako laugarren mendeurrena, Maulen, irailaren 21etik 27ra, bertan hileroko batzarrez gain, aste osoko kongresu gisa, zenbait jardunaldi antolatuko direlarik; II. Herri-Literatura Jardunaldiak, oraingoan narratibari buruz, Donostian martxoaren 26 eta 27an; I. Jagon Sail Jardunaldiak, Egoitzan, maiatzaren 28, 29 eta 30ean; IV. Onomastika Jardunaldiak, Nevadako Unibertsitatean, irailaren 2tik 5era. Euskaltzainburuaren proposamenez, hemendik aurrera hileroko batzarreak honela izatea onartu da: lau Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan; lau Donostian, Foru Diputazioan gehienetan; beste hirurak, Araba, Iparralde eta Nafarroan.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*J.M. Satrustegi*  
*idazkaria*

Elissamburu J.B. zenaren mendeurrenkari Sarako udaletxean, Lapurdin, egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea 1991ko abenduaren 20an, goizeko 9 eta erdietan hasita. Bilbu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charriton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, J.A. Aduriz, M. Azkarate eta A. Sagarna, Hiztegitza batzordekideak, dagozkien gaitan.

F. Krutwig, P. Salaburu eta J. San Martinek ezin etorria adierazi dute.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

J.M. Barandiaran oso gaixorik dagoela jakinik, batzartuen izenean telegrama bat igortzea Ataunera erabaki da.

Espainiako Akademiaren zuzendari izendatu berri den F. Lazaro Carreter jaunari zorionak emango zaizkio.

### **Euskara Batuaren batzardea**

Bi erabakigai aurkeztu ditu batzarrean Euskara Batuko batzardeak: 1) Zenbaki idazkeraz, eta 2) Zenbaki deklinabidez. Zenbakiak letraz idazteko orduan eredu desberdinak erabiltzen direnez, jokabide baturatu baten gomendioa egitea eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Horretarako, dauden desberdintasunak jasotzen ditu txostenak zenbait zehaztapenekin. Zenbaki zerrendako multzo itxura berdinekoak aztertu dira, hala nola bikoiztasun nagusiak, eta orokorrean onartu da txostena. Oharren zuzenketa egin ondoren hurrengo batzarrean ikusiko da erabakiaren testua.

Astirik ezean, beste aldi baterako utzi da bigarren proposamenak dakarren zenbaki deklinabidea eztabaidatzea.

### **Hiztegi batua**

Hiztegitzako batzardearen izenean A. Sagarna mintzatu da *Hiztegi batua* aurrera eramateko plangintza proposatuz. Lanaren xedea aipatu du lehenik, hitz-

zerrendaren edukina, kopurua eta epeak zehaztuz gero. Bost urterako kronograma oinarritzat harturik 25.000 forma bateratu eman daitezke. Aurkeztutako talde desberdinen prozedura erabiliz, batzordea hilean behin bildu eta egun biko saio bakoitzean 500 hitz aztertu behar dira. Batzordean egon daitezkeen pertsonen izenak ere aipatzen dira txostenean Hiztegegintzakoen artetik hartuta. Lanerako irizpideak, hala nola txostenak eztabaidatzeko modua eta Euskaltzaindiari eskainiko zaion erabakigaitza, azaldu ditu gero.

UZEI arduratuko dela informatizazioaz eta horretarako baliabideez, berak bilatuko dituelarik dirulaguntzak. Euskaltzaindiaren kontura izango dira batzordebileren eta jende horren dedikazio gastuak.

Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie txostena prestatu dutenei.

Diruzainak eurekin bilera bat egitea eskatu du Euskaltzaindiari dagokion dirukontua zehazteko.

Batzordeko hautagaiez iritzi batzuk eztabaidatu ondoren, lanaren proposamena ona dela esan du euskaltzainburuak, eta kronograma zehatza. Lehenbait-lehen hastekoa bere ustez.

Hiztegi batuaren batzordea honela izendaturik geratu da: I. Sarasola, M. Zalbide, Iñaki Segurola, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Iparraldeko partaide bat, UZEI lantaldeko lagun bi eta idatzizko oharrak aurkeztera azaldu nahi duten euskaltzain osoak.

Bozketa egin da, beraz, 15 botu atera direlarik proposamenaren alde eta batek eman du zuri. Onarpen orokorra izan du Hiztegi batuaren plangintza honek.

### **Oihenarteren mendeurrena**

Datorren urtean A. Oihenart euskaltzale ospetsua jaino zeneko laugarren mendeurrena dela-ta Euskaltzaindiak Biltzarra egingo du irailean haren bizia eta lanak sakonki aztertzeke asmoz. Bertan jorra litezkeen gaien zerrenda luzea aipatu da, Oihenartek berak landutakoan ildotik. Euskal Herriko unibertsitateei parte hartzeke gomita luzatuko zaie, gogo dutenek ordezkarri bana izenda dezaten eskatuz.

Asmoari ekiteko, dagozkion batzordeak sortu dira. Akademia lanen mailan, J.M. Lekuona buru, P. Altuna, M. Goienetxe, J. Haritschelhar, J. Orpustan, Tx. Peillen eta Euskal Herrian dauden unibertsitateetako ordezkarriak. Antolaki-zun batzorderako izendatu dira, J.L. Davant buru, J.L. Lizundia idazkari, P. Charriton, diruzaintzako ordezkarria eta "Sü Aizea" elkarteko M. Beraxagar jauna.

### **Kanpo-izendapenak**

Eusko Jaurlaritzatik jasotako gutun baten bidez ordezkarri bat izendatzea eskatzen da, "Kale eta errepedeetako seinalizazio eta adierazleen hizkuntzaren azterketa eta normalizazioa" izeneko lantalderako. E. Knörr joango da eta berak ezinean P. Uribarrenek ordezkatuko du.

Errenteriako udalak bi urtetik behin euskararen ikerketa lanetarako iragarri ohi duen “Koldo Mitxelena” sariaren epaimahairako P. Altuna izendatu da.

### **Eskuartekoak**

Egoitza janzkeran egindako gastuen ordaintzeko kreditu bat eskatzeko ahala eman zaio diruzainari.

Baztango Udalak egindako galdera bati erantzunez, izen ofizialetan Udala eta Udaletxea berezi behar direla erantzun zaio, biltokia ala karguan direnen elkargoa aditzera emateko.

Iparraldean euskarak jasaten duen egoera txarra salatu du P. Charriton jaunak. Onarpen ofizialik eza, agertzen hasiak diren iragarkiak ortografia txarrez eginak eta bideseinaleak euskaraz egin beharra, besteak beste. Justizia ministeri-tzari gutun bat idaztea proposatu du.

“Euskara batuaren aspaldiko egoeraz” Bizkaiko euskaltzain eta euskaltzale multzo batek Euskaltzaindiari zuzendutako gutuna jaso da. Beste batzarre batean aztertzeke utzi da.

Eta besterik gabe bukatu da urteko azken batzarrea.

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

*J.M. Satrustegi*  
*idazkaria*



**HERRI-LITERATURAZKO  
I. JARDUNALDIAK**

*Billabona, 1989-V-26/27*





## AURKEZPENA

Kontapoesia gaitzat hartuta eratu zituen Euskaltzaindiak Herri-literaturari buruzko I. jardunaldiak, Herri-literatura azpibatzerdearen bidez eratu ere, Billabonan 1989ko maiatzaren 26an eta 27an, Juan Antonio Ubillosen heriotzearen bigarren mendeurrena zela eta antolatutako ospakizunen barnean.

Guztira, zortzi hitzaldik eta kantaldi batek osatu zituzten I. jardunaldiak. Hona hemen, banan-banan, beren egileen izenekin batera:

1. "Euskal kontapoesiaren bilduma": Antonio Zavala, euskaltzaina eta Herri-literatura azpibatzerdeburua.
2. "Ultimas investigaciones sobre el Romancero catalán": Salvador Rebés, Tarragonako Institutuko irakaslea eta "Poesía catalana" bilduma-taldearen sortzaile eta zuzendaria.
3. "Euskal kontapoesiaren modulu metrikoak Hegoaldeko usuarioan": Juan Mari Lekuona, euskaltzainburuordea eta Literatura batzerdeburua.
4. "Bilingüismo en el Romancero gallego": José Luis Forneiro, "Universidad Complutense"ko "Seminario Menéndez Pidal" delakoaren lankidea.
5. "La música en el Romancero": Joaquín Díaz, Romanceroaren ikerle, musikologo eta Gaztelako herrimusika-biltzaile eta kantaria (honek etortzerik ez eta Jose Antonio Arana Matija euskaltzainak irakurri zuen egileak bidalitako txostena).
6. "Leku eta jendeak XV. mendeko zuberotar eresietan": Txomin Peillen, euskaltzaina eta Pabeko Unibertsitateko irakaslea.
7. "La chanson narrative au Béarn": Roger Larrouy.
8. "La balada vasca y la balada europea: perspectivas de estudio": Antonio Cid, "Universidad Complutense"ko "Seminario Menéndez Pidal" delakoaren kidea.
9. Kantaldia, euskal kontapoesiazko kantaz osatua. Bedaxagar zuberotarrak eta Martikorena nafarrak eskainia.

Hitzaldi horiek hobeto ulertuko dira jardunaldien helburuak kontuan izanda: Herri-literatura bere osoan aztertu eta sakontzea, batez ere bertso-papereen ondoren gutxiago landu eta baztertuxe geratu diren jeneroak arakatuz; euskal Herri-literaturaren esparruan lanean dihardutenen topaleku izatea; beste Herri-literaturak biltzen eta aztertzen ari direnen emaitzez jabetzea, eta haiekin harremanetan jarri eta haiekiko elkarlana bideratzea.

Hain zuzen ere, helburu horien harian ematen ditugu argitara sail honetan I. jardunaldietako hitzaldiak. Eta ildo beretik jarraituko dute urte biz behin eratuko direnekoek ere eta tarte horretan Herri-literatura azpibatzerdean eskura ditzakegun lan eta ikerketek.

Honenbestez, irakurlearen eskuetan uzten dugu lan-sorta berri hau, Euskaltzaindiak beti begi-niniko izan duen Herri-literaturari eskainia. Izango ahal du merezi duen oihartzun eta jarraipenik!

*Herri-literatura azpibatzerdea*  
1991-V-22

## ONGI ETORRIA

*Billabona, 1989-V-25*

*Eduardo Laborde herriko alkatea*

Euskaltzainburu,  
Euskaltzaindikoko partaideok,  
jaun-andreok,  
egunon.

Jardunaldi hauetara etorri zareten guztioi ongi etorria ematen dizuet nire izenean eta Billabonako herriaren izenean.

Duzuen egitarau estu eta luzea ikusirik, oso motz eta labur mintzatu-tuko naiz.

Ohore handia da guretzat, jardunaldi hauek ospatzeko Euskaltzaindiak gure herriaz pentsatu izana. Bestalde, gehienak entzunez bakarrik ezagutzen dugun Erakunde hau jardunaldi hauen bidez gertutik ezagutzeko aukera izango dugu eta horrela zuen lanaz eta eginkizunaz zertxobait gehiago jakin; baita ere Juan Antonio Ubillos idazle billabonatarren lana eta bizitza ezagutzeko aukera ere izango dugu egun hauetan.

Bukatzeko, jardunaldi aberatsak izango dituzuelakotan, eta gure kultur euskaldunaren alde lan baliogarria egingo duzuelakotan, eskerrik asko eta gero arte.



## ULTIMAS INVESTIGACIONES SOBRE EL ROMANCERO CATALAN

Billabona, 26-V-1989

Salvador Rebés

Aunque el propósito de mi intervención sea presentar a vds. las novedades en torno al romancero catalán, es decir, publicaciones recientes, recuperación de patrimonio —encuestas de otro tiempo que ahora salen a la luz—, trabajos de campo, perspectivas de futuro, etc, creo conviene que tengamos a la vista de antemano, y en líneas muy generales, la trayectoria que han seguido los estudios de este género en Catalunya desde sus comienzos, a principios del siglo XIX.

Los primeros recopiladores del romancero catalán fueron hombres de letras. Así, Josep M. Quadrado publica el primer romance catalán de tradición oral moderna, *Don Joan i don Ramon* (1841), en una reseña sobre “Poetas mallorquines” (1). Por aquel entonces, ocioso es decirlo, el gusto romántico ensalzaba la poesía popular —la *Naturpoesie*. Jakob Grimm— una poesía primordial, según defiende el propio Quadrado, cuya gallardía y sencillez originarias permanecieron cubiertas por siglos de artificiosa retórica, “como densas capas que encubren el verdor del primer suelo y le impiden producir en su feraz virginidad (...). Estos cantos populares son los que nos enlazan al espíritu y literatura nacional, como á nuestros hogares los recuerdos de cuna” (2). Y aún manifiesta otra convicción, genuinamente romántica: “Cuando los sabios cierran su entrada a alguna vena de poesía ya perdida dilata esta su corriente sobre la muchedumbre, y lo que no tiene ya voz en la prensa, tiene eco todavía en los cantos populares” (3). Para Josep M. Quadrado, pues, los cantos popula-

---

(1) En *La Palma. Semanario de Historia y Literatura* (Palma de Mallorca, domingo 18 de abril de 1841), 229-234, el romance —pp. 233-234— no lo recogió Quadrado personalmente, sino otro redactor de *La Palma*, Tomàs Aguiló i Forteza, de madò Antonina Canyelles, la nodriza de su primo Marià, Aguiló i Fuster. Véase la relación de Josep M. Quadrado y Tomàs Aguiló con la poesía popular en Josep Massot i Muntaner, *Els mallorquins i la llengua autòctona*, Barcelona: Curial, 1985.

(2) *Art. cit.*, p. 229.

(3) *Ibid.*, p. 233.

res narrativos y líricos son “vena” de la mejor poesía y, como tal, su estudio incumbe de pleno derecho a la literatura.

De tan insólita dignidad se sintió especialmente orgulloso Marià Aguiló: “No es per dir la joyosa sorpresa de veure estampat (...) un cant que m’era tan familiar, eix romanç que sens recort d’haverlo may après, he sabut sempre. No me ’n podia avenir de que la entonada poesia artística hagués gosat fer tan bella rebuda á la popular, que fins llavors encobeia empeguintme á estones d’una inclinació que creya filla de ma ignorancia” (4). Marià Aguiló, el colector más constante de nuestro siglo XIX, no abandonó nunca aquella inclinación juvenil. “Exa poesia anònima i humil, la única capaç de desarmar la crítica y la enveja —escribe— me semblava aposta per tornar á encendre ’l foch de l’amor patri en los cors en que n’hi covás una sola espurna”, anhelo que tuvo la satisfacción de ver realizado más tarde en virtud de la “maravellosa renaxença de la *literatura* catalana” (5), a la cual él mismo contribuyó de forma decisiva como poeta, recopilador de tradiciones orales, lingüista y bibliógrafo (6). En suma, la publicación de este género de tradiciones, “dictades per gent qui no sap *de lletra*, era lo millor memorial de greuges, que un poble entoçonit per sentiment y per necessitat á conservar sa *llengua* materna pogués presentar als fills qui la renegan y á aquells qui ’ns la han bandejada de nostres escoles” (7).

Poco después de conocerse el artículo de *La Palma*, Manuel Milà i Fontanals incluyó en el *Compendio del Arte Poética* (1844) una versión de *La dama d’Aragó*, en lengua catalana. Consciente de su atrevimiento, lo justificaba ante el lector de este modo: “Alguno habrá sin duda que se estrañe que demos aquí cabida á una poesia de tal naturaleza; le contestaremos que aun esperamos ó, por mejor decir, tememos ver el día en

---

(4) Marià Aguiló i Fuster, *Romancer popular de la terra catalana. Cançons feudals cavalleresques*, Barcelona: A. Verdagué, 1893, p. 338.

(5) *Romancer popular...*, pp. XIV-XV i VII; subrayo aquí y en la cita siguiente las expresiones que mejor revelan su orientación literaria.

(6) “Est amor a la llengua me féu oblidar la poesia propia perferme humil sirvent de nostra parla desterrada. De glosador més o menys pretenció, me fiu escrivent y copiador y arpeggador o inventariador de tot lo català, afi d’obrir el camí als altres, y les cançons populars, y el diccionari y els llibres y els goigs y les fulles volants y els manuscrits, tot ho desitjava veure per por d’enganyar als qui havia ponderat nostra riquesa literaria” (Marià Aguiló, “Pròlech” a *Recorts de juveness* [1900], reprod. en *Obra en prosa. Marià Aguiló*, al cuidado de Margalida Tomàs, V. de les illes Balears-Abadia de Montserrat, 1988, p. 36). Conviene saber que Aguiló siempre hizo hincapié en el papel precursor de Josep M. Quadrado y de Pau Piferrer: “El mon nou literari está massa content de si per fer justicia als qui li duen mitg segle de ventatge, yaxó fa que sie menys d’estranyar el silenci ab que rodejan l’obra magna den Piferrer y den Quadrado (...) Pobre Quadrado” (J. A. Gomis, *Mariano Aguiló y la “Renaixença” a través de un epistolario de 266 cartas a Tomàs Forteza (1867-1897)*, Barcelona: Balmes, 1966, p. 149, carta n.º 246, de 22-1-1892?).

(7) *Romancer popular...*, p. XIV.

que la moda que todo lo invade y todo lo devora se apodere tambien de la inocente poesía de nuestros abuelos” (8). El *Romancero General* de Agustín Durán (1849 y 1851) vino a reafirmar, en efecto, el apego de la generación romántica al romancero. Como decía Rubió i Lluch a propósito de su padre, Joaquim Rubió i Ors, “Lo Gayter del Llobregat”, otro pionero de la Renaixença: “De labios de mi padre he aprendido muchos Romances castellanos, sobre todo de los artísticos. Aquella generación adoraba el Romancero. Todos sabían de memoria los Romances del Cid, y algunos de los fronterizos” (9).

Con estos precedentes, Milà i Fontanals imprime la primera colección catalana de cantos tradicionales (1853) a modo de ilustración del capítulo que dedica a este asunto en *Observaciones sobre la poesía popular* (10). Su reedición, en 1882 —muy aumentada, pese a mantener el discreto título de *Romancerillo*— (11), aporta un rigor crítico desconocido hasta entonces en este género de publicaciones. Apenas es necesario añadir que Milà i Fontanals superó la doctrina romántica, legándonos una visión crítica y moderna de lo tradicional. Pero recordemos que las enseñanzas de Milà no fructificaron precisamente en Catalunya, por lo que la Universidad catalana careció de una escuela tradicionalista propia que perpetuase los estudios filológico-literarios sobre “poesía popular”.

Hay que añadir, por otra parte, que el uso del término “romance” para designar los cantos narrativos catalanes estaba autorizado de forma natural por el prestigio de que disfrutaba en toda Europa el Romancero castellano (la “Iliada sin Homero”) (12). Y así lo adoptan tanto Josep M. Quadrado como dos títulos fundamentales, ya citados: el *Romancerillo*

---

(8) Manuel Milà i Fontanals, *Compendio del Arte Poética, por el licenciado...*, Barcelona: J.M. de Grau, 1844; *vid.* pp. 154-156. No es el único caso de tradición oral moderna recogida por un tratado de preceptiva poética; ya en la reedición de *La Poética* de Ignacio de Luzán (1789) se cita de pasada un estribillo de *La dama y el pastor* (Diego Catalán, J.A. Cid et al., *La dama y el pastor. Romance. Villancico. Glosas*, Madrid: CSMP-Gredos, “Romancero tradicional, X”, 1977-1978, p. 106). Pero en el joven licenciado Milà hay que valorar, como gran novedad, el entusiasmo con que cita.

(9) Citado por Ramón Menéndez Pidal, *Romancero Hispánico. (Hispano-portugués, americano y sefardí). Teoría e historia*, tomo II, Madrid: Espasa-Calpe, Obras Completas de R. M. P., X, 2a. ed., 1968, p. 321, nota 32; corresponde a una carta de Rubió fechada en Sant Boi de Llobregat, 25 de julio de 1923 (Archivo M. Pidal).

(10) *Observaciones sobre la poesía popular, con muestras de romances catalanes inéditos*, Barcelona: N. Ramírez, 1853. Aunque el título genérico de la colección sea “Romancerillo catalan ó muestras de canciones tradicionales” (p. 99), no por ello descuida Milà los materiales líricos, e incluso publica algunos cuentos populares o “rondalles”.

(11) Manuel Milà i Fontanals, *Romancerillo catalan. Canciones tradicionales*, Barcelona: A. Verdager, 1882. Las *Observaciones...* de 1853 ya encabezaban así la antología de textos: “Romancerillo catalan ó muestra de canciones tradicionales” (p. 99).

(12) Sobre la propagación transpirenaica de las voces “romance” y “romancero”, véase R. Menéndez Pidal, *Romancero Hispánico...*, pp. 264-265.

*catalan* de Milà y el *Romancer popular* de Aguiló. El “romancer” seguía siendo “vena de la mejor poesía”.

Sin embargo, en el último tercio del siglo se produjo una mudanza sustancial. Al tiempo que los folkloristas dilataban su círculo de interés más allá de la tradición literaria, fue imponiéndose una nueva visión del género como patrimonio *musical* de los pueblos de habla catalana (13).

Ciertamente, la tendencia literaria no era sorda al encanto de las melodías. Es conocida la inclinación musical de quien pudo haber sido autor de la primera colección catalana de romances tradicionales, Pau Piferrer. Y Aguiló, por su parte, lamentaba amargamente que sus limitaciones personales privasen al *Romancer popular* de melodías, pues: “La fruició que esta lley que musica fa sentir es quasi indefinible. El romanç divorciat de sa tonada pertmes de l' arbre quan li cau sa fulla, mes que la rosa d' olor quan li fuig sa flayre” (14). También Milà admitía que estas poesías “deben oirse auxiliadas del canto, pronunciadas con el robusto y expresivo acento y con las indefinibles inflexiones del habla provincial, y entre el ambiente de la campiña y el estremecimiento de las ramas, ó á los compases de la cuna, ó al rumor de los husos y cabe el ahumado escaño del hogar rústico” (15), por lo que no es extraño que ofreciese, al final del *Romancerillo*, cuarenta y seis melodías, transcritas por Josep Piqué. Aunque, para entonces ya habían aparecido las *Cansons populars de la terra* de Francesc P. Briz.

La nueva orientación arranca, como ya he apuntado, de Francesc P. Briz, “digno maestro en Gay Saber, celoso y fecundo catalanista” (16), persigue avivar en la burguesía catalana el amor al país a través de la música. De ahí que, no conforme con publicar sólo los textos, los acompañe con melodías armonizadas para piano: “Es la primera vegada que 's donan á llum cants populars catalans acompanyats de la música (...). Pera nosaltres, catalans abans que tot, no n' hi havia prou ab estampar la tonada d' aqueixas cansons de modo que sols poguès servir pels mestres de música (...) Nosaltres volém que qualsevol puga, aixís com toca una balada escosessa, tocar las preciosas cansons de nostra estimada terra” (17). Se trata, pues, de encauzar la melomanía del siglo y

---

(13) Véase Llorenç Prats, *El mite de la tradició popular. Els orígens de l'interès per la cultura tradicional a la Catalunya del segle XIX*, Barcelona: Eds. 62, 1988.

(14) *Romancer...* p. XXXI.

(15) *Observaciones...* p. 98.

(16) Como lo califica el propio Milà, *Romancerillo...*, p. XII.

(17) Francesc Pelai Briz, *Cansons de la terra. Cants populars catalans*, vol. I, Barcelona: E. Ferrando Roca, 1866, p. VII. Los restantes volúmenes de esta obra son: II, Barcelona: E. Ferrando Roca, 1867; III, Barcelona: Alvaro Verdaguer, 1871; IV i V, Barcelona-París; Alvaro Verdaguer-Maisonneuve, 1874 i 1877.



su afición al piano en beneficio del sentimiento nacional. En una línea similar, pero con la atención puesta en el canto coral y en la clase obrera, discurría la tarea de Anselm Clavé (1824-1874 (18)). Más tarde, y pensando de nuevo en la sociedad burguesa, vendrán las *Cansons populars catalanas* de Francesc Alió (19), muy bien acogidas por la crítica (20). Lluís Millet afirmaba, por ejemplo, que si “Clavé es el músic representatiu de la primera època del catalanisme, l’Alió es el músic representatiu (...) de la segona època del nostre renaixement artístic. Perquè les cansons de l’Alió varen ésser el toc d’atenció que giraren la vista de la jovenalla de allavors més frisoza d’ideal cap a l’element cansó popular per a fer música nostra” (21).

A la difusión de este ideal, henchido de sentimiento patriótico, contribuyeron en gran medida las agrupaciones corales, particularmente el Orfeó Català, fundado en 1891 por Lluís Millet y Vives Amadeu, discípulos ambos de otra figura excepcional de la música catalana y colector de canciones tradicionales, Felip Pedrell. También hay que recordar la aparición, en los años sucesivos, de numerosos “cançoners populars” de carácter divulgativo, bien en cuadernillos coleccionables o en colecciones populares; por ejemplo, las *Cançons populars catalanas*, de Joan Guasch i Miró (1901); el *Cançoner popular*, de Aureli Capmany (1901-1913); las *Cançons populars catalanes* editadas por l’Avenç (1909-1916), etc. Ni siquiera los colectores que accedieron a la tradición desde el campo del folklore, como Rossend Serra i Pagès (1863-1929), Joan Amades (1890-1959), o Tomàs Carreras i Artau —fundador, con la colaboración de Josep M. Batista i Roca, del Arxiu d’Etnografia i Folklore de Catalunya (1915)—, se sustrajeron, en adelante, a la perspectiva musical

---

(18) Clavé “excitava la fibra sentimental obrera per la via de la realitat diferencial catalana, a través de la llengua, el folklore, i també de la capacitat catalana per la industrialització, objecte de suposat orgull popular. D’aquesta manera cal interpretar l’èxit innegable de les Corals de Clavé.” (Enric Olivé i Serret, “Els cors de Clavé i l’obrerisme”, *L’Aveir*, 104 (1987), pp. 28-29).

(19) Francesc Alió, *Cansons populars catalanas*, Barcelona: Sindicato Musical Barcelonés Dotesio (1892).

(20) Véase, por ejemplo, la reseña de Lluís B. Nadal, “Cansons populars catalanas recullidas y armonizadas per Francisco Alió”, *La Veu del Montserrat*, XV, núm. 20 (1892), pp. 154-156. El crítico recalca la alegoría que el propio Alió dibujó en la portada: un Sant Jordi “mata al drach feréstech de l’indiferencia y la botifleria” y se lleva a la cautiva doncella, la música catalana, a grupas del caballo, que es “l’acompanyament que ha posat Alió á cada tonada” (p. 155). Se trata de “traure de damunt de les lluhentes tapes del piano aqueixes excomunicades peçes italianes de que estan tan embafats, y sobre totaqueixes irritants *flamenqueries* hont petal’ *jolet* aborrit como lo fuet del tirá que á tants botiflers fa abaixar la testa” (*Ibid.*).

(21) Nota necrológica “En Francisco Alió”, *Revista Musical Catalana*, V (1908), pp. 129-131; cito de la p. 130. Hay otra necrología debida a Lluís B. Nadal en las pp. 127-129 del mismo número.

del género, que culminó en la Obra del Cançoner Popular de Catalunya (1921-1936), dirigida por el maestro Francesc Pujol (22).

Desde entonces, los colectores catalanes han sido, con rarísimas excepciones, personas de formación musical o musicólogos, y los términos “poesía popular” y “romancer”, han permanecido en desuso (23). Nótese, en resumidas cuentas, cómo el abandono de la terminología literaria coincide con el giro musical que comentamos, y se produce con anterioridad a la polémica desatada en Catalunya por las actitudes españolistas de Menéndez y Pelayo (24) y de Menéndez Pidal (25).

## 1. APORTACIONES DE CAMPO (1981-1989) (26)

### 1.1. Un marco institucional: el CDRICTP

Abordando ya el asunto que da título a esta exposición, no partiré de una fecha más o menos redonda y arbitraria —que pudiera ser 1980 o

---

(22) Hizo posible la Obra del Cançoner Popular el mecenazgo del señor Rafael Patxot i Jubert (véase Pere Artís Benach, *El cant coral a Catalunya (1891-1979)*, Barcelona: Barcino, 1980, pp. 146-157).

(23) Un caso excepcional, el *Romancer tradicional eivissenc*, Palma de Mallorca: Ed. Moll, 1954, publicado por Mn. Isidor Macabich, en deuda manifiesta con el *Romancer* de Aguiló, y sin transcripciones melódicas.

(24) Menéndez Pelayo tuvo la mala ocurrencia de encomiar la españolidad de la tradición catalana, añadiendo: “Sorprende, además su número, y hay que agradecer al verdadero pueblo catalán, tan español siempre, el cariño y la tenacidad con que han conservado esta parte de nuestro tesoro poético, mostrándose en esto más castellano que los castellanos mismos” (“Romances populares recogidos de la tradición oral. Suplemento á la “Primavera y Flor de Romances” de Wolf”, en *Antología de poetas líricos castelanos*, X, Madrid: Hernando, 1900, pp. 250-251). El órgano ya no estaba para estos bollos, tras la crisis del 98 y la articulación del catalanismo político de Prat de la Riba; por ello, el 20 de septiembre de 1901 Ernest Moliné i Brasés lo fulminaba desde las páginas de *La Renaixença*, órgano de la Unión Catalanista: “Algunas n’hi ha de cansons que’s cantan á Catalunya ab bona cosa de paraulas forasteras y particularment castellanas (...) hem de convenir també en que aquells romansos castellans al anar passant per llabis catalans perdian visiblement lo segell de procedencia, cada dia queyan destrossadas sas paraulas més melosas y en son lloch se n’hi posavan d’altras que haurían escandalisat al autor de la cansó y á tota la seva rassa”. Y más abajo: “Si en Menéndez y Pelayo ’hagués fet cárrech d’aquest doble treball destructor dels romans os castellans realisat pel nostre poble, no diria are mateixot cofoy: “Hay que agradecer al verdadero pueblo catalán...” (...) aquest mal grá del barbarisme caurá tot sol de la nostra llengua si’l renaixement dú sa influencia regeneradora á totas las capas del poble; no creyém que cap Menéndez y Pelayo del sigle vinent s’haggi d’entussiasmar ab los catalans per sentirlos hi cantar las coblas bordeileras ab que’l género chico castellá nos ha infestat”.

(25) La siempre recordada polémica con Mn. A. Alcover, a raíz del artículo *Cataluña bilingüe*.

(26) Me ceñiré únicamente a la comunidad autónoma de Catalunya, debiendo excluir por razones de espacio, las Valencia y Baleares.

1985—, sino de un acontecimiento singular. Me refiero al I Congrés de Cultura Tradicional i Popular (Barcelona, 1981-Girona, 1982), una de las primeras actuaciones del Servei de Promoció Cultural creado por el Departament de Cultura de la Generalitat. Acudieron a aquella convocatoria cerca de 3.000 congresistas, y se presentaron 278 comunicaciones, correspondientes a unos 20 ámbitos diferentes que abarcaban el complejo universo de lo popular: música, danza, canción, imaginería, oficios, fiesta, etc.

Posiblemente, un encuentro de entidades y particulares sin otro denominador común que los calificativos “popular” y “tradicional” no resultaba el lugar más propicio para la reflexión científica —y no cuestiono, por supuesto, el nivel general de las comunicaciones—. Ahora bien, el Congrés resultó un acierto. En primer lugar, porque permitió verificar el interés de la sociedad catalana por su folklore; a este respecto, la cifra de 2.807 inscritos fue categórica. Y en segundo lugar, porque transmitió una sensación de respaldo a quienes de manera voluntarista y durante los años difíciles fueron los únicos valedores de la cultura popular. Fue un gesto estimable, en principio, como gesto. Pero no un gesto vano. Así, entre las conclusiones finales, se proponía a la Generalitat de Catalunya la creación de un organismo que impulsase la investigación científica y el archivo de la cultura popular. Dicho organismo se creó, en efecto, el 3 de octubre de 1983, bajo la denominación de Centre de Documentació i Recerca de la Cultura Tradicional i Popular (CDRICTP), adscrito a la Direcció General de Difusió Cultural.

En la actualidad, el CDRICTP dispone de un fondo audiovisual de unos 200 elementos —entre cintas de vídeo y de cassette—, biblioteca y archivo de microfilms, fotografías y diapositivas, litografías, partituras, etc. De este archivo, merecen mención particular cuatro colecciones:

a) “Arxiu Josep M. Vilarmau” y “Arxiu Mn. Joan Sala”, que suman alrededor de 900 versiones de cancionero popular. Volveré más adelante sobre ellos.

b) “Arxiu Josep M. Castells i Andilla” y “Arxiu Joan Bial i Serra”, que entre los dos contienen unos 12.000 documentos inéditos sobre coreografía, música e indumentaria (27).

Desde el año 1985, el CDRICTP viene enriqueciéndose con una convocatoria anual de becas. De las 97 becas otorgadas entre 1985-1988, un 16% han sido destinadas al estudio del “cançoner” tradicional o popular, otro 16% a la música instrumental —gralla, flabiol, cornamusa,

---

(27) Datos que agradezco al director del CDRICTP, el señor Antoni Anguela i Dotres.

etc.—; un 15 % a las danzas, y, el resto, se reparte en capítulos diversos de carácter etnográfico: costumbres, oficios, imaginería, arquitectura popular, etc.

Tras el Primer Congrés de Dansa Catalana d'Arrel Tradicional (Sant Cugat del Vallès, abril de 1988), convocado por el Servei de Cultura Tradicional y l'Agrupament d'Esbarts Dansaires, el CDRICTP ha asumido la elaboración de un bastísimo inventario de cuantas danzas catalanas no hayan perdido aún su vigencia folklórica: el llamado "Arxiu de Danses Vives".

Las tareas de recolección romancística se canalizan, básicamente, a través de la Fonoteca de Música Tradicional, creada —en el seno del CDRICTP— en septiembre de 1987. Se ocupa de las tareas de coordinación el etnomusicólogo Josep Crivillé i Bargalló, secundado por su discípulo Ramón Vilar. Durante el pasado año, 1988, la Fonoteca concedió 11 becas de investigación —a través de las convocatorias del CDRICTP, anteriormente mencionadas—. El romancero se halla englobado, como es costumbre en Catalunya, en los trabajos genéricos sobre "cançoner":

a) Dolors Berenguer: 14 cintas + 2 vídeos con "cançons" de diferentes comarcas: Segarra, Conca de Barberà, Urgell, Ripollès y Garrobra, esto es, una amplia zona de las provincias de Lleida, Tarragona y Girona.

b) Antoni Noguera: 12 cintas del Tarragonès (Tarragona).

c) Gabriel Ferré: 23 cintas + 1 vídeo del Tarragonès y del Baix Camp (Tarragona).

d) Antoni Costes: diversos materiales del Delta de l'Ebre (Tarragona).

e) Grup de Recerca Folklòrica d'Osona: varios estudios sobre su comarca, Osona (Barcelona).

f) Carrutxa, de Reus: encuesta en la Ribera d'Ebre (Tarragona).

Por otra parte, la Fonoteca está atenta a la adquisición, para su archivo, de cualquier material sonoro o escrito ya existente. Todo ello, en fin, va siendo paulatinamente informatizado y puesto a disposición de los estudiosos. Además, la Fonoteca tiene el propósito de difundir el folklore musical en forma de ediciones sonoras, y entre sus planes inmediatos ya hay un primer disco con temas instrumentales y vocales, siguiendo el ejemplo de la Fonoteca de Materials del País Valencià, que, desde su fundación en 1984, lleva editados 10 discos LP, coordinados por Vicent Torrent.

En conclusión, Catalunya es hoy afortunada por contar con una instancia oficial, el CDRICTP, dispuesta a apoyar las propuestas de

trabajo e investigación de entidades y particulares —exposiciones, congresos, encuestas, publicaciones, etc.—, y de una Fonoteca que está llamada a vertebrar los esfuerzos de recolección del legado tradicional, que, como es sabido, se extingue rápidamente.

## 1.2. Encuestas debidas a entidades particulares

La recolección del “cançoner” tradicional, muy decaída en Catalunya tras la Guerra Española (1936-1939), y felizmente recuperada por la iniciativa particular a partir de la década 1970-1980, ha dependido, en gran medida, de la iniciativa de algunos aficionados y de pequeñas agrupaciones locales dedicadas a la cultura popular (28).

### 1.2.1. *El Grup de Recerca Folklòrica d'Osona*

Sin duda, el equipo de investigación más constante a lo largo de los últimos años ha sido el Grup de Recerca Folklòrica d'Osona (GRFO), formado, desde su constitución en 1980, por Jaume Aiats y los hermanos Ignasi y Xavier Roviró.

Jaume Aiats ya había participado, con el grupo de poesía *El Clot, de Vic*, en la elaboración de *El Rec del Tint* (29), un curioso librito de canciones tradicionales de fuente oral, la mayor parte comunicadas por Joan Tresserres, uno de los cantores más sobresalientes de la Plana de Vic. Poco después, Aiats se sumó a los hermanos Roviró y juntos emprendieron la búsqueda de materiales folklóricos por toda la comarca: 1981, municipios de Rupit-Pruit; 1982-1983, subcomarca del Lluçanès (Prats de Lluçanès, Perafita...); 1984, subcomarca de les Guilleries (Viladrau...); 1986-1987, norte y sur de la Plana de Vic; 1988, municipios del este de la Plana: Roda de Ter, Folgueroles...

El archivo del GRFO sobrepasa en la actualidad las 500 horas de grabaciones etnográficas: costumbres, aforismos, oraciones, cuentos y leyendas, romances y canciones, etc. Según cálculos del propio GRFO, su fichero de informantes ronda las 600 entradas, es decir, que durante los últimos años han sido entrevistados sistemáticamente casi todos los habitantes de la comarca con más de 60 años. En cuanto al romancero, el GRFO afirma que sus fondos pasan de los 700 documentos, en general bien ejecutados. Merece destacarse el apartado de romances

(28) Véase G. Ferré, S. Rebés el. Ruiz, “Cançó i música tradicional als Països Catalans, avui”, *Revista Musical Catalana*, 2.<sup>a</sup> época, 20 (1986), pp. 5-7.

(29) Miquel Tuneu et al., *El Rec del Tint. 1. Recueil de cançons populars*, Vic: el Clot, 1980.

históricos, con *La presó del rei de França (o Prisión de Francisco I de Francia)*, *Bac de Roda*, y muy particularmente *Els segadors*, es decir, la *Sublevarción de Catalunya contra Felipe IV*, desconocido hasta ahora en la recolección del siglo XX. Como cabe suponer, tratándose de un material tan abundante, sólo ha sido posible transcribirlo parcialmente, en función de los intereses inmediatos del grupo, pero está bien inventariado y es consultable a través de un servicio concertado con la biblioteca de los Estudios Universitarios de Vic.

El GRFO ha publicado hasta la fecha dos volúmenes, fruto de su primera experiencia, en Rupit-Pruit, uno canciones (30) y otro de narraciones en prosa. De aquel podríamos destacar varios romances —*Don Lluís de Montalbà (o La vuelta del navegante)*, *La calúnnia de la reina*, *El miracle de Sant Jaume*, etc.—, pero su aportación más remarcable es el rigor de las transcripciones musicales y textuales, junto a los aspectos contextuales o etnográficos de los documentos, perfectamente atendidos. En el archivo del CDRICTP, en Barcelona, se encuentran depositados dos trabajos más del GRFO, aún inéditos: *El cançoner d'Espinelves* (beca de 1985) —que contiene unas 190 canciones, entre ellas un 65 %, aproximadamente, narrativas—, y *Cançons tradicionals al Luçanès* (beca de 1986). Los miembros del GRFO han aprovechado ya sus encuestas para la redacción de algunos trabajos académicos. Así, Jaume Aiats ha sistematizado las características melódicas y textuales de un corpus de 50 romances en *Anàlisi formal d'un repertori líric narratiu del Luçanès* (presentado al Conservatori Municipal de Música de Barcelona), aplicando al romance catalán los moldes rítmicos descubiertos por Constantin Brailoiu en la canción tradicional rumana. Por su parte, Ignasi Roviró estudia *Don Joan i don Ramon*, emparentado con *Le Roi Renaud* y la baladística europea de “la viuda sin saberlo”.

### 1.2.2. Carrubra

Desde 1985 funciona en el Baix Camp (provincia de Tarragona), el Centre de Documentació sobre Cultura Popular, como sección de la Asociación Cultural Carrubra, creada en 1980. El Centre de Documentació de Carrubra se estructura en tres grandes líneas de trabajo: la historia local, la etnografía y el cancionero y la música popular. Carrubra es una entidad particular pero abierta, desde siempre, a la ciudad de Reus. Así, su biblioteca, de unos 1.500 volúmenes, especializada en temas de folclore y cultura popular, es de uso público. La entidad cuenta también con un importante archivo documental y ha venido organizando numerosos seminarios, ciclos de conferencias, exposiciones, etc.

---

(30) G.R.F.O., *El folklore de Rupit-Pruit. I. Cançoner*, Vic: Eumo, 1983.

Pero vayamos al romancero. En 1983, Carrubra inició una encuesta por el Baix Camp y el norte del Priorat (Tarragona), que se prolongó, de forma ya menos intensa, hasta 1985. Isabel Ruiz y yo mismo aportamos a aquel trabajo nuestra experiencia como colectores de romancero —adquirida con el Seminario Menéndez Pidal y en la Catalunya Vella—, mientras que, por su parte, Salvador Palomar y Gabriel Ferré hicieron valer su conocimiento de la comarca, fruto de anteriores encuestas etnográficas. Con una selección de aquellos materiales (43 cintas) se preparó luego el *Cançoner tradicional del Baix Camp i el Montsant* (31). Esta obra comprende 280 canciones, de las cuales 74 son romances: *El comte Arnau*, *Don Joan i don Ramon*, *La porquerola*, etc. En la introducción, esbozamos la historia de la recolección en aquellas comarcas, las más desfavorecidas por los colectores de inspiración romántico-renacentista e incluso por la Obra del Cançoner Popular.

La última encuesta nos ha llevado a Salvador Palomar y a Salvador Rebés —con una beca de la Fonoteca de la Generalitat— a la Ribera d'Ebre: Rasquera, Miravet, Ascó y García. Los resultados han sido espléndidos, en particular en el pueblo de Rasquera, donde recogimos romances poco frecuentes como *Isabel de Liar* o *La gaurdadora d'un mort*. Mencionaré también una versión de *La sortida a missa* (*La muerte ocultada*) obtenida en Ascó de una mujer casi centenaria. Para este verano proyectamos una campaña de recolección por la comarca del Priorat (Falset).

Carrubra no descarta la posibilidad de publicar materiales sonoros de sus encuestas, y ya está colaborando con José Manuel Fraile en un proyecto para el sello fonográfico SAGA consistente en una antología del Romancero Hispánico.

### 1.2.3. Trabajos de campo en las comarcas de Lleida

En Lleida funciona, desde 1977, un Grup de Recerca de Cultura Popular de Ponent, de cuyas actividades daba cuenta al Congreso de Cultura Popular (1982) Xavier Massot i Martí, entonces miembro del colectivo. El mismo Xavier Massot preparó en 1983 un cancionero popular de su comarca, el *Cançoner del Segrià* —aún inédito, en su mayor parte—, y, años más tarde, un capítulo divulgativo sobre romances y canciones en *Cultura popular a Lleida, 1150-1950* (32).

---

(31) G. Ferré, S. Rebés e I. Ruiz, *Cançoner tradicional del Baix Camp i el Montsant*, Barcelona: Alta Fuila-Centre de Lectura de Reus, 1988.

(32) Editado por: Ajuntament de Lleida, Quaderns de divulgació ciutadana, n.º 6, col.lecció La Banqueta, 1986.

Desde 1987, Joan Bellmunt i Figueras, “el poeta de les Garrigues”, viene publicando unos volúmenes de ordenación geográfica que quieren retratar el saber y las costumbres populares de las comarcas de Lleida. Y a tal efecto, el autor inserta en sus páginas algún que otro romance tradicional (33).

Pero las mayores expectativas están puestas en el mundo institucional. Hace tan sólo tres semanas, a raíz de las I Jornades sobre Patrimoni Etnogràfic de les Comarques de l'Alt Pirineu i de Ponent, se ha debatido en profundidad la situación de aquellas tierras, con la participación de nombres tan significados como Josep M. Boya, Xavier Català, Montserrat Iniesta, Llorenç Prats y Ferran Rella. En el ánimo de los participantes ha estado el relanzamiento etnomuseológico de la región y la investigación de campo. Finalmente, el Estudi General de Llieda tiene la fortuna de contar entre sus profesores con un gran teórico del folklore catalán, el antropólogo Llorenç Prats i Canals, quien sin duda habrá de influir en el desarrollo de futuros proyectos de encuesta.

### 1.3. Encuestas derivadas de la actividad académica

Cerraré el apartado de encuestas con la revista de los trabajos originados en centros académicos.

#### 1.3.1. *La Universidad de Tarragona*

Señalábamos más arriba cómo la Universidad catalana se mantuvo, en general, al margen de la tradición oral, aunque algunos profesores universitarios de gran prestigio, como por ejemplo Antoni Comas o Josep Romeu i Figueras, le dedicasen algunos trabajos de indudable valor. Pero desde la desaparición de el Arxiu d'Etnografia i Folklore, de Carreras i Artau, nuestra Universidad no ha vuelto a promover la recogida sistemática de canciones tradicionales. Esta es una práctica que, en todo caso, han seguido sin ningún rigor metodológico algunas escuelas de Magisterio.

Pronto hará diez años que Josep M. Pujol i Sanmartin imparte el curso “Etnopoética y folklore” en la Facultad de Letras que la Universidad de Barcelona tiene en Tarragona. Los trabajos de sus estudiantes han servido de base para constituir en dicha facultad el Arxiu Folkloric del Departament de Filologia. Conviene recalcar que no se trata únicamente de un archivo de canción tradicional, sino de folklore, y que el profesor Pujol entiende el término “folklore” en su acepción norteamer-

---

(33) Joan Bellmunt i Figueras, *Fets, costums i llegendes. Les Garrigues*, 3 vols, Lleida: Virgili & Pagès, 1987. Los tres volúmenes de 1988 están dedicados al Segrià.



cana, siguiendo de cerca a Richard M. Dorson y a Dan Ben-Amos, es decir que considera folklore cualquier mensaje artísticamente configurado y utilizado interactivamente en el seno de una comunidad reducida (*small group*) (34). Así pues, el Arxiu Folklòric de Tarragona recopila toda suerte de materiales etnopoéticos —rurales y urbanos—, por lo que resulta difícil, en estos momentos, y a falta de un fichero exhaustivo o un catálogo que describa los fondos actuales, cuantificar su aportación al ámbito del romancero. No obstante, ha de ser importante, conociendo las posibilidades del área que se explora —comarcas de Tarragona— y la preparación teórica y metodológica de los estudiantes que siguen el curso. En nuestro *Cançoner tradicional del Baix Camp...* (1988) ya dábamos cuenta de las primeras publicaciones debidas a discípulos de Josep M. Pujol (35).

### 1.3.2. *El Conservatori de Música de Barcelona*

Por otra parte, Josep Crivillé i Bargalló, profesor del Conservatori Superior Municipal de Música de Barcelona, también ha impulsado la recolección y el análisis del “cançoner” popular. La Etnomusicología es asignatura oficial en el plan de estudios de la casa desde 1979.

En el Conservatori tuvo su origen, además, la Associació de Recerca Etnomusicològica, grupo de investigación privado que dirige el propio Crivillé y que cuenta con los musicólogos Ramón Vilar, Glòria Ballús y M. Isabel Garvia, cuyas actividades de investigación se han desarrollado en las comarcas del Bages (Barcelona), Pallars (Lleida) y Priorat (Tarragona). Tan importante como sus encuestas de campo está siendo su labor de catalogación de documentos etnomusicológicos, cubierta en una primera fase (1856-1923) con una beca de la Generalitat (1988). A este mismo equipo de trabajo debemos la edición de un *Cancionero popular de la provincia de Huesca* (1986), a partir de los antiguos materiales de Juan José Mur.

## 2. RECUPERACIONES DEL PATRIMONIO HISTORICO

Tal vez una de las facetas más importantes de la actividad de estos últimos años haya sido la recuperación de viejas colecciones de romances, ya perdidas o olvidadas.

---

(34) Josep M. Pujol, “Literatura tradicional i etnopoètica: balanç d’un folklorista”, en *La cultura popular a debat*, ed. a cargo D. Llopart, J. Prat y Ll. Prats, Barcelona: Alta Fulla-Fundació Serveis de Cultura Popular, 1985, pp. 158-167. Concepción que, personalmente, también suscribo.

(35) Cf. pp. 18-19, donde mencionábamos los trabajos de Concepció Benet (1983) y Fina Anglès (1986).

## 2.1. El *Cançoner del Ripollès*

Sorprende, dada la escasez de materiales antiguos que padecemos, que un cancionero, concluido en 1922 por los folkloristas Tomàs Ragner, Josep Maideu, Salvador Vilarrasa, etc., haya permanecido inédito y casi olvidado durante décadas en l'Arxiu-Museu Folklòric de Sant Pere de Ripoll, a cuyo cuidado, debemos, por otra parte, su conservación en medio de las vicisitudes bélicas y políticas de este siglo. Lo constituyen 4 carpetas, con 540 documentos —más de la mitad, romances—, muy bien transcritos y localizados: informante, población, fecha... Según la etnomusicóloga M. Antònia Juan i Nebot, que prepara la edición íntegra de este *Cançoner del Ripollès*, gracias al rigor que los colectores pusieron en su obra es posible abordar en ella, por ejemplo, el problema de la variabilidad textual y melódica, así como el “comportamiento musical” de cada informante, con una precisión crítica que no permiten otras compilaciones viejadas y retocadas por prejuicios estéticos.

## 2.2. La colección de Josep M. Vilarmau

Aludía en páginas anteriores a dos colecciones inéditas, archivadas en el CDRICTP de Barcelona. Paso a describirlas brevemente. Primero, el denominado “Arxiu Josep M. Vilarmau”. Su compilador fue un terrateniente de Prats de Lluçanès, Josep Maria Vilarmau, hombre de aficiones excursionistas, que tenía además una buena formación musical y literaria. En un primer momento, hacia finales de 1920, Vilarmau comenzó a interesarse por las tradiciones locales, seguramente bajo la influencia de su amigo A. Busquets i Punset. Pocos años después había conseguido reunir ya una buena colección folklórica de su comarca, el Lluçanès, tarea que reemprendió entre 1940 y 1945 —después de terminar la Guerra en el bando vencedor—, con la ilusión de publicarla a sus expensas. A tal efecto, tenía ya 11 volúmenes de temática diversa, bien estructurados y casi listos para edición. La cifra de canciones populares ronda las 1300; un 60% del total, aproximadamente, romancero. Pero Josep M. Vilarmau murió en 1947, sin ver realizado su proyecto. Los materiales ahora recuperados —gracias al GRFO, que los puso a disposición del CDRICTP— nos muestran un folklorista riguroso desde las primeras anotaciones de campo a la elaboración final de los tomos.

## 2.3. Materiales de la Obra del *Cançoner*

Basándome en una información que, como en el caso anterior, agradezco al amigo Jaume Aiats, el mes de julio de 1936, Mn. Joan Sala i Salarich, sacerdote y folklorista, tenía listo para enviar a las oficinas de la Obra del *Cançoner Popular* de Catalunya un paquete con unas 430

versiones tradicionales. Desgraciadamente, Joan Sala fue asesinado en aquellos días y nadie volvió a tocar el envoltorio de tela y papel de diario que contenía las canciones hasta que un familiar dio noticia de ello al GRFO. ¡Milagrosos restos de un doble naufragio, la guerra civil y la Obra del Cançoner!

Por otra parte, el músico Jaume Arnella, un enamorado de la canción popular que, además de representarla, como él dice, en “la farándula”, ha sido colector de versiones orales (en la Alta Garrotxa, el Priorat...), cedió al archivo de Carrubra, hace años, unas carpetas de romances mecanografiados que, con toda probabilidad, corresponden a las encuestas del maestro Xavier Gols en el Priorat (1932-1933), con el patrocinio de la Obra del Cançoner.

Yo mismo, para cerrar este capítulo, presentaré a finales de este año, para el CDRICTP, un catálogo descriptivo de los materiales catalanes depositados en el Archivo Menéndez Pidal de Madrid, un corpus de más de 600 romances cuyos colectores, fueron, en su mayoría, Marià Aguiló y “missioners” de la Obra del Cançoner: Joan Amades, Higini Anglès, Josep Barberà, Pere Bohigas, Palmira Jaquetti, Baltasar Samper, Joan Tomàs, etc.

#### 2.4. Los fondos de Serra i Pagès

La doctora Josefina Roma i Riu y sus colaboradores del Departament de Antropologia de la Universidad de Barcelona estudian, en estas fechas, los fondos de Rossend Serra i Pagès, “factotum” del folklore catalán en los años anteriores a la Obra del Cançoner. Son materiales inéditos que se conservan en el Arxiu-Hemeroteca Municipal de Barcelona (Casa de l’Ardiaca). Josefina Roma nos anuncia la publicación, en la editorial Alta Fulla, del magno estudio del profesor Serra i Pagès sobre la leyenda del conde Arnau. Como complemento, la edición incluirá el corpus de baladas de *El comte Arnau* recogidas por el propio Serra i Pagès.

### 3. PUBLICACIONES

#### 3.1. Ediciones de nuevos materiales de campo

Sus títulos ya han aparecido en la crónica de encuestas (36). Por otra parte, en las actas del III Coloquio sobre Romancero y otras formas poéticas (Madrid 1982), aparecerá, cuando se salven las dificultades que

---

(36) Véanse notas 28, 29 y 31.

han retrasado la edición, nuestra ponencia “Notícia d’un recull de cançons de la Catalunya Vella” (Salvador Rebés y Isabel Ruiz), con una muestra literaria de 25 romances tradicionales.

Durante el período que nos ocupa, además, han acogido romances tradicionales en sus páginas diversas revistas: *l’Estrof* (Lleida), *Cardener* (Cardona), *Clot* (Vic), *Som*, *Revista Musical Catalana* (Barcelona), etc.

En cuanto a ediciones sonoras de materiales ejecutados por los propios informantes, existe en el mercado el LP *Canten els vells del Pirineu* (Barcelona: AUVI, 1982), de Artur Blasco, colector de canción y música instrumental del Pirineo y fundador de la Associació Arsèguel.

### 3.2. Ediciones nuevas de viejos materiales

La Abadía de Montserrat, cuyas Publicaciones dirige Josep Massot i Muntaner, dio a la luz en 1983 una selección de romances y canciones preparadas por Pere Bohigas (37). Sucede que el primer volumen salió de la imprenta en 1938, sin que llegase a ser distribuido. En cuanto al contenido, casi todos los textos proceden de fuentes impresas —Aguiló, Milà, etc.—, aunque también encontramos algunas versiones inéditas del archivo particular del dr. Bohigas, con ciertos retoques que él mismo declara en las notas correspondientes. Es una obra muy recomendable para quienes deseen iniciarse en el conocimiento de nuestro cancionero.

Particularmente curioso es el caso del *Romancer català* de Eds. 62 (38). De hecho, se trata de una selección de textos que figuran en el *Romancerillo* de Milà i Fontanals, también con propósitos divulgativos, por lo que se prescinde de variantes y anotaciones. Sin embargo, hay una importante salvedad: el responsable de la antología, Joan A. Paloma, con los materiales de Milà a la vista, reestablece algunas omisiones de la primitiva edición, y, en ocasiones, el texto que selecciona no es la versión A del *Romancerillo*, sino otra que éste se ofrecía fragmentariamente... (39) por lo que la publicación cobra un nuevo interés.

Por su parte, Immaculada Caballé i Pere Ibern, dos estudiosos de la música instrumental, han exhumado del Arxiu Històric “Fidel Fita”, de Arenys de Mar (Barcelona) un curioso testimonio de baile carnavalesco,

---

(37) Pere Bohigas, *Cançoner popular català*, 2 vols., Montserrat: Publicacions de l’Abadía, 1983.

(38) *Romancer català. Tent establert per Manuel Milà i Fontanals*, a cargo de Joan A. Paloma, Barcelona: Eds. 62-“la Caixa”, colección MOLC n.º 47, 1980.

(39) Por ej., pp. 141-142, *La infanta seduïda (Conde Claros en hàbito de fraile)*, es la versión 258C de Milà, que la edita sólo parcialmente, con su sistema de variantes.

el “ball de cançons”, ejecutado al son de diversos romances y canciones populares (40).

Yo mismo he publicado, recientemente, algunas versiones inéditas del Archivo Menéndez Pidal recogidas hacia 1920 por Mn. Higini Anglès y Ventura Gassol en el Camp de Tarragona (41).

### 3.3. Otras publicaciones

En este apartado, destacan:

1983: Josep Masot i Muntaner, Salvador Pueyo y Oriol Martorell, *Els Segadors. Himne nacional de Catalunya* (42). Ofrece la historia del romance catalán del Corpus de Sangre y sus relaciones con el himno de Catalunya.

1984: Joan Prat i Carós, “Un esbós estructural del cançoner nadalenc català”, análisis que se incluye en *La mitologia i la seva interpretació* (43).

1986: El dr. Antoni Badia i Margarit, en el homenaje a Romeu i Figueras, aportaba unas “ínfimes notes gramaticals a una cabdal cançó popular”, que no es otra que el *Comte Arnau* (44). Y ese mismo año, 1986, la *Revista Musical Catalana* dedicó un dossier a la Etnomusicología en el que colaboraron Josep Crivillé, Jaume Aiats, Pere Artís y Mihály Iltzés (45). Para la misma revista trazamos Gabriei Ferré, Isabel Ruiz y Salvador Rebés un panorama de la recolección etnomusical reciente, ya citado: “Cançó i música tradicional als Països Catalans, avui” (46), y que sirvió de base para una ampliación posterior, de ámbito peninsular, presentada por Gabriel Ferré al Congrés Internacional Higini Anglès i la Musicologia Hispànica (Barcelona-Tarragona, 1988), titulada “L’etnomusicologia hispànica en les aportacions posteriors a Higini Anglès”.

## 4. ROMANCERO Y CULTURA POPULAR

También la cultura popular ha sido objeto de reflexión reciente. El II Seminari de Cultura Popular de l’Institut Català d’Antropologia (1983-1984)

---

(40) Immaculada Caballé y Pere Iben, *El Camestolles arenyc al segle XIX*, Barcelona: Alta Fuila, 1985.

(41) Salvador Rebés, “Onze romanços tradicionals del Baix Camp”, separata de la *Revista del Centre de Lectura de Reus*, n.º 12 (diciembre de 1988), pp. 6-12.

(42) Barcelona: Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya, 1983.

(43) Barcelona: Els llibres de la Frontera, 1984, pp. 189-223.

(44) En *Estudis de Literatura Catalana en honor de Josep Romeu i Figueras*, I, Montserrat: Abadia, 1986, pp. 67-80.

(45) *Revista Musical Catalana*, 2.ª época, n.º 15 (1986).

(46) Véase nota 27.

reunió, en torno a esta cuestión, a 25 especialistas (47). A la antropología debemos, en primer lugar, una contribución esencial a la historia del folklore catalán; me refiero a *La cultura popular a Catalunya. Estudiosos i institucions, 1853-1981*, de Llorenç Prats, Dolors Llopart y Joan Prat (48), y, en segundo lugar, *El mite de la tradició popular*, de Llorenç Prats (49). No es necesario insistir en la utilidad de este género de estudios, que nos ayudan a situar a los colectores del “cançoner” —y del romancero— en su contexto cultural e ideológico.

Aunque no podamos tratar por extenso la cuestión de los estudios monográficos sobre algunas figuras de la recolección, sí es preciso dejar constancia de que nuestras principales figuras han atraído ya la atención de los investigadores. Así, Marià Aguiló (estudiado por Massot i Muntaner), Manuel Milà (por Manuel Jorba y Joan A. Paloma); Bertran i Bros (por Josep M. Pujol); Cels Gomis (por Llorenç Prats); Serra i Pagès (por Josefina Roma); Baltasar Samper (por Massot i Muntaner), etc.

Claro es que aún persisten importantes lagunas, que no tardarán en cubrirse, como, por ejemplo, la historia de la recolección tras la Guerra Civil, donde, sin duda, tiene reservado un papel importante el Instituto Español de Musicología del Consejo Superior de Investigaciones Científicas de Barcelona, fundado en 1943, y que contó a lo largo de los años con unos colaboradores de gran categoría: Mn. Higiní Anglès, Joan Tomàs, Marius Schneider, Joan Amades, Josep Romeu i Figueras, etc.

## 5. PERSPECTIVAS DE FUTURO

Hemos visto cómo los colectores de otros tiempos eran poco conscientes de que la encuesta “literaria”, o bien “musical”, o “pintoresca”, por separado, había de proporcionar por fuerza una imagen parcial de la tradición. Las cosas han empezado a cambiar. Los términos “etnomusicología” y “etnopoética” se han incorporado al uso general, y con ellos una sensibilidad diferente que se traduce en la colaboración de antropólogos, filólogos y musicólogos. Hemos dejado atrás las fases del esencialismo romántico, el excursionismo y el nacionalismo musical. También la exploración lúdica y reivindicativa de los años 60-70. Ahora se trabaja con rigor. Es mucho lo que queda por hacer sobre el terreno —en los pueblos y en los barrios de las ciudades— y en los archivos. Pero Catalunya dispone hoy de una generación de folkloristas jóvenes.

---

(47) Las ponencias se recogen en *La cultura popular a debat*, citado anteriormente (nota 33).

(48) Barcelona: Fundació Serveis de Cultura Popular, 1982.

(49) Véase nota 13.

## KONTAPOESIAREN MODULU METRIKOAK HEGOALDEKO USARIOAN

*Billabona, 1989-V-26*

*Juan Mari Lekuona*

Herri-literaturaren esparruan, eta azkenaldiko ikaskuntzei gagozkielarik, ezertan aurrerabiderik egin bada, kontapoesiari buruz izan dela esango genuke, besteak beste. Gaurregun poemon saila nahiko mugaturik daukagu, antologia aski hornitua, eta azterketak, batez ere lan monografi-koenak, ez gutxi bideratuak. Gaur kontapoesia, sail berezia ezezik, balio-suenetarikoa ere badugu herri-literaturan.

Gaiari lehen hurbilketa ona egin zaion arren, aurrerapausu asko dago emateko oraindik, beste literatur alorretan bezalatsu. Eta ekinbide bat haserakoan gaiaren beharrak eta langilearen ahalak ongi uztartzea ezinbestekoa denez, estrofen egiturak aztertzea gogoratu zait, gaia oro har gutxi landurik dakusagunez, eta nire ofizioak sail hori lantzerara naramenez, poesi egiturei buruz orain arte egin ditudan lanak gogoan.

Geure urratson abiapuntu, eta oraingoz bildumarik osoena dugunez gero, idazlan hau daukagu begiaurrean: "Euskal baladak" (1). Gure arloa oro har lantzen ez badu ere, oharkizun jakingarriak aipatzen ditu poema jakinei buruzko aurkezpenetan. Liburu honetako bilduma oinarri hartuz, hari nagusiak markatzea da gure egitekoa: sail zabalak hesituz, barruko ereduen egitura irudikatzea eta gaiari buruzko ikuspegia laburbiltzea.

Egitura metrikoak bere osoan sailkatu, zenbatu eta balioztatzeak ikuspegi jakingarria dakar kontapoesiaren ezagutzarako. Egon diren modulu metriko desberdinak, puntuen eta silaben asko edo gutxian, edota beste tekniketan, eraikirik geratzen da diskurtsu poetikoa eta hitzaren eraikuntza gutzia. Alderdi garrantzizkoa testu poetikoaren estiloa zehaztu nahi bada.

---

(1) Y. Lakarra, K. Biguri, B. Urgel: *Euskal baladak*, 2 t. "Hordago". Donostia, 1983.

## 1. LAN METODOA

Azterketak egiteko materiale bat behar eta, *Euskal Baladak* aipatu liburua hartu dugu aztergai. Oraingoz multzorik zehatzena eta fidagarriena ere badenez, eta gure lanerako jakingarriena ere bai; eta bestalde, nahiko argibide ere jalgitzen dizkigunez, bilduma hori izan da gure aukera, gure lanaren oinarri nagusia.

Lehenengo lana eskema metrikoak egitea izan da, bildumako poema guztien zehaztapenak bilduz, ezaugarriak jasoz, ohar aipagarriak kontuan hartuz. Hori bai: eskema metrikoetan ezin dugu esan erabateko zehaztasunean gabiltzanik, ezinezkoa denez adostasuna silabak zenbatzeko orduan. Izan ere, sinalefak eta kontrazioak egiteko erak, tokian-tokian kantuak ahoskatzeko moduak eta lizentziak han eta hemen desberdinak direnez, baliteke denok bat ez etortzea guk eginiko eskemekin. Hala ere, silaba gutxitako balantza eta fluktuazioa denez, baliagarri direla uste dugu modulu metrikoak nahiko egoki tajutzeko. Mugak muga, esparruak nahiko garbi bereizten bait dira.

Hurrengo lana, sailkatzea da. Hemen ere zail da adostasun bat lortzea. Hasteko, bi tradizio dauzkagu: ifarraldekoa eta hegoaldekoa (2). Estrofaren diseinua desberdin marrazten dugunez, ezin bat etorri estrofei buruzko izendegian. Guk, esan dugunez, *Euskal Baladak* hartu dugu hornigai, eta honela da liburu honetako jokabidea:

“*Neurtitzak*: Hispaniar Erromantzeroan gertatzen den bezala... neurtitzen eraketa da tradiziozko testuak argitaratzekoan arazo eztabaidatuenetarikoa. Gure kasuan arazo hau, euskal metrikoak azterketen garapenaren laburra kontutan harturik, askozaz larriagoa dugu, hain eztabaidatua ez bada ere. Kontua neurtitz laburra... edo luzeak baina bi hemistikiotan banaturik argitaratzea da. Oro har, lehenengo aukeratu dugu, nahiz eta Antologia honetan aldaera batzu neurtitz luzez agertzen diren, hemistikioen arteko etena ateratzea ezinezkoa bait zen batzuetan” (3).

Beraz, aztergai bildumaren iritziari utsiz, eta honi neronek *Ahozko euskal literatura*-n esanikoa sailkapen eredu hartzen dudalarik (4), honen arabera egin ditut estrofen multzoak. Hegoaldeko bertsolari tradizioari utsiz eginiko sailkapena dugu, beraz. Eta baliagarri dela uste dugu, besterik erabakitzen ez den bitartean.

(2) J. Haritschelhar: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862)*. “Cino del Duca”. Biarritz, 1969, 507 eta 478 or.

(3) Y. Lakarra, K. Biguri, B. Urgel. *Ibid.*, 2 t., 11 or.

(4) J. M. Lekuona: *Ahozko euskal literatura*. “Erein”. Donostia, 1982, 139 or. eta hur.



Azken urratsa, emaitza nagusienak biltzea da, eta zenbait ondorio azpimarratzea. Begirada batean, ugaria ez da jasoko dugun uzta, baina ikuspegi zehatzagorik, eta batez ere aipagarriagorik aurki daiteke kontapoesiaren ezagutzarako, ibilpide hau burututakoan.

## 2. MODULU METRIKOAK

Guk aztergaitzat hartutako kontapoesiaren bildumak, eraskotako neurkera moldeak erakusten dizkigu. Zehaztapen eta egiaztapen honek, gauzaren aberastasuna ezezik, erakusten digu, beti ez direla berdinak izan konbentzio metriko-literarioak. Eta nabari diren aldakuntzetatik eta besterik gabe, datu kronologiko zehatzik atera ez badaiteke ere, honek adierazten digu, eredu desberdinetara jo duela kontapoesiak garaiko ulerkuntza eta sentiberatasun estetikoari jarraituz.

Nahiz eta guk aukeratu bildumako poema kopurua haundia ez izan, zehazketa asko eskatzen dizkigu, estrofa-moldeen aniztasuna dela bide. Sail nagusi hauek hesitu ditugu:

1. *Modulu finkoak silabetan, bertso-lerrotan, puntutan*
  - Puntuak hoskidetuz
  - Eredu paralelistikoak
2. *Modulu finkoak silabetan eta puntutan, ez hala bertso-lerrotan*
  - Tiradak
3. *Modulu finkoak bertso-lerrotan eta puntutan, ez hala silabetan*
  - Estrofa periodotuak
4. *Modulu finkoak puntutan, ez hala silaba eta bertso-lerrotan*
  - Periodoak
5. *Modulu ez-finkoak silabetan, bertso-lerrotan, puntutan*
  - Bertso libreak

Uste dugu eskema honetan biltzen direla eredu denak edo gehienak, eta bereizten ere direla modulu desberdinak, modulu metrikoen osagaiak kontuan hartuz. Besterik da gauzen izendapena, batez ere gero etorriko dena. Baina gure helburua oraingoz ez da izena asmatzea eta jartzea, baizik eta eskema metrikoen deskribaketa, hauen sailkapena egitea eta modulu bakoitzaren ezaugarriak aipatzea. Eta izenei buruz, berriz, lehenagorik balego, behin-behingo ezarri. Eta ez balego, berriz, oinarriak jarri, errazago etor gaitzen denok izen jakinetan elkar hartzera.

### 3. PUNTUAK HOSKIDETUZ

#### 3.1. LAUKO TXIKIA

##### 3.1.1. Datuak

###### a. *Ereduak*

- “Frantziako anderea” (EB, 97-104 or.) (5).
- “Aitorra” (EB, 183-184 or.).
- “Kristo meza ematen” (191-192 or.).
- “Neska soldadua” (143-145 or.).
- “Trinidadeko aldareak” (205 or.).

###### b. *Adibideak*

“Zer egite’ozu ama  
orrelan tristerik?  
Nobedade barriak  
jakin ditudaz nik”  
(EB, 97 or.).

“Trinidadeak ditu  
iru aldare  
iru aldare eta  
zazpi lanpare”  
(EB, 205 or.).

###### c. *Eskema metrikoak*

7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A  
7 -/ 5 A/ 7 -/ 5 A

###### d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak, % 8,196.

##### 3.1.2. Ezagarri zabalak

- a. Silabetan: lehenengo hiru piezak zehatzak dira; ez hala beste biak. Eta silaba bateko balantza dago, nahiz gora nahiz behera, funtsezko eskemarekin ez-zehatzak erkatuz gero.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: hamairu silabetako estikoek eta bi puntuak ezarririko legepean, perpausa laburrez eta gutxiz jokatu nahi izan du autoreak.
- c. Estiloan: malgutasuna, bizitasuna eta eskuarki zama erretorikorik ezagutzen ez duen eredu metrikoa.

---

(5) *Euskal baladak* bilduma hau askotan aipatu beharra daukagunez, laburdurak erabiliz egingo ditugu testu aipamenak: EB eta orrialdea, beti bigarren tomoa izango delarik, besterik adierazi ezean.

### 3.1.3. Izendapena

Bertsolaritzatik hartua. (Ikus gure AEL, 148 or.) (6).

## 3.2. ZORTZIKO TXIKIA

### 3.2.1. Datuak

#### a. *Ereduak*

- “Atarratze Jauregian” (EB, 72-76 or.).
- “Judu Herratua” (EB, 116-120 or.).
- “Apostua” (EB, 212-213 or.).
- “Bordaxuriren kantua” (EB, 214-216 or.).
- “Desertura” (EB, 217-218 or.).
- “Estudiante kondenatua” (EB, 218-219 or.).
- “Harizpe Jenerala” (EB, 223-224 or.).
- “Jose de Larrinaga” (EB, 224-227 or.).
- “Mandamentuak” (EB, 228 or.).
- “Markesaren alaba” (EB, 229-231 or.).
- “Montebideoko bertsoak” (EB, 232-234 or.).

#### b. *Adibideak*

“Atharratz jauregian bi zitroñ doratü Ongriako Erregek batto dü galthatü Arrapostü ükhen dü eztirela huntü huntü direnian batto ükhenen dü. (EB, 72 or.).	Atharratzeko hiria hiri ordoki hur handi bat badizü alde bateti Errege bidia erdi erditi Maria Maidalena beste aldeti” (EB, 72 or.).
---	--

“Ote da nundu huntan deusere gai denik  
judu herratiari konpari daitenik?  
Nik ez dut uste baden nehon miserablerik  
haren zortuari hurbil daitekenik”.  
(EB, 116 or.)

---

(6) AEL laburdurak gure *Ahozko euskal literatura* adierazten du, gorago aipatu dugun hori.

“Astelehen goizian  
 Santa Klairan nintzan  
 bai eta gaiherditan  
 phena handitan  
 xori bat jin zereitan  
 abertitzera  
 gai hura izanen zela  
 oi ene malura”  
 (EB, 217 or.).

c. *Eskema metrikoak*

– “Atharratz jauregian”:

7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A/ 6 -/ 6 A

– “Atharratzeko hiria”:

7 -/ 5 A/ 7 -/ 5 A/ 6 -/ 5 A/ 7 -/ 5 A

– “Ote da mundu huntan”:

13 (7/6) A/ 13 (7/6) A/ 13 (7/6) A/ 12 (6/6) A

– “Astelehen goizian”:

7 -/ 6 A/ 7 -/ 5 A/ 7 -/ 5 B/ 7 -/ 6 B

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 18,032. Bi eredu bakarrik kontapoesia zaharrekoak; gainerakoak bertsoaritzan sartzen direnak.

3.2.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Silabetan: Zortzi eredu zehatzak dira silabetan, hiru ez-zehatzak. Eta silaba bateko balantza dago, gora nahiz behera, funtsezko eskemarekin ez-zehatzok konparatzen baditugu.
- b. Diskurtso poetikoaren garapenerako: hamairu silabatako estikoak diren arren, beraz perpausa laburrak egin beharra eskuarki, bestalde lau puntuek perpausa ugari sartu beharra dakar ereduak, alderdi morfosintaktikoa areagotuz, eta estilistika aldatuz.
- c. Estiloan: eredu ertaina da malgutasunean, hala ere bizia, nahiz eta ugaritasuna gogoan behar den jokatu.

3.2.3. **Izendapena**

Bertsolaritzatik hartua, herrian erroituriko izena (AEL, 146 or.).

### 3.3. HAMARREKO TXIKIA

#### 3.3.1. Datuak

a. *Eredua*

“Hamalau heriotzena” (EB, 220-223 or.).

b. *Adibidea*

“Bertso berri batzuek  
ditut aterako  
Munduko kriaturen  
eskarmenturako;  
grazia eskatzen dizut  
Jauna, artarako  
zeren arkitzen zadan  
motiboa franko  
pekatore aundi bat  
izan naizalako”  
(EB, 220 or.).

c. *Eskema metrikoa*

- 7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A/ 7 -/ 6 A

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak, % 1,639. Bertsolaritzaren esparrukoa.

#### 3.3.2. Ezaugarri zabalak

a. Eredu bakarra eta berau zehatza silabetan.

b. Diskurtso poetikoaren garapenerako: puntutik puntura hamairu silabatako estikoak, eta beraz perpausa laburrak, nahiz bakunak nahiz menpekoak. Bost puntuek berekin dute perpausen ugaritasuna ere, estrofako esaldien unitatea aberatsa gertatzen dela, eta ñabardura estilistiko jakinak.

c. Estiloan: malgutasun gutxiago kondairarako, osagai gehiago lirikarako, errimen gozotasunera isuriz.

#### 3.3.3. Izendapena

Bertsolaritzatik hartua, herrian erroturiko izena delarik (AEL, 146 or.).

### 3.4. LAUKO NAGUSIA

#### 3.4.1. Datuak

##### a. *Ereduak*

“Juan De Flores” (EB, 113 or.).

“Kristau onak” (EB, 191-192 or.).

“Arantzazura” (EB, 186-188 or.).

##### b. *Adibideak*

“Anaiari gaztigatu nion  
isilik karta batean  
ea lagunduko zidan ez  
gizona ortzitzen lurrean”  
(EB, 113 or.).

“Kristinau onak bear luke  
jaian-jaiari pentsadu  
aste guztian zeinbat bider  
ein ote dabean pekatu”  
(EB, 190 or.).

“Arantzazura egin dut promesa  
ero gau ero egunez  
ero gau ero egunez eta  
oinutsean ta dolorez”  
(EB, 186 or.).

##### c. *Eskema metrikoak*

– “Juan de Flores”

9 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A

9 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A

– “Kristinau onak”

9 -/ 7 A/ 9 -/ 8 A

10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A

– “Arantzazura”

10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A

##### d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak, % 4,918. Kontapoesia tradizionalenak.

#### 3.4.2. Ezaugarri zabalak

- a. Silabetan: Bi eredu ez-zehatzak dira, bat zehatza silabetan. Eta silaba bateko balantza dago, nahiz gora nahiz behera, bertso-lerro ez-zehatzak funtsezko ereduaz konparatzen badira.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: hemezortzi silabatako estikoek esaldi hornituagoak ontzera daramate kantaria, nahiz eta bi puntuek asko mugatu perpaus aberastasuna.

- c. Estiloan: malgutasuna kondairarako, bizitasuna unitate estrofi-koak eraikitzeke, zama-erretorikoak uxatuz.

### 3.4.3. Izendapena

Bertsolaritzatik hartua (AEL, 142-143 or.).

## 3.5. ZORTZIKO NAGUSIA

### 3.5.1. Datuak

a. *Ereduak*

“Egun bereko alarguntsa” (EB, 84-86 or.).

“Pulunpa” (EB, 243 or.).

b. *Adibideak*

<p>“Goizian goizik jeiki nündüzün          espusa nintzan goizian;          bai eta zetaz ere beztitü          ekhia jelkhi zenian;          etxek'andere zabal nündüzün          egüerdi erditan          bai eta ere alharguntsa gazte          ekhia sarthü zenian”          (EB, 84 or.).</p>	<p>“Mila zortzi ehun eta          berrogei eta bigarrena          uztail hilabetearen          hamaseigarren eguna          kantu berri xarmagarri hau          eman izan nituiena          sujet bat errekontraturik          zitekeien ederrena”          (EB, 243 or.).</p>
---	--

c. *Eskema metrikoak*

– “Egun bereko alarguntsa”.

10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A/ 10 -/ 7 A/ 10 -/ 8 A

– “Pulunpa”

8 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak, % 3,278. Bat kontapoesia zaharrekoa, bestea bertsolaritzakoa.

### 3.5.2. Ezaugarri zabalak

- a. Silabetan: Ez dira zehatzak, ez bata eta ez bestea. Silaben balantza eta gorabehera, funtsezko ereduaren arabera, silaba bateko aldea nabari da.

- b. Diskurtsu poetikoaren garapena: Hemezortzi silabatako estikoek eta lau puntuek esaldi luzeak egiteko posibilitatea dakarte, eta gainera, perpausa multzo ongi egituratua eskatzen da.
- c. Estiloan: Erretorikarako isuria ezartzen du estrofaren egiturak, nahiz eta lehengo kasuan oso testu trinkotua gertatu, latza beza-hin aberatsa.

### 3.5.3. Izendapena

Bertsolarizatik hartua, eta usarioan asko erabilia (AEL, 142-143 or.).

## 3.6. SEIKO NAGUSI HAUTSIA

### 3.6.1. Datuak

- a. *Eredua*  
 “Pasioko bertsoak” (EB, 234-241 or.).
- b. *Adibidea*  
 “Jesukristori kendu ezker  
 pekatuakin bizitza  
 baldin ez badet negar egiten  
 arrizkoa det biotza  
 Guziok lagun  
 kanta dezagun  
 bere penazko eriotza”  
 (EB, 234 or.).
- c. *Eskema metrikoa*  
 10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A/ 5 B/ 5 B/ 8 A
- d. *Bataz beste zenbat*  
 Eredu honetakoak, % 1,639. Eliz tradiziokoa.

### 3.6.2. Ezaugarri zabalak

- a. Silabetan: zehatza. Aita Agustin Basterretxearen (1700-1761) sorta ezaguna dugu, gipuzkeratua.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: molde nagusikoen efektua dago, distikoen luze-laburrez, eta puntuen eraginez. Baina hausturak berritasuna ematen dio eta bizitasuna, tuntunaren nekea arinduz.



- c. Estiloen: estrofaen azkenak erritmo berria hartzean, badirudi azken esaldiaren karga eta indarrak bulko berri bat hartzen duela, hausturaren eraginez.

### 3.6.3. Izendapena

Bertsolaritzatik egokituz hartua (AEL, 160-161 or.).

## 3.7. KOPLA

### 3.7.1. Datuak

#### a. *Ereduak*

“Andre Emilia” (EB, 67-69 or.).

“Bereterretxen khantoria” (EB, 79-81 or.).

“Pedro Karlos Mendi” (EB, 241-242 or.).

“Urrutiako Anderea” (EB, 175-177 or.).

#### b. *Adibideak*

“Andr’Emili’ andre gora,  
Ecin diro eguirik ora  
Artoric jorra hain guti,  
Bihoa mairu herrin gora”  
(EB, 67 or.).

“Urteak zonbat egun tu?  
Sorak kainbat zinta tu:  
erdiak ditu Probidorenak  
beste erdiak Urttik emanak”  
(EB, 241 or.).

“Haltzak eztü bihotzik  
ez gaztanberak ezürrik.  
Enian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezurrik”  
(EB, 79 or.).

“Sorthu nintzan Etxausian  
hazi Garatian Agerrian  
eskolatu Baiunian  
madamatu Urrutian”  
(EB, 175 or.).

#### c. *Eskema metrikoak*

- “Andre Emilia”  
8 A/ 8 A/ 8 -/ 8 A
- “Bereterretxen khantoria”  
7 A/ 8 A/ 10 -/ 8 A
- “Pedro Karlos Mendi”  
8 A/ 7 A/ 10 B/ 9 B
- “Urrutiako Anderea”  
8 A/ 8 A/ 8 A/ 8 A  
8 A/ 8 A/ 8 -/ 8 A  
8 A/ 8 A/ 9 -/ 8 A  
8 A/ 8 A/ 11 -/ 8 A

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 6,557. Kontapoesia zaharretan.

3.7.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Silabetan: ez dira zehatzak silabetan. Balantza edo fluktuazioa, bat gora, bat behera, funtsezko ereduarekin erkatzen baditugu eskemak. Puntu aldaketarik ere agertzen da hirugarrenean, agian erosioaren eraginpean.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: Hasierako distikoe (8 A/ 8 A) horiek, estilizatorako bide, ematen dute. Eta bigarren partea molde nagusiaren bukaera da. Bi parte ditu eredu honek.
- c. Estiloa: prestaera eta errematea ditu: malgutasuna kontarako, zorroztasuna aforismorako, bizitasuna pentsamolderako.

3.7.3. **Izendapena**

Herri-literaturan ohizko deitura (AEL, 156 or.).

3.8. **KOPLA NAGUSIA**3.8.1. **Datuak**a. *Eredueak*

“Aphez beltxaren kantua” (EB, 210-212 or.).

“Ene mutilik ttipiena” (EB, 88-90 or.).

“Jaun Barua” (EB, 110-111 or.).

“Musde Sarri” (EB, 129-133 or.).

b. *Adibideak*

“Igande mezak erraitan  
Harrixuriko gainian  
eskopeta kargatu nuen  
neuretzat zorigaitzian  
bai eta ere deskargatu  
aphez beltxaren gainian”  
(EB, 210 or.).

“Jaun Barua aspaldin  
xedera bat edätü zin.  
Txori eijer bat atzaman düzü  
Paueko seroren konbentin.  
Orai harekin lotzen düzü  
aspaldian desir beitzin”  
(EB, 110 or.).

“Ene mutilik ttipiena  
ene mutilik maitena  
habil hara ta habil hunat  
mastaño horren gainera  
mastaño horren gainerat eta  
ageri denez leihorra”  
(EB, 88 or.).

“Urzo luma gris gaixoa  
ore bidaian bahoia  
batzen bazaik Musde Sarri  
jaun apetitu hun hori  
begiz ikhusten balin bahai  
Petiriñerat bahoia”  
(EB, 129 or.).

c. *Eskema metrikoak*

- “Apez beltxaren kantua”  
9 A/ 8 A/ 9 -/ 8 A/ 9 -/ 8 A
- “Ene mutilik ttipiena”  
9 A/ 8 A/ 9 -/ 8 B/ 10 -/ 8 B
- “Jaun Baruak”  
7 A/ 8 A/ 10 -/ 9 A/ 9 -/ 8 A
- “Musde Sarri”  
8 A/ 8 A/ 8 -/ 8 -/ 9 -/ 8 A

d. *Bataz beste zenbat*

Molde honetakoak: % 6,557. Bertsolaritza ezaguneraren aurreko tradizioetik dirudienez.

3.8.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Silabetan: ez dago zehaztasunik. Balantza edo fluktuazioa silaba batekoa, funtsezko ereduari atxekiz. Puntu aldaketarik ere badago.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: sarrerako distikoa eta gero molde nagusiaren haritik.
- c. Estiloan: sarrera estiliztua, eta ondoren multzo ugaritako erai-kuntza testuala, erabilgai erretorikoak barne.

3.8.3. **Izendapena**

Bertsolaritzatik hartua, baina erro jakinik gabea (AEL 156).

3.9. **BIKO BERDINA HAMABI SILABEZ**3.9.1. **Datuak**

- a. *Eredua*  
“Ura isuririk” (EB, 173 or.).
- b. *Adibidea*  
“Ura ixuririk sorginen bidean  
dohaina bildu dut Bazko arratsean”  
(EB, 173 or.).
- c. *Eskema metrikoa*  
12 (6/6) A  
12 (6/6) A

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 1,639. Bertsolaritzatik at.

3.9.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Silabetan: zehatza, balantzarik gabea. Puntuak finko.
- b. Diskurtsu poetikoaren garapenerako: bi eten ditu eta lau multzotan banatzen dira perpausak, bakunak nahiz menpekoak.
- c. Estiloa: esentzialdua, behar-beharrezko materialeak erabiltzen dituen. Malgutasuna baino nabariago du trinkotasuna. Eskematua.

3.9.3. **Izendapena**

Bertsolaritzatik hartua, baina errotu gabeko deitura (AEL, 163-165 or.).

3.10. **MOLDE BEREZIAK**3.10.1. **Datuak**a. *Ereduak*

“Anderea gorarik” (EB, 63-65 or.).

“Martin Bañez Artazubiagaren eresia” (EB, 36 or.).

b. *Adibideak*

“Anderia gorarik zaude leihoan  
zure senharra behera da Frantzian.

Hura handik jin daiteken artian  
eskutari ni har nezazu etxian”  
(EB, 63 or.).

“Oñetaco lurrau jabilta icara,  
Lau araguioc an verala,  
Martin Bañes Ybarretan il dala”  
(EB, 35 or.).

c. *Eskema metrikoak*

– “Anderia gorarik”

12 (7/5) A/ 12 (5/7) A/ 12 (6/6) A/ 12 (5/7) A

– “Martin Bañez...”

11 A/ 11 A/ 11 A (1. estrof.)

12 B/ 10 B/ 11 B (2. estrof.)

d. *Bataz beste*

Eredu honetakoak: % 3,278. Kontapoesia tradiziozkoak.

3.10.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Modulu finkoak dira silaben aldetik; ez hala etenen aldetik, behar bada.
- b. Silaben eta puntuen aldetik zortziko txikitik hurbil den eredia dirudi, eta beraz, antzeko eragina dute diskurtsu poetikoaren garapenean eta estiloan.

3.10.3. **Izendapena**

Bertsolaritzatik hartua (AEL, 165 or.).

3.11.1. **MOLDEAK NAHASIAN****ZAZPIKO BERDINA PUNTUTAN ALDAKOR**a. *Eredua*

“Ahetzeko Anderea” (EB, 39-42 or.).

b. *Adibideak*

“Hauzeko anderia  
Urrutian khorpitzez  
hor dü bere büria  
kanpoan da bihotzez”.

“Nor dü bere maitia?  
Nahi nüke egia.  
Jinkoak nahi badü  
hilzia ükhenen dü”  
(EB, 39 or.).

c. *Eskema metrikoak*

7 A/ 7 B/ 7 A/ 7 B  
7 A/ 7 A/ 7 B/ 7 B

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 1,639.

3.11.2. **Ezaugarriak**

Molde ertainarenak, molde txikiaren eta klasikoaren artekoak.

3.11.3. **Izendapena**

Bertsolaritzatik hartua, baina errorik gabeko deitura.

**MOLDE NAGUSIA, KOPLA ETA TIRADA**

- a. “Ama Birjina” (EB, 185-186 or.).  
 “Marijesiak” (193-200 or.).  
 “Miserere” (EB, 201-202 or.).  
 “Birjina Arantzazukoa” (EB, 189-190 or.).
- b. *Ezaugarriak*  
 Denen konbinaketek ezarririkoak.
- c. *Izendapena*  
 Bertsolaritzatik eta erdal hiztegitik (“tirada”).
- d. *Zenbat*: % 6,557.

**4. EREDU PARALELISTIKOAK****4.1. DEIKIAK PUNTUETAN ERREPIKATUZ****4.1.1. Datuak**

- a. *Ereduak*  
 “Leisibatxo” (EB, 124-127 or.).  
 “Urtsua” (EB, 179-181 or.).
- b. *Adibideak*  

“Xinkoak dizula egun ona andere aurena. Bai eta zuri ere jaunaia zalduna. Bokata latsan ari zira andere aurena? Ekusi badukezu jaunaia zalduna” (EB, 124 or.).	“Kalian zer berri da ene anaia jauna? Zu añaña zarella ene arreba Ioana. Zertaik zautu dadate ene anaia jauna? Kotilluna laburtu nere arreba Ioana” (EB, 124 or.).
--	--
- c. *Deikiak*  
 “andere aurena” eta “jaunaia zalduna”  
 “ene anaia jauna” eta “ene arreba Ioana”.
- d. *Bataz beste zenbat*  
 Eredu honetakoak: % 3,278. Kontapoesia tradiziozkoak.

#### 4.1.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Estrofaren ikuspegi berria: punturik gabea eta bertso-lerro inpareetan bakarrik ehotzen delarik testua.
- b. Deikiaren aipamen ironikoa: maila soziala aipatzen da, edota solaskidearen izena eta ahaidetasuna. Baina azpitik intentzio makurragoak adierazten dira.

#### 4.1.3. **Izendapena**

Asmatzekotan.

### 4.2. **ERDIAN ERRENKO BERTSO-LERRO BERA ERREPIKATUZ, BIHURKIA EGINEZ**

#### 4.2.1. **Datuak**

- a. *Ereduak*  
“Neska ontziratua” (EB, 137-139 or.).
- b. *Adibidea*  
“Brodutzen ari nintzen  
ene salan jarririk  
aire bat entzun nuen  
itsasoko aldetik  
itsasoko aldetik  
untzian kantaturik”  
(EB, 137 or.).
- c. *Errepika*  
“itsasoko aldetik”, “itsasoko aldetik”.
- d. *Bataz beste*  
Eredu honetakoak: % 1,639.

#### 4.2.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Bertso-lerroa errenko eta estrofaren barruan errepikatzeak, bihurkiduna izateak, alderdi mnemoteknikoek eta sintaktikoez gainera, espresioa enfatizatzen duela onar daiteke.
- b. Gainerako egituretan estrofa ohizkoen eitea du diskurtsoaren garapenean eta ereduaren estiloan.

#### 4.2.3. **Izendapena**

Asmatzekotan oraindik.

### 4.3. **ERDIAN ALTERNATZIAN BERTSO-LERRO BERA ERREPIKATUZ, BIHURKIA EGINEZ**

#### 4.3.1. **Datuak**

##### a. *Eredua*

“Fraide txar batek” (EB, 151-154 or.).

##### b. *Adibidea*

“Fraide txar batek jakin zuen  
etxekandre bat gaizki zela  
haren senarra hor ez baitzen  
kyrie, kyrie  
haren senarra hor ez baitzen  
a la mezon  
kyrie eleison”  
(EB, 151 or.).

##### c. *Errepikak*

“haren senarra hor baitzen” eta “haren senarra hor ez baitzen”  
“kyrie” eta “kyrie” eta “kyrie eleison”.

##### d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 1,639.

#### 4.3.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Enfasi berezia ematen dio bihurkiduna izateak.
- b. Hitz arrotzak tartekatzea prozedura ezaguna dugu herri-literaturan estilazioa sortzeko, ironia oraindik areagotuz.
- c. Errepikak leku handia dute pentsamenduaren erritmoan.

#### 4.3.3. **Izendapena**

Asmatzekotan baina izen propia eraman dezake (“Gizona saskian”).



#### 4.4. ESTRIBILOA ERREPIKATUZ

##### 4.4.1. Datuak

a. *Eredua*

“Peru gurea” (EB, 148-149 or.).

b. *Adibidea*

“Londresen dot neuk senarra  
zirin bedarrak ekarten.  
Bera andik dan artean  
gu emen dantza gaitezen.  
Oi au egia!  
daigun jira bi Maria”  
(EB, 148 or.).

c. *Errepika*

“Oi au egia!  
daigun jira bi Maria”.

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 1,639.

##### 4.4.2. Ezaugarri zabalak

- Estribiloa denez, koroa dakar gogora.
- Laburragoa denez, erritmoa hausten du, esklamaketak sartuz.
- Ironia azpimarra daiteke, eta dantza giroa.

##### 4.4.3. Izendapena

Erabakitzekotan, agian.

#### 4.5. ESTROFEN HASIERAN DEIKIAK ERREPIKATUZ

##### 4.5.1. Datuak

a. *Eredua*

“Errege Jan” (EB, 92-95 or.).

b. *Adibidea*

“Ene ama, othoi, errazu  
mithil horiek zer duten.  
Ene alhaba, deüjerik ez  
zamari beltza galduriken.

Ene ama, othoi, errazu  
neskato horiek zer duten.  
Ene alhaba, deüjerik ez  
zilhar unzi bat hautse duten”  
(EB, 92 or.).

c. *Errepikak*

“Ene ama” eta “ene-alhaba”.

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 1,639.

4.5.2. **Ezaugarri zabalak**

- a. Deiekiek kondairaren progresioa eta aurrerapena markatzen dute, egitura paralelistikoa emanez kantu osoari.
- b. Elkarrizketaren egitura, alternantzia markatuz, eta solaskideen barne-egoera ispilatuz: jakinmina eta ezkutatu beharra.

5. **MONORRIMO ANDANAK**

Gorago esan dugunez, modulu finkoak dira silabetan eta puntutan, baina ez hala bertso-lerrotan. Horrelako bertso eredua erabili izan zen Espainiako “cantares de gesta” izeneko kontapoesian. Joera beratsua aurki daiteke euskarazkoetan ere.

5.1. **MOLDE NAGUSITIK**5.1.1. **Datuak**a. *Ereduak*

- “Amoros baztertua” (EB, 52-54 or.).  
 “Ana Juanixe” (EB, 56-59 or.).  
 “Lantzarena” (EB, 122-123 or.).  
 “Testamentuarena” (EB, 167-170 or.).  
 “Leloren kanta” (EB, 263-264 or.).

b. *Adibideak*

Egun batian ni banenguan  
kostela kostel gaiñian.  
Ni banenguan kostel saltzian  
ezpabe gari saltzian.  
Iru damatxu etorri ziran  
bata bestien atzian  
irugarrenak pregunta eustan  
gariak zegan zirian.

Bestientako dirutan eta  
zuretzat laztan trukian.  
Ez nagizula lotsatu arren  
onelan plaza betian  
onelan plaza betian eta  
ainbeste jente artian...”  
(EB, 56 or.).

“Izar ederrak argi egiten dau  
zeru altuan bakarrik.  
Ezta bakarrik, lagunak ditu  
Jaun Zerukoak emorik.  
Zazpi aingeru aldean ditu  
zortzigarrena gaixorik;  
zazpi mediku ekarri deutsez  
India Madriletatik.

Arek igarri, arek igarri  
nundik dagoan gaixorik:  
amoreminak badituz onek  
errai artean sarturik.  
Guzurra diño mediku onek  
Nik eztot amore miñik...”  
(EB, 167-168 or.).

c. *Eskema metrikoa*

10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A/ 10 -/ 8 A etc.

d. *Bataz beste zenbat*

Eredu honetakoak: % 8,196.

5.1.2. **Ezaugarri zabalak**

- Puntuetan atzizkiak erabiltzeko joera nabari da: “Ana Juanixe”-k eta “Lantzarenak” beti “an” atzizkia bakarrik sartuz; “Amoros baztertuak” “an” atzizkia eta “tzen” gerundioko aditz atzizkia erabiliz; eta “Leloren kanta” hitzen erroetan hoskidetza oinarrituz. “Testamentuarena”-k “rik” eta “tik” atzizkiak sartu arren, badarabil beste punturik ere.
- Puntu jakinetako estrofaren dinamika hausten da, errematearen egiteko nagusia ezkutaraziz. Diskurtsoaren garapena ez dago hain loturik estrofaren modulu jakinari.
- Estiloan: mnemotekniaren eta teknika zaharren presentzia gehiago nabari da eskuarki.

5.1.3. **Izendapena**

Deskriptiboa: monorrismo andana molde nagusitik.

## 5.2. MOLDE TXIKITIK

### 5.2.1. Datuak

#### a. *Eredua*

“Orriak airez aire” (EB, 202-204 or.).

#### b. *Adibidea*

“Orriak airez aire  
ifartxo dultzea  
landa mintz ederrean  
doan errekea.  
Antxe topadu neban  
Birjina Maria  
El Romance, acerca del cual se ha escrito tanto y que tantas colecciones ha generado, constituye un género cuyos ejemplos, integrados habitualmente por un texto y una melodía ensamblados, basan precisamente en la mayor o menor perfección de esa simbiosis su calidad y su perpetuación; no de otro modo se explica que algunos ejemplos hayan superado la barrera del tiempo para llegar a nuestros días como paradigma de un perfeccionado “sistema de sistemas”, en el que cada parte de las que componen el todo se comporta de acuerdo a unos esquemas que el paso de generación en generación y un cierto “estilo” han ido conformando. En el proceso, tanto de producción como de divulgación, intervienen un creador del tema (tanto musical como literario, aunque a veces pueden ser la misma persona), un difusor y, por supuesto, un receptor o receptores del mismo; conozcamos algunos aspectos de la actuación de cada uno, advirtiendo que, si bien llegan a existir unas normas sobre las que se basa su comportamiento, hay una buena dosis de capricho humano en dicho procedimiento.

*El creador.* Suele ser costumbre común la de dar a los Romances (y en general a todo el repertorio tradicional) la categoría de anónimos, haciéndose en muchos casos difícil demostrar su paternidad; y sin embargo, existe ese tipo especial de músico o de poeta capaz de componer dentro de un “estilo” o forma cuyos límites han ido acotando y dando forma otras personas similares a él que le precedieron. Su composición, una vez creada, se incorpora así fácilmente a la corriente de temas musicales o literarios que constituye el repertorio tradicional, no desentonando por lo general del resto de los ejemplos ya integrados. El creador musical sabe que debe construir varias frases melódicas cortas y combinarlas correctamente, sea con un verso de dieciséis sílabas, sea con los dos hemistiquios de ocho sílabas que dan forma al texto (no es normal que una frase abarque tres o cuatro versos de ocho sílabas, por ejemplo). Esas frases tendrán un perfil característico —con un comienzo, un ascenso y un final, o con un descenso hasta el final— acoplándose

unas a otras para constituir la melodía completa; ascenderán y descenderán por intervalos formando grupos de notas que, dentro de un ámbito no mayor de una octava por lo general, se identifiquen con formas estéticas conocidas o familiares para el propio artista, ajustándose de esa manera a aquel modelo cuyos componentes rítmicos y melódicos se correspondan con los de la comunidad o grupo étnico en que tienen su génesis. El hecho de que esas frases formen un bloque que se va repitiendo a lo largo de toda la composición, facilitará su aprendizaje. Finalmente, el tipo de música creado suele proceder de tres fuentes: La del músico local, la del músico ambulante y la del músico culto; en todos los casos cada composición estará condicionada por la idiosincrasia musical del creador.

*El difusor.* Suele ser también un especialista (es decir una persona cuyas características —memoria, interés, capacidad gestual, facilidad para la interpretación— le hacen especialmente apto para esa función); como tal especialista puede estar en ocasiones formado en una tradición musical de carácter local (lo que supondría un aprendizaje progresivo de años), o ser simplemente un cantor ambulante que recorre los caminos de mercado en mercado, buscando público para sus coplas impresas que vende a módico precio; tanto en el primero como en el segundo caso, se suele acompañar con algún instrumento que facilita la ejecución del tema sirviendo de apoyatura para la interpretación. Este difusor selecciona su repertorio entre las fuentes de que hablábamos hace un instante, acudiendo al tema localista, a algún tema de los creados por músicos ambulantes o a algún fragmento de una obra mayor compuesta por un músico culto. Sus interpretaciones van formando variantes de cada versión, pues cada puesta en escena es única e irrepetible y suele responder a estímulos distintos. A esa selección, previa a la interpretación, incorpora una serie de características que van quedando después como definitorias para el mismo género; nos referimos, por ejemplo, a la eliminación de pasajes textuales que no sean absolutamente necesarios para la comprensión del argumento, dejando así versiones sintéticas de una gran intensidad; o a la utilización de los estilos silábico o melismático (una o varias notas, respectivamente, para cada sílaba) con los que introduce en la interpretación del romance su propia predilección por el adorno; o a la utilización del recurso de repetir la última o las dos últimas frases musicales cuando el sentido completo de una oración (hasta el punto o punto y coma) no acaba en los cuatro primeros versos y continúa hasta el sexto; en este caso, se busca una acomodación de la melodía al sentido de la frase literaria que no haya terminado en el cuarto octosílabo. Por ejemplo, en la siguiente versión del romance del “Conde Claros”, los ocho primeros octosílabos están dentro de un estilo que podríamos llamar regular (que empareja cada una de las cuatro frases musicales de que está compuesta la melodía, que se van repitiendo hasta el fin,

con un octosílabo); pero al llegar a los octosílabos noveno a duodécimo nos encontramos con que el sentido de la frase no acaba en ellos, sino que hay que continuar leyendo dos más:

A = Se ha cogido su caballo	B = para el palacio se va
C = por la calle de las damas	D = el caballo va a bailar
C = y por la de doña Clara	D = el caballo relinchar.

Otro recurso consiste en utilizar fórmulas ya acuñadas cuando su memoria o su atención se disipan y no recuerda la continuación; en este sentido la habilidad de los buenos especialistas es proverbial, pues saben aplicar perfectamente los parches correspondientes a cada situación, bien sea invención o recreación de textos, bien repetición de alguna frase musical hasta que recupera la memoria ida.

Otro recurso, privilegio tanto del creador como del difusor, es la aplicación de estribillos a las melodías de determinados romances. Recordemos algunos:

Melodía 1  
Melodía 2  
Melodía 3

o aquel estribillo tan largo de las “Tres comadres”: Perejil con cola y eran las tres; la Juana Latana, La Trini y la Inés.

Al respecto cabe señalar que la tradición infantil presenta gran propensión a transformar en estrófica la forma de los romances que se popularizan dentro de ella; tal proceso es llevado a cabo de distintas maneras, pues aquí el romance no tiene el sentido que podría esperarse de otros casos en que el hilo narrativo es lo fundamental, y así, aparte de no ser interpretado por un especialista sino por niños, sólo sirve como pretexto para acompañar o escenificar un juego, con lo que se altera la funcionalidad. De este modo no importa demasiado que se rompa el asonante seguido, o que se caiga en el consonantismo, o que, como hemos dicho, se introduzcan estribillos o reiteraciones que interrumpen la estructura narrativa. Una costumbre muy frecuente es la de repetir una frase o frases musicales y la secuencia literaria correspondiente, dos veces; puede ser un recurso memorístico para acordarse de la letra que viene a continuación de la que están cantando, sirviendo ese tiempo de repetición para facilitar la repentización del siguiente verso; también puede tratarse de un recurso estilístico puesto en práctica para embellecer o favorecer estéticamente una melodía excesivamente corta, comp puede suceder en el caso de “Monja contra su gusto” o “Las hijas de Merino”.

Melodía 4  
Melodía 5

Sucede a veces que el especialista difusor transgrede las normas del metro octosilábico, hilvanando la primera secuencia con la segunda gracias a una conjunción que rompe la cesura central; parece que, de este modo, el intérprete añade cierta “expresividad” al texto, haciéndolo con gran “oficio” y libertad, puesto que no deja de ser fruto de su propia intuición o de la costumbre. En otras ocasiones, y sin ningún tipo de dificultad, introduce una sílaba o dos más en el verso ajustando la melodía con el simple método de repetir una nota de la frase musical: “No me pesa haber venido”, por ejemplo, se transforma en “no me pesa el haber venido”. O “de noche duermen con ella” pasa a ser “Y de noche duermen con ella”.

Resultado de todas estas aportaciones son versiones y variantes sin número en cuya diferencia está el gusto y multiplicidad de las producciones. Gracias a esa heterogeneidad se puede, incluso, aventurar una tipología basada en las distintas formas de combinarse texto y melodía. Así, atendiendo a esa morfología, habría romances de una sola frase musical:

Melodía 6      $A = a + b$

De dos frases:

Melodía 7      $A = a + b$   
                    $B = c + d$

De tres frases:

Melodía 8      $A = a$   
                    $B = b + c$   
                    $C = d$

De cuatro, que suelen ser los más frecuentes:

Melodía 9      $A = a$   
                    $B = b$   
                    $C = c$   
                    $D = d$

Y hasta de ocho:

Melodía 10

Los difusores, por otra parte, no son ajenos ellos mismos a la recepción de influencias, sea por su carácter de creadores o recreadores, sea por su exposición constante a novedades. Estas pueden provenir de los campos más diversos; una versión del romance conocido como “El rondador desesperado” comienza:

Melodía 11

Quienes estén familiarizados con la música popular difundida a través de los medios de comunicación durante los años veinte, reconocerán la similitud entre esta melodía y aquellas “Colombianas” que con tanta profusión difundieron artistas de las características de Angelillo, por ejemplo. ¿Casualidad? Creemos que no; es muy probable que el comienzo de este romance se haya contaminado —por ofrecer una primera frase musical semejante— con el inicio de esas colombianas. Pero no acaba ahí la cosa, pues a cualquier persona que conozca la música litúrgica le resultará asimismo familiar el incipit de la Antífona “Omnis Spiritus”, que tantos puntos de contacto tiene con los dos ejemplos anteriores.

¿Y qué decir de esas versiones-tipo que aparecen repartidas por casi toda la Península y que se aplican indistintamente a unos y otros romances? Es probable que su difusión se deba, en buena parte, a los cantores ambulantes que recorrían sendas estudiadas de antemano y que les llevaban a las ferias y mercados correspondientes donde tenían más o menos asegurada la venta de sus pliegos; pero también pueden tener su origen en papeles, pliegos o libros recibidos por maestros o párrocos de sus correspondientes fuentes de información (boletines diocesanos, revistas profesionales, pliegos de librerías religiosas, etc.). Lo cierto es que este tipo de versiones, cuyas variantes no son excesivas, suelen responder a modelos relativamente recientes (quiero decir con ello, de poco más de siglo y medio) cuyos rasgos comunes son todavía, pese a su amplia difusión, más abundantes que los diferenciadores. En cualquier caso hay que reconocer a aquellos copleros su extraordinaria actividad y su colaboración a la hora de difundir esas melodías que en alguna ocasión he denominado “prototipos compartidos”, es decir estructuras melódicas que por su amplia popularización se llegaron a aplicar a distintas letras, del mismo modo que los denominados “prototipos exclusivos” quedaban adscritos a una sola letra.

Además, la labor del especialista difusor (tanto más positiva a nuestro juicio cuanto más haga valer esa especialización) produce determinadas variantes musicales dignas de atención entre las que se pueden destacar éstas:

1. Alteración del modo. La alteración de algún grado, por uso o degeneración, puede llegar a crear melodías aparentemente distintas y sin embargo procedentes de un mismo origen.

Melodía 12

Melodía 13

2. Alteración del compás o de la fórmula rítmica:

Melodía 14

Melodía 15

3. Alteración de una frase musical (generalmente la segunda) en un romance de dos frases, manteniendo la otra idéntica; también se da el caso de contaminación o confusión de la primera frase con otra parecida.

Veamos un ejemplo del primer caso:

Melodía 16

Melodía 17

*Los receptores.* Por último y en lo que respecta a los receptores, en cualquier ámbito en el que estén y reciban el mensaje (fiesta popular, teatro, café cantante, servicio militar, el templo, etc.), puede afirmarse que su actitud es de dos tipos, activa y pasiva. Receptor activo será aquel que reciba y asimile algunas de las versiones interpretadas por el difusor, incorporándolas incluso a su propio repertorio, y pasivo el que sólo muestra su aceptación o rechazo a lo escuchado haciendo uso de esa facultad que siempre tiene la audiencia de modificar el gusto del especialista con su dictamen estético y su elección.

Todo lo precedente nos ayuda a extraer las siguientes conclusiones:

— En el proceso de creación y difusión de los romances intervienen “especialistas” que, con un mayor o menor grado de habilidad, contribuyen decisivamente a la formación o remodelación de un repertorio básico musical y literario en el que, junto a romances de notable antigüedad recibidos de una tradición familiar, se introducen otros, procedentes de otras vías de difusión, que se van incorporando en cada generación de acuerdo a las apetencias musicales de sus correspondientes épocas.

— En aquel proceso, asimismo, se dan las circunstancias necesarias para que se vaya imponiendo un “estilo” que suele responder a concepciones estéticas o artísticas; esas concepciones, aun dentro de una rigidez debido al lento desarrollo de sus elementos, evolucionan paulatinamente.


— El hecho de que ese proceso dé como resultado final versiones anónimas se debe, más a la forma de difusión (que multiplica las versiones) y al hecho de que los propios creadores e intérpretes no tienen conciencia clara de su aportación personal, que a una imposibilidad real de conocer su nacimiento. Permítanme que aporte como ejemplo a este epígrafe una canción cuya creación culta y de corte tonadillesco no le ha impedido tradicionalizarse con diferentes funciones. Me refiero a “La panderetera”, tema creado por el pintor y músico gijónés Martínez Abades quien la ofreció a Raquel Meller para que la grabara en aquellos discos de pizarra de 78 r.p.m. a finales de la segunda década de este siglo. Tras la versión discográfica la canción se difundió en pliegos que no sólo alteraron su texto haciéndolo más narrativo sino que permi-







tieron a los copleros ambulantes alterar la melodía; más tarde se convirtió, una vez popularizada bajo esa nueva fisonomía en el medio rural, en tema preferido para un lazo de los que interpretan los danzantes de palos en sus paloteados. Así se incorporó a ese repertorio que utilizan los paleadores como regla mnemotécnica para saber dónde deben golpear o con quién deben cruzar sus palos. Finalmente, y tras estar popularizada en todos los ámbitos, pasó a ser de ese tipo de estructuras melódicas que, por su universal aceptación, reciben letras referentes a cuestiones de moda o de contenido social; y así la vemos unida al problema, que por los años 30 fue conflicto, de si había que aceptar o no el baile agarrado, enemigo del tradicional suelto y, en el caso del pueblo de Brañosera en Palencia, también de la moral.



— Esto nos lleva a una nueva conclusión. La popularidad, es decir la aceptación por parte de una comunidad del producto creado, depende del grado de aprobación con que los receptores admitan o acojan tales versiones.



— Habría que concluir además diciendo que el romance es popular no sólo porque el creador o creadores pueden introducir en él elementos musicales o literarios comunes o aceptados por aquella comunidad, sino porque ese mismo grupo étnico o cultural, posteriormente, lo acepta como propio. Tradicional lo es, asimismo, porque los especialistas se lo van comunicando de generación en generación, produciéndose las lógicas variantes, perpetuando de ese modo esquemas musicales y arquetipos literarios cuya sola audición sirve para localizar e identificar a aquel mismo grupo o comunidad.


①    
 El rey mo-ro tie-ne-ye hi-jo o-le-pán



②    
 Pas-tor ques-tás en la sie-rra co-mieu-do pau de ceu-te-uo — si te ca-sa-ras con  
   
 mi-go sí, sí, lo co-mie-ras blau-cen bue-uo, a-diós.

③    
 En Ma-drid hay un pa-la-ño ay ay bo-ro-bo-ro-va' que se Ua-ma deg-ro el bo-ro-bo-ro  
   
 vá quea la bom-ba va.

④    
 U-na tar-de de ve-ra no u-na tar-de de ve-ra-uo me sa-ca-ron de pa-se-o me sa-  
   
 ca-ron de pa-se-o

⑤    
 Ma-má si me de-pas ir ma-má si me de-pas ir un ra-ti-ta laa-la me-da un ra-  
   
 ti-ta laa-la-me-da.

⑥    
 Se pa-se-a Har-bo-li- ta por su ba-rr-i-do por-tal

⑦    
 ca-mi-na la vir-jeu pu-ra ca-mi-na pa-ra Be-lén —  
   
 yea el me-dio del ca-mi-no pa-del ni-ño de be-ber —

8

El rey mo- ro tie-neu na hi-jo —

que Trau-qui-lo se lla-ma-ba y tam-bié tie-neu na hi-ja —

que se lla-ma-ba: ta-ma-ra —

9

Ae-so de la me-dia no-che

cuan-do los ga-llos cau-tar

don Can-los de ual de-a-mo-res

no po-dí-a so-se-gar.

10


Pa-so por a-lí ta-tin — see-na-mo-rí do-na de e-llas:

¿quie-res-ted que yo me ca-je con su hi-ja Fi-lo-me-na?


Cá-sa-te con Blu-ca-flor que es ma-yor y te re-q-pe-ta


Se ca-ró con Blu-ca-flor ol-vi-da-u-dea Fi-lo-me-na.


11


12 
  
Ma-ña ni-ta ma-ña ni-ta ma-ña-ni-ta de San Juan- sa-ca Pe-dro



  
lo ca-ba-llor a la-o-ri-li-ta del mar


13 
  
Sien el hi-jo del viz-con-de que le den dos pu-ña-lás, yo-tros dos a-



  
u ca-ba-llor a las o-ri-llas del mar.

14 
  
Ca-mi-no lo san-tia go con gran de-ke-lo po mi pe-re-gri-na meen-con-tré yo...


15 
  
Ue me-rea las en-gri-li-llar ya vic-ved co-che de A-Ue-u en bur-ca-de Me-rea-cia-na que


16 
  
ma-li-toes-tré war-ques


  
Pa-ra Me-li-llau-bar-ca-mos muy a-le-fres y con-ten-tos de to-dos los que-a-qui

17 
  
ra-mos sa-be-dos si uel-re-re-mos


  
ra-mos sa-be-dos si uel-re-re-mos





## LEKU ETA JENDEAK XV. MENDEKO ZUBEROTAR ERESIETAN

*Billabona, 1989-V-27*

*Txomin Peillen*

### LEKU JENDE TA BESTE XV MENDEKO ZUBEROTAR ERESIETAN

Garai hartako bi jakingai mota ta jakilegoa baditugu, ahozko literaturan sar genitzakeenak baina ez herri-literaturan, ezen mende haietan ez baitzen jakintsu/herrikoi bereizketarik egiten eta erakutsiko dugunez, batakitonen semeek eginak baitira (bi behintzat) eta besteak herriko norbait, ezin delarik bereizi ez gai ez egitura aldetik.

Bi jakingai horiek, alde batetik Berterretxen heriotzeaz abestutako bertsoak dira beren bost aldaerekin, XIX. mendea ezkerreko ezagutuak eta bestaldetik Urrütiako leinu nahasiaren garaiko etxe gorabeherak aipatzen dituzten lau eresiak —bat behintzat Behe-nafarreraz dena— eta berriki *Euskera* aldizkariarentzat ikertu ditudanak.

Gai hori hautatzean “arazoketa” hau zen, zein da eresi horien historikotasun, zer da benetakoa zer da mitikoa? Zergatik bertsoen artean sartzen dira, leku ta jendeekin guti ikusteko daukatenen edo diruditen mitoak?

Nere “ikerbidea” berriz izan da, pertsonaien historikotasuna erakustea abestien garaikotasuna, kondairaren aipamen batzuekin, eta lekuen ezagutzak ematen didan abantailaz baliatzea, garaiko bideak, giroak zein ziren ikertuz. Horretan asko lagundu nau, Zuberoa gaindi oinez ibiltzeak, Jaurgain historilariaren irakurtzeak —bereziki *Legendes poétiques du Pays de Soule* delakoa—, baita gaskoinez idatzita dagoen Zuberoako zentsuaren aztertzeak, etxeak eta aberastasunak neurtzeko. Sasia ta elorria, arantza ta ostopea nagusi den eremuan ibili naiz —baina ez naiz lehena— espero dut besteri bidexigorra apur bat garbitu diedala, baina lan asko dago egiteko oraindik gure kantore edo kontapoesien argitzeko, eta merezi duten lekuan jartzeko, alegia “literatura hutsean”.

# ZUBEROA

NAFARROA  
BEHEREA



## I. Berterretxen khantorea

Eresi hau, dakizutenez Agosti Xaho, Henri Cavel, J.D.J. Salaberry, Marcelin Hégiaphal ta bestek bildua izan da eta J. de Jaurgain ta J. Haritschelhar-ek gehienbat ikertua. Nere arbasoen Basabürü herrialdean alegia Alta Sola edo Haute Soule delakoan gertatzen baita gehienetan gaztaroan hainbeste bider oñez kurrutu bide zaharretan gertatzen da.

## Lekuak

Kantu horren ulertzeko gaur geuk “Bideberria” izenez ezagutzen duguna ahaztu egin behar da, bai eta bide zaharra jarraiki ere. Azken hau artzainen, euskaldunen bidea da arkaitzarte arriskutsuak eta aldapa latzak ekiditeko zuberotarrek dioten lekü amano-tatik egin zen, bide berria aldiz, “injeniuaren bide astapittoa üngürada ta patarrez eginik düzü” diote herritarrek. “Andoze” ibarrean-eta hau eresian aipatzen baita gaurko bidea enboskada gune ederra da, “Athegetxetako” arroilan edo desfilaroan sartzen delako, bide zaharra berriz, marramarra, gainetik Ligetxaltetik igarotzen zen; berdin beti gure ur basatitik urruti gelditzen da bide zaharra, eta bide berria “Uhaitz” bazterretik joaiten. Bereiziko ditugu zeren zeharka edo zuzenka eresiak izenak ematen baititu alde batetik amaren, bestetik seme presoaren ibilaldiak, eta mapan ikusiko.

## Amaren ibilaldia

Oraindikan Larrainen badago Berterretxe izeneko etxea (beste bizpaulu Berterretxe badaude Zuberoan). Garai hartan Larraine herri berria da, priorato bat, artzainak goi-mendietara joan gabe, larrain horretan geldialdi bat egiten dute, ta hamalagarren mendean han dauden *hamabi* etxeek Zuberoari eskatzen diote, zatitu gabeko lurretatik berrariei ematea, etxe berriek lur eduki dezaten. Larraine ez da XIV-XV. mendeko zentsuetan agertzen ez eta Santa Grazi, eliza-lur direnak. Halere, garai hartan Nafarroa ta Zuberoa Agramontes ta Beamontesen gataskekin hartuak direnez gain Larraine estrategi lekua da, hortik baitoa bide bakarra.

Berterretxen ama, etxe horretatik eta seme presoaren bila badoa, Larrainetik Lojibarreraino jaitsi behar du eta hortik Uthürri Xuri deritzaion lekuraino joan, hortik goiti Athegetxeta ekiditeko Ligetxeraino joan behar, eta gero hasten da kantuan esaten zaigun.

Andozeko ibarra  
ala ibar luzea.

Ibar hondotik hartzen baduzu Andoze ibarra, Athegetxeta irteeratik, Hur jünta-raino bi kilometro daude, baina eresiak dio ez dela Larrainetik Ligira joan ama hori, baina, agian mandoaren bizkarrean, Bost Mendieta-raino:

Mari Santzen lasterra  
Bost mendietan behera

Bai orduan Andozeko ibarra zeharka hartuz eta mendi maxela edo aldapa goiti joanez luzeago da; halere “Bidezaharra” delakotik baitzebilan Berterretxen ama, Ligetxetik (600 metrotan gora den etxetik) ez zuen ibar hondoraino jaitsi izan behar, bideak eroaten zuen, Dordorraga altetik, Bezkoiko lepo edo mendi ateraino, 750 metrotara, gero Bezkoitik artzainen bidea Zalagaiñe deritzaion mendiraino 1.050 metrotara darama.


# ZUBEROA

AMIKUZE

Mari Santz-en lasterra

- - - - -

BIARNO



GARAZI

△ Abñemendia  
2504 m.

△ ORHI MENDIA  
2018 m.

NA FARROA  
GARAIA



Berterretxeren amaren bidea, anderearekin egin dugu behin, eta hain zuzen Zalhagañe atzean, ezin da Lakarrira zuzenka jaitsi hor baitaude zuberoeraz “baxak” esaten diren amildegiak, abere ta jenteen hil lekuak; andrearekin —oinez baikinen eta hogeit urteez gazteago— Müse gibeletko deritzaión bidea hartu genuen flysch edo lapitz harrien gaindi, zirristaka lauoinka ta ipurdiaren gainean laister iritxi ginen Lakarriko mainuetara.

Berterretxen amak ordea, mandoz ihoan segurki ta urrunagotik abaitaua, hark hegomendebalderago jo zukean, Bost mendietako bigarren tontorraren eretzean dagoen bidetik, mandobidetik, halaxe heldu zen Lakarrira eta eresiak dio:

Lakarri Buztanobian  
sartü da belhainak herresta.

Bai, Andozeko ibarra luzea dela dio ama hark, baina ez ahal dira luze, bildurrez kurritzen diren bide guztiak? Zeren berdin dio geroago ikusiko dugun eresiak Espaniarako bidea, ala bide luzea iheslariak tiroak entzuten baititu txistuka belarrietan.

Azkenean Lakarrin dago Buztanobian, zeren eresiak baitio hango nagusia nor den:

Buztanobi gaztea  
ene anaie maitea.

Berterretxe ez baldin badugu Zuberoako zentsuan arkitu badakigu XVI. mendean behintzat, aitonen seme izan gabe, gizon askeak zirela berdin Buztanobi-koak, aski aberats zirenak. Azken etxe hau Zuberoako zentsuan, Erdi Arokoan agertzen dela gaskoin hitzez idatzita:

“Item lostau de Bustanobie de Lacarry ezqart fecq per pagar tailha et deu dar au casted de Mauleon peadge et Casse sin pren à lad. Casse deu portar au Casted de Mauleon, nihil plus”.

Testu zahar horrek dionez (XVII. mendean gotiko idazkitik aldatua) etxe horrek ihize eskaintzaz kanpo ez zuen zergarik ordaintzen. Hain zuzen Mauleko Gazteluzainarekin dauzkatzan lokarrien gatik hor dago Berterretxen ama, baina agian gazteluzainaren taldekoa ez den ezkeroko anaia bere arrebari dio edo adierazten dio semea Maulen preso dagoela:

Arreba ago ixilik  
ez otoi egin nigarrik  
hire semea bizi balin bada  
mentüraz Mauleala da.

Eta badakigu Berterretxen ama bakarrik joan zela Mauleko gaztelura.

Mari Santzen lasterra  
Jaun kuntiaren borthala:  
ai ei eta Jauna, nun düzie,  
ene seme galanta.

Mondea amari dio semea ikusi nahi badu aski duela Etxebarre Ezpeldoiraino joaitea:

Ezpeldoi altean dün hilik;  
abil eraikan bizirik...

Hor muga genezake Berterretxeren amaren ibilaldia, Larrai, Ligiko goi auzotegi den Andoze, Bostmendieta, Lakarri, Lakarri Altzai, Atarratze Maule eta atzera Maule Etxebarre. Ez dakigu non ehortzi zuten Berterretxe baina haren hil leku ondoan, Etxebarre ta Ligiko bidean dagoen mendi atean, ta Ezpeldoipe etxetik hurbil, haren hil oroitarría topatu da ta ikusten da harri borobil hori, goian bi uztai ta bi gezi, zirkuluan “buruan” harriaren “lepoan” gizon bat besoak ta hankak zabalik etzana beharbada.

### Berterretxen ibilaldia

Berterretxe iruzurtuz etxetik ateratzen dute, preso eramaten “Larraitetik Ligira” eta beste bertso batean —agian beste kantu batekoan— dio:

Heltü nintzan Ligira  
Boneta erori lürrera  
boneta erori lurrera eta  
esküa ezin behera.

“Eskua ezin behera” horrekin adierazten digu, eskuak lotu eraman eta hil zutela; gero aldaera batean dio:

Ezpeldoian nintzarian  
jana lana han banian  
haritx bati esteki ta  
bizia galdü nian.

Harriari fidatzen bagatzaio eta Sorhuetan lehenik J. Mirandek gero M. Hegiapahalek bildu bertsoei ere, uztai ta geziak lekuko daudela San Sebastian-en moduan hil zuten Berterretxe, *Etxebarre Ezpeldoian*.

### Jendeak

Zerrenda: — Leringo Luis Beaumont-eko kondea, nafarra.

— Berterretxe gaztea, larraintarra.

- Berterretxeren ama: Mari Santz, Larrainekoa.
- Berterretxeren ezkongai: Ezpeldoiko alaba, Etxebartarsa.
- Bütanobi gaztea, Marisantzen anaia Berterretxeren osaba, Lakarrikoa. (Bütanobi etxe horretatik handik ehun urte aterako da protestante artzaina).
- Hirur dozena gizon, beamonte-tarrak.
- Neskatoa.

Leringo Luis, garai hartan, Ingalaterrako erregearen kontu, Mauleko gazteluzaina zen eta Beaumontesen burua naski, jaiotzez nafarra.

Berterretxe, jakina, Agarramonte taldekoa zen eta zurikeriaz kanporazi zuen Beaumont-ek eta preso eraman hiltzeko; gazte hori zer adinetan hil zen ez dakigu baina haren hilarria ikus daiteke oraindik.

Mari Santz Berterretxeren ama da, ez dakigu sortzez Buztanobikoa denez ala anaia Berterretxean sortu ta Buztanobian ezkondua; emazte hori ez da oso zaharra, hainbeste bide egin duen ezkeru semearen bila, baina ezagutu dugu Ahuzkin bizi zen Xixili bat Mauletik mandoz zetorrena bide zaharrez eta gero Bostmendieta gaindi, bere mendiko etxera, gaez eta laurogei urteetan. Larraineko Berterretxe-tarrak ez ziren ez kapare ez aitonen seme, baina izen berdineko Berterretxetarrak bai, Mendikotan, eta azken horiei gertaera berdina agitu zitzaizen, enboskada batean Barkoixeko abade legoak, hil baitzuen semea 1495 urtean, oraindik banderizoen gerlek jarraitzen baitzuten Zuberoan.

Buztanobi, hilgo duten Berterretxeren osabak ez du arrebak lagun-duko semea salbatzen, agian, bera Agarramontesa izanki, eta arma gizonik ez eskupean ez zukealakoan ezer ardietsiko. Mari Santz bakarrik joango da Beaumont-en gana.

Ezpeldoiko alaba, eresiak dio sendimendü gabekoa dela, baina ez dezagun ulert ez zuela bihotzik, sendimentü züberoeraz zentzua baita, kantuak dio ez duela deus entzun, ez ikusi besterik ezer eta odola biltzen duen ezkeru haren etxearen alboan hil dutela Berterretxe haren senargaia.

Neskatoa, neskamea doa ateraino, ohitura denez jakiteko kanpoan nor den eta zenbat gizon dauden kanpoan esateko.

Arma gizonak, eresiak dio hirur dozena direla ta hain zuzen badirudi garai hartan banderien gizon taldea nonbait hogeitahamaseikoa zela zeren Zuberoako notarioen artxibategian, orain Paueko departamendu gordetegian dagoen batean, beste Berterretxeren heriotzeaz mintzo gaskoinez dokumentuak hala dioen:

“A vos Mossor lo cappitaine et governador de Solle, expause et humilment remustre, noble home Ramonet senhor de Berreterech de la parropie de Menditte, suget deu Rey nostre senhor que pot aver ung an et miey o environ ung aperat Arnauton abat de Barcuxs, lo senhor de Salaverri de Mendi, Chicot, filh de la Dalle, lo maestrot de Pagolle, tres dotzenas de homes et autres lors complicis et abiatz no sevem per quenh spirit sollicitatz, haben lor maubade intention en lors coradges se transportan armatz et inbastonat de lauses balistes, broques et autres invassibles armes en la parropie de Menditte, a gueyt apens et aqui rencontran ung aperat Pierres, filh deu medixe Ramonet... lo donan plusors cops de treyt de baliste, lance et espade audit Pierres, es anat de vide a trespas...

(J. de Jurgain, *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*, 1909, 23-24. orr.)

Berterretxe da, agian, gelditu zaigun eresi bakarra baina garaiko gertaerez ikuspegi iluna ematen badigu ere Historiaren idazkiek berdin diote. Idazki zaharretan Jurgain-ek erakutsi zuen berdin Ligiko Johannes zurikeriaz hil zutela haren, etxean jan ondoren, ohetik atera ta. Behar bada Berterretxeren eresian ematen den bertso eztabaidatuak hori adierazi nahi zuen, nahiz bildu den bezala dioen:

“Heltü nintzen Ligira”.

Ligin ez balitz bezala eta Johannes bere etxean eta ohean zegoen, harrapatu eta hil zutenean, hain zuzen Berterretxe ohetik aterarazi zuten.

Berterretxeren eresi horren kasuan ederrena da nola, gertaerak gorde diren, hilharria aurkitu, lekuak eta jendeak ondo deskribitu, eta musika ere XV. mendekoa omen da, Iñaki Nuñez-ek Arrasateko ordenagailuarekin egin ikerketa-sailketarren arauera.

Gauza gehiago baliteke esateko narratiba aldetik elkarrizketen, beharrezko diren xehetasunen erabilera xotilaz, baina uste dut Jean Haritschelhar jaunak, horretaz baduela zerbait eginik, benetako narratiba eta halere olerki ederra baita Berterretxeren kantorea.

### **Jendeen arteko harremanak, Bereteretxeren kantorean**

Gerrilla-ren antza dauka, garaiko Jauntxoek jokabidea eta gudabideak, hain zuzen bigarren Bereteretxeren hilketa bide batean enboskadaz egiten baita, lehena berriz, gauaz etxean sartuz eta berdin 36.lagunekin preso darama Larraineko Bereteretxe eta andregaiaren etxe alboan hiltzen. Gertaera horiek XV. mendekoak izanki, orain gertatzen direnak dirudite.

Halere, hasieratik herrixeheak aitonen semeez zer ustekizun zuten badakigu:

“E’nüan uste erraiten züela  
Aitunen semeek gezürrik”.

Kondairak ez digu, Zuberoan ematen Jauntxoak XIV-XV. menderaino, gaizki portatu zirenik herriarekin, baina haraino ez baitzuten indarrik; gero nafar erregetza ta frantses jaungintza sistemaren ereduz, nobleak saiaturko dira, boterearen hartzen ta horretarako, ez daukate gudu-indarraz kanpoko biderik. Baina eresiak dio Aitonen semeren ahalgetan, lotsetan:

“Jaun konteak berhala  
traidore batek bezala”.

Gero, duda batekin geratzen gara, alegia herrixeheko norbait gerrilla horretaz asperturik ibili denez bertsogintzan, ala Agarramontes bat, Beaumontesen zikintzeko, edo behintzat merezi dutena bizkarreratzeko.

### **Bereteretxe-ren khantorea**

*Marzelino Heguiaphal, Sorhoetakoak  
bidalitako aldaera*

Haltzak eztü ezkürrik (1)  
ez gaztanberak ezürrik;  
E’nüan uste erraiten züela aitunen semeek gezürrik.

Bereteretxe-k ohetik  
neskatoari eztirik:  
Abil eta so egin ezan ageri denez gizonik.

Neskatoak berhala  
ikhusi züan bezala:  
Hirur dozena bazabiltzala, leiho batetik besteala.

Bereteretxe-k leihoti  
Jaun kunteari goraintzi,  
Ehün behi bazereitzola bere zezena ondoti.

Jaun kunteak berhala  
traidore batek bezala  
“Bereteretxe aigü borthala ütüliren hiz berhala”.

“Ama indazüt athorra  
mentüraz sekülakoa  
bizi denak orhit ükhenen dü Bazko biharamena.

Andozeko ibarra  
 gaü hartan ibar latza (sic) (2)  
 hiruretan armarik gabe ebaki zeitan bihotza.

Heltü ginenean Ligira (3)  
 buneta erori lürrera  
 buneta erori lürreala eta, eskürik ezin balia.

Margaita gana heltzean (4)  
 zühaintze bati esteki  
 belhariko ezarri eta erho ezpatareki.

Ama haren lasterra (5)  
 Bost Mendietan behera  
 Lakharri Büztanobian sarthü da bi belhañak herresta.

Büztanobi gaztea  
 ene anaie maitea!  
 hitzaz honik ezpalinbada ene semea joan da?

Arreba, ago ixilik  
 ez othoi egin nigarrrik  
 hire semea bizi balinbada bentüraz Mauliala da.

Ama haren lasterra  
 jaun kuntearen borthala,  
 ai! ei! eta Jauna nun düzü? ene seme galanta!

Hik bahüana semerik  
 Bereteretxez besterik  
 Ezpeldoï altean dün hilik, abil eraikan bizirik.

Ezpeldoïko jenteak  
 ala sendimentü gabeak  
 hila hañ hüillan ükhen eta deusik etzakiena.

Ezpeldoïko alhaba  
 Margarita deitzen da  
 Bereteretxe-n odoletarik ahürzka biltzen ari da.

Ezpeldoïko бүkhata  
 ala бүkhata ederra  
 Bereteretxen athorretarik hirur dozena ümen da.

Testu hau Marzelin Heguiaphal, "pastoral errejent" eta Euskaltzaindiko urgazle denak, Sallaberry jaun erdaldun bati bidali zion, eta hark neri, beraz hona nik euskaraz emanak Heguiaphalen oharrak.

1.en bertsoan. Oker dago “haltzak ez dü bihotzik” haltzak beste zuhaitzeen moduan “bihotza” daukalako “Haltzak ez dakar ezkurrik”, da.

2.en bertsoan. Bere amari atorra eskatu ondoren du Ezpeldoiko bidea hartzen.

8.en bertsoan, Ligira irixtean boneta (txapela) lurrera erori zaio eta ezin zuen hartu eskuak loturik baitzeuzkan.

9.en bertsoan. Gehiago pairarazteko Margaritaren etxe alboraino eroan, zuhaitz bati lotu eta belauniko jarri —garai hartan zegiten moduan— hil baino lehen azken otoitza egin zezan.

Bertso hau —neretzat— azkena da eta ez “Ezpeldoiko бүkhata” ezen Beaumont-i ezezkoa eman zion Margarita, honen eskupeko gelditzen baitzen.

Hona Bereteretxe-z arkitu ahal izan dudan guztia Sallaberry jauna. Maiz elkar ikusteko itxaropen ta atsegin handiarekin.

*Heguiaphal Marcellin, Sorhoeta*

#### *Txomin Peillen-en oharrak*

(1) Lehen bertsoko zuzenketa horrekin Marzelin-ek arrazoin luke zeren egia da “Haltzak bihotza” baduela (gutxi daukana Saratsa da eta gutxienik Sabükia) euskaldunak ez dezake hutsik egin horretan, baina “ezkurrik” ez duela ematen egia da eta errimarentzat askoz hobea.

Gainera Inozentzio Munitak, duela 37. urte argiataratu *Gure mendi ta oianak* liburuan irakurrita, haltzaren bihotzarenak ez duela zentzurik argi dago zeren hauxe diogu zuhaitzale ospetsu hark:

Bere zurra ur lanetarako, mueble ta beste gauza askotarako pozik artzen dute arotzek.

Urruntseago dio Munitak:

Ikusten dira berreun bat urteko etxe-zurak oraintxe egiñak eta jarriak balira bezela. (*Op. cit.* 52.orrialdean)

Beraz Heguiaphal zuzenean dago, ez bakarrik errima hobea dakarrelako berak ikasitakoak, eta besteetik zuhaitz jakituriarekin bat datorrelako.

(2) “Gaü hartan ibar latza”, errealismu kutsuz dator hemen eta narratibatik hurbilago eziez “ala ibar lüzea”, garai beste abestietan zerabilaten klitxea baino, beregisakoago dena. Gainera, gaua edo argitzeko puntuan izan behar zuen Bereteretxe “ohean zen ezker”, eta aldaera batzutan “Bazko gauerdi” ondoa aipatzen baita.

(3) J.D.J. Sallaberry-k 1872an eman aldaeran bertso hau ez da agertzen eta *Kantu, Kanta Kantore* bilduman, Baiona, 1975 delakoan, beste gisa honetara

Heltü nintzan Ligira  
boneta erori lürrera  
boneta erori lürrera eta  
eskürik ezin behera.

Aldaera honek, benekotasun gehiago du, eta abesti horretan hitzegiteko joera dutelako notinek, hau izango da jatorrizkotik hurbilago ezi ez Heguiaphalena.

(4) Bertso hau desorekatua dago, nonbait garai batean ulertzen ez ziren hitzen lekuan horiek sartu ziren eta Jon Miranderi aitak —Garindañekoa zenak— abestua zaharrago dirudi:

Ezpeldoian nintzanean  
jana banüan han lana  
haritx bati esteki eta han bizia galdü nüan

eziez eta *Kantu Kanta Kantore*-k ematen duen hirugarrena:

Heltü nintzan Ezpeldoira  
han haritx bati esteki  
han haritx bati esteki eta, bizi zeitan idoki

(5) “Ama haren lasterra”. Beste aldaeretan hemen amaren izena agertzen da Mari Santz, baina nonbait XIX. mendean izen zahar hori ezin zezaketen, herrian, askok ulertu eta urrunago (17) “ama haren lasterra” erabiltzen delarik, aurreko 14.enean ere sartzten da, “gaurkotzeko”.

Azkenik aldaera batetik bestera ez da leku ta jende-rena arteko desberdintasunik, non ez den gaineratzen Ligi-ren aipamena batzutan, baina bitxi dena da, denborazko aldaeretan noiz gertatu zen jakiteko, batek diola, oroitu behar dela “Pazko biharama naz”, besteak “Pazko gaberdi ondoa” eta hirugarrenak “Pazko oillaurrentea”.

## II. Altzürükü Urrütiako leinuaren eresiak

Ez da lehen aldia aipatzen dudanak eta ez naiz lehen a lan hortan, Francisque Michel-ek 1857.ko bere liburuan *Le Pais Basque* delakoan ematen du bat, baina hogeit bat urte lehen bildua zuen Chaho-k argitara gabekoa den bere kantutegian, gero J.D.J. Salaberri mauletarrak bere kantu bilduman ez bazuen sartu ere, haren paperetatik ateratu ditugu Euskera-n argitaratu diren lehen aldikotz eman diren bost bertso. Artean Jean Haritschelhar-ek bere Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian aipatzen du, lehenbiziko eresia, zuzenketa garrantzitsu bat eginez; zuberotar



aldaketa bitxi bati eta Benafarreraz ezagutzen den eresi bakarra komentatuz, J.M. Leizaolak egin argitaratzeari xehetasunak gaineratuz, alegia iturriarena: Agosti Xaho.

Neronek gaurko txostenaz kanpo badaukat ikerlantxoak eginik testu guztiak —bertsozkoak emanez— “Altzürükü Urrütiako leinuaren eresiak, XV. Mendeko” in *Euskera*, Bilbo, 1986, 31 pp., 69-85 eta Zuberoako idazkiez egindako liburuan ere *Zuberoako Itzalargiak*, Elkar, Baiona 1988.an albistexo batzuk gaineratzen nituen, gaur ordea, sakondu nahi nuke apur bat mito aipamenei zulo beltza, baita hitz lauz bildutako ipuinak ekarri, leinu honen mitogintza uler dezagun.

### Lekuak

Herri hori Petiarre-koa da; alegia Maule aldekoa, baina Ahuzkira doan Zuberoa beheko ibarraren muturrean (beste ibarra Ibaresküina, Basabürüan dago eta hain zuzen, Altzai du herri nagusia eta Lakarri bigarrena), beraz Altzai agertuko da gure ikerketan ta Baigorrikin dituen harremanak irakurtzean, ez zaigu ahaztu behar herri hau ez dela Ozkaxeko ta Behe-Nafar mugako lepotik hain urrun (ikus mapa).

Herrian bertan oraindik zutik dago Urrutiako leinuaren dorrea XIV-XV. mendean eraikia, eresiek aipatzen duten garaietan hain zuzen. Gaur dorre hori iritzapenez hobetua herriko etxea edo Udaletxea bilakatu. Herri horretan ere eliza nahiko zaharra dago XVII. mendean berritua kanpandorrea kalbarioduna daukalarik, hots hiru puntatako zuberotar tankeran “espadaña” bukatzen zaiolarik.

Altzürükü Urrütiako sendia, izan zen, hor Pettiarrean, Zuberoako lur aberatsenetan haundikiak izatera iritxi zirenak. Altzürükü oso Lakarri bestelako herria da legez, Lakarri txikiagoa da eta ez da Jaunik herrian, beraz hogeitazazpi etxe daude zerga ordaintzen dutenak eta aske direnak, Zuberoako Erdi Aroko zentsua irakurriz, Altzürükün berriz, Zuberoako herri haundietarik delarik, 69 etxe eta haietan Urrütiako jaunaren jabetasun eta beste jaun horren botoi-ek edo etxetiar lotuek dituztenak ez da harritzekoa, legegizona izateaz kanpo gaizki ikusia bazen ere. Hona haren jabetasuneko ziren etxeen zerrenda:

### Jendeak

Eresiako notinak denak aitonen seme ta alaba dira, beraz gaiaren aldetik, ez eta askotan pentsamoldearen aldetik ez dira eresiak herrikoiak, beste inon ez baita “ohorea”ren sentimendua aipatzen nola eresi horietan. Halere esan dezagun —beharbada eresi horien bortizkeria gogoan— jendeak altzürükutarrei egoizten dietela xotiltasun ezaren fama eta diotela:

“Eskalanpu handiak Altzürüküko”

Esaera horrek gainera badu frantses kutsua, fintasan gabekoari esaten baita “il vient avec ses gros sabots”, bere eskalanproin handiekin dator. Nola nahi ere, askotan, gure Epixtola horietan herritarrei atxikitzen zaieten ospe txarrak, kondaira usaina dauka:

“Agarramontes ürgüllütsüak Haunzeko”

De Jaurgain jauna, zuberotar historilari begi luzeak, gure ustez eta geronek geroztik, Haritschelharren ondotik aurkitu argumentuak metatu ongi argitu zuen eresi horienako jendeak nor ziren:

“Menauton Urrütiakoa 1422. urtean eta nonbait hogeit hamar urteak zeuzkala, aitak, Domenja Ahetzeko alabarekin ezkonarazi zuela”, eta gaineratzen du aita Muskildiko ta Erbizeko jauna zen Arnauton izenez ezaguna Zuberoan, baina ahaztu zitzaion erraitea Jaurgain-i, Arnauton hori Etxauzeko jaun eta Baigorriko bizkondea zela; zeren erakutsi dugun bezala Ahetze, Erbize ta Muskildi, Baigorriko Etxauzarren lurra baitziren jadanik, paperetan agertzen den moduan, XVII. mendekotan.

Egia esan eresietan beretan batean Andereak dio Etxauzeko dela Urrütian ezkondurik, bestean dio Ahetzeko anderea dela, ta Baigorri duela anaia. Beraz agertzen zaizkigun pertsonaiak hauek dira:

- Domenja Etxauz (Ahetzeko anderea), Urrütiako andere ezkontzez.
- X. Etxauz, haren anaia (Erbizeko ta Muskildiko jaun eta Baigorriko bizkondea).
- Menauton Urrütia (Urrütiako jauna).
- Aitonon alaba ez den “neskatila”, ezezaguna.
- Urrütiaren azkarreko “haurra”.
- Gorago aipatu neskatilaren “ama”.

### **Urrütiako aberastasunak**

Urrütiako gaurko jauregia, dorre itxura daukanak, XIII. mendekoa da eta nonbait XIV. mendeko den Zuberoako zentsuan etxe horren berri ta bere ondasunen zerranda agertzen zaigu; bai, Pettiar horretan, Jaurgoaren sistema sartuxe zen eta Altzürükuko 66 etxeetatik 12 ziren aske, besteak jaune eskuko edo jaunarekin, “botoi” estatutuz lotuak.

Urrütiako etxeaz hau dio zentsuak gaskoinez:

“Lostau d’Urruthie d’Aussuruc ez gentiu nihil debet regy”.  
 “Urrutiakoetxea Altzürükükoa aitonon etxe da, ez du erregeari zorrik”.

Gero herri horretan Urrütiako etxea bost etxeren jabea da zeinak diren:

Arssue, Ehecaphare, Esporonde edo Esporonce, Livarren, Sagaspea. Izen batzu euskal itxurapean daude, bat gaskoindua Iribarren: Libarren. Etxe horiek kanpo 13, botoi-etxeak dira Jaunari botu eginak, etxea ondoko bati eman lezaketena, baina saltzekotan Jauna ordaindu behar halaxe dira:

Aguerreberria, Aramburue (sic), Arhetchea, Barnechea, Echurac (?), Elizabe, Elizagaray, Elissiri, Escaray, Garatea, Haritzmendi, Irigoyhen, Jaureguiberria, Jaurigoihen.

(Bestalde 18 etxe Jaunteinekoak, eta Gotainekoak dira Jaun jabetzaz). Beraz ez da harrigarri Zuberoan, botoi ta etxetiar gehienik zuen herria gatik besteek esatea “eskalanproi haundiak” zirela.

### Ahetzeko ontasunak

Ahetze bera, Etxauzeko baigorriar jaurgoaren jabetasuna zen eta zentsuak dio:

“Lostau d’Ahetze ez gentiu, nihil debet regy”.

“Ahetzea aitonen etxe da, ez du erregeari zorrik”.

Etxe horrek etxe hauek zituen Ahetzen: Aguerre, Adortea (?), Aizkoaitzin Curutseta; Muskildin, etxe hauk: Carricartea, Etchartea, Etche-goihenea, Iriart, Landartea; gero Erbize-n: Unartea, Unagaraia; Botoi: Arazabal Bellagarri, Etxeberri Laurussekoa, Etxeberri Inçagurspe, Iriart, Mendiburu.

Denetara berdin ze ezkondu zirenean Urrütiako Jaunak hamazortzi etxe ekarri zituen eta Ahetzeko anderea beste hamazortzi, berdinen arteko ezkontza eginaz. Halere bere ontasun ta guzti senarrak emaztea bilotik narrasta erabili zuen.

### Jendeek harremanak Urrütiako olerkietan

Gure kontapoesiek diotena, badirudi berdin dela ez zaiela fidatu behar Aitonen semeei ez baitute goratik aipatzen duten Ohorea errespetatzen, hala nola “Ahetzeko anderea” lehen eresian, Jauna bere anderea esklabo balitz bezala iletik narrasta baiterabila.

Bigarren eresian berdin “Urrütiako anderea”, ezkontzez hala baita Ahetzeko anderea zena, andere horrek bere anaia deitzen du, senarrak zikindu ohorea —beste neska betekin ibiliz zikindu diona— garbi dezan, anaia Baigorriko bizkondea delarik ea bildurtia ta lotsagalduta denez galdetzen dio, lehenbizikoz XVII. mendean bere atsotizetan Oihenartek aipatu moduxean.

Eta eresiak berriz, Urrütiako anderearen ahotik

Etxauzeko bizkondea  
beldürra düzü ahalkea;  
üzten düzü phenaz hiltzera  
zure arreba maitea.

Lehen bi eresietatik ateratzen den irudia da, sendi noble horietan zeinen gaizki erabiliak zitezkeen andereak zenbat nahi haundi izanki beren jatorria. Andereak bigarren eresi horretan erakusten ez bakarrik errugabea, ogengabea dela baina senarra dela beste batekin “amuriaren kapitetan” alegia aitonen alaba ez den neska batekin oheratzen.

Hirurgarren eresia, “Urrütiako jauna” faktizioki bildu dugu, alegia “Amak dio alabari” delako doinuuan abesten diren, hirur kantu zatiak bat egiten dutela erakutsiz *Euskera* aldizkarirako egin nuen saiakeratxoan. Hor ere jendeen arteko harremanak bortitzak dira, erakusten digute Urrütiako jaun bildurti eta ezkontanaiak tirokatzen duelarik Espainiara ihes doana, bere ohaidea, bere amurea “fruitua”, bien haurra, haztzen utziz, bere amorantearen amak, esaera zahar antzean diolarik:

“ibiltekoz ibil hadi, hihaur üdüri zonbaiteki”.

Alegia populuko, herrixeheko norbaitek ez duela aitonen seme batekin ibili behar, ez baldin bada utzia ta gaitzetsia izan nahi; baina ez dela lehenbizikoa dio alabak amari erantzunaz, (argitara gabekoa)

Ama zaude ixilik  
ez erran othoi gaizkirik  
gaztetarzüna inozent dela ez dakizüa engoitik  
zure denboraz orhit eta ez othoi egin nigarrik.

Egia da, XIV., XV. mendeetan ta Beamontes, Agarramontes gataskez baliatuz, Jaun batzu saiatu zirela, feudokeria jartzen Zuberuoa, eta garai hartako gorroto batzuen oihartzuna agertzen zaigula hor: bai Baigorri/Urrütiaren artekoa, bai aitonen seme/herrixehe, artekoak. Baina ez dira hor bukatuko aitonen seme ta herrixehearen arteko ezin ikusiak, zeren etxeak zirenez geroz nobleak, bernes merkatari batek Iruriko jauregia erosiko baitu, gero lurra, ezker-eskuin eta azkenean Zuberotarrak izugarriko hauzietan sartuko eta Matalasek bekakiko ez duen goropiloa egingo; horregatik uste dut, herriak hobeki gorde dituela begi gaitoz eta susmoz ikusten zituen etxe haunditako jendeak.

Duela hirur urte lehen aldiko eman nituen, *Urrütiako jauna* abestiaz ezagutzen ez ziren sei bertso, eta harrigarri dena joan den mendean bilduak; bai J.D.J. Sallaberry mauletarrak bere abesti bilduma egin zuean, loretegia egin zuen, aukerak egin eta eskandalu egin zezaketen kantu gehienak baztertu hala nola Etxahun-en pila bat eta Urrütiako

horiek hain zuzen jende haien ondokoak bizirik zeudelako ta garai hartan eta bere ofizioan —lege gizona zen— ospe ona gorde behar baitzen; gainera, argitaratu zituen abesti zintzoak, gehiegi iruditu zitzaizkion garai batean, eta 1872.an eman liburua frantsesez “péché de jeunesse” edo “gazte bekatu” bezala irizten du, horrekin erakutsiz handik aurrera ez dela kantu bilketan ibiliko, bere ofizioari komeni ez zaiolako. Bere bilketa osoak 200 bat kantu izango ditu, edo berrehunen hitzak behintzat, 45 argitaratu ziren eta Etxahunek Barkoixeko apaizari egindako bat, norbaiti bidaltzekotan egon zen eta ez egin, eskuzko kopiaren azpian, jarria zuen: ne parlez à personne, il ne faudrait que l'on sache que je m'occupe de telles choses”.

“Ez aipa iñori, ez liteke jakin behar holako gauzetaz arduratzen naizela”.

Geuk ez diogu harria botatuko zeren duela hogeitahamar bat urte *Igela*-n, eman genituelarik “Mendikota Hastoy-ko” kantoreak, —oraindik ondokoak bizi zirelako— izena aldatu baigenuen, “Larragoiti Gardejan” ipiniz. Badirudi XV. mendean, ez zutela gure gisako ilerik mingainen gauzen esateko ta jendeen arteko harremanak, jorrazteko. Zuberoan behintzat, kontapoesiak Aitonon semeen irudi txarra gorde du, Urrütia-*ren gisa, Bereteretxe traidorea baita.*

### **Hirugarren ta laugarren eresietako gertaerak hitz lauz, herrian bilduak**

Berdin, frantsesezko ohar batean F. Cerquand kontatzen digu hirugarren ta laugarren eresietako gertaerak honela Anuntxi Aranek euskaratua:

“Urrütiako jaunak herriko neskatila apal bat hartu zuen maitaletzat. Andereak jakin zuenean neskaren etxera egin zuen eta han ikusi haren mihiseak (maindireak) istupazkoak (kamaluzkoak) zirela. Jauregira itzuli eta lihozko mihiseak igor arazi zizkion, erranez ez zela ongi jaun bat halako mihise arrunteetan etzan zedin. Arrats hartan berean Urrütiako jaunak neska-ri galdegin zion nondik zeuzkan halako mihise ederrak.

—Andereak igorri dizkit —erantzun zuen.

Urrütiako jauna joan zen eta ez berriz etxe hartara itzuli”.

Ipuin honek gertaeren morala bat ematen digu eresietan agertzen ez dena:

- 1.nik. Eresian ez da agertzen Urrütiako Andere nobleak lihozko mihiseak eman zizkiola amoranteari, senarrari adierazteko bere heineko, bere kastako norbaitekin ibiltzea ta kalamuan lo egitea ez zitzaiola komeni.

- 2.nik. Eresietan agertzen ez dena da Urrütiako jauna bere amorante ixilaren eta ixilpekoaren gana joaita hola utzi zuela, baina haur bat eginik neskatilari, Baigorriko jaun zeukan ezkontainari Espainiara ihes egin ziola, hark tirokatzen zuelarik.

Hor agertzen etnografia bilketa maiz ikusten duguna, alegia, ipuin zahar bati, zerbait kendu edota zerbait gainera daitekela, aldaerak sortuz.

### Lehen eresiko mito aipamena

Santa Klara-ri egoitzen zaion miraria egiten du Urrütiako andereak baina hemen Fr. Cerquand-ek bildu ipuinak bertsoak dioen gisara kontatzen digu; frantsesez dagoen ezkerro Cerquand-ena Anuntxi Aranek euskara batuan eman du ohar luze hau:

“Behin Urrütiako anderea jauregitik jalgi zen, bere mandala ogiz betea zeramala, herriko behartsuei emateko asmoz. Senarrak ikusi eta galdegin zion:

– Zer dun hori eta nora hoa?

– Ehulearen gana noatzu, harilko hauek eramaitera.

Senarrak mandala zabalarazi zion eta ogien lekuan bi harilgo baizik ez zuen atxeman”.

Hona bertsoek zer dioten:

Nun zabilta haiñ goizik,  
jauregia hüstürik?  
galthatzen deio Urrüti-k  
begiak oldartürik.

Jauna, ikhusiren düzü  
nahi baldin badüzü  
norat orai nabilan  
zareta hau, bürüan.

Jente eskeleari  
emateko zokhorri  
Andere Urrütiak  
hartü zütian bideak.

Opilez zarea beitzen  
betherik jente prauben,  
Urrütiak zarean  
esküa ezari züan.

Ophilak, ordü hartan,  
jin ziren haillikotan  
Urrütiak berhala  
uste trunpatü zela.

Ehülearen etxera  
zoaza bilberaztera?  
—Jauna ikhusten düzü  
orai zük badakizü.

—Pharka izadazüt arren,  
bekhaitz e'nüzü izanen  
emazte huna zirela  
orai badit nik proba.

(J. de Jurgain *Légendes poétiques du Pays de Soule*  
Fr. Michel, Pays Basque.)

### Hamaseigarren mendeko eresi batera argi bila

Atharratze jauregian izenpean ezaguna den kantorea eta bazter utzi-  
ta bere historikotasunari buruzko eztaibadak, XV. mendean ematen diren  
Santa Klara-ren aipamena berdina aurkitzen ditugu, baita olerki honetan  
ere, Erdi Arotik heldu zaizkigun eske pertsuen bertso baten aipamena

a. Santa Klara berriz ere.

Bertso hau denek ez dute abesten eta aldaera guztietan ez da azal-  
tzen, dio:

Atharratzeko zeñüak  
berak arrapikatzen  
hanko jente gazteriak  
beltzez beztitzen:  
andere Santa Klara  
hantik phartitzen,  
.....

Santa Klara- ren aipamena, hemen Urrütiako eresietan baino argiago  
da eta neretzat eguzkiaren sinboloa da, eguzkia bere berotasun ta argita-  
sunarekin, eta beltzez beztitze hori ez da bakarrik dolauren gatik zeren  
Atharratzeko andereñoa zuriz baita janzten; zerbait ikusteko du argiaren  
aipamen zahar batekin eta erritu batekin; hain zuzen, Tolosan eta beste  
herri askotan Euskal Herrian —beriziki Santa Klaratarren komentuari  
eman zaizkio arraultzak— “eguzkiaren itzultzea eskatzen delarik, eurite,  
lañote luzearen ondotik”; oraindik ohitura hori badago Baionan gure  
etxetik berrehun metrotan dagoen komentuari arraultzak ematen bai-  
tzaizkio xede berarekin.

Bai narratiba, ez da bakarrik gertaerak edestea baina mitoak kontatzea ere. Eta Santa Klara-ren ohitura hori pahan erritu zaharrago baten ondokoa da. Erritu hori oxtion aipatu Etxebarren egiten zen eta geronek parre ipuin bilduma batean bildu nuen hona nola: kontatzailea Ligiari askazia neukan, eta naski herrietan ohi den bezala auzo herrietaz trufatzen da eta galdera egin nionean zergatik esaten zen Etxebarretarrak eroak zirela ez zidan Berterretxen kantorea aipatu, baina Santa Klararekin zerbait ikusteko duena, alegia Etxebartarrek behin Ligiko bide ertzean zegoen arkaitz baten hautsi egiteko herriko arraultza guztiak bildu zituztela eta harriaren kontra zartarazi, harria naski ez zen hautsi baina geroztik, zafla horia badago arkaitzean.

Ligiarrek ulertzen ez zutena zen Etxebartarrek hori egiten zutela, eguzkia itzul zedin. Halaxe parre ipuin sineste galdu batzu arki genitzake. Eta Etxebarrekoez kontatzen dena, Tolosa ondoko eta Bizkaiko herri baten gatik.

Gero ez da harrigarri kristaututako erritua egiten duten hiritarrek pagan ekintzaz trufatzea, baina zergatik dator honera Atarratzeko leinuaren kasuan Urrütiako leinuan bezala, anderea Santa Klararekin hurbiltzea? Nere ustez, eresi horiek bildu diren garaian eta hori dio J.D.J. Salaberry mauletarrak, eskean zebiltzanek abesten zituzten eta halaxe ulertzen dugu, kantoreetan agertzea, erlijio aipamena. Hain zuzen holako eskelei zor diegu Urrütiako kantorearen aldaera batetan eske bertsoa agertzea:

Izotzetan elhürretan  
Abentüko gaü luzeetan

Atarratzekoan berdin eske bertso baten oihartzuna badago, halexe züberotar bertsoak dio —eta Euskal Herri guztian ezaguna den hitzetan— etxeko jaunari zuzenduak:

“Zaldiz elizalako  
han ürrhez” oberendatüko;  
hantik etxera jin deneko  
“zilhar kaideran jarriko”.

Eta hona Atarratze jauregia kantorean Quatrefages-ek 1753.an argitaratu aldakian, frantsesez:

Santa Clara part demain  
on dore la selle de son cheval  
et sa valise d'argent.

Andere Santa Klara  
bihar da phartitzen  
haren peko zamaria  
“ürrhez da zelatzen”



honaino, euskarazko aldakietan agertzen da, baina frantses itzulpenean bakarrik, et sa valise d'argent / "eta bere zakua zilarrez". Norbait ez balitz konbentzitua bilduak izan diren kantapoesietan, abesleek kantu nahaske-ta bat ematen zutela, aski da entzutea Iparraldean "Boga Boga" kantua bukatzean nola nik ez dakidan ohitura berriz jarraitzen duten "oh Marguerite ma tendre amie, reviens vers moi ne me fais plus souffrir".

Beraz neretzat Santa Klararen aipamenak ez du historikotasunik kentzen Urrütiako eresiarri, bakarrik ematen digu aditzera herriak zer jarrera duen kantuari buruz? Geroztik etnografoek bildutako Urrütiako ipuinek erakusten digute herriaren gogoan, pertsonaia handi batek sort dezakeen mito transferentzia.

Santa Klara-ren aipamenik ez da eskaz izango —Donostiako uharteaz kanpo— euskal abestietan, eta hona nola irakurri dudana R.M. Azkue-k Krisostoma Bengoetxea, Lekeitiokoari bildutako erromantzean santa horren aipamena. Abesti horren izenburua ta lehen pikoia *Uso zuri eder bat* da eta zeruaz mintzo hona zer dioen:

Jesusen jardineko  
lorearen argia!  
Bera (Birjina) ta Santa Klara  
dontzella garbia.

Beraz hemen Santa Klara zintzotasun ta garbitasun ikurra da, senarrari hitzekoarena, Urrütiako eresian bezala ta lehen maitasunari ta bigarren hitzemarari jarraitzen denaren eredu *Atarrantze Jauregian* delako ipuin olerkian bezala. Bai Petirisantz gosearen sinboloa den gisa ta Sanpantartzart asearena, zintzotasunarena anderentzat Santa Klara izango da, bere bizitzako gertaera ospetsu haren gatik, alegia nola senarrari erakutsi zuen ez zela beste gizon baten atzetik ibiltzen.

Halere ez da dudarik jendearentzat Klara izenak baduela bere esan nahia, hain zuzen *argiaz mintzo baita Klara* aipatzen Lekeitioko abestian eta euskaldun jendeak, klaro, hitz hori ulertzen duela.

Nola nahi ere ez dugu uste Klarari buruz argitasun guztiak aurkitu ditugula eta ezin erabaki, ziurki, azpian dagoena, argia ala berotasuna den, eguzkiaren bi ezaugarri, baina halaz ere gure eresietan "argiaren" ikurra dela dirudi.

### **Urrütiako leinuaz beste mito batzu**

Frantsesak dio ez zaiola aberatsari baizik emaiten, eta hain zuzen Euskal Herrian pertsonaia ospetsua agertzen denean, gure mitologiako

kondaira lotu egiten zaio berealaxe: hala Nafarroan Erdi Arotik goiti Atarabiaz kontatzen dena, Lapurdin Axular-ez egiten da ta Zuberoan Santa Graziko Etxeberri erretoraz. Halere kontatzen diren beste ipuinak ez dira ez Urrütiako jaun eta andereenak baina etxe hartako alabetzaz. Horrek ez du erran nahi inolaz ere —batzutan idatzi duten moduan— sineste ta legenda baten agertzeak kantu batean bere historikotasuna kentzen diola denok baitakigu Atarrabia, Axular ta Etxeberri apaizak ez direla mitikoak. Ikus dezagun beraz Liginagan 1949. urtean J.M. Barandiaranek egin galdeketan zer bildu zuen eta *Eusko-Jakintza* aldizkarian, 1950. IV, alean argitaratu:

#### Lehen aldaera:

“Altzürükü Urrütiako etxean bazüzün bi alhaba, eta amari ez nahi obeditü.

Egün batez amak maledizioea egin ziezün “Debrüek eraman zitzela, Beli-ko kharbealat eta han inkanta zitela”.

Eta gero jenteek erraiten zizüen han, bi andere inkantatürik bazirela. Egün batez Altzai-ko mothiko bat juan züzün, harri hartürik, harek zotükeraziko zütiala.

Eta andere bat jarririk ikhusi zizün leze-borthan, ürrhe orraze batez iresten ari. Eta eman ziozün andereak bi sagar eta mothikoak aitzinaxeago juan eta so egin zizün zer sagar züen eta hi hogeï liberako ürrhe zitizün. Eta e'tzütian zotükerazi andereak lotsatü”.

(Testu honi zuzenketa batzuk egin dizkiot, zeren Barandiaran-ek, orduan, baldintza txarretan, magnetofoirik gabe bildu baitzuen eskuz idatziz hala ez du bereizten “zizün” (zuen zuka) eta “züzün” (zen zuka) ez eta beste lekutan “zeizün” (zuen, zuri). Bestelan zuberotar ez direnetan biltzaile hobereña dugu.

#### Bigarren aldaera:

“Amak maledizioea eginik, Altzürükü Urrütiako hirur andere Lezenobi-ko kharbean inkantatürik zütüzün, behar zütiala hantik elkhi, bat sarthü züzün eta bazoazün kharbetik elkhirik neskatiä bat bizkarrean.

Ordüan süge handi batek gerrikotik üngüratü zizün. Eta ezpeitzen aitzina joaiten ahal ützi zizün neskatiä eta sügeak ützi zizün mothikoa. Eta mothikoak lotsatürik juan zütüzün andereak han ützirik”.

Hemen ere, pertsonaia handien eta leinu ospetsuen inguruan ez da mitogintza berririk sortzen, bakarrik historikotasuna daukaten notinak, mito zaharretako ekile bezala ematen dira beste gabe.

Halaxe esan genezake, denborarekin, gutxienik aldatzen diren parametroak lekuak eta jendeak direla, gertaerek ere beren benekotasun zerbait gordetzen dute, gero bilketaren gorabehera horiek bazter utzita, ez ote zuten abesti egileek, antziña, mitoa sartzen giro ta ingurumen harrigarrikoa edertzeko?

Beste leku batean erakutsi dugulako egileak nortzuk diren ez dugu jakingo baina alokutiboan azterketaz uste dugu probatua dagoela, batzutan aitonen alaba horien aiakoak, leinukoak eginik direla, beste batzutan herriak hala nola Beaumontarren aurka zirenak Berterretxe-ren kasuan eta zuberotar gehienak Urrütiaren kasuan, ezen badakigu Urrütiako aia hori —beharbada feudo kutsua zeukana eta hamar bat etxeren jabeak izanki— herriaz oso gaizki ikusiak baitziren; hain zuzen, Urrütiako jaun hori Jaurgain-ek dionez lege gizona baitzen.

## BIBLIOGRAFIA LABURRA

- BORDAZARRE Pierre, "Etxahun Iruri", *Berterretxe* pastoralara, Baiona, 1958.
- ETXAIDE Jon, Gure eresi zaharrak, in *Egan*, Donostia, 1978.
- GOYHENECHÉ Eugène, *Le Pays Basque*, Pau, 1979.
- HARITSCHELHAR Jean, "Baigorriko zonbeit kantu" in *Gure Herria*, Baiona, 1963.
- JAURGAIN de Jean, *Quelques légènedes poétiques du Pays de Soule*, Paris, 1909.
- LAKARRA, J., BIGURI, K., URGELL, B., *Euskal baladak*. Hordago, Donostia, 1983.
- MICHEL Francisque, *Le Pays Basque*, Paris, 1857.
- MIRANDE Jon, "Berteretxeren khantoreaz ahapaldi berriak" in *Egan*, 1960.
- PEILLEN Txomin, "Urrütiako leiñuaren eresiak XV. Mendean" in *Euskera*, Bilbao, 1986.
- PEILLEN Txomin, "Amodiozko baratzetan" in *Gure Herria*, 1963.
- PEILLEN Txomin, *Züberoako itzal-argiak (XV.XVI.XVII.mende zaharrak)*. Ed. Elkar, Donostia, 1988.
- QUATREPAGES, *Poésies populaires de France*, Paris, 1753.
- SALLABERRY Jean Dominique Julien, *Chansons populaires du Pays Basque*, Paris, 1872.
- VILLASANTE Luis, *Historia de la literatura vasca*. Ed. Sendo, Bilbao, 1961.



## LA CHANSON NARRATIVE AU BÉARN

*Billabona, 27-V-1989*

*Roger Larrouy*

### LA LITTÉRATURE EN BÉARN DU MOYEN AGE À NOS JOURS Place de la chanson narrative. Eléments de Compréhension

#### Le Moyen Age

Le Béarn n'a pas recueilli grand chose dans l'épanouissement littéraire qui se manifeste au 12.<sup>o</sup> siècle sous la lyre des troubadours...

Contrairement à ce qui s'est passé ailleurs, il n'est pas question en Béarn ni des cours d'amour, ni d'académies de "gai savoir", ni de toutes les institutions de poésie qui ont illustré nos voisins du Languedoc. On ne trouve pratiquement aucun nom de poète béarnais dont on peut lire les écrits au Moyen Age. Il semble que la littérature béarnaise n'ait guère existé jusqu'au poète DESPOURRIN au 18.<sup>o</sup> siècle...

*AU 14<sup>o</sup> siècle*, Gaston XI, dit Gaston-FEBUS, avait hérité du goût des Lettres de son père Gaston X, mais ses oeuvres son écrites en français. Il ne reste de lui qu'une chanson qu'on lui attribue et qui est populaire dans toutes les provinces: "AQUERES MOUNTINES...".

*AU 16<sup>o</sup> siècle* le Béarn se française et à la cour de Marguerite de Navarre les chanteurs du midi se font entendre, mais ils sont proches de la langue "d'oïl"...

On peut noter cependant une traduction des Psaumes par le pasteur protestant Arnault de Salette pour Jeanne d'Albret dont il était aumônier...

*AU 17<sup>o</sup> siècle* Louis XIII fonda le Parlement de Pau (20 Octobre 1620) et bannit le langage béarnais.

*AU 18<sup>o</sup> siècle* apparaît Cyprien DESPOURRIN originaire d'Accous, en vallée d'Aspe. Il compose des chansons mais sans faire allusion aux moeurs, aux coutumes et à la vie de l'époque. C'étaient des chansons d'amour sentimentales qui restent toujours populaires partout, mais sans gran intérêt pour l'histoire de l'époque...

C'est à ce moment qu'apparaissent les "pastorales" ou tragédies, qui mettaient en vers les mésaventures d'un mari, les travers et les défauts d'une personne ou des événements locaux.

Mais le Parlement de Navarre intervint pour interdire, sous des peines sévères, les représentations des fêtes qui reflétaient la vie réelle en injuriant les personnes...

### **Période de 1820 à 1890**

C'est surtout pendant cette période que se vit le grand réveil de notre littérature... Les événements qui bouleversent la vie politique de cette époque ne passent pas inaperçus et vont inspirer de nombreuses chansons au poète d'Oloron Xavier NAVARROT († 1862). Nous possédons de lui une poésie narrative (avec un refrain chanté à la fin de chaque strophe) qui nous raconte le Coup d'Etat de 1851... Il y fait allusion à ses amis qui avaient été envoyés en prison... La poésie s'intitule "Maudit soit l'oiseleur" et parle des petits de l'hirondelle qui ne respirent plus la liberté parce qu'ils se retrouvent en cage... Après la dernière strophe un "envoi" nous précise ou plutôt laisse deviner qu'il s'agit d'une "poésie engagée"... D'autres poètes de cette période deviendront les ancêtres de la poésie engagée...

Tout ce qui existe finalement comme chansons narratives a été composé au 19.<sup>e</sup> siècle et actuellement le mouvement se poursuit...

Malheureusement beaucoup de documents ont disparu...

Cependant je vais tenter de regrouper ces Chansons narratives par thèmes: elles concernent certains faits individuels mais surtout retracent la vie collective de la société en Béarn.

### *N.B. Opinion personnelle*

Les Béarnais ont du chanter anciennement comme on aime encore chanter. La poésie des troubadours, délicate et maniérée, célébrant des sentiments chevaleresques, ne devait pas toujours convenir au tempérament des Béarnais... Nos campagnards employaient une langue mâle et énergique pour raconter la vie de tous les jours... et les exploits de toutes sortes.

### **La chanson en Béarn...**

Depuis toujours le peuple Béarnais a aimé chanter...

— *La chanson meublait la solitude* des bergers dans nos montagnes lorsqu'ils y passaient plusieurs mois de l'année: pas de postes à transis-

tors à cette époque... Les randonneurs devaient être rares et ces bergers vivaient isolés et coupés du monde... La chanson sentimentale et surtout la chanson narrative leur permettait *de rester en lien* avec la vie réelle dont ils étaient coupés...

L'écho des montagnes répercutait leur voix: c'était pour eux un magnétophone naturel... Ils chantaient et s'écoutaient chanter, ce qui peut expliquer leur timbre de voix particulièrement typé...

— *La chanson était aussi le moyen d'expression du groupe*, chaque fois qu'on se rassemblait dans les villages pour les travaux des champs ou l'entraide était indispensable à défaut de machines: vigne, moisson, dépiquage, fougère, maïs à ramasser et dépouiller... Tout se terminait par des chansons à l'occasion des travaux de la ferme ou pour lez fêtes de famille...

Les gens de la terre restaient particulièrement attachés à la famille, à leur village, et c'était avec un certain déchirement de coeur que l'on quittait la maison à la recherche du travail, pour la transhumance, pour le commerce, pour la guerre ou lorsqu'on se mariait... Ces séparations res-sembraient à une sorte d'exil provisoire ou définitif...

Ce comportement explique que *beaucoup de chansons racontaient ces événements de la vie...*

— *Ces chansons se transmettaient de façon orale*; on mettait un point d'honneur à apprendre une chanson complète pour mettre de l'ambiance dans un repas de noce ou de baptême, mais on ne voulait pas la transmettre de bon coeur parce que l'intéressé se l'appropriait en quelque sorte; on disait "cette chanson c'est celle du défunt Baptiste de tel endroit... Souvent c'étaient des chansons de style narratif avec des couples à n'en plus finir, et celui qui était doué d'une bonne mémoire faisait l'admiration de tous, surtout si par surcroit il était doué d'un organe puissant et bien timbré...

*Beaucoup de chansons se sont perdues par l'affaiblissement de la tradition orale*, le français ayant supplanté parfois la langue normale de la communication, et surtout en raison de l'absence quasi-totale de transcription écrite...

On en a souvent retrouvé dans des cahiers des soldats de la guerre de 70 ou 14-18, dans la mesure où ils savaient lire et écrire... Mais souvent des mots ont été substitués à d'autres par manque de compréhension ou en raison d'une mauvaise prononciation.

Mais ces chansons meublaient les longues soirées à la caserne en retraçant le récit de la vie normale qu'on espérait retrouver...

– *Ces chansons ont été popularisées par des groupes vocaux spontanés, n'ayant d'autre culture musicale que la tradition orale et l'imitation des airs transmis...*

Grâce à des chercheurs passionnés et opiniâtres, une partie de ces chansons a pu être recueillie et ainsi la chanson populaire, surtout narrative connaît un souffle nouveau...

*Le Festival de Siros* (petit village à 10 Km de Pau) regroupe chaque année plus de 80 groupes venus des vallées mais aussi de la plaine?...

Ce festival a été inauguré en 1967: beaucoup de chansons ont été remises à jour et enregistrées sur disques ou bandes magnétiques... La mine des chansons anciennes ayant été presque épuisée, chaque année voit naître des compositions nouvelles, parfois sur des rythmes modernes et avec accompagnement d'instruments de toutes sortes. Je vous propose un certain nombre de ces chansons de style narratif sur un certain nombre de thèmes que j'ai sélectionnés...

#### QUELQUES THEMES PROPOSES AVEC DOCUMENTS SONORES

*A-L'EXODE*: un jeune est partie à Bordeaux après avoir quitté la ferme, en amenant avec lui pour tout bagage les sonnailles de ses brebis...  
Musique typique d'une époque.

#### *B-LA TRANSHUMANCE*:

- Le départ en Gironde en raison de l'herbe des vignes après la vendange...
- Les relations et découvertes: LES FILLES DE LIBOURNE.
- La descente de la vallée: PLAISIRS DES BERGERS.

*C-LA GUERRE*:  

- François I.<sup>o</sup> prisonnier à Pavie en 1525: QUAND LE ROI QUITTA LA FRANCE.
- Bataille de bergers entre vallées d'Aspe et d'Ossau (Musique typique).

*D-LA LIBERTE*:  

- "Le chene de Guernica".
- "La Bataille du Pont Long" (1853).

*E-LE COMMERCE*:  

- "Les navigateurs en bas adour".

*F-LES METIERS*:  

- "La chanson des fileuses" (Laine ou Lin).

*G-LES COUTUMES*:  

- "La chanson de la mariee".

*H-LE TOURISME*:  

- "La chanson du moniteur" (Ski).



*I-CIVILISATION:* • “Les bohemiens”.

Etc...

N.B. Je remettrai des cartes, ou plus exactement des cartes photocopées pour chacun pour situer la région.



**Literatura Biarnoan, Erdi Arotik gaurdaino:  
kantu-kontuaren lekua**

*Erdi Aroa.* Ez da Biarnoraino heldu XII. mendeko trobadoreen olde literarioa. Ez da hemen aipatu ez “maitasun gorterik” ez “jakitate alaiaren akademiarik” ez auzoko Languedoc herrietan aurki zitekeen poesia erakunderik. Izaitez Erdiaroko idazkietan ez da hautemaiten Biarnoko poeta bakar baten izenik; iduri-ta literaturarik ez dela egin Biarnoan, Despourrin poeta XVIII. mendean agertu arte.

*XIV. mendea.* Bere aita Gaston X. bezala, Gaston XI., Gaston Febus zeritzana, literatura zalea zen, baina bere obrak frantsesez idatzi zituen eta ez dugu biarnesez harenik bazterretan hain ezaguna den eta haren gain emaiten den “Aqueres mountines” baizik.

*XVI. mendean* frantsesten da Biarnoa eta Nafarroako Margaritaren gortean inguruko kantariak ozen badira ere, “oil”-eko hizkuntzen doinua dukete. Ohargarri da halere Albreteko Joanaren limosnari zen Arnault de Salette artzain protestanteak egin zuela Salmoen itzulpena biarnesez.

*XVII. mendean.* Luis XIII.ak finkatu zuen Pabeko Legebiltzarra (1620-X-20) eta Biarnoko hizkuntza baztertu.

XVIII. mendean agertzen da Cyprien Despourrin Aspe ibarreko Accous herrian sortua. Kantu berriak ontzen ditu, baina orduko ohiturak, jokoerak, hots bizimoldea aipatu gabe. Amodiozko kantu sentimentalak dira, orotan onartuak, baina historia ezagutzeko ez hain interesgarriak.

Orduan dira ere agertzen “pastoralak” edo “tragediak”, bertsoan kontatzen dituztenak edo senar baten nahigabeak edo norbaiten itzal eta hutsak edo lekuko gertakariak. Nafarroako Legebiltzarrak ordea, gaztigu zorrotzenen mehatxupearan debekatzen ditu horrelako emankizunak: herri-tar batzuen gustuz, isladatzen baitzuketena sobera egiazko bizia.

*1820tik 1890era.* Orduan da egiazki pizten gure literatura. Politika inarosten duten gertakariak badute beren oihartzuna Xavier NAVARRROT († 1862) Olorueko poetaren kantuetan: 1851ko estatu kolpea kontatzen duen kantu bat ontu zuen (bertso bakoitzaren ondotik errepika bera emanez). Preso ereman zizkioten adiskideak aipatzen ditu. “Madarikatua xori ihiztaria!” du izena kantu horrek eta kaiolan sartuz geroz

libertatea galdu duten ainhararen xori umeez da mintzo. Azkenean “igor-tze” batek adiarazten digu “poema engaiatua” dela eta beste horrelako poeta batzuek ere bideak idekiko dizkiete gaurko gure “poeta engaiatuei”.

Erran dezakegu beraz Biarnoko kantu kontu gehienak XIX. mendean egin direla eta gaurdaino bide beretik doazela. Zorigaitzez paper zahar asko galdu da.

Kantu-kontu horien sailkatzen, gai arau, saiatuko naiz: Biarnoko gertakari berezi batzuen eta oroz gaintik gizarte ohituren inguruan badihardute.

*Eritzi propioa:* Lehen ere gaur bezala kantatu ohi dute Biarnesek: Trobadoreen era kriket eta fazointsua ez zuketen hain gogoko. Gure baserritarren solasa indartsuago eta gogorrago zen, eguneroko bizi-erata edo zerbait balentriaz ari zelarik.

### Kantuak Biarnoan

Egundainotik kantua maite izan da Biarnoan.

— Artzainek mendietan maite zuten kantatzea, hilabete luzeak iragaiten baitzituzten bakartasunean; ez zen orduan “transistor”-ik! Ibiltariak bekan ziren gain haietan eta mundutik urrun zeuden artzainak. Amodiozko kantuek eta kondairazkoek gizartearekilako lokarri bat eskaintzen zioten. Mendietako oihartzunen artean beren botzaren hotsa entzuten zuten eta magnetofonik ez izana gatik, berezitasun bat bazeukan hots horrek.

— Kantua ere zen taldearen adierazlea, mekanikarik ez izanez auzolenerako elkarretaratzen baitziren herritarrak: mahasti aitzurren, ogi-joitzen, iratzetan, arto-xuritzetan. Lur lanetan ala etxeko festetan, kantuak ozen ziren denetan.

Jendeak atxikiak ziren etxeari eta herriari: zer bihozmina ez zen etxetik eta herritik urruntzea lan eske joaiteko edo alhetarako edo sale-rosketetarako edo gerlarako edo... ezkontzeko. Behin behineko edo sekulako desherriratze bat bezala zen beti. Horra zergatik biziaren gora-beherak aipu ziren maiz kantu ainitzetan.

— Gogoz ikasten ziren kantu horiek eta familiako eztei edo bataioak beztitzen zituzten. Ikasi zituenak beretzat zeuzkan eta ez zituen gogotik erakasten. “Holako kantua Battitta zenarena da!...” entzuten ohi zen eta egia erran, harrigarri ere bazen ikustea zer ixtorio ederra, zer pertsu sail luzea, zer botz aberatsarekin kantazen zuen delako Battitta zenak.

— Katea eten da ordea askotan, frantsesa sartu, izkirioz deus guti hartu eta kantu xahar ainitz galdu. 70eko edo 14-18ko gerlarien papere-tan aurkitu dira batzutan zenbait, soldadoek irakurtzen eta idazten zeki-ten neurrian. Bainan gertatzen da maiz hitz frango aldatu direla edo ezin ulerturik edo gaizki ahoskaturik. Dena dela kantu horiek desherrian lagungarri zitezkeen ordu luzeak iragaiteko etxeko oroitzapen goxoe-kin.

— Beren baitarik, eta eskola handirik gabe, talde batzuk berpiztu dituzte antzineko kantu xahar zenbait, xaharren ganik ikasirik. Eta bestal-de ikerle kartsu eta tematsu batzuei esker ere beste zenbait bildu ahal izan dira. Herri kantuak loraldi berri bat bizi du gutartean horrela.

— *Siros-eko Festival-a*. Pabe-tik 10 kilometrotan dagoen herri tipi horretan biltzen dira, urtero, ibar ala haranetarik 80 bat talde.

1967 an estreinatu zen kantaldi famatu hori: ainitz kantu xahar diskoetan edo xingoletan finkatu ziren eta gero, harrobi xaharra hustu ondoan, kantu berriak sortu dira urtero, aire, piko eta lagungarri berriekin.

Hautatu ditudan kantu-kontari zenbait eskainiko dizkizuet orain, gai desberdinetaz.

#### Gai batzuen soinu adierazgarriak

A - *Exodoa*: Baserria utzirik, “Bordalera” badoa gazte bat, berekin daramazkiela bakarrik ardien joareak. Garai bateko musika berezia.

B - *Alhagietara*

— “Bordale aldera”; mahats-biltze ondoko bazken gatik.

— Ustegabeko harremanak: “Libourne-ko neskak”.

— Ibarri behera; “Artzainen plazerak”.

C - *Gerla*

— 1525ean Frantses I. errege Pavia-n preso eginik: “Erregek Frantzia utzi zuenean”.

— “Aspe eta Ossau” ibarretako artzainak gatazkan (musika berezia).

D - *Libertatea*

— “Gernikako haritza”.

— “Pont-Long”-eko guduka (1853).

E - *Sal-erospenak*: “Aturri-Behereko mariñelak”.

F - *Ofizioak*: “*Iruleen kantua*” (Artilea ala lihoa).

G - *Ohiturak*: “Andere esposaren kantua”.

H - *Turismoa*: “Monitorearen kantua” (Ezkiazalea).

I - *Bizimoldea*: “Buhamiak”.

Etabar...

*(Itzultzailea: P. Xarritton)*

# **BATZAR-TXOSTENAK**





## BAZTANGO HIZKERAZ OHAR BATZUK

*Donostia, 1991-IX-27*

*Pello Salaburu*

1978an, orain dela 11 urte luze hain zuzen, nere sortetxean eta inguruetan aditzen nituen zenbait esaera eta hitz biltzen hasi nintzen kuaderno ttipi batean, metodologia argirik segitu gabe, egia aitortu behar baldin badut. Baina han sartzen nituen, hala ere, nere belarrian pixka bat bitxiak ziren hitzak eta esamoldeak, bitxiak betiere Bilbo inguruan nere eguneroko lanean eta harremanetan erabiltzen nuen euskara estandarizatu horrekin konparatuz. Ez dira, hortaz, benetan bitxiak: hango euskararen ezaugarritzat har daitezke batzuk eta beste batzuk, berriz, egun galdu samar dauden arren, aski hedatutzat jotzen ahal dira.

Honen antzeko zerbait egina du Mariano Izeta elizondarrak ere, bai bere eleberrietan, bai espreski gure agerkarian argitara eman zuen “Baztango hiztegi ttipia” izeneko lanean (*Euskera* XXX, 2. aldia, 1985, 2, 553-617). Izetaren lanean informazio handia dago eta, ohartu naizenez, nik bilduriko oharrak bat datoz anitzetan berak emandakoekin. Hortaz, berriak diren batzuk bakarrik aipatuko ditut hemen. Eta aldika, Izetarekin bat ez datozen beste zenbait, nahiz ez den erraza gauzak ongi segurtatzea, lan horretan ez baitira hitz guztiak alfabeto hurrenkeran ematen. Esan dezadan, bestetik, nere ohar hauek G. Garateri ere utzi nizkiola eta berak *Erderakadak* liburuan bildu dituela zenbait. Gainera, irakasle honek eginak ditu egonaldiak ere nere gurasoen baserrian.

Hona hemen, bada, hitz eta esaldi horietako batzuk, ordena sobera errespetatu gabe emanak:

- “Eman” aditza eta “garri” atzizkiaz baliatuz sortzen da “ahalke-mangarri” (*alkemangarri* ahoskatua, soinu hasperendu hori kontuan hartu gabe) eta “irrimangarri”, ahalkea ematen duena eta irria edo parregurea ematen duena adierazteko, jakina. Izetak “irringerrie” eta “iringarrie” biltzen ditu, neretako aski arrotzak direnak. Agian Elizondotik beheiti hala esaten da.

- “Azolagabe” (ez “axolagabe”) esaten zaio gauzak egiteko ardurarik jartzen ez duenari: “Arraio azolagabea!”.

- “Ttanta” hitza erabiltzen zen gure etxean (egun ez dut entzuten hala ere) “ardo” adierazteko: “Nahi duzue ttanta?”. Eta horrekin baso bat ardo eskaintzen zen. Dena dela, ez dut inoiz ere entzun, eta biziki arraroa egingo litzaidake, “bost litro ttanta” edo horrelakorik.

- “Burkanda” deitzen zaie han belagietan aurkitzen diren gora-behera txikiei: “Hor beti neketan ibiltzen gara belar mozten, burkandaz betea baitago”. Ez dakit zer den hitz hori, baina agian hitz elkartua edo dateke, arrazoi fonologiko batengatik: gauza jakina da gure aldean “u” bokalaren ondotik ez dela inoiz ere “a” ageri hitz soiletan: *urine, ure, kunke, lurre, gauze*, e.a. Adibide horietan ikusten denez, “a” artikulua itxi egiten dugu “e” bihurtuz. Adizkiek “-la” atzizkia hartzen dutelarik ere gauza bera suertatzen da: “dugule” esaten dugu, ez “dugula”. Baina araua badirudi ez dela hain estua, normala denez bestetik, hitz elkarketan: *ilunabarra, pausugaxto, urdama*, datugarai, e.a. Hitz horietan guztietan “u-a” segida aurkitzen da, inolako eragozpenik gabe. Hori dela eta, “burkanda” bezalako hitz bat hitz elkartutaz joko bagenu errazago esplikatuko litzateke zergatik ez dugun “burkenda” egiten. Baina hau hipotesi hutsa da, nola-nahi ere, nik ez baitakit zer den hitz hau.

- “Pututs” erabiltzen genuen eskolan, ederki oroitzen naiz, halako esanahi garbi eta zehazturik gabeko izenondo bezala. Gaztelaniaz gaur ere “sinvergüenza” hitzak adiera anitz du eta horietako bat da, jakina, ‘lotsarik ez izatea’, baina esanahi horrek ez ditu hitzaren esangura guztiak agortzen. Bada, ez dakit, “pututs” delako hau ere umeen artean erabiltzen genuen eta nagusiek umeekin erabiltzen zuten, ez haien artean. Izetak “pututx” (ez “pututs”) aipatzen du, oihaneko animalia bat izendatzeko: “hurón”, “untxarta” edo dena delakoa.

- “-sko” atzizkia maiz ageri da: “kontesko” (bat pozik dela adierazteko), “urrunsko” eta “urrusko”, (zerbait urrun dagoela), “aspaldisko”, “goitisko”, “beitisko (beheitisko)”, “barnasko”, “haundisko” (honek “hanbatekoa”, “gaitza” edo “gogorra” ere esan nahi du, oso handia alegia), “motelsko”. Atzizki hau bera ageri da beste esaldi honetan ere: *Bai, atzo goizian hil zen Mattin. Aspaldi huntan ez ongixko zagon.*

- Gaur egun hainbeste erabiltzen den “ez da?” hori, “arratsaldean joango zara, ez da?” esaten dugunean, adibidez, nere gaztaroen “ez dela baietz?” zen: “arratsaldean joango zara. *Ez dela baietz?*”.

- “Ostikoa” gehienetan “purdienostikoa” zen gure artean, “ipurdian ostikoa”, jakina. Aipagarriena da hitz elkartu bat egin dugula orain adizlagun eta izen baten artean, batere arrunta ez den bezala izen beregainko berria sortuz: *purdienostiko aundi bet main datzut* (“ipurdian ostiko haundi bat emanen dizut”), sintagma osoa “purdienostiko aundi bat” kateak osatzen duela. Ipurdiarekin zerikusia duten “itzilipurdi” eta “totoriko” Izetak bilduak dituen, ez ditut aipatu.

- “Maia” da belarrarekin egiten ditugun lerroei ematen diegun ize-na. Belarra edo soroa (hau da, belarraren bigarren moztea) “maietan” biltzen dugula esaten dugu: *zazpi mai dire belai hortan* (“zazpi mai dira belagi horretan”), *mai goorak in tuzte* (“mai gogorak egin dituzte”). Belarrarekin batera hitz hau ere desagertuko da gure hiztegitik, baina komeniko litzateke halako hitzei bere lekua ematea hiri hizkuntza batean ere.

- “Lepoa” da, jakina, burua eta gorputzaren arteko atala, baina lekuak adierazteko ere balio du: *mendilepo hortan agertzen omen ziren Lanzko lapurrak*.

- Bat gaizki edo eri dagoelarik, lehenik “okaka” hasten da eta azke-nean “goitikeka” botatzen du jan duen guztia.

- Zerria “zerri alkian” hiltzen denean ez da “txerri-boda” egiten, “zerri-hiltzea” baizik eta, lehenago, gosaldu ondoren, “zerri-puxkek” banatzen ziren inguruko etxeetan: zareto batean eramaten ziren zerri odol bat, sahieski zati bat eta halako puska batzuk aza hosto batean inguraturik. Zerriei zerri bazka ematen zaien bezala, oiloei “orea” ematen zien nere ama zenak: artoirin eta urarekin egindako bola hori batzuk ziren hauek.

- Behin gertatu zitzaidan niri hemengo jatetxe batean bazkaldu ondoan aulkia hautsi eta lurrera erori nintzela. Ohartua nintzen, bai, “katadera” hura “kilike” zegoela, ez baitzen batere ongi pausatzen eta batzuetan “kirrinkeka” baitzebilen, halako “asots” berezi bat atereaz, baina ez nuen “tenorez gartzigatu” (ez nuen garaiz abisatu) eta horregatik erori nintzen nonbait.

- Ilunabarrari “atsalde apala” deitzen zion anitzetan nere aita zenak: *atsalde apalian torko da Patxiko*.

- Beste nonbait ere esana dago “urean” eta “uretan, putzuan” eta “putzutan, suan” eta “sutan, kean” eta “ketan” bikoteen esanahia sistematikoki bereizten dela Baztango aunitz tokitan. Hauxe da nere kuader-no horretan ikusi dudan beste ohar bat: *Elurrian egonak gara azkeneko aste osoan!* Ohar gaitezen “elurrean” esaten dela hor, ez “elurretan”.

- “Filde” hitza erabiltzen zen, lehenago bederen, eta hemendik sorturiko “fildero” eta “fildeketa”: tresna txikiak, trapaak eta puskak biltzen zituenari esaten zitzaion. M. Izetak ere biltzen du hitz hau eta azpimarratu nahi dut berak dakarren adibidea, han ikusten baita Baztan-go hizkeraren beste ezaugarri bat. Hala dio Izetak: *Zu beti filde dariola*. Aipagarria da “dariola” adizkia adberbio huts bezala erabiltzen dela Baztanen, nik dakidala, pertsonaren edo aldiaren bereizketarik egin gabe: *etxera itzuli behar izan dut, odola dariola; ez zara oroitzen odola dariola sortu zinela etxean?*, e.a.

- “Ixtentean” hitzak bi esanahi ditu, gutxienez: “berehala” eta “orain dela guti”: *ixtentian torriko da, istentian torri de.*

- Ume txikiei egunean zehar lauzpabost aldiz jartzen eta kentzen zaizkien oihalei “xatarra” esaten zaie zenbait tokitan. Nik ez dut hitz hau hala, zuzenean, entzun Baztanen, baina nere oharretan ageri da hitz hau argi eta garbi orain dela urte batzuk entzundako esaldian: *Hau mutil gaztia... xatar urrine kentzekua!*

- Bat “nabal” edo labaina batekin zerbait ebakitzen ari delarik arriskua du zauri bat egiteko bere eskuan. Zauri hauei “sakaila” esaten zaie (aditza “sakaildu” dela).

- Gaur egun gure makina eta tresna elektronikoak argi indarrarekin lotzen ditugunean “argia gastatu” egiten dutela esaten dugu. Baztanen, ordea, plantxa batek, adibidez, ez du gastatzen: *izigerrikerie tirtzen du plantxak. Arras karioa da!*. Horixe daukat apuntatua andre baten ahotik.

- Gauzak pentsatu gabe ateratzen edo egiten direlarik ustegabeen suertatu direla esan ohi dugu. Baztanen, ez; Baztanen “usteketan” egiten dira.

- Omenka ari garelarik horrela diogu: “ez omen da etorri”, “ez omen du egingo”, e.a. Hara zer hartu nion arizkundar bati: “Deus ez du jaten izan behar!”. Eta honekin hauxe da adierazi nahi zuena: “Ez omen du deus ere jaten”. Beste batek hauxe zioen: “horrek berezi izan behar zuen...”, honako hau adierazteko: “horrek berezi izan omen zuen”. Esaldi hauetan hizkera doinuak aparteko garrantzia du esanahia zehazteko orduan.

- Egia da beste tokiekin erkatuz gero, Baztanen ez dela ia batere erabilia “egin” aditza indartzaile gisa. Horrela, “hautsi egin du” edo “sartu egin da” bezalakoak ez dira maizegi entzungo, han, normalean, “hautsi du” eta “sartu da” esatearekin aski baitugu. Hala ere, nere oharretan aurkitu dut esaldi bat, han hartua, azterketa xeheagoa eskatuko lukeena: *Zer egin ziren gero? Mozkortu egin ziren biek.* Hau batek esana da pasadizo bat kontatzen ari zelarik. Bi aldiz ageri da hor “egin”, galderan eta erantzunean. Baina bietan “izan” aditza hartzen du laguntzailatzat. Bigarreanean arrunta da: “mozkortu egin dira” Lehenbizikoan, ordea, ez hainbeste. Egungo euskaran behintzat ez dira horrenbeste entzuten “zer egin zinen gero?” bezalako esaldiak.

- Jubilazioa kobratzen dutenek ez dute erretiroa kobratzen. Hobeki esan: orain agian bai, ikastoletan ere hori erakusten baitute, baina lehengo “xahar parte” kobratzen zuten: “Bai, gure Tadeo iaz hasi zen xahar partia hartzen”. Nere sortzetxean ere, nere gurasoak ezkondu zirelarik egin zituzten paperak begiratzen egon nintzen, eta Iruñeko

notariak horrela zuen jarria paper ofizialetan: “los herederos le darán de “zarparte” una oveja...”. Hitza hantxe dago bildurik, erdal testuan.

- Orain aita eta ama askok nahiago izaten dute umeak biberoiarekin hazi, Espainiako partean. Frantziakoan ez dakit zerekin. Bada, oroitzen naiz gure etxean urtero-urtero hazten zela bildots bat Bazko egunean jateko. Han egoten zen, behitegian janbaka gaisoa ezin laketuz. Bildots hari biberoiarekin ematen genion esnea, baina ez genuen biberoiarekin hazten: “Bai, guk urtero hazten dugu bildots bat eskutik”, esaten zion aita zenak adiskide bati. Bildots hark “urrupeka” edaten zuen esnea.

- “Lakua” urez beterik dagoen putzu handi bat dela pentsa dezake norbaitek. Ez dakit bada. Behin langile bat ari zen esplikazioak ematen eta honela zioen: *Hure zen hure lana! Porlanez denian lakue ine* (“Hura zen hura lana! Porlanez denean lakua egina”). Zer esan nahi zuen galdetu niolarik, lakua horrek “teilaren forma” adierazten zuela esan zidan. Eta nik sinetsi nion.

- “To” hitza, hain ttipia izanik ere, oso emankorra da hango euskaran. Nere etxean segurik, bazituen lau esanahi: hasteko, behiak deitzeko orduan erabiltzen den hitza da: “To, to, to,...”; bestetik, “tori!” adizkiaren hikako forma da: “To! Hemen duk!”, hirugarrenik, ezetza adierazteko oso erabilia da: “Bai to!”. Eta azkenik, harridura adierazten du, “hara!” esango genukeen tokian jar daitekeelarik: “to!”. Jakina, hemen ere hizkera doinuak eta testuinguruak markatzen du hitz ttiki honen esangura.

- Gure herrian, erle edo liztor bat pausatzen baldin bazaizu eskuan edo buruan, ez dizu eztena sartzen. Han “atsikitu” egiten dute. Nik esango nuke, baina ez naiz segur, “atsikitu” aditz hau atsiki bizidunei bakarrik egiten zaienean erabiltzen dela: “eskolan atsikitu dute” esanen da norbaitek atsiki egiten badio ume bati. Hortaz, sugeak edo erleak atsikitu egin dezake. Baina nekez esanen dugu “sagarra atsikitu dut”, sagarrari atsiki egiten baizaio. Edo atsiki eman: “Emaioak atsiki!”.

- Eta zer gertatzen da erle batek atsiki egiten badizu? Zauria infekta-turik gerta daitekeela. Ez; gure herrian ez dira, edo ez ziren, infektatzen: halakoak “haserretu” egiten ziren. “Atzo behatza suan erre eta begira nola haserretu zaion gaurko!”.

- Zerbait jaten ari garelarik eta bereziki ona dela iduritzen baldin bazaigu “aute” dagoela esaten dugu: *Bai, hau aute dago!*. Ez dakit nik zer den hori, izenondoa ala aditzondoa, singularrean bakarrik entzuna baitut. Eta jakina, zer esaten dugu batek jaten duen “guztia aute” aurkitzen baldin badu? *Hoberen klasian bizi dela, errege bezala bizi dela*. Horiek ere han bilduak ditut: “hoberen klasean” eta “errege bezala”,

“errege” hitza mugagabeen doala. Hoberen klasean bizi ez direnak, baina hala ere ongi bizi direnak, “hanbatian daudela” esaten dugu, franko ongi daudela adierazi nahian.

- Hiri handietan eguneroko kontua dugu eraikuntza ederrak eta plazak etxe berriez inguraturik gelditzea. Han ere ari zen baztandar bat kontatzen zer gertatuko zen Elizondon berriki konpondua zen asiloarekin eta honela zioen: “Asiloa ere berriz bilduko da etxez”. Asiloa etxez bildu, horra hor esaera ederra, egungo euskara estandarrean gehienek “asiloa etxez (nahiz etxeek) inguratuko” esango genukeenaren tokian.

- Lurreko sua pizten denean egurra erabiltzen da, jakina. Baina han botatzen den egurren artean ere bada desberdintasuna. Normalean bada enbor bat han egoten dena orduak eta orduak, eta enbor honen inguruan botatzen dira egur txikiagoak. Enbor horren izena “sukilekoa” da (M. Ize-tak “sukil-onborra” ematen du, neretzat arrotza dena).

- Batek diru anitz duenean oso aberatsa dela esaten dugu normalean. Baztanen bada, ordea, beste modu bat ere: *Horrek badu osaba bat Ameriketari aberats ukitue dena*. Eta aberatsak direnak honetara edo hartara “jarraziak” direla esaten da, “jarrazi” eta ez “jarrerazi”. “Sarrazi” esaten dugun modu berean. Jakina, “sarrazi” aditza “sarrarazi” aditzaren laburdura fonetikoa izan daiteke, aski erraz esplika genezakeena.

- Norbaiti zerbait gertatu ote zaion jakin nahi dugunean oso arrunta da honako hau galdetzea: *Baduzue diferentzie zerbait?* Edo beste hau ere, sintaktikoki aldrebestuagoa, itxuraz bederen: “Zerbait baduzue diferentzie?”.

- Bada aipagarria den sozietiboaren erabilera bat. Aditz izena sozietiboan jartzen delarik, denboraren kutsua hartzen du: “hau idaztekin joanen naiz; ikastolara joatekin ikasiko duzu hor”. Esaldi horiek hauxe esan nahi dute: “Hau idazten dudalarik joanen naiz” eta “ikastolara joaten zarelarik ikasiko duzu hori?”. Betiere geroari begira, ezin baitugu atzera begiratu. Horrela, ez litzateke zuzena izango esaldi horren parekoa den beste hau: “\*hau idaztekin etorri zen (hau idatzi zuelarik etorri zen)”. Esan dezadan, bide batez, ez nekikeela nola idatzi “ikustekin, joatekin” eta halakoak, ditugun aukerak “ikustearekin” eta “ikusterekin” baitira, eta horien artean ez da “ikustekin” sartzen. Agian mugatua aukeratu beharko litzateke.

- Teilatuak etxea estaltzen du. Bada, hala ere, etxearen paretatik kanpora ateratzen den teilatu zati bat, halako gorape bat egiten duena, hegal baten itxura hartuz. Bati baino gehiagori entzuna diot hori “kuarrazpia” dela.

- Legeak agintzen duenetik gora ibiltzen baldin bazara autobidean, ez da batere harritzekoa ertzainak zigorra jartzea. Zigor hori multa izan daiteke edo gidatzeko baimen agiria kentzea. Bada, han polizia ez du

karneta kentzen: “Bai, atzo Angel Mariri karneta goratu omen zioten”. Karneta goratu, horixe da egiten dena. Mahaia goratu esaten den moduan, bazkal ondoan mahai gainean geratzen diren plater zikinak eta ogi papurak biltzen edo jasotzen direla adierazteko.

- Orain gero eta maizago ikusten dira landareak erosteko tokiak. Landareak leku berezietan hazi behar dira eta egun gehien entzuten duguna da landareak “biberotetan” erosten direla. Baztanen, ordea, gauza jakina da lehenago ia etxe bakoitzen aurkitzen ahal zirela landareak hazteko toki bereziak. Nere etxean beti “minditze” deitu izan zaie horiei. M. Izetak ere badakar hitz hau, pixka bat aldatua, berak “mindeitze” jartzen baitu.

Eta besterik gabe hemen bukatuko dut hitzaldiño hau, pixka bat nahasian eman dudana. Aztergai gehiago ere badut, baina orain esaten baditut denak, zertaz ariko naiz orduan berriz ere txanda “etortzekin?”. Honenbestez, esker mila denei entzuten egoteagatik.





## FR. JUAN AJURIAREN IDAZLANAK (1800-1825)

Donostia, 1991-IX-27

Patxi Ondarra

### I. Bizitza eta lanak

1. Berri gutxi dakigu euskal idazle honetaz. Gainera, dakigun edo jakin behar genukeen gutxi hori ahazturik daukagu. Alfonso Irigoyen eta Justo Maria Mokoroak argitaratu zituzten zenbait testu *Euskera* agerkerian (“Sermones manuscritos antiguos”, *Euskera*, V (1960), 341-376), horietako bi Fr. Juan de Ajuria-renak<sup>1</sup> direla: bat 1800. eta beste 1806. urtekoa. Egia da A. Villasantek aipatzen dituela Juan Antonio Mogelen “Cristaubaren Icasbidea” liburuan (Ik. 26. or., (31). oharra). Esaten digu baita ere, Mogelen lan horren Arantzazuko kodizean, beraren pergaminozko azalaren bizkarrean, hau irakurtzen dela: *Catec Bascong Ajuria*<sup>2</sup>. Eta uste du, ziur ez dagoela aitortu ondoren, sermoi horien egilea eta kodizearen jabea pertsona bat bera direla.

2. Ez dakigu non eta noiz jaioa den, baina uste dugu Bizkaian jaioa dela, bere deitura hangoa bait da. Arrasaten bizi da 1807. urtean, prantziskotarrek bertan zuten komentuan. Arantzazun gordetzen den platika batean dioenez, Elorriren predikatu behar zuen urte horretan, baina “precisado por los Negros”<sup>3</sup> Arrasatera bihurtu behar izan zuen, eta 1825.

---

1. Izenari dagokionez, Mokoroaren transkriptzioan “Fray Juan de Ajuria” dago 1800. urteko platikaren ondotik (Ik. 365. or.), eta “Fr. Juan de Aj-uria” 1806. urtekoaren ondotik (Ik. 376). Arantzazuko platican eta Mogelen *Cristaubaren Icasbidea* liburuan Ajuria ezarri du. A. Juan de Larrinagak prestatu zuen eta argitara gabe dagoen Kantabriako prantziskotarren “Necrologio”an Juan Ajuria dago, eta hori bera A. Kandidoren gutunean.

2. Kodize hau Elgoibarko prantziskotarren komentukoa zela esaten omen du A. Ozerin Jauregik, hola dio Villasantek. Gero esaten dugunez, Elgoibarren hil omen zen Ajuria.

3. José María Iribarrenek dioenez, *negros* da “Nombre con que en la primera mitad del siglo último eran conocidos los liberales o constitucionales, por contraposición a los *blancos* que así llamaban a los realistas o absolutistas”. J.M. Iribarren. *Vocabulario Navarro*, 1984, 371.or. Ricardo Ollaquindiaren argitaraldia erabili dugu.

urtean eman zuen platika Elorrión. Bitarte horretan Arrasatetik kanpo egon zen, bai Napoleonen gudua zela, bai gero Bizkaira bidali zutelako: “ya posteriormente por mi agregación a la Nación de Bizcaya”. Horregatik, zenbait aldaketa sartu zituen, lehenbizi idatzi zuena sutara bota gabe, “como otras mías centenares”, berak dirauskunez.

3. Arrasaten dago berriz ere 1824.ean (?)<sup>4</sup> eta hor jarraitzen du 1832.a arte, Irugarren Ordenako zuzendari eta moral gaietan “Lector de Casos” izan zelarik. Sasiolan ageri da 1833.ean eta Elgoibarren hiltzen da, 1840. urtean bere fraidekideekin komentutik jaurtikia izan ondoren. “Lector de Casos” izan zela esan dugu, beraz moraleko gaietan asko zekiena zen eta bere nagusien konfidantza osoa zuen. Horrek esan nahi bait du fraide gazte, oraindik ordenatu gabeen irakasle zela, eta egiteko hori ez zitzaion normahiri ematen. Paratu ditugun bere plaketatik ere ikusten da oso jantzia zela buruz, erabiltzen bait ditu ez bakarrik Eskritura Sagraduak eta Elizako Guraso ta Irakasleak, baita ere autore profanoak, hala nola Plutarko, Plato, Zizero eta Horazio. Ezagutzen du *Sistema de la Naturaleza* liburua, Holbach Frantziako entziklopedista famatuak idatzia, eta Fr. Juanek gogorki salatzen duena. Liburu “ziquiñ” horretatik, “ceñ munduco Naciño guciguciac daucaten iracurtea (sic *-te-*) eragoztiric”, ikasi eta ateratzen dituzte framasonek beren argumentuak “arimea betico izatearen gañean, ala nola Jaungoicoa izatearen gañean, ta J[esu Chris]toren erreligio eguiazcoaren gañean” (3, 8, 1). Eta jarraitzen du aurrerago liburu onetaz: “esandaco liburua, ceñ Española tar batec etzuan iduqui lotzaric ecarteco (sic *-te-*) amazapi milla errealen costura beste erreñu batetic” (3, 8, 3).

4. Hamar bat platika edo sermoi ezagutzen ditugu berak idatziak. *Denak gipuzkeraz daude, Bizkaia eta ekialdeko zerik badagoela*. Lehenbizi, goian aipatu ditugunak: 1800. eta 1806. urtetakoak eta Irigoyen-Mokoroak argitara emanak. Hurrengo, Elorrión 1825. urtean eman zuena, baina 1807. urtean predikatze ko paraturik zeukana eta orain Arantzazun gor-

---

4. A. Kandido Zubizarretak gutun baten bidez esaten digunez, izan zuten prantziskotarrek fraide bat Juan Ajuria izenekoa, “gutxienez” 1824. urtetik 1832.era ino Arrasaten bizi izan zena. Bestalde, Ajuria 1826.ean esaten digu: “La Platica de la buelta, dispúse en Mondragon, para predicarla en Elorrio, año 1807; y precisado por los Negros a bolberme a este de Mondragon, tuve q[ue] predicarla en Elorrio, año 1825; pues q[ue] todo este [tiem]po estuve ausente de este de Mondragon, ya por las advenencias de la guerra de Napoleon, ya posteriormente por mi agregacion a la Nacion de Bizcaya”. Estu-estu hartuta hori, esan behar genuke 1825.ena arte Arrasatetik kanpo egon zela, baina baliteke, funtsean, kontraesaterik ez izatea bi datu horien artean.

José María Iribarrenek dioenez, negros da “Nombre con que en la primera mitad del siglo último eran conocidos los liberales o constitucionales, por contraposición a los *blancos* que así llamaban a los realistas o absolutistas”. J.M. Iribarren. *Vocabulario Navarro*, 1984, 371. or. Ricardo Ollaquindiaren argitaraldia erabili dugu.

detzen dena. Horregatik, beraren bi aldaera daude. Azkenik, guk aztertu eta paratu ditugun sei-zazpiak, Juan Mari Lekuonaren bitartez guregana etorriak. Manuel Lekuonak bere eskuetan zituen 1927. urtean, eta Igorretan izan bide ziren aurkituak, bertan izenpetzen den gutun batetik ateratzen dugunez. Bestalde, izkribuak gutun azal baten barruan gorderik daude, eta azal horren gainean esaten zaigunez, gutuna Zeanurira igorria izan zen bertako “Cura y Beneficiado” zen “D. Francisco Antonio de Sagarminaga”<sup>5</sup> jaunarendako. Azkeneko testuok ez diote nor izan zen egilea, bai ordea noiz izan ziren idatziak. Horietako lehenengoan (Ik. 1, 2, 9) ikusten dugunez, 1824.ean izan zen idatzia, eta besteak ere data horretakoak direla pentsa daiteke. Jakinerazten zaigu ere beroietan egilea prantziskotarra dela, leitzen bait dugu (Ik. 4, 2, 1) Nicolao Lyra erakusle famatua bere habitukoa dela, eta Sorbonako irakasle eta izen handiko exegeta izan zen XIV.mendeko Nicolas de Lyre (1270-1349) prantziskotarra zen.

- IKASBIDE (i.) 'doctrina, enseñanza'. onen contra zabaldu dirala *icasbide* galgariac, 3, 1, 2.
- IKUSGARRI (adj.) 'uisibilis'. sú *icusgarric* bere ondoren dator..., 2, 3, 6.
- IKUSI-EZIN (adj.) 'inuisibilis'. beguiz *icusi-ecinac*, 3, 4, 2.
- IKUSKETA (i.) 'uisio'. ibilli bague turbatzen gendea... *icusqueta* despreciagarriaquin, 2, 1, 4.
- ILLEZIN (adj.) 'immortalis'. *illeciña* dala gure arimea, 3, 7, 1.
- ILLEZIN̄TAZUN (i.) 'immortalitas'. animaren *illeciñtazuna*, 3, 1, 2.
- ILLEZKOR (adj.) 'immortalis'. Gure arimea da ezilgarria, *illezcorrá* edo, iñoiz ere illeciña, 3, 1, 5.
- ILLGARRI (adj.) 'mortalis'. Baldin arimea bada *illgarria*, 3, 6, 1.
- ILLKOR (adj.) 'mortalis'. erriligioco locarria, *illcorrentzat* ain salbagarria, 5, 5, 2.
- INDAREGIN (a.) 'ahalegindu'. *indareguin* arren ere, ayec itó edo osatutzeco; ta indareguite oiec..., 3, 7, 1.
- IRAKASDE (i.) 'doctrina, enseñanza'. apostoluai bere elyzaren governu oneraco bear ziran *iracasdeac* ematen zebillela, 4, 3, 6.
- IRAUNERAZI (a.) 'mantener, conservar'. *irauneracitzen* gaituan jaincozco zuzentazun ta providenciac, 2, 2, 3.
- IRAUPEN (i.) 'duración, conservación'. Eguilleac autortu, edo ematen badie... *iraupen* naturala, 3, 3, 1.
- IRINTZI (a.) 'irentsi'. *irin̄zi* dezagun justoa, bada Jaunac eztaqui, ta eztu icusten ecer, 1, 5, 1.
- IRITU (adj.) 'ostatu hartu'. izpia, *iritua* (azpimarratua), edo gure gorputzeco iri-urí-echean bicilecutua, 3, 2, 1. *Oharra: Espiritua* hitzaren etimologia egiten ari da.
- IRITZI (i.) 'dictamen' (Larram.). concienciaco *iritzia* deitz[e]n diogun-á, 3, 4, 1.
- IRUDIGARRI (adj.) 'imaginario'. su au ezatala *irudigarria*, baicic[a]n eguiazcoa ta izatezcoa, 2, 2, 5.
- IRUDIPENKO (adj.) 'aparente, imaginario'. aditu ditugu zuen argüimendu *irudipeneco*, edo diruditenac, 3, 8, 1.
- ITSATSITAZUN (i.) 'enlace, conexión' (?). penitenciaren ta barcacioaren artean dagoala alaco adisquidetazun edo *itsatsitazuna*, non da..., 7, 5, 4.

- ITXODOMEN (i.) 'itxaropen'. *¿Cer ichodomen, edo esperanza da au...?*, 3, 4, 3.
- ITZERA (i.) 'dialecto'. Euscaldun labort-arrac bere *itz-eran*, 2, 2, 1.
- ITZILLIKO (adj.) 'secreto, oculto'. *¿ceimbat modutaco becatu itzillicoen ugoideac ez luque ondatuco mundua?*, 4, 7, 2.
- ITZKETA (i.) 'lenguaje, expresión'. Hau bera esaten dute... *itzqueta* berdiñ berdiñacquin, 4, 4, 2.
- IZATEGALDU (a.) 'birrindu, suntsitu'. Izate gorputzduna *izategaltzen* da, ascatu-tzen dalaco zati-tan, 3, 2, 5; au (arimea) iñolaco ere moduz ezta *izategaltzen*, 3, 2, 5.
- IZATEZKO (adj.) 'egiazko'. (su au) eguiazcoa ta *izatezcoa*, 2, 2, 5.

## J

- JABETAZUN (i.) 'dominio'. aitortu ta ezagutu bear da aren guganaco ta criatura guciacganaco *jabetazun* au, 5, 1, 6.
- JAIKERA (i.) 'pasión, inclinación'. biotzeco *jaiquera* ta griña lotzagarrienac, 3, 7, 1; griña-*jayquera*-pasioen furia, 1, 3, 1.
- JAINKOZKO (adj.) 'diuinus'. escubide *jaincozco* bat, 4, 3, 4.
- JAIOTERRI (i.) 'patria'. et̄say-saltzalle-ta traidore dira bada *jayoterrico*, erriligioco cchea lurrerabotatzeco lanean dabiltzanac, 5, 4, 8.
- JATORRIZKO (adj.) 'originalis'. pecatu jatorrizcoac, 7, 2, 3.
- JAUSKERABERRI (i.) 'recaída'. nola gorde buruac *jausqueraberi-tatic*, 4, 7, 1.

## K

- KALTEGARRI (adj.) 'galgarri'. Ik. BIOTZGOGOR.
- KALTEKO (adj.) 'damni'. pena *caltecoa* ta pena sentiducoa, 2, 2, 4.
- KALTETU (a.) 'dañar, descalabrar'. Ik. BURUAUSI.
- KANPOKO (adj.) 'externo, visible'. *campoco* señaleren batequin, 4, 1, 2.
- KANPOTIKO (adj.) 'externo, visible'. agureguita *campoticoaren* premia, 6, 1, 2.
- KATIBUERA (i.) 'eragozpen, atzerabide'. arazo-eragozqueta-*catibuera* ta traburic ipiñtzen ezpadegu, 4, 2, 2. Ik. ERAGOZKETA.
- KIDARI (i.) 'guía, conductor'. Adan eta Cain ere legue naturalean ziran,... itzquiribituzco quin, edo, *quidarie*-guiaric-lagunic, eta eracusleric ere bague, 4, 1, 3.
- KIN (i.) 'guía, conductor'. Ik. KIDARI.

- KONPONDU (i.) 'unión, composición'. Ik. BATU.
- KONSEJARI (i.) 'consiliarius'. billatu bear luquete *consejari* jaquitun ta leyal bat, 4, 7, 1.
- KONTAEZIÑGARRI (adj.) 'innumerabilis'. *contaeciñgarriac* izan arren condena-tuen penac, 2, 2, 4.
- KONTRAESAN (a.) 'contradico'. batzuc ari *contraesan* bague, 4, 5, 1; jaunagaco agurtazun arec *contra-esan* ta eguiten die, 5, 3, 6. Ik. BERRITAZUN.
- KONTRAESATE (i.) 'contradicción'. Adi dezagun... eztagoala philosophoen opi-nioric, *contraesate* baguecoric, 7, 1, 9; ezjaquintazun-useguite-ta *contraesate-tan*, 7, 1, 8.
- KORDEBAGE/-KO (adj.) 'insensible' (?). sorra-gorra-ta *cordebaguea*, 3, 5, 4; adimentu-centzun-*cordebagueoac*, 5, 3, 8.
- KREITU BAGETU (a.) 'afrentar, infamar'. *creitu baguetua*-perseguitua-ta deserritua, 3, 4, 3.
- KULPAGARRIZKO (adj.) 'culpabilis'. *culpagarrizco* ezjaquiñez, 7, 4, 13.

## L

- LAGUNEGITE (i.) 'compañía, asistencia'. Espiritu santuac aguindu diola bere *laguneguitea* Elizari, 4, 5, 2.
- LAGUNKIDA (i.) 'compañía'. demonioen *lagunquidac*, 2, 1, 2.
- LAPA (i.) 'bardana, lampazo'. errico izainac-lapac-ondaquinac becela, 3, 1, 2.
- LAUOÑEKO (i.) 'quadrupes'. guizon, egazti, *lauoñeco*, ta sierpeen irudia, 7, 2, 7.
- LEGEAUSLE (i.) 'infractor, delincuente'. icustean, legue guizonezcoac castiga-tzen dituztela beti *legueausleac* urcá edo beste eriotza modu batequin, 7, 5, 4.
- LEGEAUSTE (i.) 'infracción, delito'. Jaungoicoa izango dala *legueauste* onen vengatzalle, 7, 4, 13.
- LEGEAUTSI (i.) 'infracción, delito'. castigua etorrico zala obenáren ta *legueau-tsiaren* ondoren, 1, 2, 9.
- LEGEGILLE (i.) 'legislator'. *legueguillea* ta jueza, 1, 2, 3.
- LEKUKOTAZUN (i.) 'testimonium'. Eztala iracurtzen iracazderic ta *lecucotazu-nic*, 5, 3, 5.
- LIJITO (adj.) 'legalis' (?). Erriligioa, eusqueraz deitzen da ala, ceren dan erri *ligitua*-leguecoa, edo naturalezaco leguearen eracoa, 5, 1, 1. *Oharra*: Etimolo-gia egiten?
- LOTSA EKARRI (a.) 'lotsa erakutsi'. ari (gurasoari) bear dan *lotsa ecarri*, 7, 4, 1.
- LURIKARA (i.) 'terrae motus'. nondic datocen *luricarac*, 2, 2, 1.



LURJO (a.) 'suntsitu, hondatu'. hurá (erriligioa) *lurjotzeco*, 5, 3, 10; Erriligio bague... erreñuetaco seguridadeac *lur-jotzen* dú, 5, 4, 6.

LURRERABOTA (a.) 'derribar'. *lurrerabotatzeco* lanean dabilltzanac, 5, 4, 8.

## M

MATXINADA (i.) 'sedición, tumulto'. hurá (erriligioa) *lurjotzeco* aimbat engañozco ta deabruzco *machinada* asmatzen ta ateratzen dituztenean, 5, 3, 10.

METALLU (i.) 'metallum'. erretzen cituztela laba edo *metalluzco* cecen go[ri]gorietan, 7, 3, 7. *Oharra*: Etimologia egiten?

MIRARI (i.) 'miraculum'. aguerpenac-igarpenac-eta *mirariac*, 7, 1, 4.

MOLDAKAITZ (i.) 'rudeza, rusticidad' (?). ¿Ceimbat gende basotarren asarremoldacaitz-eta gogortazun, etzuen azpitu-moldatu-ta bigundu erri[li]gioac?, 5, 3, 11.

MOLDEZTU (a.) 'imprimir, grabar'. Jaunac *cilluz* moldeztua, 3, 4, 1.

## N

NAGUSI (adj.) 'supremus'. anditazun *nagusiac* 'suprema maiestas', 5, 1, 6. IK. ANDITAZUN.

NATURALEZAGAÑEKO (adj.) 'supernaturalis'. Erligio *naturalezagañecoa* da, 5, 1, 1.

NATURALEZAZ GOITIKO (adj.) 'supernaturalis'. erriligo *naturalezaz goiticoa*, 7, 1, 6.

NATURAZGOITIKO (adj.) 'supernaturalis'. *naturazgoitico* arguiaren[ui]n, 5, 1, 1.

NAUSITAZUN (i.) 'poder, prestancia' (?). ¿... ez ote zuten (legueguilleac) eguin erri[li]gioaren usadio, emateco beren legueai *nausitazuna*?, 5, 4, 1.

NEGARGARRI (adj.; i.) 'lamentable; calamidad' (?). esperiencia *negargarri* batec iracazten digu, 7, 4, 13; Guerta eztedin bada onelaco *negargarriric*, 3, 1, 4.

NEURRIKO (adj.) 'regular, normal' (?). erreguela *neurrico* bat ipiñtzeco, 4, 6, 1.

NOLAKOTAZUN (i.) 'calidad, índole'. ezagutu eritazunaren *nolacotazuna*, 4, 4, 2.

## O

OBEDILLE (adj.) 'obediens'. potencia *obedillea* (da sua), 2, 3, 4.

OLESI (i.) 'hesi'. esi-*olesi*-ta barruera, 1, 3, 1.

ONBIURTU (a.) 'conuerto'. *onbiurtuco* dira, ta egingo dute penitencia, 1, 3, 5.

- ONDABIDE (i.) ‘peligro, ruina’ (?). *íceimbat gaizqui-negargarri-ta ondabide, ez lieque ecarrico erriai...?*, 5, 5, 1.
- ONDAKIN (i.) ‘hondar, zabor’. *errico izainac-lapac-ondaquinac* becela, 3, 1, 2.
- ONEGIN (i.) ‘mesede, fabore’. *ceimbat cereguiñ ta onegin* despreciatuko lir[a]-*-quean...!*, 5, 4, 10.
- ONESDAMU (i.) ‘contritio’. *contritio-onesdamu-damu* gucien gañeco *damua*, 4, 2, 2.
- ONGILLE (i.) ‘benefactor’. *bearsu esquecoac-ganaco onguille* diranai, 5, 4, 10.
- ONOITAZUN (i.) ‘birtute’. *berequin dauzcagulaco onoitazun* ta perfeccio *guciac*, 5, 1, 7.
- ONTZIGALDU EGIN (a.) ‘naufragium pati’. *fedean ontzigaldu-eguiteco* tentatua, 3, 7, 1; *becatuan erori ta ontzigaldu eguin* duanarentzat, 4, 3, 3.
- OSAGARRI (i.) ‘osagai, erremedio’. *ipintzeá osagarri[tza]t* gucien aurrean fedeco eguia bat, 3, 1, 4.
- OSASUNGARRI (adj.) ‘saludable, provechoso’. *erligioa dala errientzat eta guizar-teraco osasungarria*, 5, 5, 3.
- 1 OSOBETE (a.) ‘cumplir; completar’. *gauza oiec gucioc osóbete* bear ditugu, 5, 1, 5; *Osobetetzeo puntu onen ontazuna*, 5, 3, 3.
- 2 OSOBETE (adj.) ‘perfectus’. *beren gorputzaldeac diralaco osobeteago*, 3, 6, 3.

## P

- PADEZIKOI (adj.) ‘passibilis’. (sua da) *padecicoyá*, *icututzen dion animaren aldetic*, 2, 3, 4.
- PENSATZALLE (adj.) ‘pensans’. *aditzallea-gogotzallea-pensatzallea*, 3, 2, 5. Ik. ADITZALLE.
- PIXUEZA (adj.) ‘pisu gutxiko’. *pīxueza* ta *ariña* eguingo *ezpalitza*, 4, 6, 4.
- PIXUTAZUN (i.) ‘peso, gravedad’. *becatuaren pīsutazuna*, 4, 4, 2.
- POZALDI (i.) ‘poz, atsegin’. *pozaldi* edo *penac*, 2, 3, 7.
- PREST (adj.) ‘ligero, veloz’ (?). (sua da) *bicia-lasterra-ta presta*, 2, 3, 4.
- PRESTAERA (i.) ‘preparación, disposición’. *gure devocio ta prestaerari* dagocan *garacia*, 4, 2, 2.

## S

- SALBAGARRI (adj.) ‘osasungarri’. *erriligioco locarria, illcorrentzat ain salbagarria*, 5, 5, 2.
- SALTZALLE (i.) ‘proditor’. *eṯṯay-saltzalle-ta traidore* dira, 5, 4, 8.

- SARTUALDE (i.) 'sartalde'. eguzquiaren sortualdetic *sartualderañoocoac*, 4, 5, 2.
- SENTIEZGARRI (adj.) 'insensibilis'. eguingo balú (Jaungoicoac)... naturaleza gucia, *sentiezegarria*, sorra-gorra-ta cordebaguea, 3, 5, 4.
- SENTIGARRI (adj.) 'sensibilis'. infernuco pena *sentigarri* gucietatia andiena, 2, 2, 5.
- SINISGOR (adj.) 'incredulus'. *sinisgor*, edo, sinisteric nai eztuana, 3, 2, 3.
- SINISGORTAZUN (i.) 'incredulitas'. Inorc eztu negareguingo ayen *sinisgortazuna...?*, 7, 1, 4.
- SINISKERA (i.) 'sineskai, fedegai'. animaren illeciñtazuna, *sinisquera* sagradutzat iduqui arren, 3, 1, 2; heregiaren *sinisquera* guezurrezcoa, 4, 5, 2.
- SINISKOR (adj.) 'sinestedun'. beti *siniscor* ta sendo confesioco puntuan, 4, 5, 4.
- SORTUALDE (i.) 'sortalde'. eguzquiaren *sortualdetic* sartualderañoocoac, 4, 5, 2.

## T

- TAJU (i.) 'forma, traza, talla'. echura-irudia-*tajua*, 3, 3, 1.
- TALLU (i.) 'forma, traza, talla'. gorputzeco *tallu* on batetic datocen perfeccioac dirala, 3, 6, 3; Animalia batzuc daodela, daquigu, ... guizon ta andre diruditen-ác, beren *tallu*-tajú, ta gorputz alde gucietan, 3, 6, 5. *Oharra*: Etimologia egiten?
- TOLESBAGE (adj.) 'sincerus, candidus'. damu benazco-cinezco-*tolesbaguea*, 4, 4, 2.

## U

- UGERMAR (i.) 'sirena'. Ik. IGARIMAR.
- UKAEZIN (adj.) 'innegable, incuestionable'. izan[i]c *ucaeciña*... castigatuco dituala, 5, 3, 9.
- UKAEZINGARRI (adj.) 'innegable, incuestionable'. Da bada eguia *ucaecingarri* bat, 3, 7, 1.
- UKATUEZIN (adj.) 'innegable, incuestionable'. *Ucatueciñac* izanic guizonezco gogo, edo, biotzicututze oiec, 3, 4, 3.
- URKA (i.) 'traba'. fregua-*Urquia*-ta brida ezarten die, 5, 3, 6; fregua ta *urca*, 5, 3, 6.
- USALDI (i.) 'falta, insuficiencia'. bitartean dan *usaldi*-falta-ta escastazuna, 4, 2, 2.
- USBETE (a.) 'completar, suplir'. cumplitzen ta *usbetejitzzen* du sacramentuac, 4, 2, 2.

- USEGIN (a.) ‘faltar, fallar’. Espiritu santuac agundu diola bere laguneguitea Elizari, igues, ta *useguin* ez dezan eguiac inoiz, 4, 5, 2.
- USEGITE (i.) ‘falta, fallo; yerro, error’. eguindaco useguitac, 4, 6, 6; ezjaquintazun-*usegite*-ta contraesatetan, 7, 1, 8.
- USTEKABE/-KO (i.; adj.) ‘casualidad, azar; inesperado, súbito’. *ustecabeac* batua, ta bere naira banatua, 3, 5, 1; biotzaren *ustecabeco* icarac, 3, 7, 1.
- USTELGARRIZKO (adj.) ‘corruptibilis’. sierpeen irudia galgor (sic -g-) *ustelgarrizco* semeantzera, 7, 2, 7.
- UTSUNE (i.) ‘uacuum’. arimean ichitzen duten *utsuné*, edo errayarte, 3, 3, 2.
- UTZIRUDI (i.) ‘jusión’. birtuteari equitea da choraqueria ta *utzirudi* bat, 3, 6, 2.  
*Oharra*: “*utzirudi*” izan behar luke.

## Z

- ZABALBIDE (i.) ‘bide zabal’ (?). pecaturaco *zabalbide* guciac zarratuzten diozcan-á, ez bideeguiteco, 1, 4, 4.
- ZABALPEN (i.) ‘abertura’. campora errebesatzeco *zabalpenic* eztaucaten-ác, 2, 2, 1. *Oharra*: *Sumendiez* ari da.
- ZATIEMAN (a.) ‘contribuir’ (?). sacramentuac eurac beragan dutenetic ere *zatiematen* dute, ta artzen degu guc ere zati ta parte hura, 4, 2, 2.
- ZATIKO (adj.) ‘partialis’. ¿barcacioa, ... izango ote dan osoa edo *zaticoa*...?, 7, 5, 7.
- ZILLUZ JO (a.) ‘signo, sigillo’. marcatu-*cilluz jo*-ta moldeztu zituan Jaungoicoac berac gure biotz-etan, 7, 1, 2.
- ZIMENDATU (a.) ‘oinarritu’. Emen *cimendat[suri]c* goacen aurr[er]a, 3, 2, 4; Testimonio onetan *cimendaturic*, 4, 4, 2.
- ZIMENDU/-ZKO (i.; adj.) ‘oinarri; oinarrizko’. legueai indarra ta balioa emateco *cimendu* sendoa, 5, 4, 2; Erreguela *cimenduzco*... oien ondoren, 4, 5, 1.
- ZUTI IPINI (a.) ‘implantar’. oien ordez Framasonen legue ziquiña *zuti ipintzeco*, 3, 1, 3.

## ADIZTEGIA

## A

ATOZTE 'zatozte'. *Atozte*, 1, 2, 9.

## B

BADEZAGU 'badezagu'. "considera *badezagu*", 4, 1, 1.  
 BALEGO 'balego'. *balego*, 1, 3, 2.  
 BALETOR 'baletor'. *baletor*, 1, 3, 4.  
 BALEUKA 'baleuka'. *baleuca*, 3, 3, 2.  
 BALEUKATE 'baleukate'. *ezpaleucate*, 3, 5, 4.  
 BALIE 'balie'. *balie*, 1, 2, 6.  
 BALIGUTE 'baligute'. *ezpaligute*, 4, 7, 1.  
 BALIRA 'balira'. *ezpalira*, 4, 6, 7.  
 BALITU 'balitu'. *balitu*, 1, 2, 5.  
 BALITZA 'balitz'. *balitza*, 3, 6, 4.  
 BALITZAIEZKETE 'balitzaizkie'. *balitzaiezquete*, 4, 4, 2.  
 BALITZAIIO 'balitzaio'. *balitzaio*, 4, 7, 1.  
 BALITZAIIOKE 'balitzaio'. *balitzaioque*, 4, 7, 2.  
 BALITZAKE 'balitz'. *balitzaque*, 1, 1, 8.  
 BALU 'balu'. *balú*, 3, 5, 4.  
 BALUTE 'balute'. *ezpalute*, 4, 6, 2.  
 BEDI 'bedi'. "Iracorri *bedi*", 3, 8, 3.  
 BEZAIOTE 'biezaiote'. "galde *bezaiote*", 2, 1, 5.  
 BITZATE 'bitzate'. "iracorri *bitzate*", 2, 1, 5.

## D

DA 'da'. *da*, 1, 1, 1; *dana* 1, 1, 3.  
 DABILLTZA 'dabiltza'. *dabilltzanac*, 5, 4, 8.  
 DAGIETEN 'diezaieten'. *daguietena*, 4, 7, 1.  
 DAGIKEGU 'diezaguke'. *daguiquegun*, 5, 1, 10.  
 DAGIOGUN 'diezaiogun'. *daguiogun*, 1, 4, 4.  
 DAGION 'diezaion'. *daguiion*, 3, 4, 3.  
 DAGO 'dago'. *dagó*, 2, 1, 6.  
 DAGOKA 'dagokio'. *dagocana*, 1, 3, 3.  
 DAGOKIGU 'dagokigu'. *dagouquiguná*, 3, 2, 16.  
 DAGOKIO 'dagokio'. *dagouquion*, 1, 2, 4.  
 DAGOZKIO 'dagozkio'. *dagozquionac*, 7, 4, 1.  
 DAKAR 'dakar'. *dacar*, 3, 6, 1.  
 DAKARTE 'dakarte'. *dacarten*, 3, 7, 1.  
 DAKAZKI 'dakartza'. *dacazqui*, 3, 8, 3.  
 DAKI 'daki'. *daqui*, 1, 3, 4.

- DAKIGU 'dakigu'. *daquigu*, 2, 2, 1.  
 DAKIT 'dakit'. "Nic *badaquit*", 3, 1, 2.  
 DAKITE 'dakite'. *daquite*, 4, 3, 6.  
 DAKUS 'dakus'. *dacus*, 1, 1, 4.  
 DAODE 'daude'. *daode*, 3, 1, 2.  
 DARAMA 'darama'. *daraman-ác*, 3, 7, 1.  
 DARIE 'darie'. *dariena*, 4, 3, 6.  
 DATOR 'dator'. *dator*, 1, 3, 4.  
 DATOZ 'datoz'. *datocen*, 2, 2, 1.  
 DATOZKIE 'datozkie'. *datozquie*, 2, 2, 4.  
 DATOZKITE 'datozkie'. *Datozquite*, 3, 7, 1.  
 DATXEKA 'datxekio'. "ari *dachecala*", 4, 3, 3.  
 DAUKA 'dauka'. *dauca*, 1, 1, 4.  
 DAUKAGU 'daukagu'. *daucagu*, 2, 1, 3.  
 DAUKATE 'daukate'. *daucate*, 3, 4, 3.  
 DAUTZA 'dautso'. "ari *dachecala*, *dautzala*", 4, 3, 3. Ik. DEUTZA.  
 DAUZKA 'dauzka'. *dauzca*, 3, 3, 2.  
 DAUZKAGU 'dauzkagu'. *dauzcagu*, 2, 1, 3.  
 DAUZKATE 'dauzkate'. *dauzcate*, 1, 3, 5.  
 DEDIN/DIDIN 'dadin'. "despreciatu ez *dedin*", 1, 2, 4; "tormenta *didin*", 2, 3, 6; "Guerta *eztedin*", 3, 1, 4; "artu *eztidin*", 4, 5, 2.  
 DEGU 'dugu'. *degu*, 1, 2, 8.  
 DEMAGUN 'demagun'. *demagun*, 3, 8, 2.  
 DERIZTE 'deritze'. "fracmas[o]n *deriztenac*", 3, 1, 2.  
 DET 'dut'. *det*, 1, 1, 6.  
 DEUTZA 'dautso'. "escutic *deutzan* edoceñequin", 7, 3, 1. Ik. DAUTZA.  
 1 DEZAGUN 'dezagun'. *Dezagun*, 5, 1, 5.  
 2 DEZAGUN 'ditzagun'. "icusi *dezagun...* beste 7-rac", 7, 4, 1.  
 DEZAKE 'dezake'. *dezaque*, 1, 2, 4.  
 DEZAKEGU 'dezakegu'. *dezaquegu*, 7, 4, 13.  
 DEZAKETE 'dezakete'. *dezaquete*, 5, 3, 4.  
 DEZAN 'dezan'. *dezan*, 3, 3, 1.  
 DEZATEN 'dezaten'. *dezaten*, 5, 2, 16.  
 DEZAZUTEN 'dezazuen'. *dezazuten*, 2, 3, 9.  
 DEZU 'duzu'. *dezu*, 1, 5, 1.  
 DEZUTE 'duzue'. *dezute*, 3, 7, 1.  
 1 DIE 'die'. *die*, 3, 3, 1.  
 2 DIE 'diete'. "Moyses ta Profetai sinisteric ematen *ezpadie*", 1, 3, 5.  
 DIET 'diet'. *diet*, 4, 4, 2.  
 DIETE 'diete'. *diete*, 2, 1, 5.  
 DIEZTE 'dizkiete'. *dieztela*, 3, 1, 2.  
 DIEZTEZUTE 'dizkiezue'. *dieztezuten*, 4, 3, 6.  
 DIGU 'digu'. *digu*, 2, 3, 4.  
 DIGUTE 'digute'. *digute*, 3, 4, 2.  
 1 DIO 'dio'. *dio*, 7, 1, 10.  
 2 DIO 'esaten du'. *dio*, 4, 1, 3.  
 DIOE 'diote'. "rguiten *dioe*", 4, 6, 7.  
 DIOGU 'diogu'. *diogu*, 3, 5, 1.  
 DIOT 'esaten dut'. *diot*, 3, 5, 4.

- 1 DIOTE 'diote'. *diote*, 1, 3, 5.  
 2 DIOTE 'esaten dute'. *diote*, 1, 2, 5.  
 DIOZAGUN 'diezaiogun'. *diozagula*, 3, 8, 3.  
 DIOZAKETE 'diezaiokete'. *diozaquetela*, 5, 2, 5.  
 DIOZKA 'dizkio'. *diozcana*, 1, 4, 4.  
 DIRA 'dira'. *dira*, 1, 1, 8.  
 DIRAU 'dirau'. *dirauen*, 1, 1, 8; *dirauben*, 1, 1, 8.  
 DIRUDI 'dirudi'. *dirudi*, 4, 5, 5.  
 DIRUDITE 'dirudite'. *diruditenac*, 3, 8, 1.  
 DITEKE 'daiteke'. *diteque*, 4, 2, 2.  
 DITEZEN 'daitezen'. *ditecela*, 7, 5, 4.  
 DITEZKE 'daitezke'. *ditezque*, 4, 2, 2.  
 DITU 'ditu'. *ditu*, 1, 1, 4.  
 DITUGU 'ditugu'. *ditugu*, 3, 8, 1.  
 DITUT 'ditut'. *ditudan*, 2, 3, 9.  
 DITUZTE 'dituzte'. *dituzte*, 2, 2, 1.  
 DITUZU 'dituzu'. *dituzun-á*, 3, 5, 3.  
 DITUZUTE 'dituzue'. *dituzute*, 3, 8, 1.  
 DITZAGUN 'ditzagun'. *ditzagun*, 3, 2, 3. Ik. 2 DEZAGUN.  
 DITZAKE 'ditzake'. *ditzaquean-ác*, 3, 2, 3.  
 DITZAKEKIGU 'diezazkiguke'. *ditzaquequigu*, 5, 2, 10.  
 DITZAKETE 'ditzakete'. *ditzaquete*, 5, 3, 7.  
 DIZKIGU 'dizkigu'. *dizquigun*, 5, 1, 9.  
 DIZUTE 'dizue'. *dizute*, 1, 1, 2.  
 DU 'du'. *du*, 1, 1, 2; *duben*, 1, 2, 8; *duan-a*, 1, 1, 8.  
 DUTE 'dute'. *dute*, 1, 1, 7.

## E

- EGIZUTE 'egizue'. *Eguizute*, 3, 8, 2.  
 EKITEN. Ik. ZEKITEN.  
 EZAZU 'ezazu'. *ezazu*, 1, 3, 5.  
 EZAZUTE 'ezazue'. *ezazute*, 4, 3, 6.

## G

- GAITEZEN 'gaitezen'. *gaitecen*, 3, 8, 3.  
 GAITU 'gaitu'. *gaitu*, 3, 5, 1.  
 GAITUZTE 'gaituzte'. *gaituzte*, 2, 1, 4.  
 GAITZAKE 'gaitzake'. *gaitzaqueanari*, 3, 8, 3.  
 GAITZAN 'gaitzan'. *gaitzan*, 4, 6, 6.  
 GENDUAN 'genuen'. *guendualaco*, 1, 4, 3.  
 GENEZAN 'genezan'. *guenezala*, 4, 5, 6.  
 GERA 'gara'. *guera*, 7, 3, 1.  
 GINDEZIN 'gintezzen'. *guindecin*, 4, 5, 5.  
 GINEN 'ginen'. *ezquinenean*, 4, 5, 5.

'GO 'dago'. *bagó*, 1, 2, 1.  
GOAZEN 'goazen'. *goacen*, 3, 2, 4.

## L

LEGIKION 'lekio'. "Jaincoari nai *leguquiola*", 2, 1, 2.  
LEZAKE 'lezake'. *lezaque*, 3, 7, 1.  
LIEKE 'liekete'. *lieque*, 5, 5, 1.  
LIEKETE 'liekete'. *liequetela*, 1, 3, 7.  
LIRAKE 'lirateke'. *liraque*, 1, 2, 6; etab.  
LITEKE 'liteke'. *liteque*, 3, 2, 5.  
LITEZKE 'litezke'. *litezquean*, 4, 7, 1.  
LITEZKETE 'litezke'. *litezquete*, 5, 4, 9.  
LITUZKE 'lituzke'. *lituzque*, 4, 7, 2.  
LITUZKETE 'lituzkete'. *lituzquetela*, 3, 6, 4.  
LITZAKE 'litzateke'. *litzaque*, 1, 1, 4.  
LUKE 'luke'. *luque*, 1, 2, 1.  
LUKETE 'lukete'. *luquete*, 1, 4, 1.

## N

NAIZ 'naiz'. *naiz*, 1, 5, 1.  
NINDUEN 'ninduen'. *ninduen*, 4, 3, 6.  
NINTZAKE 'nintzateke'. *nintzaque*, 7, 3, 6.

## Z

ZAIE 'zaie'. *zaie*, 3, 5, 3.  
1 ZAIETE 'zaie'. *bazaiete*, 1, 3, 5.  
2 ZAIETE 'zaizkie'. *zaietela*, 2, 1, 2. Ik. ZAIEZTE.  
ZAIEZTE 'zaizkie'. *zaietzte*, 4, 3, 6.  
ZAIIO 'zaio'. *zaio*, 1, 4, 4.  
ZAITEZTE 'zaitetzte'. *zaitetzte*, 3, 8, 3.  
ZAITUET 'zaituztet'. *zaituet*, 4, 3, 6.  
ZAITZUTE 'zaitzue'. *bazaitzute*, 1, 3, 1.  
ZAIZKA 'zaizkio'. *zaizca*, 5, 1, 8.  
ZAIZKO 'zaizkio'. *zaizco*, 1, 4, 4.  
ZAN 'zen'. *zan*, 4, 1, 2.  
ZAODE 'zaude'. *bazaode*, 1, 5, 1.  
ZEBILLEN 'zebilen'. *zebillela*, 4, 3, 6.  
ZEDUKAN 'zeukan'. *zeducan*, 7, 2, 3.  
ZEGOAN 'zegoen'. *Zegoan*, 5, 4, 1.  
ZEKARKIETEN 'zekarkien'. *zeczarkietela*, 5, 4, 1.  
ZEKIAN 'zekien'. *bazequian*, 5, 4, 1.



- ZEKIDION 'zitzaion'. "Profeta... etorri zekuidion arteraño, 4, 2, 1.  
 ZEKITEN 'zekiten'. "esperenciaz ekuiten", 5, 4, 2. Ik. ZEZATEN. Ik. ere 5. testuko 22. oharra.  
 ZEODETEN 'zeuden'. *zeodeten*, 4, 5, 4. Ik. ZEODEZEN.  
 ZEODEZEN 'zeuden'. *zeodecenaz*, 4, 1, 4.  
 ZERA 'zara'. *zera*, 1, 5, 1.  
 ZERATE 'zarete'. *zerate*, 1, 3, 1.  
 ZEUDEN 'zeuden'. *zeuden*, 4, 2, 1. Ik. ZEODETEN eta ZEODEZEN.  
 ZEUKAN 'zeukan'. *zeucan*, 3, 3, 1.  
 ZEKAKETEN 'zekaketen'. *zekaqueten*, 4, 5, 4.  
 ZEZAN 'zezan'. "ezagutu zezan", 4, 1, 2; "confesa zezan amorea-gatic", 4, 1, 2; "confesa zezan-gatic", 4, 1, 3.  
 ZEZATEN 'zezaten'. "desonrratu ez ezaten" (sic e-), 3, 2, 2; "nahastu ez zezaten", 3, 2, 2.  
 ZIEN 'zien'. *zien*, 4, 3, 6.  
 ZIETEN 'zien'. *zietela*, 4, 3, 4.  
 ZIÑEKITEN 'zenekiten'. *baciñequiten*, 1, 2, 9.  
 ZIÑIZKIDATEN 'zenizkidaten'. *ziñizquidatenac*, 1, 4, 3.  
 ZIOETEN 'zieten'. *etzioeten*, 7, 3, 7.  
 ZION 'zion'. *zion*, 1, 3, 5.  
 ZIOTEN 'zioten'. *zioten*, 3, 2, 1.  
 ZIOZKAN 'zizkion'. *ziozcala*, 4, 1, 2.  
 ZIRAN 'ziren'. *ziran*, 2, 3, 4.  
 ZITEKEAN 'zitekeen'. "guerta zitequeala", 4, 3, 5.  
 ZITEZEN 'zitezen'. *zitecen*, 1, 1, 7.  
 ZITEZKEAN 'zitezkeen'. "ezagutu zitezquean", 7, 5, 3.  
 ZITUAN 'zituen'. *zituan*, 4, 2, 1.  
 ZITUZTEN 'zituzten'. *zituzten*, 1, 2, 6.  
 ZITZAITEN 'zitzaien'. *zitzaiten*, 5, 2, 16. Ik. ZITZATEN.  
 ZITZAKAN 'zitzaion'. *zitzacan*, 4, 1, 3.  
 ZITZATEN 'zitzaien'. *zitzatela*, 5, 2, 12.  
 ZIZKOEN 'zizkioten'. *zizcoen*, 7, 1, 4.  
 ZOAZTE 'zoazte'. *zoazte*, 2, 1, 3.  
 ZUAN 'zuen'. *zuan*, 4, 1, 2.  
 ZUTEN 'zuten'. *zuten*, 3, 2, 2.

## 1. TESTUA

1.º Esaten dute: “Andieguia da Jaungoicoa, guc emen lurrean yeguiten ditugun-az, arduratzeco”.

¡Oh, erri gaiztoac, eranzuten du emen Espiritu santuac Igarla baten aoz<sup>2</sup>, ¿nola ausartzen zeráte pensatzera ta esatera: Jaunac eztaquila<sup>3</sup> gure bicitzaren berri, eztaucala lurreco gauza chiquien<sup>4</sup> arduraric? Baña!, o lastima gogorra!, guraso christauen humé aci-eci-icasiac, des-paratu au esan bearra! gurasoac iracatziz dizute, Jaunac eguñ zituala cerua ta lurra, eguzqui, illargui, izar, ta beste edertaz[une]q[ui]n[.] arrazoe ta esperenciac iracatziz dizute, Jaunac gobernat[ze]n<sup>5</sup> dituala armonia ederrean, inorc turbatu ál bague: San Pauloc iracatziz ere dizute<sup>6</sup>, Jaunagandic artu dezutela izatea, muguida-ibillia, ta bicitza:

¿nola da bada posilbe, Jaun arguizco au munduaren aurrean egotea, emen igarotz[e]n dana jaquin bague? ¿nola da posilbe, zuen erdian egotea, eguiten ta pensatzen dezuten gauzaric chiquiena, jaquin bague? ¿nola bada, pensamentua guizonari eman dion-ac, ezjaquingo du guizonaren pensamentua?

ez, ez: Jaunac gaubelatzen du, [Vigilia, o beguiaguiria]<sup>7</sup>, gaiztaqueriaren gañean<sup>8</sup>; gucia dauca aurrean, gucia dacus; bestela, ez litzaque izango Jaungoico osó osó: contrara bai; berac asmatu, iguerri, ta gogoan ditu gauza guciac; berac ezagutzen du Profeta, sortua izan baño len, ta icentatzen du bere serbitzari Ciro, berreun urtez jayo baño len; berac azquenic, asco da<sup>9</sup> ezagutzea berberá, ezagutzeco gauza guciac.

2. Esaten dute: “Eztá arrazoe baicic[a]n injusticia, castigatzea betico pena-q[ui]n instante bateco pecatubat”.

Aittortzen det, eciñ aditu dedala, cergatic deadareguiten dan aimbeste, penaen beti irauntearen contra, ta cergatic deadareguiten eztan berdiñ berdiñ sari ta paguen betirauntearen contra.

Jaungoicoa da, esaten dute, da chit oná-erruquiorra-misericordiosoa, galtzeco betico criatura batzuc, ceññ eztituan eguin, izan zitecen zorigaiztocoac; ta ala, beretzat gloria gueyago izango litzaque, saristatzea birtutea gueyeguiarequin, instante bateco argaltazunezco pecatua betico castigatzea baño.

¡Cer itzaldi ederra, edo obeto esateco, cer ichutazuna au, N<sup>10</sup>, jaincotazuna arrasatzen ta ucatzen duan-a! cer[e]n ¿nola Jaungoicoa, izan arren ere ona, izango litzaque Jaungoico, ezpaldin balitzaque azquenbague santua? ¿ta nola izango litzaque azquenbague<sup>11</sup> santua, baldin balitzaque guchiago justoa misericordiosoa baño?: baña, ¿ta nola ez litzaque izango guchiago justoa misericordiosoa baño, baldin castigatuco ezpalu pecataria, bere pecatuac dirauen dembora gucian, ala nola saristatzen duan justoa, bere birtuteac dirauben artean? bataren pecatua ta bestearen birtutea badá, demborari beguiraturic, iraupen guchicoac izan arren, baña beguiaurrecoari ta gueroacoari<sup>12</sup> beguiraturic dira betibeticoac; ta ala, batac bear du izan castigatua, ta besteac ordaiñdua-saristatua eternidade guciango-an:

[2] Ona bada emen, nola, arrasatzen duanac justicia azquenbagueco bat aitzauia ederrarequin althatzeco misericordia azquenbague bat bere begui-

-aurrecoan; beraz, baldin bere esquerguetazuna bada azquenbaguea, mereci du pena azquenbague bat: ¿baña, nola izango litzaque azquenbaguea berez, ta nola eraman ahalco luque criatura batec? Emendic ondorea atera bear da Theologoen escola guciarequin, pena au bacarric dala azquenbaguea bere eternidadean.

Aitzaquia<sup>13</sup>-escapada-iguesinguru au indartu nai dute beren pensatzeco-modu galgarrira, esanaz:

Jauná, Ayta on batec, ondutzeco bai, baña ez betico, castigatzen ditu semeac: Au bera eguiten du Jaungoico Ayta onac ére.

Eranzun bear da, ori ala dala, baldin Ayta ori bacarric bada Ayta; baña eztala ala, baldin dembora berean ere bada legueguillea ta jueza. Jaungoicoa bada, ez bacarric da Aytaric onena, baita ere legueguilleric jaquintsuena, ta juezic zuzenena, leguegordetzeari beguiratu bear diona; Ta orregatic castigatu dezaque pecatua, dagoquion neurrico pena beticoarequin: ala badá, zuzenqui portatzen da, bere persona ta nagusitazuna despreciatu ez dedin.

Jauná, diote, Jaungoicoac castigatuco balitu criaturac beste bicitzan, gozatuco litzaque onetan: Au ezta eder Ayta bategan.

Eranzun bearda, orretan eztala gozatzen, criaturaren pena dan aldetic, ezpada bere justiciaren leguea dan aldetic. Ceren, baldin barcatuco balie guizachar guciai beste bicitzan; nola beste aldetic gozatu zituzten onic asco lurtean, euren sortuna<sup>14</sup>, edo, sortu-ona izango litzaque ascozaz obeagoa, guiza onen fortuna baño; ta orduan caltetuco liraque bere santidadea<sup>15</sup>, justicia, ta beste perfeccioac; ta bere legueac ere ez liraque gordeco ez gorde bearco: beraz, cast[igat]u bear dira beticó.

Jauna, diote, pena edoceiñ izan bear da, pecatuaren neurricoa; ta betico penaren ta instante bateco peca[ua]re]n artean eztago berdiñtazunic, ez neurric.

Eranzun bear da, ori eztala neurritzen pecatuaren iraupenetic, ezpada justiciaren calte ta berdiñtazunetic. Ceren, justiciac berdiñdutzen du pecatuaren pena, ez iraun duben demborari beguiraturic, ezpada eguin duben injuriari; Ta orregatic icusten degu, eriotza bat, lapurreta bat, Erreguearen contraco obena, legueautsia<sup>16</sup> Erregueren magestadearen contraco altchatze bat, castigatzen dala urca-mendiarequin: ¿ta ezta au errudunarentzat pena betico bat, bada betibetico da aldendua bicien artetic?<sup>17</sup>.

Baña penaen beticotazuna injusticia dala esaten dezutenóc, queḡac beñ edo beñ itzilltzeco, atozte arrazoetara: baciñequiten, zuen pasioa gozatu baño len, castigua etorrico zala obenären ta legueautsiaren ondoren; baciñequiten eguia icaragarrri au, Jaunac guraso-maißu-predicarien aoz sarri ascotan, 1824 urteren buruan esanic; baciñequiten, eguitada bat, jaincozco magestad[eare]n contracoa, ta erredimitzeco, bere odola baño guchiago costa eztana, zala diña infern[ua]re]n<sup>18</sup>;

[3] ¿Cerezaz queḡatzen zerate, baldin Jaungoicoa iruditzen bazaitzute ain gogorra bere venganzatan? ¿eraso, edo jotzera eguiñ dizute berac lenengo? ¿ezta bada izango arrazoe chit bidezcoa, Jaungoicoac becela venganza artzea? ¡ah<sup>19</sup> icer icaragarrizco bide eztana,<sup>20</sup> injusticia, eguiten dezuten zubec, aren justiciaren contra deadar-eguiten dezutenóc! bada eguia esan, beticotazunaren gogortazunaz

quēx̄atzetic urruti, aitortu bear degu, castigu au dala chit suabea oraindic. Ceren, guerrac eta beste laceriac ascotan etorri izan arren, dira orregaitarren<sup>21</sup> garbiagoac gure oiturac?: ¿contrará eztegu icusten eriotza gueyago, desonestidade-lizunqueria gueyago, bidegabe-calteeguite-ta lapurqueria gueyago? beraz, penaen beticotazuna da oraindic, esi-olesi-ta barruera chit argala, guelditutzezo zuen griña-jayquera-pasioen furia.

Baldin da baldin peccataria sinisturic balego, penaen beticotazun ta eternidadeac iduquico duala, luqueala, azquen cabua; ¿ceimbat gaiztaqueri, nazcagarri, ta negargarriren ugoldeac etzuan ondatuco oraingoraco christau mundua? ¿ceimbat conversio icusten dira, ta cer mella eguiten dute gugan, guerra, gose, egarri, izurri, ceruac biralduco azoteac? ¿ceimbat urca, icusten dira goratuac, castigatzezo errudunac; ta orrez guciac ere, eriotzac &.ª oiñean lenac?

Castigu oiec bada igarotzen dira, ta ez dute iñor bildurtzen; beraz, Jaunaren justiciari dagocana da, dio S[an] Gregorioc<sup>22</sup>, gure gaiztaquerien ugoldeari, penazco beticotazun bat aurpeguiz aurpegui ipintzea. Esan dezagun bada, cen, beticotazun au, ceñaren gañean deadareguiten dezuten aimbeste, dala, Jaunaren justicia-ren neurri berecoa.

3.º Esaten dute azquenic: “Norc daqui, beste bicitzan igarotzen dan-á?: infernutic, eta<sup>23</sup>, beste mundutic ez dator ona berriric ez cartaric: iñor eztegu icusi biurtzen andic, oiala, ai bada, baletor, sinistuco<sup>24</sup> guñioque”.

Eranzun bear da, J[esu] Christo berac eman zuan eranzueraquin<sup>25</sup>, icusten degun becela, Evangelioac dion aberatz zequen condenatuaren gañean, ceñec erregutzen zion Abrahameri, esanaz: Ayta Abraham, biraldu ezazu Lazaro mundura, aurkitzen naizan zorigaiztoaren berri neri anayai ematera, bada ill-en arteco bat<sup>26</sup> juater; bazaiete esaterá, emen igarotzen dan-á, onbiurtuco dira, ta eguingo dute penitencia; Ta Abrahamec eranzun zion: Moyses ta Profetac an dauzcate, baldin Moyses ta Profetai sinisteric ematen ezpadie, ez diote sinistuco ill biztu bati ere<sup>27</sup>.

¡O ceñ jaquintsua dan eranzuera au, ill biztu baten presencia escatzen, ta Jaungoico baten esana despreciatz[e]n duten sinisgorrentzat!

Aitortzen det ala ere, ill biztu baten aguertutzeac sugarrez inguraturic sartuco liequetela ezurretaraño bildurric icaragarri-ena: ¿baña orregatic onbiurtuco liraque? Ez, ez liraque onduco, ala nola Saul, Samuelen aguertuteac<sup>28</sup> zaiñezurre-tarañoco ta desmayatzerañoco birdurra sartu bazion ere, etzan orregatic onbiurtu, ez obeditu, ez Jauna[re]n aserrea samurtzezo sayatu.

[4] Ongui ezaguna da sinisgorren aberequeria ta genioa: ozta ozta aguerpená desaguertu, bereala esango luquete izan zala irudia uts uts bat, ta len baño leya ta setá gueyagorequin dudatu, ta ucatuco luquete infernuaren izatea: baño ecer ez dute balio duda-blasfemia-ta ucac, arrazoe-buru-ta centzunic erdia, desonestidade ta larreguacquin<sup>39</sup> galdu duten-enac, munduco jaquintsu guciac beti beti aitortu-ezagutu-ta iracatzi duten eguia onen beguietan.

¡Oh Jaungoico andia, cer icaragarria zeran, castigatzen dezunean sinisgorra-biotzgorra, ichutazunarequin<sup>30</sup>!

Berac ez du sinistutzen infernua, ez penazco beticotazun zorigaiztocoa, conveni zaiolaco eztedilla egon, obeto berea eguiteco desordenu mota gucietan; Baña, naiz sinistu dezala, naiz ez, orregatic ezta jaincozco itza guezurtuco: Berac icusico du infernua egunen batean, aserratuco da<sup>31</sup> beragan, ortzicaracquin orroa-eguingo du<sup>32</sup>, pe[c]cato videbit, esanaz: ¿nola da posible, ni becelaco christau batec despreciatu duala J[esu] Christoren errenua ta loria, munduco humequeriatic? ¡Oh, ondazun madaricatuac, ceruco ondazunac gal-erazo ziñizquidatenac! ¡Oh, amodio ta gozatazun araguizco igarocorrac, nere Jesus Jaungoicoaren gorroto beticoa ta tormentu betirauncorrac eracarri zinizquidatenac! ¡oh, emen penitencia eguiten, ta animaco estutasunaren indarrez negar-eguiten egon bearra betibetico, paenitentiam agentes, eta prae angustia spiritus gementes<sup>33</sup>, munduan, infernuaren gañean ondo pensatu ez guendualaco!

Orain bada, N, ¿nola da posilbe ez pensatzea infernu-an? Ichutazun icusgarria da, ez pensatzea infernu-án: pensatu beragan, ta ez ari bildur izatea, da arrigarizco furia ta suira bat: ta pensatu beragan ta ari bildur izan bai, ta aleguñ guciac ez eguitea igues-eguiteco ari, da eroqueria negargarri bat. Pensatu dezagun infernu-an, ari bildur izateco; ta bildur izan daguiogun, ara ez juateco, dio San Chrisostomoc<sup>34</sup>, ceren eciñ izan litequean, sugar gorigori artan benetan pensatz[e]n duan arima batec asmoartzea pecatueguiteco, ain erraz, beñtatzat. Pensamentu au da olesi bat ebaquitzen diozcana pecaturaco pausoac; graciac aurrean ipintzen dion eragozpen bat, demonio ta pasioac eraman nai duten pecatu lecura joatea eragozten diona, ta pecaturaco zabalbide guciac zarratutzen diozcan-á, ez bideeguiteco. Pensamentu onec eguiten du arimea humillago, beguiratua, zuhurrago berberagan; ta a-trebétzen naiz esatera, dio Santuac, cen, iñor ere, infernua beti gogoan daucanic, eztala juango ará, ala nola inorc ere, beti aazturic daucanec, eztion igues-eguingo ari. Bai, N, Bildur osasungarri au, ceñ, Daviden esaeran<sup>35</sup>, dan jaquintazunaren asiera, da, J[esu] Christo amatzeco bide bat: bada bildur izan ezquero Juezari becela, amatzen da Ayta becela; eracusten zaizco pecatuen zauriac; escatzen zaio humillqui ayen barcacioa, ez gueyago ofenditzeco asmo sendo-zolizoli bateq[ui]n.

[5] † Nic aitortzen det, o nere Jesus ona, zu zerala eguiaz vengancen<sup>36</sup> Jaungoicoa, ta orain itzilic bazaode, ori dala zure misericordia-gatic. ¿Noiz artean baña ichodongo dezu, galdu dezatela zure artalde ta erligioa, beren burla, eraso<sup>37</sup>, ta gaizqui esateac-quin? ¿Noiz artean peccariac gloriatuco dira zure contra esanaz: irintzi dezagun justoa, bada Jaunac eztaqui, ta eztu icusten ecer<sup>38</sup>? ¿Noiz artean egongo zera jaiqui bague Zu, lurra juzgatzen dezun-á, botatzeco infernura zure icen santuaren etsáy peccari arroac? Baña ez, nere Jesus ona; oraindic ere<sup>39</sup> zagan misericordia, ceren ceren oraindanic abiatzen dira esaten Profetarequiñ: nere bicitzaren erdian juango naiz pensamentuarequin infernuco atetara; ta Jobec becela esanaz: Infernua da nere echea, ta bertan ipini det nere oea. Nere J[esu] Chris]to Jauna.

## 2. TESTUA

### Infierno

Introduccion. ¿Infernuric bagó, galdetzen dute christau ascoc, Framas[one]n dicipulu eguiñ diranac?

Jaincoari nai leguiquiola, dio San Chrisostomoc, irtetzea infernutic condena-tu bat, gucia sugar-ez inguraturic, eta, sarturic, orraco andraqueriaco batazunetan, orraco ordiqueriaci basterretan, orraco canta-danza-jocu loiqueriaco batzarrretan, ay-oiii-ta deadar andiacquin esatea: ¿beraz infernua da, non azquena-cabu-ta muga iduqui bear duten, anditazunac-onoreac-eta ondazunac? ¿zuetatic nori irudico zaio, munduco poztazun ero burubagueai guertatuco zaietela negar samiñ garratzac? ¿nori irudico zaio, canta araguiti berdeai suertatuco zaietela inciria-orroa icaragarriac, gozaldi lizunai aguiñ orz etaco garrasiotzac, eta laguntazun gozagarriai demonioen lagunquidac, birao-desesperacio-ta erneguz naztuac?

Ala ere, eztago mirari onen premiari<sup>1</sup>; dauzcagu Leguea ta Profetac; gueyago daná, daucagu J[esu Chris]toren<sup>2</sup> Evangelioa, non ematen digun onbiurtzeco epai bildurgarri bat esanaz: Alde nigandic, zoazte madaricatuoc betibetico surtara<sup>3</sup>, sugar gorigorira<sup>4</sup>, illuntazun campocoetara<sup>5</sup>, non engongo diran negarrac, eta ortzen irringa<sup>6</sup>, iNegar<sup>7</sup> tristea! baña ongui merecia<sup>8</sup>.

Milla bider zematu degu pecataria infernuarequin, ta milla bider artu ditu gure esanac burlazat<sup>9</sup>, esanaz: ¿cergatic premiatzen gaituzte sinistutzera gauza batzuc, arrazoeac ucatzen dituan-ác? ¿eztauzca bicitza onec pena eguiazcoric asco, or ibilli bague turbatzen jendea oraindic ere, bildur alperricacoa[ui]n-icara guezurrezcoaq[ui]n-ta icusqueta despreciagarriquin?

Au gucia ta gueyago ere esan dute christau ascoc, Framasonen escolauac, igaroco constitucio egunetan: baña nai baldin badute icasi borondate onaz, iracori bitzate gure liburu santuac, gogoartu<sup>10</sup> bitzate arduraz, galde bezaiote beren arrazoeari, baita beren biotzari, ta gauza oiec gucioc eranzungo diete, cen, alperri-caco itzaldi, infernucio penaen eguia ta beticotazunaren contra asmatzen dituzten-ac, bacarric dirala balio guchico argüimendu batzuc, ceiñ Espiritu santuac lotsatu<sup>11</sup> dituan bere Igarleen aoz bi milla urte ta gueyago igaro dan oetan, ta ceiñ nic ere oraiñ aguereracico dedan daodela lotsaturic arrazoe ta Escritura sagradu-etic, esanaz puntu bacar onetan:

Punto. Infernua bai dagó, gucia suturic, inoiz ere cabutuco eztiran pena gogorracquin.

[2] Au da eguia bat, J[esu Chris]toc<sup>12</sup> infernuari eman cion icenac, eta norberaren arraz[oea]c aguererac[itze]n dutená. J[esu] Christo da lenbiccioa, infernuari deitu zioná “Geheénna”, dio San Geronimoc. Icen au Euscaldun labort-arrac bere itz-eran, beste moduz arnasa-eguiten ta ebasten du, esanaz: ē Gèнна, au da, eXe, eXetu, iXio; esan nau du, eXehénna, eXetuená: Ta onela dio J[esu] C[hristo]c lurbarrucio ondalecu ari; Arrazoeac, ceren, esperenciaz daquigu guc ere, lurpean daodela lecu batzuc<sup>13</sup>, a-súbrez-azoguez-cillar biciz, eXe-iXio-irazequiatic; lecu ceiñtzuc, idiquipena aoi<sup>14</sup> daucaten-ác, botatzen dituzte campora sugarrac auts, ta queé mémeac, icusten dan becela Bésúbioco ta Enáoco<sup>15</sup> mendietan, eta campora errebesatzeco zabalpenic eztaucaten-ác, estanda-lér-ta zart eguiten dúte lurpean, nondic datocen luricarac, icusi dan bezela, oraiñdic urte asco eztala, San Joserén egunean Españan, Calaurra, ta beste erri ascotan.

Eguia onetan cimendaturic, arrazoeac<sup>16</sup> ateratzen ditu bere contuac, eta esaten dú: culparic bat ere ezta gueldituco castigu bague; beraz aitortu bear da, justicia-zuzentazun-ta ongui eguina dala, eGehenna pena eXetu-iXio-iracequi ayen beticotazuna.

Eguia esateco, bicieracitzen digun arimeac batetic, eguin gaituan ta iraunera-citzen gaituan jaincozco<sup>17</sup> zuzentazun ta providenciatic bestetic, ta pecatuari lagun-tzen dioten biotzaguincadac azquenic; onec gucionec ezagueracitzen du beguiar-guiró premia bat, castigulecu batena, Jaunac gordebereturic daucan-á, castigatzeco pecatariac euren esaneguinen eran.

Icasbide andi bat ipintzen dute gay onetan Theologo<sup>18</sup> guciac, beren Maiss[u] S[an]to Thom[ase]q[ui]n esanaz: contaeciñgarriac izan arren condenatuen penac, ala ere, bitan zarratuzten dirala, ta deitzen dirala pena caltecoa ta pena sentidu-coa. Pena caltecoa dago, Jaungoicoa ez inoiz icuste-an, bere erri cerucotic betico deserrituric egotean, on suerte guctic baguetua izate-an: ta pena sentiducoa da, araco, ceñagatic condenatuaren gorputza ta sentidu guciac diran betico tormenta-tuac, suarequin. Pena bi oiec datozque, pecatuac sortuzten dituan desordenu biri; ta dira, desprecio lotsabaguea, guizonac bere Eguilleari<sup>19</sup> eguin dioná; ta amodio desordenatu desuzena, criaturari iduqui dion-á.

Onez gañera, Theologo guciac San Agustin ta S[an]to Thomas escoletaco Maissu[a]q[ui]n esaten dute: infernuco pena sentigarri guciatic andiena dala duda bague, suac ematen duan-á; su au ezala irudigarria, baicic[a]n eguiazco ta izatezcoa, gorputz ta anima berdiñ erret[ze]n dituana; ta ausardia andi bat bague ecin ucatu litequeala eguia bat, ain arguiró Escriturac eta Evangelioac esaná, ain irmé Elizaco gurasoac escudatua, ta ain sendo munduac sinistua.

¿Ondo ezagutzen degu menturaz su onen bicitazuna, ta lureco elementu au, ain gogorra ta eramaneciña daná, infernucoaren parean, Escriturac dionez, anz erbal bat baño ezta-a?

[3] Ongui esaten dute bada Theologoac, cen infernuan condenatua tormenta-zen duan suac, bere laná eguiten ta obratzen duala eguiaz ta izatez bere arimearen gañean; ¿ta nola da au?

1.º Ceren Jaungoicoac prestatzen du arimea zabalduaz gaytazun, padecitze-co berac daucan-á:

2.º Ceren bere aháltazunac altchatzen du suaren indarrá izateraño gay, eguitemo arimetan minic<sup>29</sup> samiñena; bi modu oiec dira miragarriac, ez guchiago ciertoac, miris sed veris modis, dio S[a]n Agustinec<sup>21</sup>, au da, suác, mirarizco baña eguiazco moduaquin eguiten duala bere eguitemo arimen gañean.

Au berá iracazten<sup>22</sup> digu Espiritu santuac, esaten duanean, ecen, suac, criatu-ra dan aldetic, obeditzen diola bere Eguillearen borondateari; ta aserratzen ta iracequitzen dala eciñ gueyagoan pecatariaren contra, nor bear duan castigatú<sup>23</sup>. Ta emendic valiatu ziran Theologoac, azaltzeco arguitazun gueyagorequin, ipiñi ziotenean su ari icen berri bat, au da, potencia obedillea, ceñ dan bicia-lasterra-ta presta suaren aldetic, ta padecicoyá, icututzen dion animaren aldetic.

Ucututzen<sup>24</sup> dio bada sú arec arimeari, sinisgorrac eguia icaragarri au sinistu nai ez arren:

ceren, San Gregorioc dionez<sup>25</sup>, sú icusgarritic bere ondoren dator bero irazequi ta miñ ezicusgarri bat, onela, su gorputzdunaren bidez anima gorputzbaguea ere sugar gorputzdunareq[ui]n tormenta didin.

ceren, Sutil Doctor Escotoc inorc baño obeto dionez, nola gorputz onezaz inguraturic egoteac sortutz[e]n diozcan arimeari pozaldi edo penac, ala suaren elementu billau arzaz inguraturic egon bearrac ceren sortutzen diozcan suzco arrabio ta erretazun portitz-énac.

Ceren San Agustinec dionez, suaren arimeari icututze au alá dan, aditu eziñ badegu ere, ala nola arimagorputz-en<sup>27</sup> batutazuna ala eguia dan, nola dan, ezagutu eciñ badegu ere.

Eguia au illundu nai dute ala ere oraiño biotzgororrecoac-sinisgorrac-eta Framasonac, ontzat eta oiñean iduquitzeco beren desoneztidadeac-lapurretac-edoceiñ modutaco lasaitazunac, onetaraco asmatutzen<sup>28</sup> dituztela aitzaquia-escupeda<sup>29</sup>-ta iguesinguru asco, ceñ ateraco ditudan arguitara<sup>30</sup>, aitortu dezazuten dira-la, arrazoe-buru-ta centzunbagueac.

### 3. TESTUA

#### Inmortalidad de la alma

Introduccion. Con estos pocos renglones, se saltara al primer parrafo de la buelta<sup>1</sup>.

N: Gure Erregue Jaunac aguintzen digu predicatu dezagula arimearen ille-ciñtazunaren gañ[ea]n ceren dion, fedeco cimenduric sendoena dan<sup>2</sup> onen contra zabaldu dirala icasbide galgariac, igaroco guerrataco urte negargarrietan, fede ceña ucatzetic datorren, beste articulu guciac lur jotzea. Nic badaquit, nere euscaldun maiteen artean eztala aurquitzen casta onetaco pecatariric, ceren fedeco gauzatan beti diran christau zaar, sendoac; eta munduaren lau aldetaco gendeac, ezjaquiñac izan arren, erligio guezurrezcoac eguiazcotzat iduqui arren, baña animaren illeciñtazuna, sinisquera sagradutzat beti iduquiric: ¿galdetzen det, ote daode asco ta asco Ezpaña barruan ere, ezsinsicorrác, impio-biotzgororreco-fracmas[o]n direztenac? bai badaode; ongui arguiro aditzera eman duten becela<sup>3</sup> beren pensatzeco modua, beren liburu ta esan-eguinacquin: bada Española diru ederren costura arrotzen liburu ziquiñac ona ecarriric, eta ayetan icasbide galgariac icasiric, eztira lotzatu esate-az: “eztago bicitza guerocoric, ez etorquizunic, eriotzarequin cabutzen da gucia; ere esanaz, contuac eta ipuiñac dirala, Sacerdoteac asmatuac, gendeac bildultzeco, ta bildur onen bidez ayec menpetu, ta sacramentu ta Elizaco cer-emonia utz batzuquin pecatuac barcatuco diezabela guezurrez irudituric, onela guero poliqui poliqui ta itzill itzillic ayen odola chupatzeco; ere esanaz, errico izainac-lapac-ondaquinac becela, argatic, amarrenbagnetu-gosetu-ill bear dirala, zeuroc zer[a]t[e]n becela Testigú”.



Onelako sinisquera galgarri ta guezurrezcoac zabaldu dituzte gau ta egun, beren andraguela, ardanguela, ta batzerretaco baster gucietan, intencio galduz beteric, [J]esu [C]hristoren erligioa ta Erregueen tronuac mundutic<sup>4</sup> quentzeco, ta oien ordez Framasonen legue ziquiña zuti ipintzeco; onen menpean gendeac obeto aurquituco dirala<sup>5</sup> esanic, ta poztazun guezurrezco onequin ayec engañaturic-eztituristic-zoraturic, guero eurac, aguintariburu paratu, erreñuco armac eta ondazunac beretu, gendeac menpetu, ta naturaleza lizunaren desordenu ta libertadean bicitzeco.

Guerta eztedin bada onelaco negargarriric, ez guizonezco odola berriro botazeric, asmo-eguin det ipintzeá osagarri[tza]t gucien aurrean fedeco eguia bat, naturaleza berac ta arrazoeac ere aitortutzen duten-á, gay onetan gaizto diranac ondutzeco, ta on diranac obetutzeco, puntu bacar batean ezanaz onela:

Punto. Gure arimea da ezillgarria, illezcorrá edo, iñoiz ere illeciña.

[2] Punto onen prueba, edo, ezagungarriraco, jaquiñ bear degu lenbico lecuan, ecen, icen oiec, “arimea, álma, izpiritua”, eusquera garbi garbiac izanic, ardura ta arreta andi batequin ipiñi zizcoela gure izate arrazoedunari antzínaco euscaldun, erdaldun beste guciac baño filosofo jaquitunagoac; badá “arimea” deitu zioten iru emacuméc, araco, batac liñoa apaindu, besteac arimetu eta meémeé ardazquetu, ta besteac arilldu zutenean, aditzera emanaz onetan, iru persona jaincozcoac<sup>6</sup> eguin zutela beren irudia ta semeanz-era gure arimea, iru ayéc eguin zuten ari hura baño neurribague méméago-piñpiñago-utsutsago, antzínaco euscaldunen canta ta ipuiñ-etatic ongui daquigun becela: “alma” deitu zioten beste batzúc, au da, *ál*, edo, ahál izate, *má*, edo mea ta gorputzbaguea: “espiritua” deit[u] zioten beste batzúc, au da, *espi*, edo izpia, *iritua*, edo gure gorputzeco iri-uri-echean bicilecutua: ta “espiritua” deitzen badá, esan nai du, dala espia bat, esan ta eguin bear ditugun edo ez ditugun gauzatan, betibeti irritu, beti aguiracari, beti alacá, barruan dagoquiguná.

Icen oiecquin mundu jayo berritic euscaldun jaquitunac ezagutu ta onrratu zuten gure arimearen izate noble icen andicoa, [señalé, ceruco aguerpenez icasi zutela Erligio eguiazcoa]; inoizco demboran gendeac hurá desezagutu-desonrratu ez zezaten<sup>7</sup> beren becatu, gaiztaqueri, ta desordenuacquin; ta hura nahaztu ez zezaten abereen arimearequin, eguin nairic anima gurea ayenarequin bapat-anzeco-ta gorputzdun.

Emendic atera ditzagun arrazoe indar andico batzúc, inorc ere ucatu eciñ ditzaquean-ác: naiz dalá filosofo, edo, jaquituna; naiz dala sinisgor, edo, sinisteric nai eztuana; naiz dala basotar, edo, basoan bacarric acitacoa; arguitazunic andienarequin esanaz guciai onela:

Gure arimeac pensatzen dú; beraz gure arimea da espiritua. Emen cimenda-t[ur]ic goacen aurr[er]a.

Gure arimea da aditzallea-gogotzallea-pensatzallea; aditzeá-gogotzeá-pensatzeá, eguiteco edo eguinbide au, eciñ sortu liteque ezpada izate espirituzco batetic: Etá, emendic aguertzen da arguiró, eztauca-la nahazteric bat ere, izate gorputzdu-

na dan gauzacho ere batez; ta emendic ateratzen ere da, cen, izate aditzallea, edo, arimea, banatu-bestetu-diferenciatzen<sup>8</sup> dala izate gorputzdun-etic: beraz, bata galtzen dala-tic, eztá beraz edo ondorea ateratzen, galtzen ere dala bestea: Izate gorputzduna izategaltzen da, ascaturzen dalaco zati-tan, edo, zatitzen dalaco; izate aditzallea, edo, arimea, ceñac eztaucan zatiric, ezta ascaturzen zati-tan, eta, eciñ zatitu liteque, zatiric eztaucalaco: beraz au iñolaco ere moduz eztá izategaltzen; beraz dá, iñoiz ere illeciña. Ta oná emen, arrazoe bat, esandaco puntua<sup>9</sup> azaltze-co, berau bacarric asco dan-á; ta munduaren asieratic onaco guizon zentzundu-néc aitortu bai, baña ucá ta contra eciñ eguingo dion-á.

[3] Ipiñi dezagun beste arrazoe bat, esanaz: ala batá, nola bestea, eztirala biurtzen ecerecerá. Ta eguiaz: eriotzac aldendutzen du arimea gorputz-etic; baña, batu bat edo compondu bat eguiten duten zati biren aldendutzeá, eztá beren ecerezututzea-ecerecerá biurt<sup>10</sup>-izatea galtzea: ¿cer da badá? ez besteric, ezpada, len baturic zeodetenian, batu edo compondu onec zeucan anzá, echura-irudia-tajua, ordezco, ta azalecoac galdu bai, baña izateac, lengoac guelditzea; Ta ala, gorputza guelditzen da, izatez len zaná, au da, lur; ta arimea guelditzen da, izatez len zaná, au da, espiritu. Naturalezac, eztú ecercho ere baguetic-eguiten, ez eta ecerecerá biurtzen: eztaqui, ta ez ere dezaque beste gauzaric, ezpada, batú, aldendu, besterátú, edo, beste erá ta irudia bat eman, lotuaz<sup>11</sup> ta ascatuaz lau elementuac, oiec ecereztu bagué, zati eguinaz; ala nola suac eztan ecereztutzen, erretzen duan egurrá, bai zatitzen, auts biurtuaz. Naturalezac, beñ izatea iduquitzera eldu zan-ác, irauñ bear du betibeti, aric eta Eguilleac ecereztu dezan artean, fisicaco erreguelaen eran: baldin Eguilleac autortu, edo, ematen badie elementu ta izate gorputzdunai betibetico iraupen naturala, ¿ucatuco die au izate espiritu-dunai?: baldin gaya, edo gueya, erderaz materia deitzen dan-á, badá betibeticoa: beraz, arrazoe gueyagorequin betibeticoa, espitirua.

Onez gañera, gure arimeac dauzca idea, gaytazun, ta gura andi, berarequin jayoac, bere azqueneco azquena ta espirituzcoa betibeti gozatzeco. Ta eguiaz: gure arimeac dauca gaytazun, berequin jayoa, bere centro ta Ontazun gozatzeco: gaytazunac edoceiñ ere criaturatan aditzera ematen du bere izatea: beraz, baldin gure arimeac badauca gaytazun berequin jayoa, gozatzeco Ontazun nagusi betibeticoa, bere izatea ere izan bear da betibeticoa; ceren bestela, alper ta lotsagarria izango litzaque Eguillearentzat, bera gozatzeco, gura ta gaytazun betibeticoac arimeari eman bai, ta izate betibeticoa ez emateá. Ala badá, gurá, edo, naitazun, ez-illcorra izateco arimeac daucan-ác, aguereracitzen digu, batetic bere izate beticoa, bestetic bere gaytazun barrucoa, gaytazun beticoa gozatzeco daucan-á: Ta orregatic, esateracó, edoceiñ ere aberé, guizonen erregue izateco gay eztan-á, ciur da, ez ere dala gay, guizonezco erreñua gurá, edo, nai izateco; badá, alaco guraric baleuca, dudabague naturalezac etzuan egingo gauz-etzá izatez, hura ál-gaiñ-zá-tzeco. Onez gañera, munduco ondazun cabudun ta galcor guciguciatic eztira asco, arimean ichtizen duten utsuné, edo, errayartea betetzeco; beraz, on, edo, ondazun cabubaguea da, bete bear dituan-á, bere errayarte ta gura asebeté-eciñac: Gurá asebeté-eciñacquin eztago paqueric ez zorionic, ezpada eciñegoná ta zorigaiztoa, gozatu artean on, edo, ondazun cabubaguea; beraz, gurá asebeté-eciñac, illeciñtazunaren gañean arimeac dauzcan-ác, dira senale ciur-ciurrac,

aditzen ematen dutenac, gaytazuna daucala, hurá gozatzeco. Itz batean, illeciñta-zuna da cabubagueco On bat, eciñ ezagutu liteque, hurá guratu bague: baldin arimeac hurá ezagutzen badu, premiaz hura gura dú: gura badú, premiaz da, hurá algañzatzeco gay; beraz, gaytazun au, dá, izate bere berea.

[4] Ucatu eciñ ere liteque, gure arimeac daucala ezauera arguia ta libertade osoá, nai duaná, eguiteco edo ez eguit[e]co. Ta eguiatz: ezauera-argui zuzi-candela jaincozco, beti iracequi au, dá, aráco concienciaco iritzia deitz[e]n diogun-á, Jaunac cilluz moldeztua, ceñec agueracitzen digun eguitada gucietan, dagoan ontazun edo malicia: libertadea berriz da ahaltazun eta escubide bat, daucaguná, ezitzeco gure griña char ta zaletazunac, ta ecarteco arrazoearen menpera gure aserre, edo, eci-gaitza, Jaunac aguertu digun becela: “sub te erit a[p]petitus, Gen. 4”.

Ezauera ta libertade au palta zaielaco abereai, beren eguitadac dira beti erabatecoac, eta onetan ezaguteracitzen digute, euracgan dagoala obratzeco asiera edo legue bat, premiaz premiazcoa, naita ez erasotzen ditena; ta orregatic, accio char lotzagarrizco bat eguin arren gure aurrean, ala ere, ezтира lotsatzen-damutz[e]n-bildur[tze]n. Baña ezauera-arguizuzi-&<sup>a</sup>, gurequin jayo onec argueguiten digu ezagutzeco ona ta charra beguiz icusi-ecinac izan arren ere; ta onez gañera, sortutzen ditu gugan eguicunde, edo, ecandu miragarriac, nola poza, tristura, &<sup>a</sup>, lotzari-damu-ta bildurra.

Ta emendic dator araco bildurrá, guizon biotzgorreco batec daucan-á, ceñec eztuán nai, ezcutuan eguin duan gaiztaqueria bat, inorc jaquiñ daguion; ta contrara, emendic dator araco paque ta poz gozo-gozoa, guizon justu batec daucan-á, creitu baguetua-perseguitua-ta deserritua izan arren: birai concienciac sartzen die, batari penaren bildurra, &<sup>a</sup>. Ucatueciñac izanic guizonezco gogo, edo, biotzicututze oiec, ¿cergatic, galdetzen det, cergatic guizon, ezcutuan gaztaqueria<sup>12</sup> eguiten duan-a, da bere pe[catuen] bild[ur] ta on estaldua eguiten duanac, ichodotz[e]n du beti bere saria? ¿Cer bildur dira auéc, inorc icusi ez jaqu[ín] arre]n<sup>13</sup>, [ditua]lla eriotza, edo, &<sup>a</sup>, edo beste charqueria bat-egatic? ¿Cer ichodomen, edo, esperanza da au, on eguin [ba]tec<sup>14</sup> daucana, ceñ, ezcutuan eguina izanic, dan, ezpalitza becela? ¿cer azquen daucate azuqenic gauza contrari oiec; au da, char eguinac bildurtzea-estutzea-larritzea, ta oneguina? &<sup>a</sup>.

¿Baldin guizona bada oso-oso librea, concienciaren contra eguiteco edo ez eguiteco; cergatic ezta librea bere deadarrac ez enzuteco? ¿Baldin bada librea, ona edo charra eguiteco; cergatic da erazoa edo premiatua, ona ontzat, eta charrá chartzat ezagutzeco?

Beraz, gogo contrari oiec aditzera ematen dute dagoala gugan izate espirituzco bat, Jaunac eguina, norc pagatuco duan ona, ta castigatuco charra. AVE Maria.

Au gucia onela izan arren, ala ere, argüitzen dute gaiztoac, ezanaz: gure arimea dala arnasa bat.

[5] Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, lenbicoico lecuan, baldin galdezen badiogu arrazoeari arima onen izatearen<sup>15</sup> gañean, lengoaz gañera eranzungo

digu, cen, anima au, gugan aditzen duaná-gogoatzen duaná-pensatzen duaná, asmatzen ta uste izaten duan-á, poztutzen ta larritzen dan-á, bildurtzen dana ta naitatzen duaná: itz batean esateco, adimentua-gogoa-centzuná, poztazuna ta tristura, bildurra, ta naitazuna, gauza gucioquin conturatzen gaitu arrazoeac, arimau ecin izan litequeala arnaza ez baoa bat, barrutic irten ta quea edo laiñoa becela deseguiten dan-á; ez auts zatibat, aiceac desaguertz[e]n duana; ez eta, elá ta lausoen eoa bat, euleac aria batutzen duan becela, ustecabeac batua, ta bere naira banatua: arrazoe berac<sup>16</sup> sentieracitzen<sup>17</sup> digu, araguiac ta odolac, eciñ littequeala marcatzea gure biotzetan amar mandamentuac, ez eguiaren misterio sagraduac, ez eta zuzentazunaren erreguela santuac, marcatuac daoden becela berez gure sortutzetic. Adimentu laburreco batec ere eztu naico sinistu, nola izan litequean egotea guizon ain burujausiac, arrazoearen abo-ozá ito nai luqueten-ac, izanic eguia, onec diola: arimea dala izate espirituzcoa, eztagoala iñor, escuac ezarri ta ill dezaqueanic; ta gorputzetic irtetze-an, bearco duala, edo batutu Jaungoicoareq[ui]n, edo aldendua izan beragandic; eciñ gozatzea, dan betico zoriona, ta eciñ galtzea, betico zorigaiztoa.

Argüitzen ere dute esanaz: gure arimea ecereztu, &.ª dala; ta au asco dala, Jaungoicoac onaren eta gaiz[oare]n venganza artzeco.

Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren arrazoeac dion, cen, arimearen ecereztutze au erorico litzaqueala berdin berdiñ onaren ta gaiztoaren gañean, ta orduan ¿cer castigu andiagoa sufrutuco luque errudunac errubagueac baño?. Beste aldetic, ecerecera<sup>18</sup> biurtzeac ez luque ichico ezagueraric-centzunic-ez sentiduric; ¿ta nola ecerecera biurtze au izan liteque tormentu bat, Jaunac venganza artzeco?: Azquenic, ecerecera biurtze au da, egungo biotzgogorreco-gaizto-ta lasaiac gueyen maitatzen ta naitatzen duten gauzá; ecerchori ere ez diote aimbat bildur nola bicitza guero-coari, ill ezquero ere, bici bearrari; ta baldin eurac gozatu ta paquetutzen badira beren desordenuetan, bacarric da, betico illico dirala uste duten esperanza eró ta icaragarriarequin. io, nere Jaungoicoa! ita ez dituzun-á castigatuco gaiztoac, ezpada beteaz beren gura ta naitazun-en neurri osoa!

Baldin ona eguiteac eta charra eguiteac ezpaleucate beste beguiaurreco ta beguiragarriric, bicitza oraiño au baño, ¿nolacoa izango litzaque naturalezaco ondazunen Emallearen providencia, baldin, emanaz<sup>19</sup>, gaizqui usatzen dituzten gaiztoai ugari, ta ongui usatzen dituzten justuai negarrezco ogui bat ere urri, baldin, diot, eguingo balú erortea intzá bere icen santuaren etsayen gañera, ta bere serbitzari leyalentzat izatea, cerua, burniazcoa; lurra, zequená; ta naturaleza gucia, sentiezarria, sorra-gorra-ta cordebaguea?

[6] Baldin arimea bada illgarria, ¿cer gayon ta ongarri dacar, birtutearen bide penazcoetan necatutze-ác<sup>20</sup>?

Baldin ezpadago beste bicitza guero-coric, bildurti ta biotz chiquiaren jabe izatea dá, ez ostutzea adisquideari<sup>21</sup>-anayari-lagun urrecoari, bere ondazunac, bere diñadeac, bere emaztea: ollo izatea da, ez burruca<sup>22</sup> eguitea, ez venganza artzea, ez cuchilladaz-maquilladaz-venenoz bicitza quentzea: lala gatzbagueco izatea da, ez nai dan gucia esanta eguia<sup>23</sup>, mundutic juan ziran ayta baten-ama baten-emazte baten gomuta eguitea<sup>24</sup>, beren azqueneco borondateac betetzea; baldin au gucia ta gueyago ere eguin al baliteque castiguaren bildurbague, norberac badu onetan gozaldi-placer-ta poz. Onela, biotzeco gogoargui, gurequin jayoac,

eta munduaren asieratic onerañoco Naciño gucien legue sagraduenac, ezтира besteric ezpada humechoen ipuiñaldi-eciñquizun-ta zolasac; ta azquenic, bicitza onen ondoren ezpadago cer bildurtu, ez cer ichodon, gure arrazoea aurkitzen da bide-galduric, guizartean bacarric aguintzen du desordenuac, birtuteari equitea da choraqueria ta utzirudi bat, ta providencia da bidebaguea.

Argüitzen dute azquenic esanaz: gure arimeac eztaucala idea &.<sup>a</sup>, baicic[a]n, ala nola abere batzuc diran beste batzuc baño arguiago ta zoliago, beren gorputzaldeac diralaco osobeteago, ala gugan ere, gorputzeco tallu on batetic datocen perfeccioac dirala.

Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, arrazoeac esaten digu, cen, ori ala balitza, animalia batzuc, guizonezco gorputzaren anz ain andi ta berdiña daucaten-ác, berdin berdiñ iduquico lituzquetela idea &.<sup>a</sup>, berequin jayoac.

Animalia batzuc daodela, daquigu, ala lurreco nola ichasocoen artean, guizon ta andre diruditen-ác, beren tallu-tajú, ta gorputz alde gucietan: lurrecoen artean daode chimio casta batzuc, gure tercijo tercijocoac American, motivo augatic ango gendeac “basaguizon” deitzen dieten-ác; uretacoen artean daode arraiñ mota batzuc, gure chit anzberdiñecoac African, Zambre Congo icen onetaco ichas-basterrean, “igárimar-uguermarrac” deitzen dieten-ac; baña gorputzeco perfeccio orrezaz guciáz ere, ezтира beste animalien aguintari, ez escolau, ezpada besteac bezaiñ mutú, edo mutuagoac: Ta emendic ezagutzen du guizonac, cen, bera ere ez litzaqueala<sup>25</sup> izango ayec baño nagusiago, baldin balitzaque antzeco beren arimean, nola dan gorputzean; ta ezagutzen ere du, bere arimearen ideac-gatic &.<sup>a</sup>, ezta la gorputzean baño ayen anzeco.

[7] Baña, ¿nondic[a]n datozquite oraiño gaiztoai onelaco dudac asmatzea, ezpada beren pecatutic? Da bada eguia ucacingarri bat, ecen, pecatua biotz barruan daraman-ác, ere daramala berarequin icara-bildurra-turbacioa: pecatu bat eguiten duan-ác, bereala sentitzen du bere biotz barrumbean antsia bat, pena bat, eta odeicho batzuc zabaltzen diran-ac bere arimearen gañean; ta bere damuz dala ere, naita ez dator egotera catibaturic, eciñ egonic, turbaturic, eta tristeturic; eta orduan guertatzen da ascotan billatzen dituala dudac, paquean jartzeco: ceren, jaquiñ bear dezute, cen, bacarric macurtzen dala dudatze-rá, bere obligacioetatic aldendutzen abiatzen dan-á: evangelio santua ez dator izatera suzpitZagarria abiatu arteraño izaten gogaitcarria: ez dezute icusico batere guizonic, justua, jaquintsua, oitura zuzenecoa, gogourritua, ta batez ere garbicastoa izan, da, fedean ontzizgaldu-eguiteco tentatua izan ditequeanic; bacarric gogo aragui-zalea, ta gozatzun araguizcoa da, creitua quentzendum-á<sup>26</sup> gure erligioco gauza altu ta santuai; biotzeco jaiquera ta griña lotzagarrienac eguiten dute aberetarra arimea, ta illundutzen<sup>27</sup> dute arrazoea. Guizon abereac ez ditu ondo aditzen gauza jaincozcoac, dio San Pauloc, 1. Corinth[ios] 2: Ez dezute icusico batere libertinoric, bere biotzeco lizuntazuna-gatic<sup>28</sup>, buruausten-caltetutzen-descalabratzen abiatu eztanic, bada bacarric naitatzen dute dudatzea paquetutzeco biotzburuac beren desordenuetan, baña alperric; ceren Jaunac baimendutzen du pecataria izan dedilla perseguitua pecatu bere bere-gatic; bere concienciaco aguiñcada beti daode bicibici; indareguin arren ere, ayec itó edo osatutzeco; ta indareguita oiec dira ascotan ain bici ta portitzac, nonda, azquenic dacarten bat desesperaciara: ¿Ta cer esaten digute aguiñcada ain samiñ oiec, sentitzera naturalezac beartzen gaituana-?; ¿cer berri-ematen digute biotzaren ustecabeco icarac, bildurrac, turbacioac,

ezpada illeciña, dala gure arimea, ta ere dagoala Jaungoico vengatzalle bat, noren justiciari bear zaion bildur izan?; bada eguiten ezpadu justicia beti bicitza onetan, ori da, dalaco betibeticoa ta guciz alduna; Ta ala, beticoa dan aldetic, eztago beretzat beranduric, eta guciz alduna dan aldetic, iñorc ere eciñ igues-eguiñ lezaque bere justiciatic.

Orañ badá, ô Framason gaiztoac, arimea betico izatearen gañean, ala nola Jaungoicoa izatearen gañean, ta J[esu Chris]toren erreligio eguiazcoaren gañean, beti argumentu modu batzuc ipiñi oi dituzuten-ác.

[8] Aditu dituzute gure arrazoe indar andicoac, baita guc ere aditu ditugu zuen argüimendu irudipeneco, edo diruditenac; ceñ, daquigun, icasi ta atera dituzutela, “Sistema de la naturaleza” deitzen dan liburu ziquiñ batetic, ceñ munduco Naciño guciguciac daucaten iracurtea eragotziric, arrazoeaz, ceren iracazten duben, guizonac eta abereac dirala semeanzecoac arimean, dirala cerbait desberdiñac gorputzean, baña beti bapat eriotzan; iracazte ceña sinistutzetic etorrico litzaquean, erreñuetan, ez erreligioric-ez legueric-ez ordenuric egotea, indar-dunagoac berea eguitea, aberetzar ta arraintzarrac chiquiagioquin eguiten duten becela, guc ere alcar ill, ta jatea, igaroco urteetan icusi degun becela.

Eguizute oraiñ contu, ta duaric demagun, gure ta zuen arrazoeac dirala indar berdiñecoac gay onetan: Icase bear dezute baña, ondoreac eztirala berdina; ceren bataren sinistecac dacarren betico zoriona, ta bestearen[a]c &.<sup>a</sup>:

Ondu zaitezte bada, eztalaco chanchaco gauza, ez bi aldiz erratu litequean eguitecoa, ez eta dudatan ibilltzeco gaya; ceren, dudac nai diranian edoceñ ere gauzaren gañian, orduan prudenciatic esaten du jarraitzeco seguruagoari: Seguruago da<sup>29</sup> dudabague jarraitzea J[esu Chris]tori, bere erligio ta evangelio santuari, non iracazten duben, arimea dala illeciña, ta bildur diozagula, gorputz da arima infernura bota gaitzaqueanari. Orañ bada, ¿cer calteac ez dacazqui edocententzat, perseguitzeac [Chris]tori? ez guchiago ezpada condenacioa. Onda bedi bada len bait len esandaco liburua, ceñ Españatar batec etzuan iduqui lotzaric ecarteco amazapi milla errealeen costura beste erreñu batetic: Iracorri bedi Escrit[ur]a sagr[adu]a, ondugaitecen: Ta orain, Urreratu gaitecen J[esu Chris]togana

#### 4. TESTUA

##### Obligacion de confesar

Introduccion.

Punto.

Baldin escritura sagradua ondo iracurri ta considera badezagu, aurquituco degu, eztala egundaño iñor salbatu ta ez salbatuco ere, aldez edo moldez, nolabait, confesatu bagué. Egundainoz gueroz, legue gucietan, eta guizaldi gucie-

tan, usatu da ta usatzen da confesatzea: ez ordea, berdiñ. Legue naturaleko confesatzea, oraiño confesatzearen itzala becela zan: orducoa zan, oraingoaren señaie bat, irudia-figura-ta significantza bat.

Legue naturalean asco zan, biotzeco damutazun batequin, eta norberari bere gogoac bere barrumbean esaten zion campoco señaieren batequin, contu dezagun, begui altchatze batequin, edo, belaunicatze batequin, Jaungoicoari berari confesatzea, ta barcacio escatzea... Deitu zuan Jaungoico Jaunac Adan, eta galdeguin zuan, ¿ea non zan? vocavit Dominus Adam, et dixit, ubi es? Eta galdeguite hura etzuan ez eguin jaquin baguez, baicic[a]n alatan bere becatua ezagutu zezan, eta ezaguturic, confesa zezan amore-gatic: eta ceren etzuan bear zan bidean confesatu, baña bai ceren edertu nai izatu zuan, esaten<sup>1</sup> zuala, cen, bere emazteac eraguin ziocala, alatan, escusa chiqui bat bada ere, bildurraren bildurrac erazo zion-á, aibat calte ta damu artu zuan.

Modu berean iracurtzen da, galdeguin ziola Caini ere, bere anaya Abel ill zuanean, ¿non da zure anaya Abel? ubi est Abel frater tuus? ¿Eta cergatic galdeguin zion onela? bere becatua gogora zezan, eta gogoraturic, confesa zezan-gatic: eta ceren etzuan Adanec becela nolabait ere confesatu, bana bai ceren zuan guciz ucatu, alatan, ain on bear ta erruquigarri eguin zán; eta mundutic erbestetua ibiliric, azquenean condenatu zan. Bada Adan eta Cain ere legue naturalean ziran, gendeac bere naturalezaren eran, itzquiribituzco quin<sup>2</sup>, edo, quidaric-gui-aric-lagunic, eta eracusleric ere bague, bicitzen ziran demboran. Baña, ceren naturaleza berac ere eracusten bai du, bear dala bici arrazoiaren bicia<sup>3</sup>, gaizqui eguitea utciric, laincoarequin ondo iduqui, ta ari bere faltac airtortu; alatan, etzan legue naturalean ere, cerbait moduz, gogoz, eta biotzez beintzat, cerbait señaierequin confesatu bague, iñor salbatzen. Beraz &. <sup>3</sup> del punto. Eguia da, etzan oraindic orduan, confesatzeco ceremonia señaleturic. “Ala dio Santo Thomas, escoletaco Eracusle aingueruzcoac<sup>4</sup>: Asco zan, dio, barreneco damua; ta damu hura, norberari bere baithan, edo, biotzeco gogorgui santuan iruditzen zitzacan, campoco señaieren batzucquin aguertzea ta adieracitzea: etzan oraindic orduan, dio Santuac, beste confesatze moduric, eta ez erremedio itzquiribituz ezarriric eta ipiñiric”.

Baña gueró, mundua apur bat aurrerago igaró zanean, legue naturaletic legue izcribitura, au da, Moisesen demborara eldu zanean, asi zan usatzen beste confesatze modu bat. Etzan ya orduan asco, norberac bere barreneco damua, poza zuan señaiearequin campoan aguertzea: baña bear zuan, barreneco damu hura, cenbait ofrendaz ta sacrificioz, ta ez, ceñezaz nai zana, ezpada artaco esquiribituz ordenaturic zeodecenaz, declaratu ta eman aditzera.

[2] Baciran legue zahar esquiribituan sacerdotiac, eta temploco cargu-dunac. Eta persona batec becatu bat eguiten zuanean, bear zuan, becatu hura-gatic, damutazun batequin, ta gueyago ez eguiteco borondatearequin, sacerdote ayen aurrean eguin ofrenda ta sacrificioaren bat, eta artan eman aditzera, becatari zala. Ala aguintzen za Leviticoaren capitulu batzuetan<sup>5</sup>. Etzan oraindic orduan, oraiñ dan becela, iñori bere gañera ezarri bere becatuac confesatzeco aguinduric ez obligatoric, ez eta, nola-noiz-eta ceibat eguin zituan, esateco premiariac. Asco zan orduan, damutazun batequin, legueac aguintzen zituan ofrenda ta sacrificioac

eguitea. Hura zan, orduco confesatzte modua. Erregue David-ec besteren emaztearequin becatu eguin zuanean, eta becatu hura estaltzea-gatic, emazte aren senarra ill eraci zuanean, esaten du Glosac, au da, nire habituco<sup>6</sup> Eracusle famatu Nicolao Lyrac<sup>7</sup>, aren gañean esanaz: “Erregue Davidec, ahalquez-lotsaz-ta bere burua ez nabarbendutzeagatic, utzten zituan eguin bague, aren becatuentzat ordenaturic zeuden sacrificioac; eta etzitian beiñ ere eguin, aric eta Nathan Profeta, mechatzera-zematzera-ta eranzute eguitera etorri zequidion arteraño: baña bai orduan, lotsa garaituric, eguin zituan, bear ziran ofrenda ta sacrificio guciac, eta guero ayecquin batean alcanzatu<sup>8</sup> zuan barcacioa; ceren orduan ere, legue zahar escriptuan ere, eguin bear ziran, becatuen erremedioraco, ordenaturic zeuden ofrenda ta sacrificioac; eta hura zan, orduco confesatzte modua”.

Baña oraiñ, legue berrion evangelio santuac declaratuz gueró, usatzen da christauen artean beste confesatzte modu bat, sacerdotearen aurrean eguiten dan-á, legue naturalecoa eta escriptucoa baño indartsuagoa, seguruago, ta valio-soagoa; ceren, itz batean esateco, oraingo confesatzte-an, obratzen du J[esu] Christo Jaunaren pasio ta eriotzac. Becatua confesatzen degunean, eta sacerdoteac absolucioa ematen digunean, án da bereala<sup>9</sup> J[esu] Christoren pasioco meritu ta valioa, án da bereala aren gracia ta faborea, ta arequin batean becatuaren barcacioa. Bi arrazoi eman ahál ditezque lenendic-óró, probatzeco, oraingo confesatzteac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño: 1.<sup>a</sup>, ceren oraingo confesatzteac, legue zaharrecoac etzuaná, badu bere baitan barrena, edo, berez, indarra, garacia emateco; legue zaharreco confesatzteac eta orduco beste sacramentuac etzuten eurac bere indarrez ta birtutez garaciariac ematen, baicic[a]n, ematen zuten garacia, ematen zuten, artzen zituanac, zuan devocioaren ta prestaeraren erara, au da, nola prestatzen ziran artzeco, ala artzen zuten, “sacramenta veteris legis conferebant gratiam ex opere operantis”: baña oraingo confesatzteac eta sacramentuac ematen dute, gure devocio ta prestaerari dagocan garacia, ta are gueyago, sacramentuac eurac beragan dutenetic ere zatiematen dute, ta artzen degu guc ere zati ta parte hura, baldin guero guere aldetic arazo-eragozqueta-catibuera ta traburic ipiñtzen ezpadegu, “sacramenta novae legis conferunt gratiam ex opere operato” au da, J[esu] Christoren merecimenduac-gatic<sup>10</sup>: 2.<sup>a</sup> arrazoea eman ahál diteque, probatzeco, oraingo confesatzteac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño; ceren, orduco confesatzte-an, baldin erditšico bazan barcacioric, bear zan biotzeco damutazun zolizoli bat, Jaungoicoa beragatic eta beraganaco amorio-agatic izaná ta artua, ceiñ deitzen dan, “contritio”, contricioa-onesdamua-damu gucien gaiñeco damua: baña oraingo confesatzte-an asco da sacerdotearen absolucioarequin batean beste damu modubat, ceruco loria galtzeco, edo infernuco penatara joateco bildurtazunetic eldu daná, dalaco consideratzeco puntua, ta chit erraz salbatzeco mesedea, ceiñ deitzen dan, “atritio” atricioa-bildurdamua-infernuaren bildurraz artzen degun damua, “ex atrito per sacramentum fit contritus”, esan nahi du, asco dala oraingo confesatztean uste izatea baduela contricioa; ceren ezpadu ere atricioa baic[ican]<sup>11</sup>, cumplitzen ta usbetetzen<sup>12</sup> du sacramentuac, bitartean dan usaldi-falta-ta escastazuna. ¡Oh, au mesede parebaguea, sacerdoteac sacramentuarequin eguiten duan-á, motivo ceñagatic bacarric, bear luqueten gendeac amatu-eztimatu-ta onrratu Jaungoicoaren oiñordea becela.



[3] Hain andia da mesede au, cen, (quando se quiera hecharlo como brebe platica, se concluirá con este mismo ff.<sup>o</sup><sup>13</sup>) arrazoearequin galdetzen du Jerem[ias] Igarleac<sup>14</sup>; ¿numquid<sup>15</sup> resina non est in Galaad? ¿aut medicus non est ibi? ¿quare ergo &.<sup>o</sup>? ¿cer da au? ¿ez ote da erresinaric<sup>16</sup> Galaad-eco errian, edo medicuric an bertan? ¿nolatan bada nere errico alabaren zauria ezta sendatu? Esan nahi du. Christau errian, arimaco eritazuna sendatzeco, ain erremedio andia ta medicina escuarra dan lecuan, cein diran confesoreac, ¿nolatan guciarequin ere aurquitzen dira aibat zauri eta eritazun? ¿aibat becatu ta gaiztaqueria? ¿ta nolatan eztira, lasterrago sendatzen, urte gucian ta batzutan gueyago ere, becatuaren eritazunean, quiraztuac-ustelduac-ta ziquinduac badaode?

Eranzuten du Glosac<sup>17</sup>: Eztira sendatzen, ceren eztiran sayatzen; eztira medicagana consejatzera, ta medicina artzera joaten; esan naidu, eztira bear becela confesatzen, ez confesorea-gana<sup>18</sup> urreratzen.

Arimaco eritazunetic sendatzeco, erremedioa, da confesatzea. ¿Ontzia galduz guero, cer erremedio izango du mariñelac, salbatzeco? Zul pusca bati lotzea, ol bat atrapatzea<sup>19</sup>, ta arequin batean, ari dache cala, dautzala<sup>20</sup>, igari itsasaldea irabaztea, “paenitentia est secunda post naufragium tabula”, esan nai du, ontzia galdu ondoan arrapatzen dan ol baten pare dala, becatuan erori ta ontzigaldu eguin duanarentzat, confesatzea. Baldin eguiten ezpadezute penitencia, dio San Lucas Evangelistac<sup>21</sup>, gucioc azquen gaiztoa alcarrequin eguingo dezute; bada penitenciaren partetic<sup>22</sup> bat, da confesatzea; beraz, ez azquen gaiztoa eguiteco, bear da, ongui confesatu.

Hau onela izan arren, dan becela fedeco eguia, J[esu] Christoc eman zietela apostoluai ta ayen icenean sacerdoteai escubide jaincozco bat, barcatzeco<sup>23</sup> becatuac, eta lotu edo guelditzeco araco barcatu bear eztiranac, orrez guciac ere, españaco heregeren batzuc nai luquete guezurtu eguia au esanaz:

1.<sup>o</sup> Eztala iracurtzen iracazderic ez lecucotazunic, esango dubena, badala obligacio ta premia confesatzeco becatuac bana-banan<sup>24</sup>-bat banaca; ta ongui guerta zitequeala, Salbatzalleac ez nai izatea ipiñi alaco obligacioric, ezpada eman bai escubide bat barcatzeco becatuac baquidan<sup>25</sup>, becatuaren contricio-bitartez, eguin zuan becela Salbatzalleac becatariacquin”.

Guezurra ta abarra da au, dariena, batez ere gonadunen artean, onela bildurra quenduric, obeto berena eguiteco desordenu gucit[al]n. ceren eguia esan, guc bezain ondo daquite, San Juanen evangelioco ogeugarren capituluan aurquitzen dan iracaste ta lecucotazuna, beneric ezpalego ere, bera bacarric asco daná, probatzeco, confesatzeco obligacioa; non Salbatzalleac, illen artetic biztu ezquero, apostoluai bere elyzaren governu<sup>26</sup> oneraco bear ziran iracasteac ematen zebillela, esan zien: “paquea izan dedilla zuecquin: nic biraltzen zaituet mundutic escubide berbera ta berdiñ berdiñarequin ceñarequin nere Aytac biraldu ninduen ni lurraren gañera: orduan aicea-eman zien esanaz, artu ezazute Espiritu santua; araco nortzuen barcatzen dieztezuten becatuac, barcatuac izango zaiezte, ta araco, nortzuen guelditzen dieztezutenac, &.<sup>o</sup>”:

[4] Itz oioc berberoc dira, Obispoac esaten dituanac sacerdoteen ordentzean, ematen dienean absolbitzeco escubidea ta eciñ asmatu ta esan ere liteque itz acabatuago ta erabaquiagoric, gomendatzeco confesioaren obligacio ta premia.

Testimonio onetan cimendaturic, eranzuten diet, imposible<sup>27</sup> izango litzaqueala barcatzea becatuac guizon batec, ayec lenengo ezagutu bague, ta eciñ ezagutu ahalco liraqueala, azalduac eta declaratuac<sup>28</sup> izan bague, declaracio ceñari deitzen diogun confesioa. Bacar bacarric bada Jaungoicoa da, guizonen biotzac barrendu ta ezagutzen dituan-á; bacarric berac ezagutu ahal dezaque becatari baten damu benazco-cinezco-tolesbagea; ta ala, J[esu] Christo Jaungoico ta guizon eguiazcoac etzeucan premiariac enzuteco confesio, ez Madalenaren, ez Samarit[anare]n, ez besteren-ic. Baña bere apostolu ta sacerdote animen cargu-dunac, iduqui bear dute becatu banan-banango confesioaren ezauera argui bat; “bada bestela, Trento<sup>29</sup> Batzarre Santuac<sup>30</sup>, arrazoiñ oietan cimendaturic dionez, eciñ ahalco luquete eguin juicioric becatari damutuen estaduaren gañean; eta medicu becela ezagutu eritazunaren nolacotazuna, urreratutzeco dagoquion erre-medioa; ez eta juez becela ongui beguiratu becatuaren piñutazuna, emateco dagoquion moduco sentencia zuzena, ta berdindutzeco berarequiñ penaren neurria, ceña gucia, dionez, eciñ ahalco luquete eguin gauzaren ezauera bague, baldin ain bacarric declaratuco balitzaiezquete generalean edo batuca, ta ez particularean edo bat banaca”. Testimonio, edo, esan dedan evangelioa[re]n capituluco esangay au azaltzeco, jaquitunbatec, Alcuinoc, batzarre au baño guizaldi ascoz lenago, esan zuan: “¿cer gauza da ascaturzen duan-á escubide sacerdotezcoac, baldin lenaz beguiratzen ezpaditu, lotua dagoanaren locarriac? medicuac eciñ ahálco dute sendatu, baldin gaitsoac aguertzen ezpadituzte beren zauriac: ¿baldin gorputzeco zauriac escatzen badute medicu bat, ceimbat gueyago premia izango dute medicu espirituco baten consejuena biotzeco zauriac?” Hau bera esaten dute guizaldi gucietaco Eracusle ta Guraso santuac, guchi gora bera itzqueta berdiñ berdiñacquin, probatzeco, Christoc ipiñi zuan, ta christau artean beti usatu dan, esandaco confesatzeco moduaren obligacioa ta premia.

2.<sup>a</sup> “Eztala iracurtzen, diote berriro, becatuac banaca confesatzeco obligaci[on]c, Inocencio 3.<sup>o</sup>, icen onetaco Aya<sup>31</sup> S[antu]ac ipiñi arteraño”.

Guezurra ta abarra da au ere, dariena, gende emeac engañatzeco, ta obeto berena eguiteco, desordenu gucietan<sup>32</sup>; ceren, guc bezain ondo daquite, cen, erligioco punturen baten gañean jaiquitzen diran ezdabaidac-galdeac-eta leyac erabaquitzeco, jaquin ta jarraitu bear dirala, San Agustinec iracatzi zituan erregla oiec:

1.<sup>o</sup> Dio, oieztan eroqueria bat dala a-trebe-tzea<sup>33</sup> leyan, Eleyza guciac eguiten duaná, ea eguin bear ote danen ganean.

2.<sup>o</sup> Dio, Eleyza guciac eguiten duaná, ta ez, eleyzaguizonac batzarren batean ipiña, ezpada, betibeti eracatzia eta gordea, lecu gucietan usatua izandu daná, “quod semper, quod ab om[n]ibus, quod ubique”, au iduqui bear dala, etorritacoa becela, jaincozco edo apostoluzco doctrina[re]n escuraematetic.

[5] Erreguela cimenduzco, artacotzat Theologo ta Canonista jaquitun guciac ezaguturic dauzcaten, oien odoren, arrazoe zentzun onecoac sinisteracitzen du, berritazun bat eciñ sartu litequeala gende gucien artean, ayetatic batzuc<sup>34</sup> ari contraesan bague; bada, alacoren bat guertatu danean, esperenciac eracutzi du, bereala iratzarri dirala leyac-galde-ta eranzunac<sup>35</sup>, bai fededunen, ta bai animen arzaian artean: guerra dembor[a]n legue berri bat sartu nai izaten danian becela.

Fedeac ere iracazten du, Espiritu santuac aguindu diola bere lagun-eguitea Elizari, igues, ta useguin ez dezan eguiac iñoiz, ta artu eztidin heregiaren sinis-quera guezurrezcoa fedearen abé ta cimendu irme sendo onetan: esperenciac<sup>36</sup> ere agueracitzen du, munduco elyza guciac, eguzquiaren sortualdetic sartualdera-ñoacoac, beti egon ta izan dirala a-corde batecoac-erabaqui batecoac-itiz batecoac, dotrinaco puntu onetan:

elyza ayetatic batzuc<sup>37</sup> aldendu baciran ere, elyza-batazun-ta fede gucieracotic puntu batzutan, baña etzan inoiz icusi aldendu zirala, becatu banan banango confesio belarricoaren premiaren dotriña puntutic, gorde zan ayen artean inoiz ere ausi bague mandamentu ta doctrina, apostoluac danic artutaco au; ta erromaco elyzaren batazun ta fede gure guciaquicotic urratuac egon arren, ala ere, eraman zuten euracquin legue baten beguiracune on ta gordetzen leyal beti betico bat, legue ceñari, ezta iracurtzen iñore eguin diola contraric Lutero daño, ta Llorente deitzen zan<sup>38</sup> herege españatar escomulgatua daño:

armenioac, etiopeac, cophtoac, griegoac, guciguciac dira alde onetan sinis-quera batecoac Erromaco elyzarequin, ta ala, eciñ artu zezaqueten doctrina au Inocencio 3.<sup>en</sup>, icen onetaco Ayta santuagandic, ceren au jayo baño urte ascoz lenagotic zeodeten gende ayec aldenduric gure elyzatic, baña beti siniscor ta sendo confesioco puntuan.

¿cer berritazun, uste dute bada heregeac, sartu zuala Inocencio 3.<sup>ac</sup> eliza santuan, confesioco puntuan? Ona emen eguia bat, inoizco demboran ucatu eciño duten-á, baldin ibili nai ezpadute beti guezur-etan: nola confesatzeco mandamentu au, Jaungoico berac emana dan, cumplitu bear da noizbait, batez ere, eriotzaco peliburuan; ta lance onetan ezquinenean ere, dirudi cen, mandamentu au eman zuanean, izan zuala intencio ta borondate, confesa guindecin asco aldiz, ceren sarri confesatzetic ontazun asco sortutzen diran; ta ala, eliza santuac iduqui du beti ere puntu onez contú, ta aguindu du desberdiñ, demborren desberdiñtazunen eran, noiz eta ceimbatetan bear degun, eriotzaco ordu edo peliburuan ez egon-agatic ere, confesatú.

Lenago apostoluen demboran, ta oraiñago apostoluac illez gueroz ere, lenbici berri artan, ain zan devocioa andi ta beró, cen, egunoro gorputz santua artzen bai zuten, eta artaracotzat, becuric zutenac, egunoro confesatz[e]n ziran; baña nola guero ondoan, devocioa<sup>39</sup> otzitutzen asi bai zan, aguindu zuan Fabiano ayta santuac, sarriago izango ezpazan ere, urtean iru pascoetan, confesaturic, bazcoz-mendecoztez-ta eguberriz, gorputz santua artu guenezala;

[6] Ta azquenic, ain otzitu ta itzali zan devocioa, non, Inocencio 3.<sup>en</sup> icen onetaco ayta santuac, epai bat emateco puntu oni, bildu zituan mundu guctic bai guchienez laureun Obispo ta zortzireun ta gueyago<sup>40</sup> Theologo jaquitunenac; eta ayecquin batzarre ta aijuntamentu<sup>41</sup> eguinic, (ez confesioa lenagotic ipiña ipiñtze-co, ezpada ceimbat aldiz guchienez confesatu bear zan erreguela neurrico bat ipiñtze-co), aguindu bearra izandu zuan, aurreracoan, urtean beñ bederic confesa guindecilla, ta artu comunio ta gorputz santua, bazco garicim-acoz.

Esan dezagun bada herege gucien contra, cen, esandaco arrazoe ain aguriac asco izanic, oitura bacarra, eleyza santu gucian beti usatu dan-á, asco izango litzaqueala agueracitzeco confesio belarricoaren premia, onen gañean Letrango ta

Trentoco batzarreac ecer erabaqui ezpalute ere. Azquenic, 3.<sup>o</sup> diote, confesioa dala concienzien<sup>42</sup> tormentua, uztarri pixu andicoa, ta ala &<sup>a</sup>.

3.<sup>a</sup> “Eztala tormentatu bear iñor, diote azquenic, confesioaren uztarri pixu andicoarequin”.

Guezurra ta abarra da au ere, dariena, intencio galduz beteric, Jjesu Christo-  
rjen erligioa mundutic quentzeco, animac inf[ernu]ra botatzeco. ceren, eguia da, uztarri pixu andico bat irudico litzaqueala confesioa, becatuac aguertze-an dagoan lotzagatic, baldin pixueza ta ariña eguingo ezpalitza, sacramentu onetara bear becela urreratzen diranac, absolucioaren bitartez, artzen dituzten ondore ta ongarri andiac-gatic; ta ala, gaiztaqueria bat dá, deitzea confesioari concienzien tormentua, dio Trentoco batzarre santuac, sesi. 14. c. 5.

Ala bada, aitortuten ditugunean becatuac, belaunicatuac egonaz sacerdotearen oñetan, burua desestalduric, aurpequia lurrera macurturic, escuac ipiñiric eta cerura zuzenduric, señaile oiequin agueracitzen degu gure humilltazuna ta sacramentuaren birtutea; ta lotza guchi bat sufritu arren, ñnolaco poza eztegu artzen guero absolucioa-gatic?

Eztago guizonezco bicitzan, gauza gozoago ta ongarriagoric adisquide eguiazco bat baño, nori aguertu ahál izan libertadearequin, dauzczagun eguinbideac-premiac-penac, eta ez jaquiñez edo beste moduz eguindaco useguiteac, zuzendu gaitzan-socorri gaitzan-consola, gaitzan, eta jaquitun eguin gaitzan eldutzeco salbacioco ichasbaster segurura: bada espirituzco bicitzan, adisquide<sup>43</sup> ori da confesorea, cereguin oiec berberoc eguiten dituaná gurequin confesioan.

Iñoiz ere etzuten ezagutuco asco guizonec ongarri ain andi au, baldin egondo ezpalira premiatuac confesatze-rá; ceren guizona, asco bildurtzen da icuste-an bere burua, ala nolacoa dan; baldin noizbait sayatzen bada ezagutzen bere burua, izan oi da dembora labur batez, ta modu ain azaleco batez, non da, laster aázutuzten zaion, nor dan; guchitan artzen ditu beretzat, entzuten edo iracurtzen dituan eguiac, baña mella andi bat eguiten dioe, adiquide batec esaten diozcanean.

[7] Orregatic, inoiz Jjesu] Christoc eta Elyza santuac aguindu ezpaligute ere confesioa, christau, bearequin nai luquetenac cintzoró beren salbacio-an, billatu bear luquete consejari jaquitun ta leyal bat, iracatzi daguietena; nola ezagutu beren animen estadua, nola garbitu beren becatuac eguinaz penitenciaco frutu diñac, nola gorde buruac jausqueraberri-tatic, aurreratuz birtute-an: iah, cer laguntazun ta ventaja ain indar andicoac atera litezquean, baldin aguertuco bali-zaió biotz-barrumbean!

Ucatu eciñ liteque bada azquenic, confesioa, concienziataco tormentua ta uztarri pixu andicoa izatetic urruti, contrara dala chit erazcoa erripublicoaren<sup>44</sup> oneraco, ta guizonen alcarren arteco batutazun-eraco; ceren confesioac gueldiracitzen<sup>45</sup> du pasio ta griña charren indarra, ta pecatzeco libertadea, lotsaren mugariarequin: baña, quenduco balitzaioque fregu au guizonen maliciari, ¿ceimbat modutaco becatu itzillicoen ugoideac ez luque ondutuco mundua? Ta lizunduric guizonac pecatzeco oiturarequin, ez liraque lotzatuco eguite-az aguirian gaizta-

queriaric caltegarrienac errientzat: ¿cer cabura ez litzaque elduco orduan liberta-dea? ¿ta norc iduqui ahalco lituzque seguru bere ondazunac eta bicitza? fin (eta *errubrika*)<sup>46</sup>.

## 5. TESTUA

### Plática 1.ª sobre Religion natural

#### Introd[uccio]n

N: Erriligioa, eusqueraz deitzen da ala, ceren dan erri ligitoa-leguecoa-edo naturalezaco leguearen eracoa; ceren erri edo guizonac erribatutzen eta lotutzen dituan legueacquin Jaungoicoarentzat, bera serbitzeco. Erriligioa, baquidaró edo zabalean adituric, da eguitada bat, ceñareq[ui]n munduaren eguillea amatz[e]n dan onore jaincozcoa[ui]n; edo S[an]to Thomas escoletaco Maissuareq[ui]n esateco, da birtute bat, ceñarequin ematen zaion Jaincoari agureguite, zor zaiona. Erligio natula da, argui naturalequin ezagutzen dan-á, ta naturaleza bertan cimendatzen dan-á. Erligio naturalezagañecoa da, aráco, naturazgoitico arguiare-q[ui]n, au da, Jaungoicoaren itzarequin ezagutzen dan-á. Gauza oiec alcarren ondoren azaltzeco, aguereracico det puntu bacar onetan, esanaz:

1.º artu bear dala erriligioen bat, edo Jaungoicoa izan bear dala amatua ta onrratua, bai biotzbarruan, bai campoan, bai aguirian:

2.º criaturen accio guciac eztirala Jaunaren guztoco, batzuc izanic beren izatez onac, beste batzuc charrác:

3.º erriligio naturaleco obrac azalduric, aguereracico det, au eztala asco, ta orregatic premiazpremiaczcoa dala errebelacioa: ta onela pausu berezberezcocquin juango naiz azaltzera erriligio cerutic aguertua<sup>1</sup>.

1.º Aguereraci dezagun puntu onen anditazuna. Guizonac<sup>2</sup> Jaungoicoari zor ta eman bear dion-á dago batez ere, adoracioan, amodioan, esquerrac ematean, oracioan, ta obé-díá-encian: eta gauza oiec gucioc osóbete bear ditugu, aren anditazunaren borondatea eguiteco.

1.º Jaungoicoac<sup>3</sup> izan bear du adoratua: ceren, adoracioa da, anditazun nagusiac guganaco ta criatura guciacanaco daucan jabetazunaren confesioa; ta eguiaz aitortu ta ezagutu bear da aren guganaco ta criatura guciacganaco<sup>4</sup> jabetazun au, bada da eguiaz ta benaz, ecerecetic atera zuan mundu onen jabe ta jaun.

2.º izan bear du amatua: ceren, arrazoe zentzun onecoac esaten du, hura izan bear dala amatua, ona ta amagarria daná; ta eguiaz Jaungoicoa da chit ona ta amore guciaren diña, berequin dauzcalaco onoitazun ta perfeccio guciac.

3.º esquerric asco eman bear zaizca, dalaco onguillea.

4.<sup>o</sup> izan bear du erregutua: ceren, nola eguin dizquigun mesede ta onic asco, ta eguin ahál ditzaquequigun egunoró, arrazoe ta legueac dacar erregutzea guc berari, eguinaz humill humillic oracio.

5.<sup>o</sup> izan bear du obeditua: ceren dan chit ahálduna ta dembora berean chit zuzena; ta orregatic, ecercho ere eciñ aguindu ahál daguiquegu, arrazoearen eraco eztañic.

2.<sup>o</sup> Ezaguteracitzeco puntu onen eguia<sup>5</sup> balioa, diot, gauza ciurciurra dala, guizonac dirala jayoac guiza-arteracó.

[2] Gauza jaquiña da, guizonac, alcarren artean ta alcarren oneraco, dirala lotuac legue ascorequin, ta bear dutela lagundu alcarri, beren cereguin, oficio-ta serbitzuequin<sup>6</sup>, onetara premiatzen dituztelaco legue-catea, ta locarri oiec.

1.<sup>a</sup> da amodio ta borondatearen inclinacio bat, berez daucana, ceñarequin macurtzen dan, ontzat<sup>7</sup> dauzcan beste guizon-etara;

2.<sup>a</sup> da norberaren ongarria, ceñ artzen duan bacoitzac, alcarren arteco batutazun-juan etorri-ta tratamentutic;

3.<sup>a</sup> da esquerrac eman bearra ayei, nortzuec-gandic artu dituan on eta mesedeac, animaco ta gorputzecoac;

4.<sup>a</sup> da bildurra, bada edoceñec bildur izan bear du, guizonac eztaucatenean batutazunic, alcarri char asco ecarri diozaquetela.

Orañ bada, legue ta locarri oiec, ceñtzeuc, munduco gucien bai ta naitazunez, batutzen ta lotutzen dituzten guizonac euren artean, estuago ta indartsuago batu ta lotu bear dituzte guizonac Jaungoicoarequin:

bai amodioaren aldetic; ceren izanic amagarritazun ta ontazun guciaren iturburua, eguiac beragana, piñu guciarequin becela, macurtu bear da guizonezco borondatea; ta biotzeco indar ta gogo beroagoarequin izan bear du amatua;

bai ongarriaren aldetic; ceren gayonago da urreratzea Jaungoicoagana, guizonacana baño;

bai esquerren aldetic; ceren izanic doañen chit emallea, ondoren esquerric asco eman bear zaizca betibeti;

bai bildurraren aldetic; ceren aserraturic, char gueyago eguin ditzaquequigu, guizonac baño.

Ala bada, legue-catea-ta locarri, guizonac euren artean batutzen ta lotutzen dituzten oiec, ascoz gueyago batu ta lotu bear dituzte guizonac Jaungoicoarequin: beraz artu bear du<sup>8</sup> norberac erriligioa<sup>9</sup>, edo Jaungoicoa izan bear da amatua &<sup>a</sup> arriba.

3.<sup>o</sup> Icusteco ere gueyago puntu onen indarra, berriz ere diot, Jaungoicoa, mundua eguiñaz, aguereraci zitzatela guizonai.

Eguiaz, bere dagoquotazunac, au da, adiera, jaquinduria, ontazuna, guciáháltazuná, argueguiten dúte mundu onetan;

batetic autortu zien ugariro adimentua, bera munduco obratan ezagutzeco, gay-zolizoli-ta zintzoa daná;

bestetic eman zien adiera, dagoquera oyec nai ta nai ez aitortu ta ezagutu baño besteric eciñ dezaqueaná;

Orañ bada, ¿cer asmurequin Jaungoicoa aguereracico zitzaieten guizonai, cer uste ta fiñeraco emango zien adimentuco zentzunac ceñacquin ahál izan dezaten ezagutu bera chit erraz ta costu guchira, cer fiñetaraco, diot, baldin nai izan ezpalu guizonac amatu ta adoratu zezaten bera, bai biotzbarrutic, bai campotic<sup>10</sup>, eta bai aguirri aguirian gende gucien aurretic?

[3] beraz guizonac daode beartuac ezagutzera Jaungoicoa munduco obratan; daode premiatuac ematera berari gloria ta onorea, bere esandaco dagoquotazunaz miraritzera, ta beraren azpico dirala aitortutzera; bear dute gorde gogoa beraganaco beti gomutari, eguinaz bicitza bat bere borondate santuaren eracoo, euren pensamentu-esan-eguin gucietan:

beraz &.<sup>a</sup> arriba.

4.º Osobetetzeco puntu onen ontazuna, diot gueyago, siniste au ere dato-rrela munduco gende gucien bai ta naitazun-etic.

Eguiaz, inoizco demboran etzan egondu erriric, ez sinisgorrac icentatu deza-quete bat ere, erriligioren bat artu etzuanic;

genderic batere ezta izan ain sorra, nonda, Jaungoicoren bat, guezurrezcoo izan arren ere, agurtu ez duanic<sup>11</sup>.

Orañ, bai ta naitazun arec iduqui lezaque etorrera naturaleza bacarretic eta arrazoe zuzenetic; ceren, edo jayotzen da naturaleza ta arrazoe zuzenetic, edo guticietatic, edo aciera char-etic: ala da bada eguia<sup>12</sup> eztala jayotzen, ez guticietatic, ez acieratatic; ez guticietatic, bada, jaunaganaco agurtazun arec contra-esan ta eguiten die, fregua-Urquia-ta brida ezarten die, guticiai, ez eta aciera char-etatic, bada edoceiñ ere gauz<sup>13</sup>, guticiai fregua ta urca ezarten dien-áa, eciñ jayo liteque aciera char-etatic.

Ceren aciera charrac, edo obeto esateco, preocupacio, eusqueraz burutacioac, argalago dira, guticiac eta araguiguetazunac baño ere; burutacioac sortu ditzaquete guizarlean iritzi ta opinioac, baña ez, guticia ta gurariac freguac ezarte-co moducoac, bada guizona<sup>14</sup>, izanic chit macurra gaiztaqueri ta guticietara, eztú artzen inoiz ere gogoric ayec ecitzeco, arrazoeac acullatua ezpada onetara.

Onez gañera, jaunari agureguitau da gende guciaquicoa, burutacioac baña eztira guciaquicoac, beraz agur au ezta burut[acioe]n humea; ¿ta milla bider argüitua-esamenatua<sup>15</sup>-ta aitortua izandu dan ain pixu andico puntu onetan, norc esango du, gende guciac, erri guci[a]c filosofho guciac izandu dirala, burutacioac arrapatuac-engañatuac-itxhutuac, adimentu-centzun-cordebaguecoac?

beraz munduco errigende gucien bai ta naitazun gogo bateco au, jayotzen da arrazoe zuzenetic; eta ondorea atera bear degu esanaz: beraz erriligioac<sup>16</sup> eztacarella bere etorrera Erregue-Aguintari-Buruen politicatic, ezpada arrazoe zuzenetic, izan[i]c ucaeciña, Jaungoico arrazoearen eguilleac castigatzen ta castigatuco dituala erriligioaren burlaguilleac.

5.º Ucatu eciñ liteque bada, N, egungo sinisgorrac<sup>17</sup>, noiz eta erriligioaren contra aimbat arricada arró-jótzen ta botatzen dituztenian<sup>18</sup>, ta hurá lurjotzeco aimbat engañuzco ta deabruzco machinada asmatzen ta ateratzen dituztenean, euren buruac guizonzeco casta guciaren etšay dirala ta izango ere bai, adierazten dutela.

¿Ceimbat gende basotarren asarre-moldacaitz-eta gogortazun, etzuan azpitu-moldatu-ta bigundu erriligioac<sup>19</sup>?

[4] ¿ez ote zuten Legueguille guciac<sup>20</sup>, Pythagoraséc, Platonec, Zaleucoc, Solonec, Lycurgoc, ta Chinaco, Indiaco, Igitoco-ac, diot, ez ote zuten eguin erriligioaren<sup>21</sup> usadio, ecarteco beren legueai nausitazuna? bada esateraco: Licurgo legueguilleac, Lacedemonitarrai legueren bat eman nai zienean, lendanic joaten zan Delphos deitzen zan Beotiaco errira, non zegoan Apolo jainco guezurrezcoaren Temploa, ta irudituz guezurrez an icasi zuala, Apoloren borondatea zaná legue alaco ta onelaco ipiñtzea, jaincotazunaren itzalaz au sinisteraciric, areracitzen zien leguea, ceren bazequian etzutela artuco, jaincotazunaren icenean baño bestela: Orobat, Minos Cretaco Legueguilleac, Erritarrai legueren bat ipiñi nai zienean, lenengo igo oi zuan Dicten deitzen zan Mendi batera, irudituz gendeai, andic zecarquietela jaincotazunen aldetic leguea.

Oiec gucioc esperenciaz zequitzen<sup>22</sup>, bacarric jaincotazuna edo erriligioa dala, legueai indarra ta balioa emateco cimendu sendoa;

iritzi batecoac ziran, errietaco legue bacarrac, gendeac etšayetatic gordetzeco-gaizqui eguitetic euquitzeco-paquean iduquitz[e]lco prestu eztirala.

Erriligioa bague, oitura-tán zuzentazuna de-ús, osotazun-garbitazun-prestatuzunic bat ere ez;

tat, at baña<sup>23</sup>, cantatzen duan becela Horacioc, ta aren ondoren cantatu zuten jaquitun guciac esan comun au, essanaz: “¿alperricaco legueac cer oitura onic bague balio dute?” eranzun bear da; de-ús balio dute.

Erriligio bague, guizarteco armoniac-errietaco paqueac-erreñuetaco<sup>24</sup> seguridadeac lur-jotzen dú, ceintzuec baño gauza ederragoric, izanic ciertoa, eztala aurquitzen munduan, ondo bicitzeco, ta erreñuac iraunteco.

Erriligioco angura sagradua ceimbat aldiz movitua izandu dan, aimbat bider ondatzeco zorian, edo, ez ondatu bai ondatu ibili da Erriplicoaren<sup>25</sup> ontzia;

etšay-saltzalle-ta traidore dira bada jayoterrico, erriligioco echea lurrerabotatzeco lanean dabilltzanac.

Legue guizonzecoac, guertaera gucien-circustancia gucien-genio gucien erara eciñ etorri litezquete;



Legue guizonezcoac, zequenen contra-biotzgorrecoen contra-lausengari laban<sup>26</sup> contra, etzarri<sup>27</sup> batere penaric; ez ere zuten aguinu bat ere sariric, ordaiñ emateco araco persona, gurasoac-anaco biotzbiguneco, lagun urrecoacganaco adisquide, beartsu esquecoac-ganaco onguille diranai, ta cereguin oietan cintzo cintzo bear-eguiten dutenai: Ta alá, erriligio bague, ô, ceimbat cereguiñ ta oneguin despreciatuco liraquean<sup>28</sup>, guizarteco zorioneraco asco laguntzen duten-ac!

[5] Legue guizonezcoac, onez gañera, persona bacoy-batarrac ezitzeco berdiñ izan arren; guchienez, andiqui-aguintari-buruac, ecitzeco, ez liraque ascoco<sup>29</sup>; gordeac izateco, indarra ta nausitazuna ecarri arren ere ayen-gandic. ¿Ta ala: ¿ceimbat gaizqui-negargarri-ta ondabide, ez lieque ecarrico erriai, baldin erriligioac eragotzico ezpalie?

Ala bada, calteguille-biotzgor<sup>30</sup>-izurripestec dira guizon, erriligioco locarria, illcorrentzat ain salbagarria, urratu naiz dabilltzan-ác, euren burla-engañu-ta liburu galgariac-quin, ceñ zabaldu dituzten Españatic:

Ala uste izan zuten, guizaldi gucietan, Philosophoric zoli-zoli ta jaquitunac: “quenduric santidadea ta erriligioa, dio Tulio, ondoren dator bicitzaco t-urbacioa ta nahazte andiandia”, onetan adieraciaz, erligioa dala errientzat eta guizarteraco osasungarria, biotzgorra berriz caltegarria<sup>31</sup>:

Au bera iracazten dute Philosopho berri oraiñogetatic icen andicoenac ere.

## 6. TESTUA

### Platica 2.<sup>a</sup>1

 1928: Casa *Parabola* (Hab.: Bartolomé Ascasibar).

**Pauloena (A)**

- 1864: Casa *Pauloena* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Pauloena* (Hab.: Filiberto Bengoa).

**Posada (U)**

- 1625: Casa *Posada* (CHG).  
 1864: Casa *Posada* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Posada* Hab.: Juan Macazaga).  
 1974: Casa *Posadakua* (CG. Lin.).

**Sagasta (A)**

- 1567: Casa y apell. *Sagasta* (EAU, p. 141).  
 1625: Casa *Sagasta* (CHG).  
 1639: Apell. *Sagasta* (EAU, p. 162).  
 1864: Casa *Sagasta* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Sagasta* (Hab.: Gregorio Legorburu).  
 1974: Casa *Sagasta* (Escudo) (CG. Lin.).  
 (Es el único caserío que radica en la vertiente del río Ibaizabal, hacia Elorrio).

**Sagastiguchia (E)**

- 1405: Apell. Lope de *Sagastiguchia* (J.C. Guerra, Ob. cit., p. 537).  
 1448: Apell. Juan López de *Sagastiguchia* (EAU, p. 42).  
 1559: Apell. *Sagastiguchia* (EAU, p. 171).  
 1625: Casa *Sagastiguchia* (CHG).  
 1639: Apell. *Sagastiguchia* (EAU, p. 161).  
 1864: Casa *Sagastiguchia* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Sagastiguchia* (Hab.: Eusebio Eguizabal).  
 1974: Casa *Sagastixu* (CG. Lin.).

**San Antoniokua (E)**

- 1846: Casa *San Antonio* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *San Antoniocoa* (Hab.: Manuel Aguirrezabal).  
 1974: Casa *San Antonio* (CG. Lin.).  
 (Casa junto a la ermita de San Antonio. La primera noticia de esta ermita se remonta a 1699. EAU, p. 72).

**San Juan (E)**

- 1864: Casa *San Juan-chiqui* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *San Juan* (Hab.: Lorenzo Iturricastillo).  
 1974: Casa *San Juan* (CG. Lin.).

**Santikua (U)**

- 1864: Casa *Santicúa* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Santicua* (Hab.: Ciriano Elorza).  
 1974: Casa *Santikua* (CG. Lin.).  
 (Junto a la ermita de los Santos Mártires. San Emeterio y San Celedonio. Con imágenes de estilo gótico-popular. EAU, pp. 92 y 97).

**San Vicente (A)**

- 1864: Casa *San Vicente* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *San Vicente* (Hab.: Pedro Aguirre).  
 (En Partegoitia. Ermita, de donde toma su nombre el caserío, existente en 1862. EAU, p. 89). Andra Mari renacentista (EAU, pp. 104/105 y 108).

**Sakon-etxea (A)**

- 1639: Apell. Martín de Galarraga *Sacona* (EAU, p. 161).  
 1928: Casa *Sacon echea* (Deshabitada, en el núcleo del barrio Anguiozar, Propiedad de Francisco Gallastegui).

**Sostoa azpikua (E)**

- 1603: Apell. Rafael de *Sostoa* y Ordoñez (EAU, p. 141).  
 1625: Casa *Sostoa azpicoa* (CHG).  
 1639: Apell. *Sostoa* (EAU, pp. 161/162).  
 1864: Casa *Sostoas* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Sostoa abajo* (Hab.: Vicente Gorrochategui).  
 1974: Casa *Zesto azpi* (CG. Lin.).

**Sostoa gañekua (E)**

- 1625: Casa *Sostoa garaicoa* (CHG).  
 1864: Casa *Sostoas* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Sostoa arriba* (Hab.: Pedro Tellería).  
 1974: Casa *Zesto gain* (CG. Lin.).

**Sostoa (E)**

- 1625: Casa *Sostoa* (CHG).
- 1864: Casa *Sostoas* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Sostoa abajo albergue*.

**Sustraiza (A)**

- 1639: Apell. Francisco de *Sustaiza* (EAU, p. 161).
- 1864: Casa *Sustraiza* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Sustraiza* (Hab.: Agustín Ascarraga).

**Torre o Torrekua (E)**

- Caserío con base ojival y planta superior renacentista fechada en 1564 (EAU, p. 117). Lleva un escudo donde se lee “Abridio”.
- 1974: Casa *Torre bekoa* y *Torre goikoa* (Escudo) (CG. Lin.).

**Txaingoa (A)**

- 1864: Casa *Chaingóa* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Chaingoa* (Deshabitada. Propiedad de Antero Alberdi).

**Txaraka (E)**

- 1928: Casa *Characa* (Hab.: José Areitio).
- 1974: Casa *Txaraka* (Iribetituriaga) (CG. Lin.).

**Ubera**

- 1585: Barrio *Ubera* (EAU, p. 57).
  - 1639: Top. Valle de *Ubera* (EAU, p. 162).
  - 1698: Apell. *Ubera* (EAU, p. 174).
  - 1864: Barriada *Ubera* (Nomenclátor).
- Nota: En el barrio *Ubera* existe la parroquia de San Pablo cuyas noticias se remontan a 1625 (EAU, p. 90), con imagen renacentista de San Pedro (EAU, p. 114) y retablo mayor barroco (EAU, p. 118).

**Ubera guena**

- 1864: Casa *Ubera-goena* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Ubera goena* (Hab.: Ignacio Gallastegui).

**Udaiaga (E)**

- 1864: Casa *Udayaga* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Udayaga* (Hab.: Pablo Albistegui, Manuel Olabarria y Fco. Ugarte).
- 1974: Casa *Ureixa* (CG. Lin.).

**Udaiaga albergue (E)**

1928: Casa *Udayaga albergue* (Propiedad de Albistegui).

**Udalga (E)**

1625: Casa *Udalga* (CHG).

**Ugarte (A)**

- 1448: Apell. Juan de *Ugarte* (EAU, p. 43).  
 1662: Apell. *Ugarte* (EAU, p. 159).  
 1864: Casa *Ugarte* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Ugarte* (Hab.: Dionisio Sarrao y Teodoro Valenciaga).  
 1974: Casa *Ugarte* (CG. Lin.).

**Urbedeinkatukua (E)**

- 1864: Casa *Urbedeincatucúa* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Urbedeincatucoa* (Hab.: Juan José Ansoategui).  
 1974: “*Gurguriola* (Urbedeinkatu) Niri ahoz esan didatenez *Urdinola* (CG. Lin.).

**Urdingua (A)**

- 1864: Casa *Urdingoa* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Urdingoa* (Hab.: Ladislao Albistegui).  
 1974: Casa *Urdingoa* (CG. Lin.).

**Uriburu (E)**

- 1625: Casa *Uriburua* (CHG).  
 1662: Apell. *Uruburua* (EAU, p. 158).  
 1794: Casa *Uriburua*. Caserío incorporado a la calle San Roque (EAU, p. 44).  
 1974: Casa *Uruburu* (CG. Lin.).

**Urrejolaegi (U)**

- 1625: Casa *Urruxolaegui* (CHG. 2 casas).  
 1864: Casa *Urrejolaegui-erdicoa* (Nomenclátor).  
 1928: Casa *Urrejolaegui medio* (Hab.: José M.<sup>a</sup> Bolinaga y Paula Loidi).  
 1974: Casa *Urrejaldegi* (CG. Lin.).

**Urrejolaegi zaarra (U)**

- 1448: Apell. Fortuño de *Urruxolaegui* (EAU, p. 43).  
 1559: Apell. *Urrosolaegui* (EUA. p. 172).  
 1625: Casa *Urruxolaegui* (CHG. 2 casas).

- 1639: Apell. *Urragolaegui* (EAU, p. 161).
- 1662: Apell. *Urruxolaegui* (EAU, p. 159).
- 1864: Casa *Urrejolaegui-zar* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Urrejolaegui zarra* (Hab.: Evaristo Aranceta y Juan Cruz Aranceta).
- 1974: Casa *Urrejaldegi zarra* (CG. Lin.).

**Urrupain azpikua (U)**

- S. XIII: Casa *Urrupain*, linaje, antiguo de Mondragón, oriundo de la casa solar en Elgueta (J.C. Guerra, Ob. cit., p. 584).
- 1448: Apell. Martín y Juan de *Urrupain* (EAU, p. 42).
- 1567: Juan Ochoa de *Urrupain* fundó el mayorazgo de Urrupain (EAU, p. 144).
- 1583: Molino de *Urrupain* (en doc. del Archivo Municipal).
- 1864: Casa *Urrupain-azpicoa* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Urrupain abajo* (Hab.: Esteban Aranzabal y José Lascurain).
- 1974: Casa *Urrupain* (CG. Lin.).

**Urrupain gañekua (U)**

- 1864: Casa *Urrupain-goena* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Urrupain arriba* (Hab.: Juana Francisca Azcarate).
- 1974: Casa *Urrupain gañekua* (CG. Lin.).

**Urrupaiti (E)**

- 1625: Casa *Urrupaiti* (CHG).

**Zabale (E)**

- 1603: Apell. Fernando de *Zabala* (EAU, p. 144).
- 1625: Casa *Zavala* (CHG).
- 1639: Apell. M. de *Zavala* (síndico de Elgueta, EAU, p. 163).
- 1662: Apell. *Zavala* (EAU, p. 158).
- 1864: Casa *Zavale* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zabale* (Hab.: José Basauri).
- 1974: Casa *Zabale* (CG. Lin.).

**Zabale albergue (E)**

- 1928: Casa *Zabale albergue* (Propiedad del caserío Zabale).

**Zabaleta azpikua (A)**

- 1864: Casa *Zavaleta* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zabaleta abajo* (Hab.: Juan Agustín Alberdi).
- 1974: Casa *Zabaleta azpikoa* (CG. Lin.).

*Zabaleta*, Ermita San Bartolomé existente en 1862 (Véase EAU, pp. 81/83).

**Zabaleta gañekua (A)**

- 1864: Casa *Zavaleta* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zabaleta arriba* (Hab.: Martín Aranzabal y Severiano Aranzabal).
- 1974: Casa *Zabaleta gañekoa* (CG. Lin.).

**Zabarte (A)**

- 1448: Apell. Juan de *Zabarte* (EAU, p. 42).
- 1625: Casa *Cabarte* (CHG).
- 1639: Apell. *Zabarte* (EAU, p. 162).
- 1662: Apell. *Zabarte* (EAU, p. 158).
- 1864: Casa *Zavarte* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zabarte* (Hab.: Liborio Garmendia y Justa Laspiur Unamuno).
- 1974: Casa *Zabarte* (CG. Lin.).

**Zabarte (A)**

- 1928: Casa *Zabarte casilla* (Hab.: Luciano Mandiola).

**Zelaitxueta (A)**

- 1603: Apell. Juan de *Celayeta* (EAU, p. 135).
- 1864: Casa *Celaichueta* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Celaichueta* (Deshabitada).

**Zezeaga aundi (E)**

- 1448: Apell. Martín y Juan de *Zezeaga* (EAU, p. 43).
- 1559: Apell. *Ceceaga* y *Ceziaga* (EAU, p. 173).
- 1625: Casa *Ceceaga* (CHG. 2 casas).
- 1639: Apell. *Ceceaga* (EAU, p. 162).
- 1864: Casa *Ceceaga* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Ceceaga mayor* (Hab.: Juan Cruz Vergareche y Francisco Aranzabal).
- 1974: Casa *Sesiaga mayor* (CG. Lin.).

**Zezeaga txiki (E)**

- 1625: Casa *Ceceaga* (CHG. Señala 2 casas *Ceceaga*).
- 1928: Casa *Ceceaga menor* (Hab.: Miguel Uncetabarrenechea).
- 1974: Casa *Sesiaga menor* (CG. Lin.).

**Zuazketa (A)**

- 1652: Casa *Zuasqueta* (J.C. Guerra, *Ob. cit.*, p. 39).
- 1615: Apell. *Zuazqueta* (J.C. Guerra, *Ob. cit.*, p. 534).
- 1662: Apell. *Zuazqueta* (EAU, p. 159).
- 1864: Casa *Zuazqueta* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zuazqueta* (Hab.: Pedro Ojanguren).
- 1974: Casa *Zuazketa* (CG. Lin.).

**Zuloeta azpikua (A)**

- 1662: Apell. *Zuloeta* (EAU, p. 159).
- 1681: Apell. *Zuloeta* (EAU, pp. 117-144).
- 1864: Casa *Zuloeta-azpicoa* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zuloeta abajo* (Hab.: Andrés Ascasibar).
- 1974: Casa *Zulueta* (CG. Lin.).

**Zuloeta gañekua (A)**

- 1864: Casa *Zuloeta-gañecoa* (Nomenclátor).
- 1928: Casa *Zuloeta arriba* (Hab.: Gregorio Altube).
- 1974: Casa *Zulueta gañekoa* (CG. Lin.).





## EXOTOPONIMOEN EUSKAL FORMAZ

Donostia, 1991-XI-29

Ibon Sarasola

1.0. Gure artean aski hedaturik dagoen uste baten arabera, bi hautakizun daude kultur hitzen idazkerari dagokionez: bata Europako kultur hizkuntzena, hau da, frantsesarena, ingelesarena, alemanarena..., hitz horiek grekozko iturburuari dagokion eran idazten dituztenena, eta bestea espainol zarpailarena, kultur hitzak hitz arrunten ortografi sistemaren arabera ematen dituena. Euskaraz, gauzak behar bezala egitekotan, grekozko itxuraz eman beharko lirateke kultur hitzok. Hortaz, Euskaltzaindiak hobe zukeen, maileguzko hitz berriei buruzko erabakietan, frantsesaren, ingelesaren, alemanaren bidea hartu balu. Uste beretsuko beste hainbaten iritziz, Euskaltzaindiak ezinbestean makurtu behar izan zuen espainolaren mol-detara, gure kultur egoera eskas eta bada-ezpadakoak hartaraturik; beste hautakizuna, dudarik gabe hobe, errealismoz izan zen baztertua.

1.1. Uste hau erabat okerra da. Aski da Europako kultur hizkuntzen ortografia gaingiroki aztertzea kontuak erabat bestela direla ikusteko. Adibidez, hitz aski nazioarteko bat, espainieraz *fotografia* idazten dena hartzen badugu, ikusiko dugu *ph*-ak frantsesez, ingelesez eta alemanez soilik erabiltzen direla hain zuzen; hitz hori duten gainerako hizkuntza guztiak *f*-ez baliatzen baitira: *fotografie* idazten da txekeraz, *fotografi* danieraz, suedieraz eta norvegieraz, *fotografie* holanderaz, *fotografia* italieraz, *fotografia* polonieraz eta portugesez, *fotografie* errumanieraz, *fata-gráfiya* errusoz, *fotografija* serbo-kroazieraz, *fotograf* turkieraz; orobat *teléfono*, nahiz kasu honetan alemana ere gainerako hizkuntzetara lerratzen den *Telefon* idatziz. Halaber *teoría*, espainieraz, italieraz, portugesez, finlandieraz eta polonieraz horrela (azentuak gorabehera) idazten dena, *teori* idazten da danieraz, suedieraz, norvegieraz eta turkieraz, *teorija* serbo-kroazieraz, eta *teoriya* errusoz. Beste horrenbeste esan daiteke espainierazko *método* hitzaz: *metoda* idazten da txekeraz, errumanieraz eta polonieraz, *método* italieraz, *método* portugesez, *metode* norvegieraz, *mietod* errusieraz, *metod* serbo-kroazieraz, suedieraz eta turkieraz. *Th*-dunak frantsesez, alemanez, ingelesez eta holanderaz gertatzen dira soilik, eta kontuan hartu behar da, gainera, bi azkenotan *th* grafiak ohizkoak direla hitz

arruntetan (cf. hol. *thuis* 'etxean'). Ildo honetatik adierazgarria da ikustea nola idazten den *fisika* aztertzen ari garen hizkuntzetan: *fyzika* txekeraz, *fysik* danieraz, norvegieraz eta suedieraz, *fysikka* finlandieraz (baina kontuan har bedi, aipatu diren hizkuntza hauetan guztietan *y* grafia hitz arruntetan ere erabiltzen dela: txek. *kytice* 'lore sorta', dan. *byde* 'eskaintza', fin. *hyvä* 'ona' etab.), *physique* frantsesez, *Physik* alemanez, *physics* ingelesez, eta *fizikai* hungrieraz, *fisica* espainieraz, italieraz eta portugesez, *fizyka* polonieraz, *fizica* errumanieraz, *ffiseg* galesez, *fizika* serbo-kroazieraz eta errusieraz eta *fisik* turkieraz.

1.2. Uste dut milaren artean hautaturiko adibide hauek nahikoak direla baieztapen hauek egin ahal izateko:

a) Europako hizkuntzak, oro har, bi talde handitan bereizten dira: bata frantsesak, ingelesak eta alemanak osatzen dutena; bestea, gainerako hizkuntza guztiak hartzen dituena. Bigarren taldea, ortografia duela gutxi finkatu dutenek (cf. katalanezko *fotografia*, *telèfon*, *metode*, *teoria*, *fisica*, edo bretoierazko *fosfat*, *metodegezh* 'metodismoa', *teatr*<sup>1</sup>) edo ortografia zaharra eraberritzeko aukera izan duten hizkuntzek osatzen dute. Lehenengo, ortografia zaharra, dena delako arrazoiakgatik, oraingoz<sup>2</sup>, eraberritzeko aukera izan ez dutenak. Ez dago esan beharrik euskara, ortografia mende honetan finkatzeko aukera izan duten hizkuntzetakoa dela, eta hortaz Europako hizkuntza gehienen bidea dagokiola gureari kultur hitzen ortografiarako. Kontrara jokatzea zentzugabekeria litzateke; zentzugabekeria irrigarria gure kasuan.

b) Ez dago, European zehar kultur hitzak idazteko ortografi azpisis-tema berezirik. Badago, oro har, ortografia zaharrari eusten dioten hiru hizkuntzetan, nahiz eta horietan ere gorabehera nabarmenak dauden<sup>3</sup>, baina ez besteetan. Honekin ez dut esan nahi ortografia berria edo eraberritua duten hizkuntzetan maileguzko hitz berriek ez dituztela arazoak sortu. Baina badirudi, salbuespen apur batzuk gorabehera, hizkun-

<sup>1</sup> *Fotografia*, *telefono*, *metodo*, *teoria*, *fisika* bere baitako ahalbidez eratu ditu bretoierak.

<sup>2</sup> Alemana, eraberritze sakon bat —besteak beste etorki grekozko hitzetan *ph*, *th*, *rh*-ren ordez, *f*, *t*, *r* idaztea— burutzeko zorian egon zen 1956an: eraberritzerako eratu zen Errepublika Federaleko batzordeak 14 boto aldeko eta 3 aurkakoz onartu zuen erreforma eta Errepublika Demokratikokoak ere alde agertu ziren. Austriako batzordea, aldiz, 10 eta 10 gelditu zen, eta Suitzako ia erabat agertu zen aurka, batez ere eraberritzearen beste puntu bat —izenetako hasierako kontsonante larrien kentzea gomendatzen duena— ez zuelako inola ere onartzen. Horren ondorioz, Errepublika Federalean eraberritzaren aurkako gutxiengoak ekinaldi gogorra egin zuen bere jarreraren alde "Frankfurter Allgemeine Zeitung" egunkariaren eta Darmstadt-eko Hizkuntz eta Literatur Akademiaren botoaren bidez. Hortaz erreformak porrot egin zuen azkenean (ik. Peter von Polenz *Geschichte der deutschen Sprache* (Berlin 1970); portugesezko itzulpeneko (Lisboa 1973) 222h orr.).

<sup>3</sup> Adibidez, eredu grekozko latinezko *-izare* aditz amaiera, gaztelaniaz *-izar* eta errusieraz *-izirovat* dena, frantsesez *-iser*, alemanez *-isieren* eta ingelesez *-ise* edo *-ize* da.

tzok eskumenean zuten “material grafiko”az baliatu direla hitz berrion forma grafikoa taxutzerakoan. Host, egokitzeak gure *geologia*, *administrazio* edo *sexu*-ren mailakoak direla, gehienera jota ere. Esaterako, gorago-ko adibideez bestalde, italieraz *allegoria* idazten bada ez da jatorrizko latinezkoaren I bikoitza ordezkatzeko grafia hori hizkuntzan sartu zuelako. Hitzik arruntenetan erabiltzen zen II-az baliatu zen hizkuntza hor. Ohizko hitzetan horrelakorik ez dutenek, polonierak, adibidez, *alegoria* idazten dute. Ordainez, italieraren ohizko baliabide grafikoetan *ct* multzorik ez zegoenez, *elettronica* edo *astratto* bezalako idazkerak ikusten dira.

1.3. Ildo honetatik uler daiteke *v*-ren auzia, gure artean halako hautsa harrotu duena: aztertu ditudan europar hizkuntza guztietan kultur hitzetan *v*-a ematen bada, ohizko hitzetan ere ematen delako da, hots, portugesez, katalanez, frantsesez, italieraz, errumanieraz, bretoiez, galesez (*f*-ez idatzia!), ingelesez, holanderaz, alemanez, danieraz, norbegieraz, suedieraz, polonieraz, txekeraz, serbo-kroazieraz, errusieraz, hungrieraz, finlandieraz eta turkieraz *v*-a *fonema* bat delako (edo espainieraren kasuan, izan delako), ez inolako kultur grafia arazorengatik. Aisa froga daiteke hori, are frantsesak *adjectif*, *subjectif* eta abar idazteko inolako eragozpenik ez duela ikusiez gero. Hortaz, ez dago inolako arrazoirik euskal kultur hitzetan *v*-rik ager dadin, euskarak ez baitu izan inoiz, iragana ezagutzen dugun neurrian, fonema hortzezpainkari ahostunik. Antzeko zerbait esan daiteke *x*-ari buruz. Euskaltzale askok uste dutenaren kontra *x* grafia kultur hitzetan ez da orokorra Europako hizkuntzetan: italieraz bestalde, gutxienez danierak, norbegierak, polonierak, serbo-kroazierak eta errusoak, eta baita ere esperantoak eta, guganik gertuago bretoierak, *ks* grafia erabiltzen dute horrelakoetan: dan. *aksiom*, *aksial*, *eksklusiv*, *eksperimentel*, nor. *aksiom*, *eskport*, pol. *aksjomat*, *ekscelencja*, *ekskluziwny*, *eksperymentalny* (eta are *egzotizm*), s.-kr. *ekselencija*, *ekskluzivan* (eta are *egzaktan*, *egzistencija*), bret. *oksid*, *oksigen* etab. etab. Eta hain zuzen, galdetu nuenean errusieraz nolatan erabiltzen den *ks*-a kultur hitzetan, erantzuna hau izan zen: *x*-az beste gauza baterako baliatzen direlako. Izan ere, euskara da Europar hizkuntza bakarra *x*-ari bi hots-balio ematen dizkiona. Honekin, bestalde, bere tasun aipagarriena galdu du euskal ortografiak: hotsen eta letren arteko ambiguoetasunik eza irakurketa mailan<sup>4</sup>. Ez dakit, egia esan, zer irabazi dugun galera horren truk. Eta beza inork uler honenbestez *ks* grafia proposatzen ari naizenik euskararentzat. Bestalde, badira beste bideak aipatu berri dudan ambiguoetasuna hausteko. Esaterako, P. Fabrak katalanean egin zuena: *x* grafia kultur hitzentzat gorde nahi baitzuen, *ix* ezarri zuen berezko hitz bustientzat, hots, *això*, *caixa*, *deixar* etab.

<sup>4</sup> Nik neuk entzun ditut *aksola* bezalako gauzak Euskal Telebistako esatari baten ahoan.

2.0. Gaurko hautatu dudan gaiari hurbilagotik helduaz, aztertu ditudan hizkuntza guztietan bi sail bereiz daitezke geografi izenei dagokienez: bata literatur tradizioan, bertako nahiz kanpoko izan, aski ohizko gertatzen diren leku izenak osatzen dute; bestea erabat arrotz eta erabili-gabeak gertatzen direnak. Bigarrenak jatorrizko hizkuntzako ortografia berean ematen dira hizkuntza guztietan, gutxieneko egokitzeak gorabehera. Lehen sailekoak, berriz, hitz arruntetan edo kultur hitzetan erabiltzen den ortografi baliabide berez ematen dira. Hots, ez dago inongo hizkuntzetan ortografi sistema berezi bat, Europako herrialde eta hiriburu nagusiak, esaterako, idazteko. Horrela, frantsesez *espace* edo *esperance* idazten delako idazten da *Espagne*, eta ingelesez *space* idazten denez idazten da *Spain*<sup>5</sup>. Orobat, espainieraz *rey* idazten behar denez *Paraguay*, *Uruguay* aurkitzen ditugu, baina *rei* idazten den portugesez eta katalanez, *Paraguai* eta *Uruguai*. Era berean, italierazko *Marocco*-k *accordare* bezalakoetan hartzen du oin. Halaber *aksiom* idazten duen polonierak *Luksemburg* eta *Aleksandria* idazten ditu, eta *ekscelecja* bezala *Persja*<sup>6</sup>. Aurrekoen ildotik doa serbo-kroazierazko *Oksford*. *Physique* eta *appareil* idazten dituen frantsesak *Phyrgie* eta *Philippines* idazten du, *fysik* eta *apparat* idazten duen danierak, *Frygien* eta *Filippinene*, eta *fisica* eta *apparato* idazten duen italierak *Frigia* eta *Filippine*. *Antenna* idazten duen italerak *Ardenne* idazten du, eta orobat frantsesak (*antenne: Ardennes*), danierak (*antenne: Ardennerne*) edo errusierak, baina *antena* idazten duen polonierak *Ardeny* idazten du. Halaber, *s* ahoskabea *ss* grafiaz adierazten duten hizkuntzek idazten dute *Rossia* (err.), *Russia* (port., kat.), *Russie* (fr.), *Russia* (it), *Russien* (al.); gainerakoek *Rosia* (ukr.), *Rusia* (esp.), *Rusija* (s.-kr.). *Rosja* (pol.), *Rwsia* (gal.). Idazten dute. Eta abar eta abar.

Bi sailen arteko mugak ez daude askotan argi, eta, noski, aldatuz doaz hizkuntzaz hizkuntza. Nolanahi ere, eta salbuespenak salbuespen, badirudi goian adierazi dena dela legea. Eta lege horren esparruan higitu behar genuke guk ere kanpoko geografi izenak euskaraz ematerakoan.

2.1. Hortaz, Euskal Herriko toki izenak, orain, lehen ez bezala, *b-z* eta *k-z* ematen baditugu, badirudi ez dagoela arrazoirik beste horrenbeste ez egiteko euskal tradizioan erabili diren exotoponimoekin. Hots, aurreko mendeetako tradizioan *Vergara*, *Villabona* edo *Carranza* zirenak ortografia berriaren arabera *Bergara*, *Billabona*, *Karrantza* bihurtu badira, ez dago arrazoirik tradizio zaharrean *Valencia*, *Salamanca*, *Venezuela* idazten zirenak *Balentzia*, *Salamanka*, *Benezuela* ez idazteko. Izan ere, gerra aurrean hemengo izenen ortografia aldatu zenean bertakoak bezala kanpokoak

<sup>5</sup> Bestalde, esaterako, *espace*, *esperance* baina *spiral*, *stroboscope* idazten dituen frantsesean *Espagne* baina *Spire*, *Strasbourg*, *Stromboli* aurkitzen ditugu.

<sup>6</sup> *Aleksandria* idazten bada, eta ez *-drja* polonieraz *geografia*, *geometria* eta ez *-fja*, *trja* idazten delako da.

ere idazkera berrian emateko joera zabala gertatu zen. Gaur egun, euskara batuaren munduan, joera hori bertako izenei dagokienez indartu baina kanpokoei dagokienez ahuldu egin da. Joera bikoitz hori, gorago aipatu dudan uste okerrak ekarri duen mimetismo grafikoaren ondorio da. Hortaz, Euskaltzaindiak ahalegina egin behar luke gauzak bere onetara berriro ekartzen. Ez da hortik segitzen, noski, kanpoko geografi izen guztiak euskal grafiara egokitu behar direnik. Ildo honetatik, badugu alde zaureratik egiteko bat, zer hartzen den “gertuko”tzat eta zer “arrotz”tzat erabakitzea, alegia. Zer esanik ez, gure literatur tradizioaren azterketa zehatz bat dela bide horretatik eman behar genukeen lehen urratsa.

2.2. Dena dela, arazoa zabalagoa da. 1977an *Euskal Hiztegi Modernoa-n Egipto, Karthago* etab. proposatzen zirenean, proposamena koherentea zen kultur hitzentzat bertan ematen zenarekin. Baina Euskaltzaindiak maileguzko hitz berriei buruzko erabakiak eman zituenez gero, grafia horiek ez dute zentzurik, ez baitago hizkuntzarik, lehen adierazi dugunez, ohizko exotoponimoentzat ortografi sistema berezia erabiltzen duenik. Alde honetatik Elhuyar-en *Munduko leku-izenak* liburuko proposamenak, oro har, urrats bat aitzina dira. Baina Elhuyar-ekoen lanak badu nere ustez akats nagusi bat: erreferentzi puntutzat, espainieraz bestalde, frantsesa, ingelesa eta alemaniera hartzen direla. Hori ez zait egokia iruditzen, alde batetik gorago aipatu dudan hiru hizkuntzon ortografi egoera berezia eta gureaganik bestelakoa delako, eta bestetik mintzaira horien hots sistema aski arrotz gertatzen zaigulako hainbat puntutan, txistukarien arazoan edo hitz amaierako bokaleen kontuan, esaterako. Hortaz, komenigarria da oso hizkuntza gehiago aztertzea, eta orobat euskararen beraren izatasun fonologikoak gehiago kontuan hartzea. Adibidez, *burg*, *grad* bezalako amaierak —herskari ahostun batekin— guztiz arrotzak gertatzen zaizkio gure hizkuntzari, eta puntu horretan euskararen kide diren espainieraren, portuguesaren edo italianoaren eredu askozaz ere egokiagoa da. Ildo beretik, *esperantza* (eta ez *sp-*) idazten dugunez gero, *Estokolmo* (port. eta esp. *Estocolmo*, kat. *Estocolm*; cf. it. *Stoccolma*, *speranza* bezala) hobestekoa da, leku izen arrotz-tzat hartzen ez bada bederen. Orobat *Andalusia*, frantsesaren, ingelesaren eta alemanaren eredu soilari jarraitzearen ondoriozkoa, ez da batere egokia euskararentzat: irizpide horren arabera *Biskaia* (ing. *Biscay*, fr. *Biscaye*, al. *Biscaya*) idatzi beharko genuke.

2.3. Arazoak ez dira bukatzen grafia egokitze kontuekin. Askotan leku izena bera zein iturburuetatik hartu behar den da arazoa, batez ere espainieraz eta frantsesez jatorri desberdinetako formak edo aldaera desberdinak erabiltzen direnean, *Córcega / Corse* esaterako. Horrelakoetan arazoizkoa dirudi delako tokiaren berezko izenera hurbiltzea, eta alde horretatik *Korsika* egokia iruditzen zait. Baina irizpide nagusitzat, geografi

izenak gaur egun bertako hizkuntzan duen forma hartzea gehiegizkoa eta arriskutsua iruditzen zait. Esaterako, *Egunkaria*-n erabiltzen den *Beograd* ez zait egokia iruditzen. Hiri horren izena Europako hizkuntza guztietan, serbo-kroazieran eta eslobenieran izan ezik, latinetik (*Belogradum*) egokitu dute. Denetan, are mazedonieraz, *Belgrad(o)* izan da emaitza, eta hori da guri dagokigun bidea. Orobat esan daiteke gaurko italianoazko *Firenze*-z, jatorria latinezko *Florentia*-n duena. Hortaz, ez zaigu axola izan behar euskaldunoi izenak italieraz izan duen bilakaera, hori italiarren kontua baita. Orobat gaurko *Praha*, errusoz, alemanez, polonieraz eta abarrez *Prag(a)* dena. Labur bilduz, espainierazko eta frantsesezko formei euskal forma bera dagokienean ez dakit zer irabazten dugun jatortasunak haratago bilatzera abiatuz.

2.4. Aurreko puntuko arazoarekin aski lotua dagoen beste puntu bat hau da: zer egin geografi izen batek bi izen dituenean, bata bertako hizkuntzazkoa, eta bestea, mende daukan estatuko hizkuntzazkoa? Argi dago bihotzaren lehen kolpea bertako hizkuntzazkora lerratzea dela. Baina bide horretatik joaz berehala datoz arazo praktikoak. Zeren ezin egin daitekeena gure artean egiten dena da: estatu menderatzailea Espainia delako katalanezko eta gailegozko izenak onartu eta bestetan hor konpon. Begien bistako kontua da, hori, azken buruan, *españolada* bat dela, hain zuen. Ez dut ikusten, euskal nazio-ikuspuntutik, zergatik idatzi behar dugun *Alacant* eta ez, aldiz, *Naoned*, bigarrena Euskal Herririk gertuago dagoelarik gainera. Antza denez katalanak, berak ere “espainolak” direnez gero, gure (hots, hegoaldekoen) anaiago dira bretoiak baino. Eta nola ez harritu *A Cruña* proposatzen den zerrenda berean, Okzitania-ko Tolosarentzat<sup>7</sup>, euskal tradizioan beti *Tolosa* (edo Hegoaldean *Frantziako Tolosa*) izan dena, *Toulouse* proposatua ikusten denean? Eta *Asturies*, babletik hartzen bada, zergatik ez da *Vesca* aragoieratik hartzen, eta *Girona* bai, baina *Ciutat (de Mallorca)* ez da katalanez ematen? Enteratu ez garelako? Bestalde, Europa erdia baino gehiago hizkuntzaren aldetik zapaldua dagoela ikusirik, ia ezinezkoa da horien guztien bertako izenaren alde lerratuz ezer erabilgarririk egitea. Eta kontua “edo guztiak edo bat ere ez” da, neretzat, printzipioz, edo gutxienez Frantziaren mendekoak Espainiaren mendekoak bezalaxe tratatzea. Eta ez dezagun ahaztu *Lleida* ‘ezaguna’ dela esaten dugunean betiko engainagarrian erortzen garela; hots, Euskal Herria Bidasoan bukatzen dela. Bestalde gauzak areago nahas daitezke: zergatik onartu behar dugu *Central* dela “Frantziako” *Massif* delakoa, eta ez *Septentrional*, okzitaniarrentzat bezala?

2.5. Bada azken puntu txiki bat, geografi izen artikuludunei dago-kiena. Frantziako *La Rochelle*, Leizarragandik hasita, *Roxela* izan da beti literatur tradizioan. *Al Qahirah* delakoa J. Izurrategiren *Jerusalen-go oste-*

<sup>7</sup> *Tolosa de Llenguadoc* katalanez.

ran bidaldi liburuan *Kairo* da, eta *La Coruña*, beti, Iztueta, M. Soroa, J. I. Arana, D. Agirre, J. M. Etxeita, 1932ko *Lutelestia*-n eta abarrengan *Coruña* edo *Koruña*. Eta oro har, badirudi joera nabaria dagoela euskaraz horrelako geografi izenak artikulurarrastorik gabe emateko.

3. Bukatzeko, eta erakusgarri gisa, kanpoko geografi izen arrunte-nak nere ustez eta adierazi ditudan irizpideen arabera nola eman behar liratekeen azalduko dut. Oinarritzat *Hiztegia 2000*-ko zerrendaz (955hh orr.) baliatu naiz. Literatur tradizioetiko argibideak, K. Mitxelena-ren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ko datu-oinarritik hartu ditut. Latinari eta Europaz kanpoko hizkuntzei buruzko argibideak A. Cherpillod-en *Dictionnaire étymologique des noms géographiques* liburutik (2. argitaraldia, Paris, 1990) hartu ditut batez ere.

**Adriático, mar:** Adriatikoko Itsaso. (*Itun Berrian* (Act 27, 27) agertzen denez, aski lekukotasun ditugu euskaraz: Leizarragak *Itsas Adriatikoan* dio, Haranederrek *Adriako* [sic] *itsasoan*, 1828koak *Adriatikoko itsasoaren gainean*. Harrezkero *Adriatikoko itsaso* da gehien erabiltzen den esapidea).

**Afghanistán:** Afganistan. (*gh*-a alferrikakoa da, euskal grafietan kons. + h multzorik ez dagoenez gero: cf. it., pol. etab. *Afganistan*).

**Africa:** Afrika. **Africa Central.** Afrikako erdialde. (*Ertafrika*-ren ert horri buruz esan behar da *erdi*-k, *mendi*-k bezala, ez duela literatur tradizioan elkartu etarako forma berezirik agertzen. *Azkueren* Hiztegian azaltzen diren lekukotasunak marjinalak dira eta antza denez analogiazkoak, literatur hizkuntzara igarotzea merezi ez dutenak; behar izanez gero *Erdi(ko) Afrika*, alemanezko *Mittelamerika*-ren antzera, erabil daiteke; eta nik bederen, aski nazioartekoa denez gero, ez dut ezer *Afrika Zentral*-en aurka). **Africa del Norte.** Afrikako iparralde, Ipar Afrika. **Africa del Sur.** Afrikako hegoalde, Hego Afrika).

**Alaska:** Alaska.

**Albania:** Albania.

**Alejandría:** Alexandria.

**Alemania:** Alemania.

**Algarve:** Algarbe. (Hori diote bederen A. Ibiñagabeitia eta P. Berrondoren, hitza erabiltzen duten bien, lekukotasunak).

**Algérie.** Ik. *Argelia*.

**Alpes:** Alpe mendi (pl.), Alpe (pl.).

**Alsacia:** Alsazia.

**Alto Volta:** Volta Garaia (*Volta*, euskaraz inongo tradizioerik ez duenez, izen arrotz-tzat tratatua).

**Amazonas:** Amazonas. (XIX. medeko lekukotasun bat dago, J. I. Aranarena (*Slgn* 213), *Amazona aldean* diona, baina mende honetako agerraldi guztiak *Amazonas* dakarte).

**Amberes:** Anberes. (Tradizioan Hegoaldean *Anberes* agertzen da (baita *v-z* eta *m-z* ere). Iparraldean lekukotasun bakarra aurkitu dut Laphitzearena (101) *Amberz* diona. Oskilasok *Anvers* erabiltzen du. Hitz germaniarra Txillardegik (*Elsa S.*) erabili du *Antwerpen* forman. Hizkuntza eslabiarrak forma germaniarretara lerratzen dira antza denez. Latin hizkuntzetan, port. *Anveres* (eta bigarren mailako bezala *Antuérpia*), esp. *Amberes*, fr. eta kat. *Anvers*, it. *Anversa*, dugu. Nere ustez, hobe da guk ere latin hizkuntzen formaren gain era dezagun gurea, nahiz *Antwerpen* edo onar daitekeen bigarren mailan).

**América:** Amerika (Batez ere pl.). **América Central, Centroamérica.** Amerik(et)ako Erdialde, Erdi(ko) Amerika (ik. **Africa**). **América del Norte, Norteamérica.** Ipar Amerika (sing. eta pl.), Amerik(et)ako Iparralde. **América del Sur, Sudamérica.** Hego Amerika (sing. eta pl.), Amerik(et)ako Hegoalde.

**Amsterdam:** Amsterdam.

**Anatolia:** Anatolia.

**Andaluzia:** Andaluzia. (Horrela agertzen da euskal tradizioan [25en bat agerraldi], Iparralde nahiz Hegoaldekoan; ik. gainera gorago 2.2.).

**Andes, cordillera de los:** Ande (pl.), Ande mendi (pl.).

**Andorra:** Andorra.

**Angola:** Angola.

**Angoulême.** Ik. **Angulema.**

**Angleterre.** Ik. **Inglaterra.**

**Angulema:** Angulema. (Euskaraz Intxauspe eta G. Arruegan aurkitu dut, biengan *Angulema* eran).

**Antártico, océano:** Antartiar ozeano. (Nere ustez hobeki egokitzen zaio euskarari espainieraren, katalanaren eta italoinoaren grafia, *nkt* mul-zoa bakuntzen duena).

**Antártida:** Antartida. (Ik. aurreko sarrera).

**Antillas:** Antilla (pl.). [*Antilla uharteak. Antilla Handiak.*]

**Antioquia:** Antiokia.

**Anvers.** Ik. **Amberes.**



**Aosta:** Aosta.

**Apeninos:** Apenino (batez ere pl.), Apenino mendi (pl.).

**Aquitania:** Akitania.

**Arabia Saudita:** Saudiar Arabia. (Badirudi *Saudita* edo *Saudi* hor izenlaguna dela, ez aposizioa). **Arábiga, península:** Arabiar erdiuharte.

**Aragón:** Aragoi. (Literatur tradizioan gehien agertzen den aldaera *Aragoi* da: Hegoaldeko Iztueta, J. I. Arana, G. Arrue, Txirrita, J. M. Barandiaran, J. Etxaide, P. Berrondoren, eta Iparraldeko Mirande eta Arradoiren lekukotasunak dituen; *Aragoe* Kirikiñok darabil, *Aragoa* Lizarraga nafarrak eta Orixek; Hiribarrenek *Aragon* eta *Aragona*, E. Zubirik *Aragon*, J. Etxeparek *Aragonia*, Mendigatxa erronkariarrak *Arago*, eta Xarlemagne pastoralan *Aragu*. Bestalde, *Aragoi* da forma erregularrena, *balkoi*, *bastoi* eta abarren arabera).

**Arcadia:** Arkadia.

**Argelia:** Algeria. (Forma hau Hegoaldeko tradizioan ere (A. Anabirtartek, *Aljeria*) erabiltzen da; *Argelia* (eta *Arjelia*) Kirikiñorengan soilik aurkitu dut).

**Argentina:** Argentina. (*Argentina*, *Arjentina* baino gehiago erabiltzen da, eta maileguzko hitz berrien ortografiaren arabera egokiagoa dirudi).

**Armañac:** Armañak [?].

**Armenia:** Armenia.

**Armórica:** Armorika.

**Artico, océano:** Artiar ozeano. (Ik. **Antártico**).

**Asia:** Asia. **Asia Menor:** Asia Txikia.

**Asiria:** Asiria.

**Asturias:** Asturias. (Hiribarrenek eta J. A. Mogeleg *Asturia* erabiltzen dute; gainerako guztiak *Asturias*; ik. bestalde 2.4).

**Atenas:** Atenas.

**Atlántico, océano:** Atlantiar ozeano.

**Australia:** Australia.

**Austria:** Austria (Cf. lat., it., port. ing. *Austria*, err. *Avstria*, hung. *Ausztria*; ik. 2.3.).

**Auch:** Aux.

**Autriche.** Ik. **Austria**.

**Avila:** Abila. (Horrela idazten dute J. J. Mogelek eta Laphitzek aurreko mendean eta Txirritak, Gazteluk, P. Berrondok eta Arradoik mende honetan).

**Aviñón:** Abiñon, Avignon. (Lehena euskal grafiara egokitua; dena dela aurreko mendeko eta mende honetako lekukotasun guztietan *Avignon* (edo gutxiagotan *Aviñon*) agertzen da).

**Azerbaiján:** Azerbaijan? (Izen arrotz-tzat hartuko balitz, ez dago batera argi zein litzatekeen egokitzapen egokiena: cf. ing. *Azerbaijan*, fr. *Azerbaidjan*, kat. *Azerbaiñan*, al. *Aserbidschan*; bertako hizkuntzan, errusieraz).

**Azores:** Azore (pl.), Azore uharte (pl.).

**Babilonia:** Babilonia.

**Badajoz:** Badajoz.

**Bagdad:** Bagdad.

**Bahamas:** Bahama (pl.), Bahama uharte (pl.).

**Balcenes, montes:** Balkan (pl.), Balkan mendi (pl.). (1932ko *Lutelestia-n Balkan mendiak* esaten da, eta cf. dan. *Balkan(statene, -bjergene)*). Dena dela *balkandar* izenlaguna ere erabil daiteke). **Balcánica, península:** Balkandar erdiuharte.

**Bâle. Ik. Basilea.**

**Baleares, islas:** Balear uharte (pl.), Balear (pl.).

**Báltico, mar:** Baltiar itsaso. (Era berean *Baltiar herrialdeak*. Cf. err. *Baltiiskoie morie*, al. *Baltisches Meer*; dena dela 1932ko *Lutelestia-n, Baltiko itsasoa*).

**Bangladesh:** Bangladesh.

**Bangkok:** Bankok.

**Barbados, isla:** Barbados uharte.

**Barcelona:** Bartzelona.

**Bashkiria:** Baxkiria.

**Basilea:** Basilea. (Lat. *Basilea*; ik. 2. 3.).

**Baviera:** Babiera. (Horrela idatzia Kardaberazengan (*Just* 65); formari buruz, nahiz lat. (eta ing.) *Bavaria*, cf. fr. *Bavière*, esp. it., port. kat. *Baviera*).

**Bearne:** Biarno. (Horrela agertzen da euskaraz dagoeneko XVI. mendean).

**Beirut:** Beirut.

**Belem:** Belem.

**Belén:** Belen edo Betleem. (Lehenengoa batez ere Hegoaldeko tradizioan erabiltzen da, eta bigarrena batez ere Iparraldekoan. Lat. *Bethlehem*, fr. *Bethléem*).

**Bélgica:** Belgika (Lat. *Belgicum*; nahiz era *j*-dunak tradizio hobearen duen Iparraldean nahiz Hegoaldean, beharbada egokiagoa de era *g*-duna, maileguzko hitz berrien ortografiaren arabera).

**Belgrado:** Belgrado. (Ik. 2.3.).

**Bengala:** Bengala.

**Berberia:** Berberia.

**Berlín:** Berlin.

**Berna:** Berna.

**Bethléem.** Ik. **Belén**.

**Bielorrusia:** Bielorrusia.

**Birmania:** Birmania.

**Bizanzio:** Bizantzio. (Cf. lat. *Byzantium*, turk. *Bizans*).

**Bogotá:** Bogota.

**Bolivia:** Bolibia. (Simon Bolibar euskaldun jatorriko jeneralaren izenetik eratorria. Literatur tradizioan Orixengan agertzen da, *Bolibi(a)* idazkeran beti).

**Bolonia:** Bolonia. (Are Iparraldean idazkerarik erabiliena).

**Bonn:** Bonn.

**Bordeaux.** Ik. **Burdeos**.

**Borgoña:** Borgoña. (Hegoaldean *Borgoña* idazkeran agertzen da. Egia-tegi zuberotarrak *Borgoiña* eta *Borgoina* idazten du. Cf. it. *Borgogna*, port. *Borgonha*, kat. *Borgonya*, latinezko *Burgundia*-tik; amaierako *-ñ-z*, cf. *Urduña* Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia*-n).

**Bósforo:** Bosforo. (Lat. *Bosp(h)orus*).

**Bourgogne.** Ik. **Borgoña**.

**Brabante:** Brabante. (G. Arruek forma horretan erruz erabilia).

**Brandenburgo:** Brandenburgo. (Cf. fr. *Brandebourg*, baina al. *Brandenburg*. Ik. 2.2).

**Brasil:** Brasil. (Cf. port. *Brasil*).

**Brazzaville:** Brazzaville.

**Brésil.** Ik. **Brasil**.

**Bretaña:** Britainia, Breizh. (Cf. lat. *Britannia*, ing. *Brittany*. Literatur tradizioan batez ere *Bretania* erabili da. Dena dela, hobestekoa dirudi, analogiaz, *Bretainia*-k, *Itsasoko nabigazionea*-n eta J. Etxeparegan agertzen dena. *Breizh* J. Mirandek eta A. Ibiñagabeitiak erabili dute). Cf. **Gran Bretaña**.

**Britania:** Britania. **Islas Británicas:** Britaniar uharte (pl.).

**Brujas:** Bruges, Brujas. (Cf. esp. *Brujas*, baina fr., port., it., kat. *Bruges*).

**Bruselas:** Bruxelas, Brussel. (Cf. lat. *Bruxellae*, port. *Bruxelas*, fr. *Bruxelles*, it. *Brusselle* [sesso 'sexu' bezala], eta pol. *Bruksela*. *Brussel* (cf. flam. *Brussel*) Txillardegik (*Elsa S.*) erabili izan du).

**Bucarest:** Bukarest.

**Budapest:** Budapest.

**Buenos Aires:** Buenos Aires. (Baina, tradizioaren arabera, *Buenos Airesetan* etab.).

**Bulgaria:** Bulgaria.

**Burdeos:** Bordele. (Gaur egun Iparraldean gehiago erabiltzen den *Bordale* baino zaharragoa eta hedatuago da).

**Burgos:** Burgos.

**Byzance.** Ik. **Bizancio**.

**Cáceres:** Caceres. (Tradizioan agertzen ez denez gero [*Kazeres*, dena dela, 1932 ko *Lutelestia*-n], arrotz-tzat hartua).

**Cachemira:** Kaxmir. (Urdu *Ka^smir*; Cf. kat. *Caixmir*, dan. *Kashmir*, it. *Cascimír*).

**Cádiz:** Kadiz. (Tradizio hobe du *c*-dunak baino; eta cf. err. *Kadis*).

**Cafarnaún:** Kafarnaun.

**Caire, Le.** Ik. **El Cairo**.

**Calahorra:** Kalahorra. (Orixe da bakarra *Kalaguri* erabiltzen duena).

**Calcuta:** Kalkuta.

**Caldea:** Kaldea.

**California:** Kalifornia.

**Camboya:** Kanbodia. (Cf. ing. *Cambodia*, dan. *Cambodja*; dena den, al. *Kambodscha*, *Aserbidschan* bezala, eta orobat katalanez, biak *-tj-z*). Ik. **Kampuchea**.

**Camerún:** Kamerun.

**Canadá:** Kanada.

**Canarias, islas:** Kanaria (pl.), Kanariar uharte (pl.). (Cf. al. *die Kanarischen Inseln*, hots, adjetiboa).

**Caracas:** Karakas. (Cf. err. *Karakas*).

**Carelia:** Karelia.

**Caribe, mar:** Karibear itsaso (Cf. ing. *Caribbean Sea*, al. *Karibisches Merr*, err. *Karibskoie more*, hots, adjetiboa hiru kasuetan).

**Cárpatos (montes):** Karpato (pl.), Karpato mendi (pl.).

**Cartago:** Kartago.

**Caspio, mar:** Kaspiar itsaso. (Cf. ing. *Caspian*, fr. *Caspienne*, al. *Kaspisches*).

**Castilla:** Gaztela.

**Kataluña:** Katalunia.

**Cáucaso:** Kaukaso, Kaukaso mendi (pl.).

**Ceílán:** Zeilan. Ik. **Sri Lanka**.

**Centroamérica.** Ik. **América**.

**Cerdeña:** Sardinia. (Lat. *Sardinia*).

**Ceylan.** Ik. **Ceílán**.

**Chili.** Ik. **Chile**.

**Cícladas:** Ziklada (pl.), Ziklada uharte (pl.).

**Colombia:** Kolonbia.

**Colonia:** Kolonia. (Lat. *Colonia*).

**Congo:** Kongo.

**Constantinopla:** Konstantinopla. (Tradizioan formarik erabiliena *Konstantinopla* da, Hegoaldekoek eta Iparraldeko Haranburuk erabiltzen dutena. Iparraldean agerraldi gehien dituen era *Konstantinople* da (Leizarraga etab.). *Constantinoble*, *Costantinobla*, *Konstantinopole* eta *Konstantinopoli*-ren adibide apur batzuk ere badira. Cf. fr. *Constantinople*, port. *Constantinopla*, kat. *Constantinobla*, it. *Constantinopoli*).

**Copenhage:** Kopenhage. (Cf. dan. *København*; aztertu ditudan hizkuntza guztietan agertzen da *nh* multzoa; bukaerako *-n*-ari dagokionez, espainierak, frantsesak, portugesak, polakoak ez dute; ingelesak, alemanak, katalanak, italianoak, errusoak, bai).

**Córcega:** Korsika. (Lat. *Corsica*, pol. *Korsyka*).

**Córdoba:** Kordoba. (Cf. fr. *Cordoue*, port. *Córdova*, it. *Còrdova*, err. *Kordova*; Literatur tradizioko adibideak, are Iparraldekoak, *-oba*-dunak dira, S. Pouvreau-ren *Cordua* bat izan ezik).

**Corea:** Korea.

**Corinto:** Korinto.

**Cornualles:** Kornualla, Kornualles. (Cf. korn. *Kernow*, ing. *Cornwall*, fr. *Cornouailles*, esp. *Cornualles*, *Cornualla*, port. *Cornualha*, kat. *Kornualla*, it. *Cornovaglia*; J. Mirandek *Kornualla* eta, batez ere, *Kornubia* erabili ditu).

**Corse.** Ik. **Córcega**.

**Côte d'Ivoire.** Ik. **Costa de Marfil**.

**Costa de Marfil:** Boli Itsasaldea.

**Costa Rica:** Costa Rica.

**Cracovia:** Krakobia (Cf. lat. *Cracovia* edo *Carcobia*).

**Creta:** Kreta.

**Croacia:** Kroazia.

**Cuba:** Kuba. (Cf. al, s.-kr., pol. err. *Kuba*).

**Chad:** Txad. (Cf. kat. *Txad*, al. *Tschad*). **Lago Chad:** Txad aintzira.

**Chanpaña:** (T)xanpaña. (Cf. port. *Champanha*, kat. *Xampanya*. It. *Sciampagna*; pol. *Szampania*; amaierako *-ñ-z*, cf. *Urduña* Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia*-n).

**Checoslovaquia:** Txekoslobakia. (Horrela idatzia agertzen da, literatur tradizioan aurkitu ditudan lekukotasunetan (1932ko *Lutelestia*, Lizardi, Alzola; cf. kat. *Txecoslovàquia*).

**Chicago:** Chicago. (Euskal testuetan, J. Etxeparek, Kirikiñok eta K. Mitxelenak *Chicago*; 1932ko *Lutelestia*-k *Txikago*).

**Chile:** (T)xile. (Cf. it. *Cile*, kat. *Xile*, err. *Txili*).

**China:** (T)xina.

**Chipre:** (T)xipre (Cf. fr. *Chypre*, it. *Cipro* (*Cile* bezala), port. *Chipre*, kat. *Xipre*).

**Dahomey:** Dahomey. (Arrotz-tzat hartua; gaur egun **Benin**).

**Dalmacia:** Dalmazia.

**Damasco:** Damasko. (Hegoaldean eta Urtek *Damasko*; Haraneder-ek *Damasco* eta *Damasze*, Leizarragak *Damasce*, eta Iparraldeko gainerakoak *Damas*. Cf. lat. *Damascus*, fr. *Damas*, port., it. *Damasco*).

**Danubio, río:** Danubio ibai. (Cf. lat. *Danubius*).

**Dax.** Akize.

**Dinamarca:** Danimarka. (Cf. fr. *Danemark*, it. *Danimarca*, dan., nor., sued. *Danmark*).

**Djibuti:** Jibuti. (Amarikoz eta arabieraz *Jibuti*, it. *Gibùti*).

**Dolomitas, montes:** Dolomita (pl.), Dolomita mendi (pl.).

**Dublín:** Dublin. (Nahiz irlandera-zko izen ofiziala *Baile eta Cliath* den, *Dublin*-en etorkia zelta da: irl. *Dubh-linn*, bret. *Dulenn*, gal. *Dulyn*).

**Dunkerque:** Dunkerke.

**Ebro, río:** Ebro ibai.

**Ecosse.** Ik. **Escocia**.

**Ecuador:** Ekuador. (Cf. fr. *Équateur*).

**Efeso:** Efeso. (Cf. lat. *Ephesus*).

**Egipto:** Egipto. (Ik. 2. 2).

**El Cairo:** Kairo. (Ik. 2.5; Cf. port., ing., it. *Cairo*, al. *Kairo*).

**Eritrea:** Eritrea.

**Eskandinavia:** Eskandinabia. (1932ko *Lutelestia*-n *Eskandinabi* eta S. Mitxelenak *Eskandinabia* dira aurkitu ditudan agerraldi bakarrak).

**Escocia:** Eskozia. (Cf. lat. *Scotia*).

**Eslovenia:** Eslobenia. (Horrela ikusten da *Herria* astekarian).

**Esmirna:** Esmirna. (Cf. lat. *Smyrna*).

**España:** Espainia. (Erarik erabiliena, betidanik Iparraldean eta gaur egun baita ere Hegoaldean).

**Esparta:** Esparta. (Cf. lat. *Sparta*).

**Estambul:** Istanbul. (Cf. turk., fr., it., kat. etab. *Istanbul*, port., *Istambul*).

**Estocolmo:** Estokolmo. (Ik. 2.2.).

**Estonia:** Estonia. (Cf. est. *Eesti*, err. *Estonia*).

**Estrasburgo:** Estrasburgo. (Ik. 2.2.).

**Etiopia:** Etiopia. (Cf. lat. *Aethiopia*).

**Europa:** Europa. **Europa Central:** Europako Erdialde, Erdi(ko) Europa (ik. *Africa*). **Europa del Norte:** Ipar Europa, Europako Iparralde. **Europa del Sur:** Hego Europa, Europako Hegoalde. **Europa Occidental:** Europako Sartalde (Mendebal), Sartaldeko (Mendabaleko) Europa. **Europa Oriental:** Europa Sortalde (Ekialde), Sortaldeko (Ekialdeko) Europa.

**Extremadura:** Estremadura. (Horrela idatzi da beti literatur tradizioan, Iztuetatik hasita; Cf. it. *Estremadura*).

**Fenicia:** Fenizia.

**Fiji:** Fiji.

**Filadelfia:** Filadelfia. (Cf. It., kat. *Filadelfia*).

**Filipinas, islas:** Filipina (pl.), Filipina uharte (pl.). (Ik. gorago 2.0).

**Finlandia:** Finlandia, Soumi.

**Flandes:** Flandes. (Hegoaldeko tradizioak era hori erabiltzen du, eta Iparraldekoak *Flandres*, J. Mirandek *Flandria*. Cf. flam. *Vlaanderen*, al. *Flandern*, port. *Flandres*, (*Frandes*), it. *Fiandre*, kat. *Flandes*).

**Florenzia:** Florentzia. (Ik. 2.3. Cf. it. zah. *Firenza*; *Floren(t)zia* da, bestalde euskaraz erabili den forma).

**Formosa:** Formosa. (Cf. port. *Formosa*). Ik. **Taiwan**.

**Francia:** Frantzia.

**Frankfort:** Frankfurt. (Cf. lat. *Francofurtum*, port., it. *Francoforte*, al., kat. *Frankfurt*, fr. *Francfort*. Aurkitu dudak lekukotaun bakarra, K. Mitxelena-rena, *Frankfurt*-ena da).

**Friburgo:** Friburgo. (Cf. lat. *Friburgum*, it. *Friburgo*, port. *Friburgo*. Hiru lekukotasun aurkitu ditut, Hegoaldekoak, hirurak *Friburgo*-renak).

**Frigia:** Frigia. (Ik. gorago 2.0).

**Gabón:** Gabon.

**Galacia:** Galazia.

**Gales:** Gales, Gales Herria. (Bi forma horietan agertzen da literatur tradizioan).

**Galia:** Galia.

**Galilea:** Galilea.



**Galicia:** Galizia. (Cf. port. *Galiza*, gal. *Galizia* (*Galiza*). *Galizi(a)* [inoiz edo behin *Galitzia*] da gure literatur tradizioko forma).

**Galicia** (Poloniakoa): Galitzia. (Pol. *Galicja*, err. *Galitsia*, kat. *Galitzia*).

**Gambia:** Ganbia.

**Ganges, río:** Ganges ibai. (Cf. lat. *Ganges*).

**Garona, río:** Garona ibai. (Cf. lat. *Garumna*, *Garunna*, *Garonna*, okz. kat. *Garona*).

**Gascuña:** Gaskoinia, Gaskoina. (Ez dago lekukotasun gehiegirik tradizioan. *Xarlemagne* pastorealean *Gasko(i)ña* agertzen da, eta Hiribarrenek *Kaskoinia* erabiltzen du. Ez dut uste *Katalonia* idazteko arrazoiak hemen balio dutenik).

**Gênes.** Ik. **Génova.**

**Genève.** Ik. **Ginebra.**

**Génova:** Genoba. (Cf. lat., al. *Genua*, baina kors. *Génuva*, it. port. kat. *Gènova*, fr. *Gênes*).

**Georgia:** Georgia.

**Germania:** Germania.

**Gerona:** Gerona. (Cf. fr. *Gérone*. Ik. 2. 4.).

**Getsemaní:** Getsemani. (Cf. lat. *Gethsemani*. Tradizioko forma, Iparraldean nahiz Hegoaldean *Getsemani* (da).

**Gibraltar:** Gibraltar. **Estrecho de Gibraltar:** Gibraltarreko itsasarte.

**Ginebra:** Geneba, Ginebra. (Cf. lat. *Genava*, *Geneva*, fr. ing. *Genève*, baina port. *Genebra*, it. *Ginevra*, rom. *Genevra*, kat. *Ginebra*).

**Glacial, océano:** Izotz itsaso. (Cf. 1932ko *Lutelestia-n Itsas-Izoztua*).

**Gran Bretaña:** Britainia Handi [?]. (Cf. lat. *Britannia*, ing. *Great Britain*. Hitz Mirandengan soilik aurkitu dut, *Bretania Handia*. Cf. **Bretaña**. Gaur egungo erabilera (Hegoaldekoa) ikusirik, behar bada *Britainia Handi* onartu behar litzateke, nahiz eta *Bretania* / *Britainia Handia* bikoiztasuna, inguruko hizkuntzetan ohi ez dena, egitera behartzen duen; ik. dena dela ingelesa, eta pol. *Bretania* / *Wielka Brytania*).

**Grecia:** Grezia.

**Groenlandia:** Groenlandia.

**Guatemala:** Guatemala.

**Guayana:** Gu(a)iana. (Cf. ing. *Guiana*, al. *Gu(a)yana*, fr. *Guyane*, it., kat. *Guaiana*).

**Guinea:** Ginea. **Golfo de Guinea:** Gineako golko. **Guinea Equatorial:** Ginea Ekuatorial. (Cf. ing. *Equatorial Guinea*, al. *Aquatorial-Guinea*).

**Gujerat:** Gujarat. (Cf. hind. *guj(a)rat*, fr. *Gujerat*, *Gujarat*. Gaur egun, espainieraz ere, joera *Gujarat*-en aldekoa dirudi).

**Gulf stream:** Golkoko (itsas) lasterra.

**Haiti:** Haiti.

**Hamburgo:** Hanburgo. (Cf. lat. *Hamburg(i)um*, it. *Amburgo*, port *Hamburgo*; euskal testuetan, Hiribarrenek *Hambourge* eta B. Atxagak, hitza gehien erabili duenak, *Hamburgo*).

**Hawai:** Hawai. (*Hawaii* grafia, Europan boladan dagoen amerikanismo bat da, onar daitekeena, noski).

**Helvecia:** Helvezia. (Cf. lat. *Helvetia*; v-rekin izen arrotz-tzat hartua).

**Hercegovina:** Hertzegobina. (Edo *Herzegovina*, arrotz-tzat hartua; grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta b ez; ik. 1.2, b).

**Hibernia:** Hibernia.

**Himalaya, cordillera:** Himalaia mendi (pl.). (Cf. kat. *Himàlaia*, it. *Imalaia*. Eta *mendi*-rentzat, cf. ing. *Himalayas mountains*).

**Hispania:** Hispania.

**Holanda:** Holanda. (Cf. hol. *Holland*, fr. *Hollande*, port., kat. *Holanda*, it. *Olanda*, pol. *Holandia*, s.-kr. *Holandija*).

**Honduras:** Honduras.

**Hongrie.** Ik. **Hungría.**

**Huesca:** Hueska. (Mende honetako tradizioan, *Huesca* Orixek eta I. Munitak, baina *Hueska* E. Zubirik, eta *Ueska* 1932ko *Lutelestia*-k; bestela *Oska* behar luke; cf. lat., *Oscā*).

**Hungria:** Hungria. (Cf. lat. *Hungaria*, *Onoguria*, fr. *Hongrie*, kat. *Hongria*, port. *Hungria*, it. *Ungheria*. Euskal tradizioan, (*H*)ongria Iparraldean eta *Hungria* Hegoaldean aurkitu ditut; -o- aldaera egokiagoa dela pentsa dezake norbaitek euskara batuan, *non / nun*, *ontsa / untsa* etab.-etan bigarrenak dialektaltzat jotzen direlako; baina badirudi kasu honetan aplikatu behar den legea lat. *mundum* → eusk. *mundu* [cf. fr. *monde*, kat. *mòn*] dela).

**Iberia:** Iberia. (Cf. lat. *Iberia*, sartaldekoa nahiz Kaukasokoa; baita euskaraz ere: cf. Zaldubi (396) *Ekhalde Iberria*, alegiazko etimologia batez, Orixe *Euskaldunak*-ean *Ekhalde Iberia*-ra aldatua). **Península Ibérica:** Iberiar erdihartera. **Meseta Ibérica:** Iberiar goi ordokia.

**Yenisei, río:** Ienisei. (Cf. err. *Ienisei*).

**Iliria:** Iliria. (Cf. lat. *Illyria*).

**India:** India. **Indico, océano:** Indiar ozeanoa.

**Indonesia:** Indonesia.

**Inglaterra:** Ingalaterra. (Hegoaldeko tradizioan *Ingalaterra* aski erabilia izan da, eta era bera erabiltzen dute Axularrek eta J. Mirandek. Bestela, Hegoaldean *Inglaterra* eta Iparraldean gehienbat *Angleterra*).

**Irak:** Irak.

**Irán:** Iran. **Meseta de Irán:** Irango goi ordokia.

**Irlanda:** Irlanda. (*Irlanda* da tradizioan erabili den forma. *Eire* Mirandek erabili du, eta berak eta Lizardik *Erin*).

**Islandia:** Islanda, Islandia. (Ingelesak, frantsesak, alemanierak, italiakoak, polonierak, errusierak eta abarrek amaiera bera ematen diote *Irlandari* eta *Islandia*-ri; *Geneva* proposatzen dutenek arrazoi gehiagorekin proposatu behar lukete *Islanda*).

**Israel:** Israel.

**Italia:** Italia.

**Jakarta.** Ik. **Yakarta.**

**Jamaica:** Jamaika.

**Japón:** Japonia. (Euskal literaturan agertzen diren aldaeren artean tradizio hoberena duena *Japonia* da).

**Jartún:** Jartun, Khartun. (Arab. *al-hurtum*; cf. al. *Chartum*. Ik. 2.5).

**Jerico:** Jeriko (Horrela agertzen da mende honetako testuetan, are Iparraldekoetan).

**Jerusalén:** Jerusalem, Jerusalem. (Tradizioan, Iparraldean beti *-em* aurkitu dut [-*eme* Leizarragak eta beste zaharren batek], eta *-en* gehienbat Hegoaldean. Kanpoko hizkuntzetan ohizkoagoa da *-em* amaiera, baino badirudi euskarak berezkoagoa duela *-en*).

**Jordania:** Jordania.

**Kamchatka, península de:** Kamtxatka erdihartera.

**Kampuchea:** Kampuchea. (Antza denez, inguruko hizkuntza guztiak inongo egokitzapenik gabe ematen dute). Ik. **Camboya**.

**Kenya:** Kenia. (Cf. al, err. *Kenia*. Dena den, ingelesezko *Kenya*-ko *-ny*-a ez da /ñ/-a markatzeko modu bat besterik: cf. Kolorado-ko *Grand Canyon*-a).

**Kuwait:** Kuwait. (Frantsesa da, antza denez *Kowait* grafia erabiltzen duen bakarra; cf. ar. *al-kuwayt*).

**Kurdistán:** Kurdistan. (Cf. kurd. *Kurdestan*, turk., ar., err., fr. *Kurdistan*, iran. *Kordestan*, ing. *Kurdistan*, *Kurdestan*, *Kordestan*).

**Lacedemonia:** Lazedemonia. (Cf. lat. *Lacedaemon*; ing., fr., port. it., kat., *-c-*. Ez dut ikusten zergatik proposatzen duen *Hiztegia 2000*-ak *Lakedemonia*, baina *Mazedonia*. Arazoa, izatekotan, *-onia* amaieran legoke, ez baita hain orokorra; baina cf. Axular *Lazedemonia*).

**La Coruña:** Koruña. (Cf. fr. *La Corogne*; artikulua, ik. 2. 5).

**Ladoga, lago:** Ladoga aintzira. (Cf. fin. *Laatokka*, eston. *Laadoga*, err. *Ládoga*).

**La Haya:** Haia. (Cf. fr. *La Haye*, kat. *l'Haia*, it. *l'Aia*, port. *Haia*; artikulua, ik. 2. 5).

**Laos:** Laos.

**Laponia:** Laponia. (Cf. fr. *Laponie*).

**Lasha:** Lasa. (Cf. fr. *Lhasa*, *Lhassa*, *Lasa*, ing. *Lasha*, *Lasa*).

**Lausana:** Lausana.

**León:** Leon.

**Lérida:** Lerida. (Ik. 2.4).

**Lesotho:** Lesoto.

**Letonia:** Letonia. (Cf. fr. *Lettonie*).

**Libano:** Libano. (Cf. lat. *Libanus*).

**Liberia:** Liberia.

**Libia:** Libia. (Cf. lat. *Libya*, it. *Libia*, port., kat. *Libia*).

**Lisboa:** Lisboa. (Hegoaldean beti *Lisboa*; Iparraldean *Lisboa* eta *Lisbona*).

**Lisbonne.** Ik. **Lisboa**.

**Lituania:** Lituania. (Cf. fr. *Lituanie*, ing. *Lithuania*, It. *Lituania*, Port. *Lituânia*, kat. *Lituània*).

**Logroño:** Logroño.

**Lombardía:** Lonbardia.

**Londres:** Londres. (Cf. fr. *Londres*. Iparraldeko nahiz Hegoladeko tradizioan, *Londres*; Kirikiñok, Lizardik, J. Eguskitzak eta J. Mirandek *London*).

**Lorena:** Lorrena. (Hitza Iparraldeko tradizioan agertzen da, beti *Lorrena* idazkeran; cf. fr. *Lorraine*, latinezko *Lotharingia*-tik datorrena).

**Luxemburgo:** Luxenburgo. (Ik. 2. 3).

**Mazedonia:** Mazedonia. (Cf. lat. *Macedonia*).

**Madagascar:** Madagaskar. (Cf. malg. *Madagasikara*).

**Madeira, islas:** Madeira uharte (pl.). (Cf. fr. *Madère*, baina port., ing. al. etab. *Madeira*).

**Madrid:** Madril.

**Magallanes:** Magallaes [?] itsasartea. (Cf. port. *Magalhaes*, ing. fr. eta al. *Magellan*, it. *Magellano*, kat. *Magalhaes* [itsaskaria] baina *Magallanes* [itsasartea]. Euskal fonetika historikoaren legeen arabera *Magallaes* izango litzateke forma, baina ez dakit nik honelako izenetan noraino aplikatu daitekeen horrelako irizpide bat. *Magallaes*-ek, dena dela, badu beste alde on bat: espainieraren eta frantsesaren arteko desberdintasuna gaintzeko bide bat eskaintzen duela).

**Malaca, península de:** Malakar erdiuhartea. (Cf. mal. *Malaka*).

**Malaga:** Malaga. (Cf. lat. *Malaka*, fr. *Malaga*).

**Malasia:** Malaisia. (Cf. mal. *Malaya*, ing., fr., al. [eta *El País*-eko gaztelania] *Malaysia*, kat. *Malaisia*, It. *Malesia*, port. *Malásia*, pol. *Malezja*).

**Maldivas, islas:** Maldiba (pl.), Maldiba uharte (pl.).

**Mali:** Mali. (Cf. fr. *Mali*).

**Mallorca, Isla:** Mallorka uhartea. (cf. lat. *Majorica*; kat. *Mallorca*).

**Malta:** Malta. (Cf. malt. *Malta*).

**Mancha:** Mantxako ubidea edo kanala.

**Marruekos:** Maroko. (Arabierazko *marukus*-etik; cf. fr. *Maroc*, port. *Marrocos*; -cc- edo -kk- grafia ez dagokio euskarari: cf. pol *Maroko*).

**Marsella:** Marsella. (Cf. okz., port. *Marselha*, it. *Marsiglia*, fr. *Marseille*, kat. *Marsella*. Euskal tradizioan, Hegoaldean (eta J. Etxeparerengan) *Marsella* idazten da, eta Iparraldean *Marseilla* eta *Marseille*. Badirudi

hobestekoa dela euskaraz *-ella* (ez *-eilla*) amaiera: cf. Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko udalen izendegia-n Korella*).

**Martinica, isla:** Martinika uharte.

**Mauricio, islas:** Maurizio uharte (pl.).

**Mediterráneo, mar:** Mediterranear, Mediterranear itsaso. (Cf. lat. *Mediterraneum mare*, it. *Mediterràneo*, ing. *Mediterranean*, al. *Mittelländisches*. Badirudi euskaraz *-ar* amaieraz egokiago ematen den adjetibo baten aurrean gaudela. Dena dela, badirudi *-io* (*-eo*-ren ordez) amaiera, erdarari arbitrarioki ihes egiteko bide bat besterik ez dela. Alemanieraren [eta serbo-kroazieraren: *Sredozemlje*] arabera, *Lurrarteko Itsasoa* 1932ko *Lutelestia-n*).

**Méjico:** Mexiko. (Cf. pol. *Meksyk*). **Golfo de Méjico:** Mexikoko golkoa.

**Melanesia:** Melanesia. (1932ko *Lutelestia-n Melanesia*).

**Menorca:** Menorka. (Cf. kat. *Menorca*, Lat. *Minorica*).

**Milan:** Milan. (Inguruko hizkuntzen jokabidearen arabera [cf. it. *Milano*, fr. *Milan*, port. *Milão*, kat. *Milá*] badirudi euskaraz [cf. *sakristau*] *Milau* behar lukeela, baina euskal tradizio guztian, Iparraldeko nahiz Hegoaldekoan, *Milan* idatzi da).

**Miño, río:** Miño ibai. (Cf. ing., fr., *Miño*, al. *Minho*, *Miño*).

**Misisipí, río:** Misisipi ibai. (Cf. fr. *Mississippi* [ik. 2.0] nahiz azken urteotan, Amerikako ingelesaren eraginez *-ppi* idaztea boladan dagoen; 1932ko *Lutelestia-n*, euskaraz aurkitu dudak lekukotasun bakarrean, *Misisipi*; izen arrotz-tzat harturik, *Mississippi* idatzi behar litzateke).

**Moldavia:** Moldabia.

**Mónaco:** Monako. (Cf. okz. *Monegue*).

**Montevideo:** Montebideo. (Euskal lekukotasun guztiak [30en bat agerrialdi, gehienak mende honetakoak], *-b-z* idatziak agertzen dira; Iparraldeko zenbait testutan *Montebido* agertzen da).

**Moscú:** Moskou *edo* Mosku. (Cf. err. zaharra *Moskov'*, fr., kat. *Moscou*, ing. *Moscow*, port. *Moscovo*; euskal tradizioan, *Moscoua* (*Xarlemagne* pastoralean), *Moskou* (1932ko *Lutelestia-n* eta J. Eguskitzak), *Moscou* (J. Barbierrek), *Mosku* (K. Mitxelenak).

**Mozambique:** Mozanbike.

**Muerto, mar:** Itsaso Hil. Ik. **Rojo, mar.**

**Munich:** Munich. (Cf. goi-alemaniera zaharra *Munih*, fr., ing. *Munich* (bietan [-ik]), kat. *Munic*, it. *Mònaco (di Baviera)*; "euskal grafia" ez litzateke *Munitx* (cf. *Eguna* egunkaria) izango, *Munik* baizik).

**Nájera:** Naiara. (Hori da Erdi Aroko forma, *Hiztegia 2000*-en jaso. Euskal literatur tradizioan *Naiera* (Laphitze), *Najera* (Egiategi, J. I. Arana. J. M. Barandiaran) eta *Naxera* (J. I. Arana) aurkitu ditut).

**Nantes:** Nantes. (Cf. lat. *Namnetes*, *Nannetes*; ik. 2.3 eta 2.4).

**Nápoles:** Napoles. (Cf. lat. *Neapolis*, fr., ing. *Naples*, port. *Nápoles*, kat. *Nàpols*, it. *Nàpoli*, pol. *Neapol*).

**Nazaret:** Nazaret.

**Negro, mar:** Itsaso Beltz. Ik. **Rojo, mar**.

**Nepal:** Nepal.

**New York.** Ik. **Nueva York**.

**Nicaragua:** Nikaragua. **Lago de Nicaragua:** Nikaragua aintzira.

**Nicea:** Nizea. (Cf. lat. *Nicaea*).

**Niger:** Niger.

**Nigeria:** Nigeria.

**Nínive:** Ninibe. (Lat. *Niniva*, *Ninive*. Euskal tradizioan, mende hone-tan forma *-b*-dunak dira nagusi. Iparraldean Zerbitzarik eta L. Leonek *Niniba* (cf. Leizarraga *Niniua*) idazten dute, baina M. Etchehandyk *Hasera*-n (1979) *Ninibe*).

**Norteamérica.** Ik. **América**.

**Noruega:** Norvegia, Noruega. (Cf. lat., err., it. *Norvegia*, pol. *Norwe-gia*, port., kat. *Noruega*; euskal testuetan, *Noruega*-z gainera, J. Mirandere-n *norvergar* bat dago).

**Nueva Caledonia:** Kaledonia Berri.

**Nueva Guinea:** Ginea Berri.

**Nueva Orleans:** New Orleans.

**Nueva York:** New York. (Cf. fr., it. *New York*).

**Nueva Zelanda:** Zelanda Berri. (Cf. fr. *Nouvelle-Zélande*, port. *Nova-Zelandia*, kat. *Nova Zelanda*, it. *Nouva Zelanda*, pol. *Nowa Zelandia*; euskaraz *Zelanda Berria* 1932ko *Lutelestia*-n).

**Occitania:** Okzitania. (Cf. lat., *Occitania*, okz., kat. *Occitània*).

**Oceania:** Ozeania. (Hiribarrenek eta 1932ko *Lutelestia*-n *Ozeania*).

**Odesa:** Odesa. (Cf. ukr. *Odesa*, err., *Odessa*).

**Omán:** Oman. (Cf. fr., ing., al. *Oman*).

**Oporto:** Porto, Oporto. (Cf. fr., al. *Porto*, it. *Oporto*, *Porto*, ing., kat. *Porto*, *Oporto*).

**Orange, río:** Oranje ibai. (Cf. afrik., al. *Oranje*, fr. *Orange*, *Oranje*).

**Pacífico, océano:** Ozeano Bare. (Cf. 1932ko *Lutelestia*-n *Itsasandi Barea*).

**Países Bajos:** Herri Behere (pl.). Ik. **Holanda**.

**Pakistán:** Pakistan.

**Palestina:** Palestina. (Hori da Iparralde nahiz Hegoaldeko tradizioko forma).

**Panamá:** Panama. **Canal de Panamá:** Panamako ubide *edo* kanal.

**Paraguay:** Paraguai. (Cf. port., kat. *Paraguay*, pol. *Paragwaj*; Ik. 2.0).

**París:** Paris. (Iparraldeko *Parise* aski berria da, eta ez da oraino erabat hedatua bertan).

**Parnaso:** Parnaso.

**Pekin:** Pekin (Beijing). (Cf. kat. *Pequin*, port. *Pequim* it. *Pechino*, pol. *Pekin*).

**Peloponeso:** Peloponeso. (Cf. fr. *Péloponnèse*, kat. *Peloponès*, Pol. *Peloponez*).

**Pensilvania:** Pensilvania. (Cf. it. *Pensilvania*, kat. *Pennsilvània*, fr. *Pennsylvanie*).

**Persia:** Pertsia. (Cf. Lat *Persia*, pol. *Persja*; tradizioko forma, Iparraldean eta Hegoaldean, *Persia* da; Iparraldeko hainbat idazlek *Persa* erabili izan dute). *Golfo Pérsico*: Pertsiar Golkoa.

**Perú:** Peru.

**Piamonte:** Piemonte. (Cf. lat. *Pedemontium*, it. *Piemònte*, rom. *Piemunt*, fr. *Piémont*, kat. *Piemont*, port. *Piemonte*; euskaraz hiru agerraldi aurkitu ditut, Iparraldekoak, *Piemont(e)*-renak).

**Pirineos, montes:** Pirinio (pl.), Pirinio mendi (pl.).

**Polinesia:** Polinesia. (Cf. port. *Polinésia*, kat. *Polinèsia*, it. Polinesia, pol. *Polinezja*; 1932ko *Lutelestia*-n *Polinesia*).

**Polonia:** Polonia. (Cf. lat. *Polonia*).

**Portugal:** Portugal.

**Praga:** Praga. (Cf. fr., ing. *Prague*, lat., it., port., kat., err., pol. *Praga*; ik. 2.3).



**Provenza:** Probentza, Provenza. (Euskal tradizioan (Larregi, Orixe, K. Mitxelena) *Provenza* idatzi da; grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta *b* ez; ik. 1. 2, b).

**Prusia:** Prusia. (Cf. al. *Preußen*, pol. *Prusy*).

**Puerto Rico:** Puerto Rico.

**Qatar:** Katar. (Cf. al. *Katar*).

**Quito:** Quito.

**Reino Unido:** Erreinu Batu.

**República Dominicana:** Dominikar Errepublika.

**Reykjavik:** Reykjavik. (Cf. it. *Reykjavik*).

**Rhin, río:** Rin ibai. (Cf. kat. *Rin*, it. *Reno*, pol. *Ren*).

**Ródano, río:** Rodano ibai. (Cf. lat. *Rhodanus*, it. *Ròdano*, port. *Ródano*, rom. *Rodan*, kat. *el Roine*, *Ròdan*, pol. *Rodan*; euskal tradizioan Orixe (Mireio), *Rodano*).

**Rodas:** Rodes, Rodas. (Cf. lat. *Rhodus*, *Rhodos*, turk. *Rodos*, it. *Ròdi*, port., kat. *Rodes*; euskal tradizioan *Rhodes* (Leizarraga, 1828ko *TB*), *Rodes* (Ibiñagabeitia), *Rodese* (Lapitz), *Rhode* (Haraneder), *Rhodas* (Etxahun), *Rodas* (Anabitarte, Aresti, Kerexeta, 1980ko *IB*), *Errhodes* (Duvoisin), *Errode* (Olabide), *Erroda* (1983ko *TB*).

**Rojo, mar:** Itsaso Gorri. (Are Leizarragak *Itsaso Gorri* erabiltzen du; *Itsas Gorri*-ren di agerraldi aurkitu ditut, bata Lardizabalena eta bestea Hiribarrenena: biak, bestalde, *Itsaso Gorri* ere erabiltzen dute).

**Roma:** Erroma.

**Rosellón:** Roselloi. (Cf. okz. *Rosselhon*, kat. *Rosellò*, it. *Rossiglione*, fr. *Roussillon*).

**Rouen.** Ik. **Ruán**.

**Ruán:** Erroan. (Garibaik Esaera Zaharretan erabili zuen forma onartzen bada).

**Ruanda:** Ruanda. (Cf. fr. *Ruanda*, *Rwanda*, al., port. *Ruanda*).

**Rumania:** Errumania.

**Rusia:** Errusia.

**Sahara:** Sahara.

**Sajonia:** Saxonia. (Cf. lat. *Saxonia*).

**Salamanca:** Salamanka.

**Salónica:** Salonika, Tesalonika. (Cf. lat. *Thessalonica*; turk. *Selanik*, port. *Salónica* (lehen *Tessalónica*), it. *Salonicco* (lehen *Tessalónica*), kat. *Salònica* (lehen, eta orain berriro, *Tessalònica*), Collins Hiztegiaren arabera, *Salonika*, *Salonica* “the English name for *Thessaloniki*”, eta A. Cherpillod-en arabera (op. cit.) *Salonique* ‘nom porté par la ville [*Thessalonique*] depuis sa prise par les Turcs en 1430 jusqu’à la fin de la Seconde Guerre Mondiale”. *Tessalonika*, grekoek ematen dioten izena da, eta *Salonika* turkoek ematen diotena.

**Salzburgo:** Salzburgo, (Cf. lat. *Salisburgum*, al. *Salzburg*; ik. 2. 2).

**San Milán de la Cogolla:** Donemiliaga Kukula.

**Santander:** Santander. (Hori da euskaraz izkribuz beti agertzen den era; ahoz, antza denez *Sanandere* aski zabaldua dago).

**Sardaigne:** Ik. **Cerdeña**.

**Segovia:** Segobia.

**Sena, río:** Sena ibai. (Cf. lat. *Sequana*, fr. zaharra *Signe*, it. *la Senna*, kat. *Sena*).

**Serbia:** Serbia.

**Sevilla:** Sebilla. (*Sibilia* ere erabili izan da, eta are *Sibiria*).

**Siena:** Sena. (Cf. lat. *Sena*, it. *Sièna*; hegoaldeko tradizioan [25en bat agerraldi] beti *Sena* idazten da; Iparraldekoan *Siena* (Intxauspe, Lapitze, Arradoi), *Siene* (S. Pouvreau), *Sienna* (Zerbitzari).

**Sicilia:** Sizilia. (Cf. al. *Sizilien*).

**Singapur:** Singapur (Cf. mal., port. *Singapura*, tai *Singkhapor*, fr. *Singapour*, al., kat. *Singapur*).

**Siracusa:** Sirakusa. (Cf. lat. *Siracusae*, it., port., kat. *Siracusa* [kat. zaharra *Saragossa*], al. *Syrakus*).

**Siria:** Siria (Cf. lat *Syria*, it., kat., port. *Siria*: euskal tradizioan, mende honetan, Hegoaldean eta Iparraldean beti *Siria*).

**Somalia:** Somalia.

**Sudafricana, República:** Hego Afrika, Hego Afrikako Errepublika.

**Sudamérica.** Ik. **América**.

**Sudán:** Sudan.

**Suecia:** Suedia, Suezia. (Cf. lat. *Suecia*, sue. *Sverige*, port. *Suécia*, kat. *Suècia*, it., *Svezia*, pol. *Szwecja* (errusieraz ere txistukariz); fr., ing., al. *-d-*; euskal tradizioan, Iparraldean *Sueda*, Hegoaldean *Suezia*, Mirandek *Suedia*).

**Suez, canal de:** Suez(ko) ubide, kanal. (Cf. ing. *Suez canal*, al. *Sues-Kanal*).

**Suitza:** Suitza. (Cf. ing. *Switzerland*, it. *Svizzera*; euskal tradizioan Iparraldean *Suisa*, Hegoaldean *Suiza*, K. Enbeitak *Suitza*).

**Tailandia:** Tailandia. (Cf. it. *Tailandia*, kat. *Tailàndia*, port. *Tailàndia*. err. *Tailand*).

**Taiwan:** Taiwan.

**Támesis, río:** Tamesis ibai. (Cf. lat. *Tamesis*, *Tamesa*, fr. *Tamise*, port. *Tamisa*, kat. *Tàmesi*, it., *Tamigi*, ing. *Thames*, al. *Themse*, pol. *Tamiza*).

**Tbilisi** (lehen Tiflis): Tbilisi. (Cf. geor., errus. *Tbilisi*; Errusierazko izen zaharra *Tiflis*).

**Tebas:** Tebas.

**Termópilas:** Termopila (pl.).

**Terranova:** Temua. (Hori da Iparraldeko ohizko forma).

**Tesalia:** Tesalia. (Cf. lat. *Thessalia*, it. *Tessalia*).

**Tiro:** Tiro.

**Tirreno, mar:** Tirreniar itsaso. (Cf. lat. *Tyrrhenus*, it. *Tirrèno*).

**Togo:** Togo.

**Tokio:** Tokio. (Cf. it., al., err. *Tokio*, port. *Tóquio*).

**Toulouse:** (Frantziako, Okzitaniako) Tolosa. (Cf. lat., okz., *Tolosa*, Ik. 2.4).

**Toscana:** Toskana. (Cf. al. *Toskana*).

**Tracia:** Trazia. (Cf. lat. *Thracia*, port. *Trácia*, kat. *Tràcia*, it. *Tracia*).

**Troya:** Troia. (Ik. 2.5).

**Túnez** [herrialdea]: Tunisia, Tunizia. (Cf. ar. *tunisiyya*, port., kat. *Tunisia*, it. *Túnisia*, pol. *Tunezja*; *Tunizia* Arestik erabili zuen).

**Túnez** [hiria]: Tunis, Tuniz. (Cf. lat. *Tunes*, *Tynes*, port. *Túnis*, it. *Tunisi*, fr., kat. *Tunis*).

**Turquía:** Turkia.

**Ucrania:** Ukraina. (Cf. ukr., err., pol. *Ukraina*, kat. *Ucràina*, it. *Ucraina*, ing., al. dan., *Ukraine*, hol. *Oekraïne*; euskaraz *-inia* amaierak badirudi ez duela inongo oinarririk).

**Unión Soviética:** Sobietar Batasuna.

**Unión de Repúblicas soberanas:** Errepublikak Burujabeen Batasuna.

**Urales, montes:** Ural (pl.), Ural mendi (pl.). (1932ko *Lutelestia*-n *Uralak*). **Ural, río:** Ural ibai.

**Uruguay:** Uruguai. (Cf. port., kat. *Uruguai*, pol. *Urugwaj*; Ik. 2.0).

**Uzbekistán:** Uzbekistan. (Cf. err. *Uzbekistan*, uzbek. *Uzbekiston*).

**Valencia:** Balentzia, Valencia. (Euskal tradizioan, *Balentzia* Iparraldean (Lapitze, Joanategi) aurkitu dut, eta *Valencia* Hegoaldean; (1932ko *Lutelestia*-n *Balenzia*); grafia egokitzekotan ez da ikusten zergatik *tz* onartu behar litzatekeen eta *b* ez; ik. 1.2, b).

**Valladolid:** Balladolid, Valladolid. (Euskaraz *Balladoli(d)* eta *Valladolid*-en lekukotasunak daude).

**Varsovia:** Varsovia.

**Vaticano, El:** Batikano. (Ik. 2.5).

**Venecia:** Venezia. (Cf. lat. *Venetia*; formarik hedatuena, are Iparraldean *Venezia* da).

**Venezuela:** Benezuela.

**Viena:** Viena. (Cf. port., kat. *Viena*).

**Vietnam:** Vietnam.

**Vladivostok:** Vladivostok.

**Washington:** Washington.

**Yakarta:** Jakarta. (Cf. mal. *Jakarta* [1972ko ortografi erreforma baino lehen *Djakarta*], ing. *Jakarta*).

**Yemen:** Jemen?, Yemen?, Iemen? (Cf. al., pol. *Jemen*. Euskaraz *Jemen* gogorregia gertatzen bada, *Yemen* onar daiteke, nahiz *y*-a euskara batuko ortografian erabiltzen ez den: cf. it. *Yemen* (baina *iemenita*), fr. *Yémen* (eta *yéménite*), irentsi gabeko maileguen grafiaz; hildo beretik onar daiteke *Iemen*, euskara batuan eskuarki onartzen ez den *ie*- batez: cf. katalanez *Iemen*, nahiz hizkuntza horretan ez dagoen *ie*-z hasten den hitzik).

**Yucatán:** Yucatan. (Hitz arrotz-tzat hartua: cf. al. kat. *Yucatán*, nahiz hizkuntza horietan ez dagoen *yu*-z hasten den hitzik; ik. **Yemen**).

**Yugoslavia:** Jugoslabia. (Cf. s.-kr. eslob. al., port., pol. *Ju-*; dena dela *Yugoslabia* ere onar daiteke (cf. fr. *Yougoslavie*), **Yemen** sarreran azaldu diren arrazoiakgatik).

**Zambia:** Zanzia.

**Zurich:** Zurich. (Cf. lat. *Turicum*, it. *Zurigo*, port. *Zurique*. Ik. gorago **Munich**).



## 1992. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN EGUTEGIA

Donostia, 1991-XI-29

Jose Luis Lizundia

Urte amaieran Zuzendaritzaren aginduz, Euskaltzaindiaren batzar-egutegiaren prestaketa egin dut. Abiapuntu bezala gaineratu behar da, Baionan, maiatzean, “Hotel Mercure”n egin genituen III. Programa Jardunaldietan egutegi honen zenbait ildo nagusi eztabaidatu eta onartu zituela Euskaltzaindiak, hala nola *Oihenarten* jaiotzaren laugarren mendeurrena; *II. Herri Literatura Jardunaldiak*; *I. Jagon Sailaren Jardunaldiak* eta *IV. Onomastika Jardunaldiak*.

Ohi bezala, aurretiaz, bibliografia zenbait aztertu ditut: **Euskera** agerkaria, Luis Villasante eta Santi Onaindiaren *Literatura* historiak, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*, Baionako *Gure Herria* aldizkaria eta abar.

Zirriborroa Zuzendaritzari aurkeztu nion eta hil honen 8an, Iruñean, egin zuen bilkuran bere oniritzia eman zion, zenbait zuzenketa eginez.

Hara hor non aurkezten dizuedan datorren urteko egutegia:

– 1992. urtean dugun mendeurrenik garrantzitsuena, dudarik gabe, Arnaud Oihenartena da. Orain bi urte euskal mundurako Larramendi urtea izan bazen eta aurtengoa Bonaparte printzearen urtea, 1992a hainbeste efemerides garrantzitsu dituen urtea, euskaldunontzat Oihenart urtea izan beharko lukeela. 1592. urteko abuztuaren 7an jaio zen Zuberoako hiriburuan, Maulen, Arnaud d’ Oihenart. Badago bibliografi aberatsa, ez agin egileari zor diogun hainakoa, baina bai P. Lafitte, aipaturiko egile eta besteek xehetasun interesgarriak ematen dizkigute Oihenarti buruz. Oihenart euskal idazle, Oihenart koplagile, Oihenart errefrau eta bertso biltzaile, Oihenart olerkari, Oihenart hizkuntzalari, Oihenart historiagile, badugu non hauta. Aita Villasantek bere *Historia de la Literatura Vascan* pasarte hauek dakarzki: “Arnaldo de Oihenart es la primera figura no eclesiástica que nos presenta la literatura vasca”; “Oihenart es un seglar culto, de formación universitaria. Se distinguió como historiador, como coleccionador de refranes vascos, como poeta”. Ez da nire egitekoa gaur hemen, zuoi gutxiago, Oihenarten biografiaz jardutea, bai-

na bai Euskaltzainburuak Oihenarten laugarren mendeurrenez, Mauleko Udaletxean, irailaren 3an, prestakizunerako egindako bilkurarako aurkeztu du hunki daitezkeen gaien zerrenda ekartzea. (Ikus eranskina).

Zuberoako hiriburuan hango alkate, elkarte eta Euskaltzaindiko ordezkari eta lagunei, kongresu edo jardunaldietako data bezala irailaren 20tik 26ra eman genien, ostiralez, Euskaltzaindiko hileroko batzarra egin daitekeelarik, bertako Herriko Etxean. Jardunaldiak, lasalletarrak, hiriaren gainekaldean daukaten "Agerria" egoitzan izan daitezke. Nere ustez, oso komenigarria izango litzateke, abenduko hileroko euskaltzainen batzarrean, Larramendi eta Bonapartenean egin zen legez, batzorde suntsikor bat osatzea, Oihenarten laugarren mendeurren honetarako, bai gai akademikoak hautatzeko, bai antolakizun lanak atontzeko.

— Bigarren mailako ospakizun batzuk ere aipatu nituen Iruñeko Zuzendaritza bilkuran: 1. Sauveur Arotzarena 1892an jaioa. 2. Monseñor Inazio Larrañaga urte berean jaioa hau ere, biak euskaltzain urgazleak eta 3. Jose Manuel Etxeita mundakar idazlea 1842an jaioa, beraz mende t'erdian kasu honetan. Zuzendaritzaren ustez, Euskaltzaindiak berak, kasu hauek, ezin dezake ospakizunik antola, ez bai dute horretarako mailarik.

— Baionan ikus bezala, hemendik datorren urtera pasatzen dira bi Jardunaldi: bata, Herri-Literaturakoa eta bestea, Jagon Sailekoa. Herri-Literaturako II. Jardunaldiak narratibaz izatea erabakita dago eta Donostian, E.U.T.G.n, martxoaren 26 eta 27an egitea proposatu du dagokion azpibatzordeak.

\* \* \*

— Jagon Sailaren Jardunaldiak ere aurtendik datorren urtera, maiatzera, proposatzea erabaki zen, Baionan, Gasteizen egitea aipatu bazen ere, harrezkero, egoitza berria dugunez, bai Jagon sailburuaren ustez, eta bai Zuzendaritzaren ustez, egoitza berrian egitea litzateke bidezkoena. Bertan, euskararen erbailpen ona eta administrazio egoera desberdinetan dauden hizkuntzen tratamendua izango lirateke gai nagusiak. Hain zuzen gaur, bilkura honen bukaeran, Jagon Sailak aztertuko du Jardunaldi hauen nondik norako egitasmoa. Agian maiatzean egingo dira.

— Baionako Programa Jardunaldi horietan, Onomastika batzordearen proposamenez, IV. Jardunaldiak antolatzea onartu zen. "Comisión V Centenario", Madrilgo Kultur Ministeritzaren erakundearen babesean eta Nevadado Unibertsitatearen azpiegitura laguntzaz, Renon egin daiteke. Baina, honek Euskaltzaindiaren hileroko egutegian ez du trabarik sortzen. Bestalde, Unibertsitate horren "Basque Studies Program" delakoaren zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte eta horren programa barnean sartzeko aukera dugu.



– Azkenik, aipaturiko Iruñeko Ordezkaritzan egindako Zuzendaritza bilkuran, J. Haritschelhar euskaltzainburuak proposamen hau egin zuen: egoitza berria dugunez gero, hemendik aurrera hileroko batzarretariko lau Bilbon, egoitzan egitea; beste lau Donostian, Foru Diputazioan eta beste hirurak Araba, Nafarroa eta Iparraldean: 4 + 4 + 3, beraz. Horren ildotik *Orotariko Euskal Hiztegiaren* 5. liburukia, urtarrilean edo otsailean, Arabako Diputazioan aurkez daiteke, kontutan izanik lehendabizikoa Bizkaiko Diputazioan, bigarrena Gipuzkoan, hirugarrena Durangon Euskal Liburu eta Disko Azokan eta laugarrena Nafarroako Gobernuan aurkeztu zirela. Baina geroztik E. Knörr Arabako ordezkari eta euskaltzainak aipatu zidan, Arabako Diputazioak apirilera Euskal Hitz gisako erakusketa bat antolatzeko erabakia hartu duela, bai hiriburuan eta bai hango zenbait eskualde edo koadrilletako herri nagusietan. Bigarren aukera hau onartzen bada, apirilean egin beharko luke Araban batzar hori Euskaltzaindiak. Nafarroan ordea, ez du Euskaltzaindiak aurtengoz ospakizun jakinik.

Guzti honegatik bada, 1992rako egutegi proposamen hau dakartzet:

– *Urtarrilaren 31n*, hileroko bilkura eta batzarrea, Bilbon.

– *Otsailaren 22an*, hileroko bilkura, batzarrea eta OEH 5. liburukiaren aurkezpena, Gasteizen, Arabako Foru Diputazioan.

– *Martxoaren 26 eta 27an*, hileroko bilkura, batzarrea eta II. Herri-Literatura Jardunaldiak, Donostian.

– *Apirilaren 24ean*, hileroko bilkura eta batzarreak, Gasteizen edo Bilbon.

– *Maiatzaren 28, 29 eta 30ean*, hileroko bilkura, batzarrea eta I. Jagon Jardunaldiak, Bilbon, egoitzan, edo bestela arrunta, Donostian.

– *Ekainaren 26an*, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian edo Bilbon.

– *Uztailaren 24ean*, hileroko bilkura eta batzarrea, Iruñean?

– *Irailaren 21etik 26ra*, Oihenarten IV. mendeurrena ospatuz, zenbait jardunaldi edo kongresua, Maulen eta *irailaren 26an*, hileroko bilkura bertako Udaletxean.

– *Urriaren 30ean*, hileroko bilkura eta batzarrea, Bilbon.

– *Azaroaren 27an*, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian.

– *Abenduaren 18an*, hileroko bilkura eta batzarrea, Bilbon.

**Oihenarten Kongresurako hunki daitezkeen gaiak  
1992 iraila**

**I. Literaturan**

1. Oihenarten olerkien literatura iturriak. (Ikus *Art-poétique*. Gutuna).
2. Maitasun-olerkien gaiak.
3. Emaztearen itxura:
  - atsotitzetan.
  - olerkietan.
4. Eguberri-koplak.
5. Estoizismoa eta fatalismoa: atsotitzen iturri filosofikoak eta moralak.
6. Sasoin eta hilabeteak atsotitzetan.
7. Alegia eta atsotitza: literaturak erabiltzen dituen abereak.
8. Bertsogintza: (forma, -erritmoa, musika, eufonia).
9. Olerki estiloa eta gramatika.
10. Oihenart eta Sauguis: atsotitzen gonparaketa.
11. Oihenarten ondorio literarioak.

**II. Hizkuntzan**

- Oihenart gramatikalari.
- Oihenart hiztegilari.
- Oihenart eta euskalkiak.
- Aditza olerki eta atsotitzetan.
- Gaskoin maileguak.
- Garbizalea ote da Oihenart? (Etxepare, Leizarraga, Axular).

**III. Kondairan**

- Jaurgain-ek eginikako biografiaren kritika.
- Oihenarten familia eta baxenabartar eta ziberotar jauntxoak.
- Oihenart politika gizona.
- *Notitia Utriusque-Vasconiae*-ren iturriak.
- Oihenart, kondaira eta zuzenbidea.

## PIZTIA HITZA ETA ABAR

Donostia, 1991-IX-27

Zatarain'darr Anbrosi

Andoain'en egindako bileretako batean honako hau esan nuen: beste hizkuntzetatik hartutako hitzak bukaeran *-ia* letrak dituztenean, euskaraz azkenengo *-a* hori bereizte-atzizkitzat (artikulutzat) jotzen dugula, eta hitz soila *-i* letraz bukatu erabiltzen dugula: Filosofi-zalea da, geografi puska bat badaki, pameli ederra du, Espaini'ra joan da, Itali'tik etorri da, Praintzi 'ko tren-bideak, Alemani'ko garagardoak, eta horrelako asko ta asko.

Erantzuna bereala entzun nuen: "Hori Gipuzkoa'n bakarrik egiten da".

Bilera hartan bertan edo hurrengoan, eztaikit, beste hau esan nuen: piztu = biztu = bizitu, pizkor = bizkor = bizikor hitzak gogoratu gero, *bizi* hitza *pizi* hitza berbera dela sinets daitekeela, hasierako letra alkar-koia durunda-hots bihurturik sortua, eta *lotsati*, *gezurti*, *loti* hitzen antzera *pizti* hitzak *bizidun* adierazten duela.

Honentzat ere erantzuna bat-batean entzun nuen: "Piztia" hitza latinezko *bestia* berbera da." Iritzi hori lehenago Arantzatzu'n Aita Vil(l)asante'ri entzuna nuen, baina ez nion sinistu, eta orain ere ez tut sinisten. Alde batetik latinezko hitza B letraz hasten delarik euskeraz P letraz oguztea harrigarri egiten zait, horrelako bat bakarrik ere ezpaitzait gogoratzen. Alderantziz gertatzea bai, arauzkoa da: *pake* ta *bake*, *parkatu* ta *barkatu* hitzetan bezala. *Bestia* hitzaren *e* letra *i* bihurtzea ere etzait oso sinisterraz egiten.

Baina *bestia* hitzaren azkeneko *-a* letra galtzea nik lehenago aipatutako gertaera berbera da, beraz esan zidatenez giputzok bakarrik egiten duguna. Azkue'k *piztia* (B, G) alimaña; var. de *pisti*, *pistia* dio. Lhande-Lafitte'k: *pizti* (G.H.) *être vivant*, *animal* dio. *Bezti* eta *Bizti* inon ere ez tira ageri.

Sota-Lafitte-Akesolo hiztegiak honako hau dio: *Pisti* (AN-goiz, B-l-m-mu,... Gc,...), *pistia* (B, G): Bicho, alimaña. "Isillik egon ari, isillik,

lotsagarri eta pisti gaisto ori: calla, vergonzoso y mal bicho” (*Pach*, 24-11). “Leoyak eta beste pistia guztiak: los leones y todas las demás alimañas” (*Ag. Eracus*, 289. “Hortxe dagoz lurean pisti ta zomorroak”. Erkiaga, *Batetik bestera*, 197. “Eliz-egazti, eta pistia mueta askotakoak dira Gipuzkoan”. Iztueta, *Kondaira*, 196. “Eztute esaten abere ta pistien artean muxarra dala lotiena?” T. Agirre, *Uztaro*, 30.

Azkue’k beste bat aipatzen du: “Piztia (B, G) alimaña, bicho: fauve, carnassier Var. de pisti, pistia”. Ondo dakie au piztia zital onek dagozan geletan lo egiten dabenak: bien saben esto los que duermen en lugares habitados por estos impertinentes bichos: ceux qui “dorment dans les lieux habités par ces impertinents animaux connaissent bien ceci”. (*Per. Ab.* 179-23) Oker ezpanago, Mogel’ek zorri ardi ta tximitxak aipatzen ditu. Azkue’k *fauve* (animales salvajes, fieras) eta *carnassier* (carnicero, carnívoro) dio; arkakuso, zorri eta tximitzentzat gehitxo esatea ez ote da? Hortaz konturaturik noski, *animaux* dio, beraz nik diodana berbera: bizidunak.

Berriro Sota-Lafitte-Akesolo hiztegia: *Pizti* (*a*), (B, G) Alimaña, bicho. *Peru Abarka* aipatu ondoren, beste hauek ematen dizkigu: “Pizti gaizto batek nere semetxoa jan dit”. Lardizabal, *Test.*, 49. “Gizona gizonarekiko dan baño pizti gaiztoagorik ba al-dek iñun?”. T. Agirre, *Uztaro*, 88. “Arei pizti lotsabakuai mendu oneko ixaten irakastiaz ondo egin dau”. Otxolua, *Bertolda*, 143. “Zu zera basoko piztia guziak baño gogorragoa”. Agirre, *Erakus*. IV, 124. *Piztikeria*: Bestialidad. “Gerla-gosea eta piztikeria zokoraztuz dijoaz”. Villasante, *Kristau*, 181. “Arrazoimenak nahi luke agindu, baiña piztikeriak bere aldetik tiratzen du”. I. Id., 120. *Piztizar*: Animal enorme, animalazo. “Dinoterio eta beste olako piztitzarrak orain eztira”. Villasante, *Kristau*, 61.

Ikusten denez, *piztia* bere *a* eta guzti idatzi zutenak bi giputz eta bestea Eibar’en jaioa, baina bere lehenengo liburua gipuzkeraz idatzi zuen bat dira. Eta Vil(l)asante berberak ere, nahiz eta *pizti* hitza *bestia* hitzaren aldakuntza dela uste duen arren, *piztiakeria* eta *piztiatzarrak* idatzi beharrean, *piztikeria* eta *piztitzarrak* idatzi zituen *a* “organikoa” kendurik, edo ta *a* hori bereizte-atzikitzat harturik eta kendurik.

Orain beste hitz edo izen-sail bat aipatuko dut: emakume-izenena. Gaztelaniaz *ia* bukaera dutenak guk (gipuzok bakarrik?) -i bukaera hutsaz erabili ohi ditugu: Andra Mari, Ana-Mari, Anttoni, Baxili, Gregori, Iñaxi, Kontxexi, Kandelari, Lutxi, Eulali, Joxepantoni, Joxepiñaxi, Manttoni eta abar. *Haize-Garbia* hiztegiak honako hauek ematen dizkigu: Ana-Mari, Aureli, Baleri, Engrazi, Estebeni, Garaxi, Lidi, Graxi, Manazi (Mañazi?), Maribattit, Mari-Dominika, Mari-Gazte, Marihandi, Mari-Kattalin, Mari-Santz (“Mari-Santzen lasterra / Bost-Mendietan behera”), Maritxu, Mari-xuma, Mayi, Melani, Orel(i) (Aureli), Ottabi, Roxali, Tuti, Ulali, Xexili,

Zidoni. Horietatik bakan batzu giputzoï ikasiak izan daitezke, baina gehienak ez.

\* \* \*

Hitz gutxitan esateko: Zeratan gelditzen da harako *-ia* bukaerako A “organikoa” giputzok bakarrik kentzen dugunekoa? *Pizti* hitza latinezko (edo gaztelaniazko) *bestia* hitzaren aldakuntza dela sinisterazteko, neri gogoratzen etzaidan arrazoinen bat behar da. Beste hitz bat aipatzeko, Azkuek ez-taman *pameli*, *pamili* edo *famili* ikus dezagun. Sota-Lafitte-Akesolo hiztegiari: “Familia. Gure famelixan...” Etxebarria, *Lex. Arrate*, 291. “Fameliadun. famelixaduna”, Etxebarria, *Lex. Arrate*, 281. “Famili(a): Ona emen Nazareteko etxe zuria, bertan sendi edo famili santu bat”, Kerexeta, *Meza*, 66. Hau ere ezta gipuzkerazko idazlea.

Hona berriz Corominas'en hiztegiak zer dioten:

“Bicho, 1578, de Bëstius “animal”, forma del latín vulgar en lugar de la clásica Bestia; el castellano tomó *bicho* del gallego portugués, donde se halla desde el S. XIII, lo cual explica la evolución fonética del vocablo. *Bicha*, 1573, sale paralelamente de Bëstia...”

Eta Europako arratsalde-herriek ditxosozko “a” “organiko”ekin nola jokutzen dute? Lehen aipatu ditudan hiru hitzak miratuko ditugu:

F: famille, géographie, philosophie. GB: family, geography, philosophy; D: Familie Geographie, Philosophie. NL: familie, geografie = aardrijkskunde, filosofie = filozofie = wijsbegeerte. DK N: famili, geografi, filosofi. S: familj, geografi, filosofi. Agi denean, guretzat “organikoa” den hori’ beste hizkuntza horientzat “pilarmonikoa” da. Guk bakarrik dugu “organistero” izan beharra.



# **HIZTEGIGINTZAKO III. IHARDUNALDIAK**

*Laurgain-Aia, 1991-XI-28*





## BILERA AKTA

*Aiako Laurgainen, 1991-XI-28*

*Mikel Zalbide  
Hiztegi-gintza batzordeko idazkaria*

GAIA: Hiztegi-gintza batzordearen luze-zabaleko bilera, Euskaltzaindiak hiztegi-berrikuntzaren alorrean azken urteotan daraman bidea aztertu eta aurrera begirako finkapen-lanari ekiteko.

### BILDUAK:

- *Euskaltzain osoak*: F. Ondarra, L. Villasante, P. Salaburu, J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, J.M. Satrustegi, J.A. Arana Martija, E. Knörr.
- *Hiztegi-gintza batzordekideak*: M. Ensunza, A. Sagarna, A. Urrutia, M. Azkarate, M. Zalbide.

### Berriaz gonbidaturiko beste zenbait lagun

X. Kintana; H.P.I.N.: Mirari Alberdi, E. Etxezarreta, Roman Berriozabal; I.V.A.P.: Eneko Oregi, Kasildo Alkorta, Araceli Diaz Lezana; Nafar Gobernuko H.P.Z.N.: Jose Luis Mendoza, Juantxo Ziganda; Alberto Agirreazaldegui, Kepa Altonaga, J. Agirre, M. Mateo, J.L. Lizundia, J.J. Zearreta, R. Badiola; ETB: Imanol Unzurrunzaga, Manu Arrasate, Antxon Aranburu, Eskarne Lopategi.

NOIZ-NON: Aiako Laurgainen, 1991ko azaroaren 28an, goiz eta arratasalde.

### ESAN-EGINAK

1. J. Haritschelhar euskaltzainburuak eman dio bilerari hasiera, bertara bildu diren guztiei eskerrak emanez eta, bileraren xedea kontuan izanik, emaitza on baten itxaropena agertuz.

2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi den Mari Karmen Garmendia andereak hartu du ondoren hitza. 1986an Lekunberrin izandako azken bilkura eta aurretik ere egin izan direnak aipatu ditu. Bukatzeko,

bilerako partaideen iritziak kontuan hartuz erabakiak lehenbait lehen hartzea eskatu du. (Ikus, 1.eraskinean, bere txostena).

3. Hiztegitzintza batzordearen idazkari den Mikel Zalbidek, ondoren, honako izenburu hau duen txostena irakurri du: “Euskaltzaindia euskal hitz-altzorraren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea”. (Agiri honen 2.eraskinean eskaintzen da txosten hori, bere osotasunean).

4. LEF programaren idazkari den Miren Azkaratek, azkenik, lexikologi irizpideak eta hitz-altzorraren berrikuntza-lana uztartzen dituen txosten bat irakurri du. (Ikus, horren edukinaz jabetzeko, 3. eranskina).

5. EEBS programaren idazkari den Andoni Sagarnak hartu du ondoren hitza, honako txosten hau irakurriz:

“EEBS proiektuaren 2. fasea: abiaburua, helburu estrategikoak eta epe laburreko asmoak”. (Ikus, horren edukinaz jabetzeko 4. eranskina).

6. Hainbat zehaztasun eta iritzi-azalpen eman dira, txostenetan irakurritako aztergaiez. Aurrera begirako lan-prozeduraz, bereziki, irizpide posible desberdinak arakatu dira.

7. Zenbait puntutan, erabateko erabakirik hartu ez bada ere, hartarako pauso sendorik eman da. Horrela,

7.1. “Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren alorrean erabaki konkretuak hartzen hasi behar duen ala ez eta, hartzekotan, zein jardupidez jokatzea komeni den”. Honako proposamen hau eman da, puntu horri buruz, ontzat: *Euskaltzaindiari lexiko mailan egiten den lanari bati bere oneritzia ematea eskatzen bazaio, kasuan-kasuan aztertuko da lan horri heldu ala ez. Baietz erabakitzen bada, Hiztegitzintza batzordeari lan horri buruzko txostena eskatuko dio Euskaltzaindiak erabakia hartu aurretik. Hiztegitzintza batzordeak, horrelakoetan, OHEn eta EEBSn metaturik dauden corpus-ak aztertuz eta LEFeko irizpideak kontuan hartuz prestatuko du bere iritzi-txostena.*

7.2. “Euskara batuaren hiztegia” (izen bat baino gehiago eman zaio proiektu honi bileran zehar; izen-azal desberdinekoak izanik ere bat zetozen guztiok asmo-edukinez).

8. Honako beste bi puntuotan, bestalde, erabateko iritzi-adostasuna agertu da:

8.1. Datu-base lexikografikoa sortu eta eguneratzea berariazko xedetzat hartzen du Euskaltzaindiak.

8.2. Jabegoa zaintzeko neurri juridikoak aztertzeko ardura hartuko du Euskaltzaindiak, bere Batzorde juridikoaren bitartez.

9. Hiztegitzintza batzordearen burua den Ibon Sarasolak bere uste-azalpena egin du azken orduan eta horren inguruko erantzun-sorta jaso da.

10. Hona, bilerari amaiera emanez, bertan hartu diren **AZKEN ERABAKIAK**:

10.1. Euskara batuaren hiztegia egin behar den ala ez berariaz aztertuko du Euskaltzaindiak, biharko bere osoko bilkuran.

10.2. Batzordea osatuko da, baiezkotan, hiztegi-lan honen diseinua egiteko.

10.3. Bai corpus-ak lexiko-base bakar batean elkartzeko, eta bai berauen ustiaketa zuzen bideratzeko, prozedura zehatza aztertuko da.



## HIZTEGIGINTZAKO III. IHARDUNALDIAK

*Laurgain-Aia, 1991-XI-28*

*Mari Karmen Garmendia  
hizkuntza politikarako idazkari nagusia*

Euskaltzaindiak eginak ditu behin baino gehiagotan euskal lexikoaren alorrean duen eginkizunari eta eginkizun hori betetzeko behar lukeen plangintzari buruzko gogoeta jardunaldiak eta batzarrak. Gogoan ditugu, besteak beste, Loiolan eta Hondarribian 1981ean, Angoston 1983an, Gasteizen 1984ean, Lekarozen 1985ean eta Lekunberrin 1986an egin zirenak. Hauetako bakoitzean gaiak giro egokian aztertu, iritzi ezberdinak jaso eta erabakiak hartu izan dira aurrerantzean ere lanean jarraitzeko.

Hona hemen gaur ere Laurgainen hainbat lagun elkartuta zerbait aztertu eta aurrera begira erabakiak hartzeko asmotan.

Gai bat baino gehiago dira nere ustez Euskaltzaindiak geroko gero-tan utzi gabe patxadaz eta sakon aztertu behar dituenak, hala nola, bat aipatzeagatik, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* korpusak unibertsitate mailan, esate baterako, izan dezakeen erabilera. Baina gai bakoitza dagokion unean eta tokian aztertu behar dela uste dut eta gaurko honetan beste bi dira nere ustez sakondu beharrekoak:

1. Zein da Euskaltzaindiaren eginkizuna euskal hitz altxorren berrikuntzan eta nola ihardungo du lanean bere eginkizuna behar bezala betetzeko?

2. Zer dio Euskaltzaindiak Hiztegi-gintza batzordearen EEBS lan programaz? Nora jo behar du honek aurrerantzean?

- Nola berregin daiteke Hiztegi-gintza batzordearen eginbehar nagusiak eta ihardupidea definitzen dituen 1984-96 epealdirako plana, batzorde honetako idazkari den Mikel Zalbidek Gasteizen 1984ean aurkeztu eta Euskaltzaindiak 1985ean Bilbon ontzat emandakoa?
- Helburuak lehengoak berberak dira?
- Nola jokatuko da aurrerantzean? Nork zer egingo du hemendik aurrera?

Galdera asko bota ditut hemen eta den-denek behar dute erantzuna. Euskaltzaindiari dagokio maila akademikoan erabakiak hartzea administrazioari beste era batekoak hartzea dagokion era berean.

Zuek duzue hitza. Arren eskatzen dizuet gaur hemen entzungo diren iritzi guztiak kontutan harturik erabakiak har ditzazuela. 1992. urtea gainean dugu eta Euskal Herriko herri aginteak nork bere aurrekontuak prestatu beharrean daude une honetan. Horrezaz gainera, Eusko Jaurlaritzak UZEIrekin duen lankidetzaren hitzarmena ere berritu behar dugula gogora arazi nahi dizuet.

Horregatik, gaur hemen hartu behar dituzuen erabakiak hartzeak berebiziko garrantzia du Euskal Herri-aginteentzat ezezik, baita Euskaltzaindiarentzat berarentzat, UZEIrentzat eta euskaldun guztiontzat ere.

Ekin bada lanari, beste batzutan ere egin izan duzuen bezalaxe, eta hemendik aterako diren ondorioak eta erabakiak probetxugarriak izan daitezela guzti-guztiontzat.

Eskerrik asko.

# EUSKALTZAINDIA EUSKAL HITZ-ALTXORRAREN BERRIKUNTZA-LANEAN: EGINKIZUNA ETA JARDUPIDEA

*Laurgain-Aia, 1991-XI-28*

*Mikel Zalbide*

## SARRERA

Eskerrak emanaz ekin nahi nioke nere gaurko azalpen-lan honi. Hiztegitzaintza-batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari orain bi hilabete egin genion eskabidea aintzakotzat hartu duelako eta, horren ondorioz, batzorde honen zenbait kezka eta aburu behar den astiaz aztertzeko egun osoko jarduna eratu duelako. Badakigu eskua bete lan daukala gure Hizkuntz Akademiak, egunean eguneko bere jardunean. Eta konturatzen gara euskaltzaintzat ez dela lan samurra urte-hasieran iragarri gabeko eginkizun batentzat leku egitea. Eskerrik asko, beraz, batzordekideon izenean.

Gutxitan biltzen da, bestalde, Euskaltzaindiaren Hiztegitzaintza-batzorde hau. Orain bost urte pasatxo egin zuen Lekunberrin, oker ez banago, bere osoko azken bilera. Etengabe bildu beharrik ez dauka, noski, horrelako batzorde batek: bilera eta bileraorde gehiegitxo egiten ditugu bestela ere, batean hau dela eta bestean hori dela medio. Bakan biltzeak ere badu, beraz, bere mesedea. Kontua da han eta hemen pauso bat baino gehiago hartu dela azken urteotan, edo hartzen ari dela orain, aski zuzenean Hiztegitzaintza-batzorde honi dagokiona. Eta egoki iritzi diogu batzordekideok, pauso eta neurri horien ildotik, hiztegitzaintzaren eguneroko jardunean alto egin eta egun osoko gogoeta-aldia egitea. Zer dela eta bururatu zaigu, ordea, berariazko bilera hau egitea? Bi gogoeta-gai izan ditugu, funtsean, horretara bultzatu gaituztenak. Labur-labur azaltzen saiatuko naiz bi puntuok:

a) Lexiko-berrikuntzaren alorrean hainbat erabaki konkretu hartzen hasi da Euskaltzaindia, azken bizpahiru urteotan. Erabaki horietariko zenbait, oso oker ez banago, Hizkuntz Akademiak berak 1981ean hartutako erabakiaren aurkakoak dira zuzenean, eta 1986an hartutako bide malguagotik ere urrundu egiten dira hainbatean. Hiztegitzaintza-batzordearen

ustez badago arrazoirik, gertaera horiek direla eta, gogoeta-lan berezirik egiteko. Galdera bi sortzen zaizkio noski, eta besteak beste, puntu honetaz argibide bila hasten denari: Euskaltzaindiaren lana al da, batetik, euskal hitz-altxorren berrikuntza-lana? eta, bestetik, aurreko galderak baiezko (nola-halako, baina baiezko) erantzuna jasoko balu, zein prozeduraz edo jardupidez baliatu behar luke Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntza hori aurrera eramateko?

Galdera hau ez da, aurrerago ikusiko dugunez, berria. Orain bost urte Lekunberrin bildu ginenean, esate baterako, luze jardun genuen honetaz. Eta, ustez, adostasun zabal batera iritsiak ginen bilera haren ondoren. Denborak erakutsi du, aldiz, iritzi-bateratasun hura ez zela hain sendoa eta, berriro bakoitza bere aldetik hasiko ez bagara, gaiari aurrez aurre heldu eta irtenbide eroso bat aurkitu beharra dagoela.

b) 1986-87ko ekinaldi hartan, lexiko-berrikuntzari behar zen oinarri sendoaz erantzun ahal izateko, egungo euskararen bilketa-lan sistemati-koa eragin eta gidatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak: honen lekuko zuzena dugu, ongi gogoan izango dugunez, 1987ko urtarrilaren 31n Euskaltzaindiak hartutako erabakia. Bost bat urteko epea ezarri zitzaion, lehen estimazio batean, eginkizun horri. Bataio-izen ezaguna eman ere bai: EEBS proiektua. Lanean aritu da ordutik hona bai Hiztegi-gintza-batzorde honen baitako EEBS batzorde-atala eta bai, bereziki, UZEI etxea. Lanaren diseinuaz, gidaritzaz eta jarraipenaz arduratu da Euskaltzaindiaren batzorde-atal hori, eta lana bera egiteaz UZEI.

Bost urteko epea amaitzen ari den honetan badago arrazoirik, alde batetik, zer egin den aztertzeko eta egin den honek Euskaltzaindiari, bere lexiko-berrikuntzaren alorrean, zertan lagun diezaiokeen hausnartzeko. Horra hor, beraz, gaurko jardunaldi honi egotzitako bigarren aztergaia. Kronologiaz bigarrena izanik ere, badago gainera arrazoi sendorik denbora aldetik atentzio nagusia bigarren gai honi eskaintzeko. Herri-erakundeek aurtan amaitzen dute azken bost urtealdi honetako hitzarmen-epea. Eta interesik balukete, zinez eta benaz, hurrengo epealdi batean lexiko-berrikuntzak Euskaltzaindiaren, UZEIren eta alor honetan diharduten gainerako erakunde-elkarteen ustez nondik nora joan behar duen jakiteko: ez, noski, azken puntu eta xehetasuneraino, hori ez bait da hiztegi kontuan egun bateko jardunaz erraz argitu ahal izaten; bai, ordea, bere zertzelada nagusietan. Nolako bizkarrezurra eman nahi dio Euskaltzaindiak, hurrengo bost urteotan, euskal hitz-altxorren berrikuntza-lanari. Non ezarri nahi ditu ekintza-lehentasunak, eta zer moduko lankidetzabideak eratu nahi ditu modernizazio-lan honetan ari diren etxeekin.

Hauek ditugu, beraz, gaurko jardunaldi honetarako begiz joak ditugun gaiak. Joan den irailaren 25ean, batzordearen buru den Ibon Sarasolarekin aldeztu aurretik bildu eta gaia zehaztu ondoren, azalpen-idazki



Egun barruko ordu eta minutuei etekin handiena ateratzen jakin izan zuen, beti esku artean irakurtzeko zerbait (liburu, aldizkari, txosten, paper, egunkariaren bat...) edota luma tinta zeriola paperean, hara eta hona, idatzi eta idatzi zerabilela. Horrela iragan izan zituena, ia konturatu barik, buru-belarri, oso gogoko zuen lanean bizitzako urte luzeak. Sarritan, hala baina, nekearen nekez jota geratu arte lan egingez. Berarentzat egun barruko tarte guztiak ziren erabilgarriak.

Labur-labur esateko erle maratsaren antzera, hor-hemenka tantaka-tantaka jasotako aberastasun guztiak eskaini dizkigu ezti eder eginda hainbat liburu eta idazlanetan.

Dena den, aurkezpen labur eta orokor hau egin ostean, jo dezagun beraren bizitzako gorabehera nagusien berriak gogora ekartzera, beraren lanaren zertzeladak azaltzera.

Ez zait oso neketsu egin jarraian gogora ekartzen dizkizuedan datu guztiok pilatzea. Zorionez, Aita Lino Akesoloren datu biografiko zehatzak ditugu urte gutxi direla, *Karmel* aldizkariak *Karmel Sorta*-n beraren *Idazlan guztiak* (bi liburuki) argitaratzerakoan bildu eta aurkeztuak.

### 1. DATU BIOGRAFIKOAK

Lino Akesolo Olibares, Dimako Oba auzoan jaio zen 1911.eko apirilaren 7an. Beraren gurasoak Antonio Akesolo Bikarregi (dimostarra) eta Praxedes Olibares

Intxaurbe (Zeanitarra) izan ziren. Obako etxalderik handieneko seme nagusia izan zen. Umetzarako lehen hamar urteak etxean egin zituen eta Obako auzo eskolara joan zen.

Hamar urte zituela joan zen Larreako Karmeldarren ikastetxera, 1921.eko azaroaren 23an, bertan burutu zituela Humanistikako ikasketak. 1926.eko abuztuaren 10ean hartu zuen Karmeldar habitua (ondo dakizuenez, aldiak aldatu badira ere, beti aldean izan duena) Larreako nobiziatuan eta 1927.eko abuztuaren 14ean egin profesioa.

Hurrengo ikasturtean, 1927-1928, Humanistikako ikasketak egiten jarraitu zuen Markinan.

Jarraian hiru urte egin zituen Gasteizen Filosofia ikasten (1928- 1931) eta lau Begoñako Karmelon Teologiako ikasketak egiten (1931-1935). Karmelon bertan egin zen apaiz 1934.eko uztailaren 8an.

Pertsona azkarra izan behar zuen gure mutilak, karrera amaitu osteko urtean, 1935.ean, Zornotzako ikastetxeko irakasle izendatu zuten eta; eta, era berean, 1836.ean *Karmengo argia* aldizkariaren zuzendari.

Gerra zibila sortu zenean soldadutzara joan behar izan zuen kaperau zereginetan ihardun zuelarik. Atxilotua izan ondoren gartzelan sartu zuten eta 1937.eko uztailaren 30eko gerra-uzitegian; fiskalak 12 urtetako kartzela-zigorra eskatu arren 16 urtetakoa eman zioten. Delitu handi gisa, beste gauza batzuren artean *Karmengo argia* aldizkariaren zuzendari izatea leporatu zioten. Honela kontatzen dizkigu berak auzitegiko gorabeherak: “ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen'go argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera: ‘Ya ven’ –esaten eban gogor salatzailleak— Karmengo Arjia (olan esaten eban berak), ‘hasta el título es separatista’. Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nahi izan nebanean, maipurukoak: ‘Calle y siéntese’. Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen eban arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan” (*Idazlan guztiak*, 35. orr.)

Auzitegian emandako epaia leku ezbedinetan bete zuen: gartzela bihurturik zen Begoñako Karmelon, Langraiz-en, Venta de Baños-en eta Karmona-n, 1940.ean askatua izanik. Hala ere, ondoko lehen urteetan ez zuen Euskal Herriko komentuetara etortzerik izan. Lehenengo, Kantabriako Hoz de Anero-ko komentuan bizi zen, Karmeldarren artean basamortu izenez ezagutzen zen hartan (1940-1941); gero, Iruñera (gobernarien ustetan Euskal Herritik kanpo zegoen) joan zen (1941-1943); bi hilabete Zornotzan egin zituen eta beste bi hilabete t'erdí Korellan. Azkenik, aldi luzeagoa (1944-1948) Kantabriako El Soto-ko etxean.

Teologiako irakasle izendatua izanik, Gasteizera joan zen 1948.ean ikasturtearen amaiera arte eta hemendik Begoñako Karmelora ikasturte berrirako: orduetik aurrera Begoñan egingo ditu bere bizitzako urterik gehienak, guztira 37 urte: 21 urte, Donostiako nagusi (1969-1972) izendatu aurretik eta beste 16 Markinako nagusi izatea (1972-1975) utzi ondoren.



Egin-eginean ere, 1975.ean itzuli zen Begoñako Karmelora, Hiztegiaren lan handiari ekitera. Ordurako hasia zuen lana, Markinan egon zenean. Eta, data horretatik aurrera Karmelon egin ditu jarraiko bere bizitzako gainerako jarraiko 16 urteak 1991.eko irailaren 17an hil zen arte.

## 2. BIZITZAKO UNE GARRANTZITSU BATZU

Jarraian beraren bizitzan eta burututako lanean eraginik izan duten gertakari edo une batzu gogoera ekarri nahi ditut, horrek beraren bizitzako ibilbidea ulertzeko argia eskainiko digu eta:

1. Obako auzo eskola: Maisu euskalduna izan zuen, euskara izan zelarik beraren lehen eskola hizkuntza. Honetaz gainera Alejandro Akesolo, aitaren osaba eta Dimako parroku izanikoaren liburutegia zuten etxeko gela batetan. Berak gogoratzen zuenez, gela zoragarri hartan ohitu zen liburu artean ibiltzen eta bertan hartu zuen bizitza osoan liburuei agertu zien begirunea eta zaletasuna.

2. Larrako ikastetxea: Bertan errotu egin zitzaion etxetik zekarren euskara. Ikastetxe hartan, alde batetik, euskara, gainerako gaien artean irakasten zen, *Latin, griego, gaztelera, historia, literatura...* eta Humanistikako beste gaiekin batera. Bestetik, hainbat irakasle euskaldun sutsu aurkitu zituen bertan. Horrela, esaterako:

– Aita Erroman (Leon Urtiaga) guda zibila hastean komentuko ortuko horma ondoan afusilatu eta lurperatu zutena. Ikastetxeko zuzendari izateaz gainera euskaltzale amorratua zen. Honek jarri zuen ikastetxean, euskaldunek zein euskara ikasten ari zirenek astean egun oso bat euskara hutsean hitz eginez igaron beharra.

– Aita Angelo (Jose) Jauregi, aramaiorra (Gabirel Jauregiren anaia). Honek ematen zien euskal gramatika; era berean *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketetan parte hartzera bultzatu zituen.

Euskal esnalekoek Jose Migel Barandiaran bialdu zuten behin Larrako ikastetxera, euskara irakasteko erabiltzen zuten ikasbidea ikertzera. Norbert Tauer, euskaltzailere txekoslabiarrak ere idatzi zien Madriletik eskolen berri eskatuz.

– Katekesia ere euskaraz ikasten zuten. Horretaz aparte, bertako irakasleek latinetik euskarara itzulpenak eginerazoten zien. Ikastetxe honetan ezagutu zituen Kirikinoren *Abarrak*, Txomin Aguirreren zein Azkueren lanak...

3. Markinako ikastetxea: Aita Urbano Manzisidorrek kondaira euskaraz azaldu zien. Bestalde, bazuten euskarako eskola ere. Campion-en *Gramatica* ikasten hasi zen iparraldeko euskalkiak ezagutzeko bidea hartuz. Ikasle batzu *Euskal esnaleak* antolaturiko sariketetara aurkeztu ziren, horrela, Aita Onaindiak sari bat lortuz.

4. Gasteizen Filosofia ikasketak: (1928-1931). Hemen ez zuten ofizialki euskarako eskolarik. Hala ere, eskola orduetatik kanpo (batez ere udako oporraldi luzeetan zehar) jo eta ke aritu ziren euskara sakontzen. A.Gabirel Jauregik, *Fisia* eta *Kimia* liburuen egileak bultzaturik *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketetan parte hartu zuten; Lino Akesolok Cervantes-en *El Celoso Extremeño* euskaratu zuen *Agure kezkatia* izena emanez, 1930.ean. Saritua izan zen. Aita Onaindiak eta Aita Abasolok ere sari bana jaso zuten. Orduan ikasi zuen, nonbait, antzinatik ohiturazkoa zenez, liburuen bidez lortutako diruak liburutan erabili behar zirelako ikasbidea. Akesolok, sari hartako diruak Azkueren *Iztegia* eta *Morfologia* erosteko erabili zituen.

Era berean, Gasteizen hasi zen, bizitza osoan zehar hain gogoko izango zuen ihardunean, hau da, esaldi jatorrak biltzen “gauzak egoki eta zehatz adierazteko”.

Filosofia amaitzerakoan etxera bidali zuten aldi batetarako osasuna indartzerara. Areagotu egin zitzaion ordurako barru-barruan zerabilen euskararako zaletasuna eta garra, batez ere, herri-euskaraganako joera eta maitasuna.

5. Begoñan Teologia ikasketak: (1931-1935). Aldi horretan ezagutu zituen pertsonalki Lauaxeta, Lizardi, Orixe,... *Euskal Erria* aldizkaria irakurtzen zuen.

Aita Onaindiarekin batera, *Onbidea* (Santa Teresaren *Camino de Perfección*) itzuli zuen.

1931.ean *Karmengo argia* sortu zuten karmeldarrek. Idazlerik finenetarikoak izan zen Lino Akesolo ikaslea. Hori zela, nonbait, izendatu zuten apaiz egin berri zela (1935) aldizkariaren zuzendari.

6. Espetxean eta desterruan: Gorago aipatu dugualdi hori. Carmonan "Beistero" politikari ospetsua irakasle zuela "alemana" ikasi zuen. Euskarako lan batzu ere egin zituen, hala nola, *Salve Mater Misericordiae* euskaratzea edota Toselli-ren Serenataren frantses testuaren ordezkilerki bat asmatu euskaraz:

Ortzean zear zabilten usoak,  
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari  
erbestuaren maitasun agurraren gezinari!

Etsaiak erasota  
ara non dan lur jota,  
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,  
gaur ene gogoa,  
espetxeko ordu beltzetan,  
maitezko egoetan  
zuganaño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,  
neure zorigaitzaren azkarri:  
zeu, aberri.

Jarraian, esan dugun bezala, gartzelaren ordezkilerki, Euskal Herritik kanpo bizi behar izan zuen, nahiz eta Iruñean (1942-1943) bi urte inguru egin. Iruñeko egonaldia ezin hobeto etorri zitzaion euskal liburu zaharrak erosi eta biltzeko. Karmeldar fraideen komentuetan lapurtutako hainbat liburu berreskuratu zituen.

7. 1948-1969. urteen artean, irakasle Karmelon: Aldi luze horretan, eskolak emateaz gainera, hainbat liburu itzuli zituen, batez ere, alemanieratik. Hainbat idazlan (89) idatzi. *Salmoak* liburua bizkaieraz jarri, Liturgiako testuak euskaratzen ihardun eta gogor aritu zen euskal biblioteka osotzen.

8. 1963.eko apirilaren 5ean Euskaltzain Oso izendatu zuten, hala ere, ukatu egin zuen izendapena azaroaren 7an. Behar bada, izendapen horren ondorioz jarri zuten, era berean, Euskaltzaindiko bibliotekari zereginetan urte bereko maiatzaren 25ean. 1965.eko martxoaren 26an Euskaltzain urgazle izendatua izan zen.

Horretaz gainera, euskara alorrean diharduten beste bi Erakundetako partaide ere izan da: hau da, Kardaberaz Bazkunekoa (1970) eta Euskarazaintzakoa (1978).

Hizkuntz alorrean hain kontrajarriak diren erakundeetako (Euskaltzaindiko urgazle eta Euskarazaintzako buru) partaide izan arren, batean zein bestean ihardun zuen lanean, laguntza eskatzen zitzaion bakoitzean euskararen alde arituz.

9. 1964-1968: Liturgiako testuen itzulpen lanetan. Bizkaiko Eliz- barrutiko Liturgi Batzordeko Buru zereginetan lan eginez. Talde honek oso lan bikaina burutu zuen, orain arte euskalki ezberdinetakoen artean lankidetzan burutu den lanik nagusia delarik (1000 orrialdetik gorako liburu mardula). Bide batez,

Bizkaiko azpieuskalkien batasuna ere lortu zuten, bizkaiera gehien zekiten pertsonak elkarlanean arituz eta Bizkaia osorako testu bakarra lortuz.

10. (1975-1991): Karmelon. azken urte hauek izan dira Lino Akesoloren bizitzako emankorrenak. Berak bideratu zuen *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca* deituriko (9 liburukitakoa) hiztegi nagusia egiteaz gainera, hainbat eta hainbat idazlan argitaratu izan ditu. Azken bi urte hauetakoak kontutan izan gabe (29 idazlan eta Joan Gurutzekoaren *lan hautatuak* euskaratzea), 150 idazlan argitaratu zituen aldizkari ezberdinetan. Era berean, lan handia burutu izan du karmeldarron euskal biblioteka hornitzen, liburuak eskuratzen, fotokopiatzen eta abarretan buru-belarri saiatuz.

### 3. AITA LINO AKESOLOREN NORTASUNA

Oso erraza ez bada ere, azken 16 urte hauetan Aita Linorekin bizitzeko aukera izan dudanez, bere nortasuna ezagutzuz, bat-bateko argazki gisa, berarengan honako ezaugarriok azpimarratuko nituzke:

1. Lengile porrokatua: Aipatu dugun bezala “Ora eta labora” esakuna bizitzako abiaburu eta helburu eginik, lanari ekin eta ekin ihardun izan zuen bizitza osoan zehar:

a) Fraide bizitzako eskakizunak zehatz-mehatz betez. Ez zuen inolazko atxakiarik hartzen etxeko halako betebeharrei ihes egiteko. Azken oporretan ere (Dimako Oban) egunero eskaini zuen eukaristia eta gainerako otoitzaldiak egin. Leialtasun handia izan zion apaizgoari zein karmeldar bizitzari.

b) Gainerako alorretan, bizitzan zehar eginiko lanari begiratu baino ez dago, ez dela halakorik alperkerian egunak eginik lortzen konturatzeko. Behar bada lanerako zaletasun hori gehiago neurtu izan balu, gaur egun oraindik bizirik izango genuen gure artean. Azken urteetan, bihotzeko taupagailua jarri ziotenetik, medikuak eta karmeldar nagusiek, behin eta berriro lana mugatzeko esan arren, ez zegoen hari muga jarriko zionik.

2. Isila eta apala: ez zuen gogoko izaten besteen bizitzako gorabeheretan azterka ibiltzerik. Beti izaten genuen gertu etxeko lanik apalenak egiteko (adibidez, jatordu ostean platerak jaso eta garbitzeko). Hala ere, era berean, beti gertu euskara gaitan elkarrizketa biziak egiteko. Ezin izaten zuen irentsi, burua harrokeriez puzturik handinahietan ibiltzeko ohitura zuenik.

3. Egizalea: bai fraide bizitzan bai kanpoko harremanetan. Honek buru-hausterik sortu zion, bere ustetan zuzena ez zena argitzeko, zerbait, idatzirik plazaratu beharra izaten zuenean. Behar bada, horrek, besteen lanak, inoiz, zorrotzegi epaitzera bultzatu zuen. Bere buruari ere lokarri estuegia jartzen zion egizale izate horren ondorioz ziurtasun osoz ibili nahi izateagatik, guk nahi izan baino gutxiago idazten zuela. Horren ondorioz inoizka ernegaldirik izaten bazuen ere arin baretzen zen hutsuneak zuzentzeko borondate onik ikusten zuenean. Azken urteetan, hainbatetan baretu egin zen erizpide zabalagoa eta abegikorragoa hartuz.



4. Esker onekoa: batez ere libururen bat ematen zionarentzat. Nahikoa izaten zen halako oparia, betiko adiskide bihurtzeko. Oso bihozbera zen eta edozerk hunkitzen zuen. Azken urteetako omenaldiek nahikoa kalte egin zioten osasunean, bihotzeko gaitza areagotuz. Zeharo hunkituta geratu zen, adibidez, Dimako herriak eskainitako omenaldian Amurizak eta Lopategik, dohainik parte harturik, egin zioten goraipamena zela eta. Esker onez gogoratzen zuen, egun horretan hartu zuten ardura.

5. Laguntzaile eskuzabala: ez zekien inori ezezkorik ematen. Gero gauez ere lanean aritu behar epeei erantzun ezinik. Hil zenean 700 orrialdetik gorako hiztegi baten inprimategiko probak zituen gainbegiratzeko. Beti genuen gertu laguntza eske zetorren edonori eskua luzatzeko. Kontaezinak dira berak zuzendutako euskal lanak edota azken urteetan Euskal Filologia fakultatean tesiak zein bestelako lanak egin behar eta berarengana aholku edo laguntza eske hurreratutako pertsonak. Urte luzeetan zehar eskuratutako jakituria dohainik eskaintzen jakin zuen, trukean ezer eskatu gabe.

6. Autodidakta: humanistika ikasketak eta Filosofia eta Teologia egitera-koan lortutako jakintza mailaz gainera, etengabeki aritu zen bere kabuz irakurri eta irakurri, jakituria bila. Batez ere, linguistika alorreko gaietan. Unibertsitatera joateko aukerarik ez zuen izan baina, halako jakintza-zentruetan eskuratu ohi den baino iturburu gehiagotik ur gardena edanez zein bere jakinmin asezinari edatekoa emanaz.

7. Irakurle asezina: beraren jakintza zabalaren iturburu edo sorburua, zer esanik ez, irakurketa izan zuen. Bidaietan zein atsedenaldietan berarentzat lagunik onena, zer irakurri esku artean edukitzea izaten zuen. Une guztietan libururen bat esku artean zuela ibiltzen zen. Oso berrizale porrokatua zen eta era guztietako liburu eta paperak irakurtzen zituen. Egunkariak, goizean goiz, komentukideok lanerako jaiki orduko irakurtzen zituen..

8. Liburuzalea: esandako guztia hala baldin bada ere, ezin aipatu gabe utzi, liburuei zien begirunea. Aita Lino, batez ere, liburuzalea zen. Karmeloko Karmeldarron euskal zein erdal biblioteka ugaltzeko ahalegin bizietan ihardun zuen beti. Behin baino sarriago etxeraten zen arratsaldeko laurak jota edota berandua-go bazkaldu gabe, baina boltsa liburuz beteta. Honetan komentuetako diruzainen burukominik handiena gertatzen zen, jakina, dirua eskuetara heldu ala, liburutan xahutzeko gertu izaten zelako. Zeletasun hori izan zen, arean, beraren heriotzaren hurbileko zioa ere. Irailaren 15ean, igande goizean, sukar handia zuelarik meza eskaintzera joan zen “Gurutzeko Alaben” ikastetxera gero handik Bilboko Plaza Berriko “Rastrora” joan nahi zuelako. Gaizki zegoela ikusi eta ikastetxetik deitu ondoren etxeko nagusiak zuzenean etxera ekarri zuenean, bere ardurarik handiena “Rastroan” ezagun egindako batek ekartzeko zituen liburuen ardura izan zen.

#### 4. IDAZLANAK

Lerro hauetan idazlan guztien izenak aurkezteko aukerarik ez dagoenez, hiru multzo handitan banatuko ditut, gaindiroki bere lanaren berri izateko:

1. *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca.* (9 liburuki, 1976- 1979)

A. Lino Akesoloren hiztegi handia da. Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, berak urteetan zehar burutuak. Fitxa guztiak berrikusi zituen bertan ageri ziren esaldien egokitasuna ziurtatzeko. Lafitte-eren bidez heldu zitzaion lan hori eskuetara eta lehen urtean Lasa Jnaren laguntza izan bazuen ere, gero ikerketa lana berak bakarrik burutu zuen. Argitaratze lanetan Luis Ortegaren laguntza izan zuen. Arrazoi osoz aitortu zuen Alfontso Irigoienek 1989.eko apirilaren 3an Euskal Telebistako elkarrizketan zein hurrengo eguneko hiztegiaren aurkezpe-nean benetako egile bakarra, hasieratik amaiera arte (Sotak eginiko lana gogoan hartuz) Aita Lino Akesolo izan zela. Hala ere, lana bukatu ondoren, hainbat materiale sartu gabe geratu zela ikusirik hasia zuen oharrak egite lana. Heriotze uanean, jadanik eginak zituen 840 orrialdetan gehiketa edota zuzenketa lanak. Eta, era berean, berak eginiko hiztegiaren zein *Orotariko Euskal Hiztegiaren* ageri ez diren hitz berriak jasoten ere bai, esaterako, Fr. Bartolomeren *Icasiquizunac* liburuko hitz batzu. Honetaz gogoan hartzekoa da J.A.Etxezarragak hiztegi honi buruz idatzia (*Idatz eta Mintz*, 18/19). Beraren lanak eskaintzen duen fidagarritasunaren ondorioz *Orotariko Euskal Hiztegia* egiten ari direnak ere oso gogoan duten adibideen hautaketa egiterakoan, badaezpada ere, Akesolok jasotako gehienak jasoten dituztelarik.

2. Argitaratutako idazlan laburrak: Aita Linok gorago bide batez aipatu izan dugunez, hainbat idazlan labur idatzi zituen aldizkari ezberdinetan (32tan) eta ezizen multzoa (16) erabiliz. Esan dugun bezala, lan horien arteko gehienak, azken bi urte hauetakoak eta beste banakaren bat izan ezik, beraren *Idazlan Guztiak* (2 liburuki) argitalpenean kaleratuak izan ziren. Zenbaki laburretan bilduz honako hauek lirateke gaika:

**Lehen liburukian:**

\* Euskara eta gramatikaren inguruan: 43 idazlan.(5 gazteleraz eta 38 euskaraz). Zenbait argibide eskeintzen dizkigu. Hala ere sorta honetan badira erizpen alorrekoak ere.

\* Euskal idazleei buruz: 95 idazlan. (19 gazteleraz eta 72 euskaraz). Guztira 522 orrialde. Aurrerantzean beti aipatu beharrekoak izango dira berak eginiko ikerlanak. Alor hau dugu, bere idazlan laburren artean baliorik handienekoa.

\* Euskal literaturaren inguruan: 7 idazlan

**Bigarren liburukian:**

\* Euskara eta biblia: 10 idazlan.

\* Euskal testudun idazlanak: 10 idazlan (1 gaztekeraz).

\* Kondaira eta biografi-artikulu eta oharrak: 73 idazlan.

\* Liburuen barri-emoteak: 43 idazlan.

Multzo honetako lanen artean ere, hainbat ikerlan interesgarri eta iturri bazterrezin ageri da.

**Azken urteotako lanak:**

Azken urteotan ere, hau da, beraren *Idazlan guztiak* (1989) argitaratuak izan ondoren, hainbat idazlan idatzi ditu. Gehienak *Karmel* aldizkarian. Guztira 30 idazlan: 7 (1989), 14 (1990) eta 7 (1991). Horietaz gainera, azken urteotan Joan gurutzekoaren idazlan hautatuak itzulpenak egiten ihardun du.

3. Itzulpenak: Alor honetan ere lan oparoa egin zuen bizitzan zehar Aita Lino Akesolok. Itzulitako idazlan guztiak laburkiro aurkeztuz honako sorta hau ateratzen zaigu:

a) Gaztelarazko idazkiak: (bereziki, 1952-1962. urteen artean). Latinetik, frantsesetik eta, batez ere, Alemanieratik itzuli izan zituen; ingelesik ere bai bat “*yo escogí el claustro* izena zuena; Guztira, 8 liburu. Alemanieratik gaztelaratuak 2.500 orrialde inguru dira. Gehienak Dinor argitaletxean.

Latinetik: *Misas propias de la Orden Carmelitana*, Iruñea 1984, 90 orr.

Frantsesetik: *La Iglesia y el pecador*, Donostia 1954, 278 orr.

Ingelesetik: Monica Baldwin, *Yo salté la tapia*, Donostia 1957 (parte hartu zuen)

Alemanieratik: Fritz Tillmann, *El maestro llama*, Donostia, 1956, 486 orr.; Walter Nigg, *El secreto de los monjes*, Donostia 1956, 490 orr.; Juan Schuck-Guillermo Neuss, *Historia de la Iglesia de Cristo*, Donostia, 734 orr.; Edith Stein, *La ciencia de la cruz, Estudio sobre S. Juan de la Cruz*, Donostia 1958, 413 orro.; Burgos 1989; Fritz Tillmann, *Elementos de la moral católica*, Donostia 1959, 225 orr.; Erich Przywara, *Criterios católicos*, Donostia 1962, 189 orr.

Euskaratik gaztelarara Bernat D'Echpare-ren *Linguae Vasconum Primitiae*.

b) Euskarazko itzulpenak: Besterik beste:

Prosazkoak:

– M. Cervantes, *Agure kezkatia* (1930)

– *Gurutzeko Joan deunaren esakun mamintsuak* (Karmengo Argia 3 (1933) 209, 234, 313,329)

– *Donekuntza-bidea*, Karmengo Argia 3 (1933, 1934,1935,1936)

– Manuel Fuentes, *Jaungoikoak Beretzat Gura nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra*. Bilbo, 1984, 84 orr.

– S.Teresa, *On-bidea (Camino de perfección)* Bilbo, 1963, 279 orr. S. Onaindiarekin batera eginiko itzulpena.

– *Iratzeder-Lerchundi, salmoak*, Bilbo 1964, 262 orr.; A.Linok bizkaieraz jarri eta egokitu zituen.

– Domingo Fernández Mendiola: *Aita Aureliano Karmeldarra* (1887-1963) *Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaile*. Gasteiz, 1983, 59 orr.

– *Sáski-Naski* aldizkarian sei idazlan 181.ean eta beste bat 1984.ean.

– Hugo *Makibi Enomiya-Lassalle*, Sortaldeko gogoeta-eskolak eta Loiolako Iñaziorena eta Joan Kurutzekoarena, Karmel 1990-3/4, 265-274 (Alemanieratik itzulia).

– *Abel-lur* aldizkarian idazlan batzu.

– Bizkaiko Aurrezki Kutsak aginduta Euskal dantzei buruzkoa (gaztelaniaz bakarrik argitaratu zen).

– Inprimategian: Joan Gurutzekoaren *Lan hautatuak* (Lehendik itzuliak zituen *Karmel mendira igonera* (Subida al monte Carmelo) eta *Gau iluna* (Noche oscura)).

– *Kili-kili* aldizkarirako hainbat eta hainbat. Beste hainbat zuzendu ere bai.

– Mañarikua Jnaren *Historia de la Virgen de Begoña* ere euskaratu zuen orain argitaratu gabe baldin badago ere.

Olerkiak:

Latinetik:

– *Salve Mater: Agur, Ama* (1941)

– *Aserre-egun* (1951)

– *Enau ni, Jauna* (1954)

– *Nun da maitasuna* (1972)

– *Pazko-kanta* (1972)

– *Espiritu Santua* (1972)

– *Agur Jainkoaren Ama* (1977)

– *Maria gure oiua* (1977)

– *Illen otoitzerako* (1978)

– Etab.

Gaztelaniatik:

– *Karmengo Amari abestia* (1951)

– *Zeruan det nik bizia* (S.Teresaren *Vivo sin vivir en mi*) 1952

– *Arin, artzaiak* (1953)

– Jon Gurutzekoarenak: *Cantico espiritual* (karmel 1990-3/4), *Aberik ez ta aberik bai* (ibidem); *Edozein ederren jarrai* (Ibidem), *Gabonetakoa* (Ibidem) *Onbi-dea labur* (Ibidem), *Maitasun-gar bizia* (Karmel 1991-1) *Artzaintxo maitemindua* (Ibidem), *Gau ilunean* (Ibidem) *Maitearen eizan* (Ibidem)

– Era berean itzuli izan ditu beste batzu: Alfredo Gómez Jaime-ren olerki batzu (1967), L.C.Lopez-enak (1967); Jorge Isaac-enak (1967) Kolombiar idazle batzurenak (1968) eta baita Unamuno-renak ere (1970)

## c) Euskal idazle zaharren argitalpenak.

– Bernat D'EChepare-ren *Linguae Vasconum Primitiae* gaztelera izulpena duela eta idazkera gaurkotuta.

– Joannes Etcheberri-ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*; testu berrikusia, sarrea eta oharrak dituela.

– Bernad Gazteluzar-en *Eguia Catholicac*.

– Gregorio Arrue-eren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza*. Testu berrikusia, sarrea eta oharrak.

– Beste hainbat argitalpenerako liburuak eskuzabalez utzi egin izan ditu.

## d) Taldekako lanean:

– Teresa, *On-bidea (Camino de perfección)* Bilbo 1963; Aita Onaindiarekin batera, 279 orr.

– Liturgia liburuen itzulpenak. Donostiako eta Bilboko apezpikuen agirietatik ere hainbat itzuli zituen.

– *Eguneroko Meza, esku liburua*, Bilbo 1963 (Jaime Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratua)

– *Kosmos I eta II*, Salamanka (Anaya) 1975

– *Eusko Lurra* (Iñigo Agirre), Donostia, 1976

– Euskaltzaindiko gramatika batzordean lankide izan den bitartean honako liburuok argitaratu ditu batzordeak: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I*, Iruñea 1984.; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*, Bilbo 1987. *Eraskina*, Bilbo 1987.

## e) Isilean burututako lanak:

Lino Akesolok baditu beste zenbait lan ere, beste batzuren izenpean argitaratuak izan direnak. Sarritan zuzenketak egin zizkielako zein goitik beherako orrazketak. Ez da erraza halakoen bilduma egitea. Hori dela eta gerorako, lan sakonago bat egiten den bitartean, horren berri izan dadin Karmelo Etxenagusia-  
ren berbak jaso nahi ditut hemen: “Zenbaiti ez ete deutso Linok artikulua baten barri emon, idazlan apal bat zuzendu, ikerketa bat egiteko bideak zabaldu, itzulpen bat egin... Gogoan dot, esaterako, urte askotan euskeratu zituela gure Mixiño-idazkaritzak ataraten zituan paper guztiak, Bilboko parrokia batek asteroko orritxuan argitaratzen eban euskarazko artikulua. Eta orren antzeko beste asko. Ez deutsoe olango lanak egilleari izen andirik, ez dirurik, emoten; baiña laguntza apal jakituna olako lan apaletan sartuta ikustea beti da arrigarri; izan bedi txalogarri be! Niri neuri be ez deust gitxi lagundu A. Linok idazleen lorategi edo antologiak egiterakoan: Idazleen barri emon, zatiak aukeratu, argibide aberatsak eskeini...” (K. Etxenagusia, *Aita Linoren lan ezkutua*, Euskerazaintza 1989, 7.Zkia.,47).

Halako zerbait jaso zen, baita ere, *Eguneroko meza, esku liburua* deritzanean (Bilbo 1963) Jaime Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratutako liburuan. Hainbat testu, batez ere igandeetakoak Linok euskaratuak izan ziren.

## 5. EUSKARA BATUAREN AUZIAN ZER NOLAKO JOKERA

Hasteko, Lino Akesolo ez zela, hasiera batetan, euskara baturako emandako zenbait urratsekin ados esan beharra dago. Hau oso ezaguna da; hainbat idazlan idatzi zituen euskara batuari buruz eta kritika zorrotzak egin ere bai; hala ere, beraren kezka nagusia, euskara batua bera baino gehiago, euskara bera zela esatera ausartuko nintzateke, euskal idazleen artean (batueraz zein euskalkiz idatzia) ez baita beti aurkitzen gari hutsez eginiko baserriko ogia. Gogoan izan behar dugu Euskarazaintzako buru izan arren Euskaltzaindiko gramatika batzordean lan egin izan zuela azken urteotan. Aurretik ere hainbat aldiz parte hartu izan zuen Euskaltzaindiaren ageriko bileretan idazle ezberdinei buruzko txostenak aurkeztuz. Ez zegoen, bada, inolaz ere, Euskaltzaindiak hartutako bide guztien aurka; gutxiagorik ere ez. Hala ere, hor ditugu berak eginiko kritikak eta, agian, baita ere, baturantz ematen ari garen bidean kontutan hartzeko erizpideak ere bai.

Eusko Jaurlaritzak irakaskuntza mailan ortografiako arauak ezarri zituenean Euskarako Aholkulari Batzordekoa zen. Bertan onartutako bideak bizkaierazko eskola-testuetan erabiltzekoak ere baziren. Eskola mundutik kanpoko alorretan askatasun handiagoa edukitzearen aldekoa zen. Berak, normalean, bizkaiera klasiakoan idazten zuen. Azken urteotan zabaldu izan diren *dodaz, ebezan, zaudaz, dautsot, deitson...* eta horrelako aditz formen ordez, beste euskalkietako formetatik askoz ere hurbilagoak diren *ditut, zituen, zaitu, deutsot, deion...* eta abarren aldekoa zen.

Arazo honetan ez zen batzuk nahi izango zuketen adina setati. Harritzekoa bada ere, onartzen zuen euskara batua, standarra edo dena delakoa eskola liburuetan erabiltzea. Gainerakoetan, esan dugun bezala, askatasun handiagoa uztearen aldeko agertzen zen, bereziki hori herriko berezko esamolde eta erabile-  
ra jatorrei bidea egiteko zen adinean.

Honetaz bi adibide aipa ditzaket. Bata, urte t'erdia dela argitaratua izan zen *Perpausen erabilera* (Mensajero) liburuari eginiko sarrera. Euskara batuan idatzita dago. Hori bai, idazle trebea izanik, 19 lerrotako sarrera horretan ez da "h" behar duen hitzik agertzen. Bestea, hil baino hamabost egun lehenago, aurkezpen gisa eginiko sarrera bat da: bertan "h" duten hitzak ere ageri dira eta hiru horrialdetako lana euskara batuan idatzita dago, liburuko idazkera batuari oso-osoan egokituta.

*Karmel* aldizkarian eztabaida antzuak baztertzeko euskara batuaren eta euskalkien artean oreka izatea erabaki genuenean ere, guztiz ados izan zen. Berak bizkaieraz idazten zuen (eta eskertzen diogu euskalkiz bizkaieraren eremuak garenok) eta beste batzuk, oreka horri eusteko, batuan. Ez dugu inoiz horretaz inolako eztabaidarik izan.

## 6. IDAZKERA

Hitz egiteko eta irakurtzeko ahozkeria iluna (hagin artean ahoskatzen zuelako edo) bazuen ere, idazterakoan aparteko dohainak zituen. Prosaz idazten zuenean, euskara argi eta ulerterrazez egiten zuen. Euskal senez idazten zuen, joskera ezin

hobea erabiliz. Lanak behin eta berriro zuzenduz, zaindu egiten zuen txukuntasuna zein joskeraren jatortasuna.

Honetaz, berari entzundako zerbait kontatu nahi dut. Sermolari batek ordu-beteko sermoi ederra egin zuela eta entzule batek itandu omen zion ea zenbat ordu behar izan zituen halako sermoia idazteko. Eta hark, "hamar ordu"erantzun. Entzunleak jakigura zuen, nonbait, edo nonzerberria zen eta berriro galdetu omen zion: eta ordu erdiko sermoia egiteko zenbat behar izaten duzu. Hark "egun oso bi" erantzun. Besteak, harriturik: eta 10 minututakoa egiteko?. Besteak, horretarako, astebete inguru. Lino Akesolok hala zuzentzen zituen, behin eta berriro, guztiz asetuta geratu arte, bere lanak.

Hain ongi ezagutu zuen E. Erkiaga idazleak honeko idazkera zuela dio: "Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan dana" (*Karmel*, 1989-2,9 orr.)

Jesus Gastañagaren eritzitan, azken aldiko "Bizkaieraz idazlerik onena" izan da (*Diario de Navarra*, 1991-IX-21,48 orr.)

Patxi Altunak honako hau zioen beraren heriotze ostean: "Oraintsu izan nuen eskea Aita Linok eta beste hiru euskal idazlek, Orixe barne, nork bere aldetik egin zituzten San Juan de la Cruz edo Juan Gurutzekoaren "Cantico Espiritual! izeneko olerki gorenaren eta gailenaren itzulpenei buruz artikulua bat idazteko. Han ez nuen esaten baina hemen agertuko dut: Nere ustez onena Aita Linorena. Euskara inork gutxi bezala menderatzen zuen. Bertsoak euskaratzen parerik ez zuen" (*Egunkaria*, 243, 1991-IX- 18).

Beraren itzulpenen argitasuna adierazten duen beste lekuko bat ere badugu eta ez edonor: hain zuzen ere, J.M.Setien, Donostiako apezpikua. Behin, Donostiako apezpikua Begoñako gogarte-etxean zela, berak gaztelaniaz egindako artzain-gutun bat Lino Akesolok euskeratu zuela adierazi zion apaiz-talde bati, nola euskaratu gainera! Setienen ustez, berak egindako gaztelaniazko orijinala baino argiago eta hobekiago.

Bukatzeko, Aita Lino Akesolo, etenik gabeko irakurketaren bidez jakituria eskuratu duen jankintsu autodidakta, batez ere historiografo, lexikologo, ikertzaile, itzultzaile eta idazle saiolari paregabea izan dugula aitor dezakegu, inolaz ere huts egiteko arriskurik gabe.

*Donostia, 1991-XI-29*

*Patxi Uribarren Leturiaga*





## JEAN PIERRE IRATCHET (1921-1991)

### JEAN PIERRE IRATCHET EUSKALTZAIN OHOREZKO ZENA (1921-1991)

Azaroaren 10 ean zendu da, Landesetan, Buglose herriko misionesten etxetik bezperagoan Baionako ospitalerat sarturik, Jean Pierre Iratchet apaiza.

Bidarrain (edo Bidarrin, han erraten den bezala) sortua zen, 1921 eko ekainaren 28 an, bi seme ta bi alaba zituen herriko Pettan zapatainaren familian. Uztaritze ta Baionako bi seminarioetan eginik ikasketak, Akizen (Dax) zuen Mathieu apaizpiku euskaldun hazpandarrak apaiztu, 29 urte zituen urtean.

Ez zuen ordu artino denbora galdua: bere herriko gazterien erdian arras lagunkina, pilorari, kantari, trebea eta herri euskara paregabe baten jabea bere idatzkietan, prosan bezala esku izkribuzko bertsuetan, Eskualzaleen Biltzarrak moldatu sariketa asko irabazten zuen gaztedanik. Hola zuen Piarres Lafitte zenak bere laguntzaile hoberenarik bat egiteko begiztatu, *Herria* Astekariaren lehen urte horietan: Iratchetenak dira denbora hartako pilotako berriak besteak beste, luma arrai eta zirtotsu batekin herrikoi moldean emanak.

Landesetan bikario ta erreter egonik bizpahiru lekutan, hamar bat urte pasa, Bugloseko misionestetan du bere biziko lan jarraikien eta luzeena aurkituren: herriz herri lehenik, landes elizetan ebanjelioko berri ona hedatuz, Bugloseko Amaren eliza beilatokiaren zaintzale bezala gero. Mintzalari trebea lehenik, kontseilu oneko eta itzal haundiko eliz' gizonaren fama bilduko du orozgainetik, bere biziaren azkeneraino, gure bidarraitar apaizak.

Denekin bihotz haundikoa, Euskal Herrirat itzulia egonen zaio bihotz hori, bizian joanago eta gehiago, ezinbertzezko urrundura eta urradura horretan, eta beti euskaldun kartsu edukiren du bere burua bestelako lan eta kargu guzien artetik.

*Herria* astekaria (idazten bururaino segituz) eta bere ahaide adixkideak ukan ditu beti euskararekiko lokarria. Burutik buru badauzka euskal Kasetak Iratchen hatzak: batean *Chilhar*, bestean Piarres Ipharla, ondarrik *Otto Piarre*, eta beste... Beste hauetan, horra nobela bat, *Antton*, astez asteko mozturretan agertu zena eta geroztik liburu oso batean bildurik aurkitzen dena. Norbaitek bilduko ahal ditu ere sariketa eta holakoetan, gainerat maiz saria irabaziz, agertuak. Denetan ageri da hor Bidarraiko euskara bizi-bizi bat, Otxalderen herrirat Baztango errekek jausten dituen ur turrustetan ongi garbitua.

Horiek guziak ikusirik, eta besterik oraino, Jean Pierre Iratchetez oroitu zen Euskaltzaindia, 1988 ko martxoan, Oxobiren mende-urrenkari. Gure idazle honekin bururatu zuen Piarres Charritonek bere “Bidarraiko euskara eta euskalzaileez” egin mintzaldia. Charritonen proposamena onetsiz, martxoaren 25ean berean jakinerazi zuen Aita Villasantek, orduan euskaltzainburu zelarik, eta Bidarrain berean, Euskaltzaindiak aho batez euskaltzain ohorezko izendatzen zuela Jean Pierre Iratchet bere euskal idazkien gatik.

Buglosen berean ehortzeta hunkigarriak izanik, zernahi landestar eta euskaldun askoren artean, Euskal-Herrirat ber’ekarri da Iratcheten gorputza. Arrosako hilarrietan du, familiako hobian, Bidarraitik hurbil, euskal lurak bere seme bat ona bereganatu... beste holako batzuen menturan.

*Sara, 1991-XII-20*

*Emile Larre*

## AURKIBIDEA 1991

AGIRREGOITIA, Anton: Euskaltzaindiaren egoitza berriari buruzkoa .....	435-436
ALTUNA, Patxi: Larramendiren haurtzaroko urteak .....	37-44
ALLI, Juan Cruz: Real Academia de la L. Vasca/Euskaltzaindia ...	715-716
ARDANZA, Jose Antonio: Euskaltzaindiko egoitzara sartzea .....	717-721
ARREGI, Joseba: Manuel Larramendiren III.mendeurrenean .....	51-52
ARANA MARTIJA, Jose Antonio:	
– Bibliografía bonapartiana .....	129-298
– Azkueren <i>Cancionero Popular Vasco</i> aurkeztean .....	305-306
– Bedita Larrakoetxea Agirrezabala .....	343-346
– <i>Kronika</i> Laburra... ..	399-400
– L. L. Bonaparteri Euskal Herritik omenaldia .....	407-414
– Euskaltzaindiaren egoitza honen historia .....	429-434
– <i>Kronika</i> .....	1149-1150
– <i>Opera Omnia Vasconice</i> , liburukien aurkezpena .....	1165-1166
AZKARATE, MIREN:	
– Euskara batuko lexikoaren plangintzaz zenbait gogoeta .....	1115-1118
– LEF/3 liburukiaren aurkezpenean .....	1169-1170
CACHO NAZABAL, Iñazio: Jesusen Lagundiko aita Manuel Larramendi jaio zeneko hirugarren mendeurrena .....	57-58
CHARRITTON, Piarres: Donibane Ziburu euskal literaturaren iturri	375-382
DE FELIPE, Eduardo J.: Euskaltzaindiaren egoitza berriari buruzkoa	435-436
DIAZ, Joaquín: La música en los romances .....	869-878
DIHARCE, Xabier "Iratzeder": Euskarazko lehen Biblia egin zuen Kapitainaren lanak eta minak (1859-1864) .....	383-396
EGIA, Koldo: <i>Opera Omnia Vasconice</i> aurkezpena .....	1163-1164
ESNAL, Pello: Errima Uztapideren bertsogintzan .....	505-598

ETXEBARRIA, Jon Gotzon: Grezia-Erromako (idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz) . . . . .	609-618	
FORNEIRO, José Luis: . . . . .	853-868	
<b>EUSKALTZAINDIA/REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA:</b>		
Euskaltzaindiaren batzar-agiriak:		
– 1990-VII, IX, X, XI, XII . . . . .	61-84	
– Onomastikaz III.Jardunaldien ondorioak . . . . .	69-70	
– Nafarroako Gobernuari eta jendarteko iritzitari/Al Gobierno y a la opinión pública de Navarra . . . . .	73-74	
– Letra larrien erabilera euskaraz, Euskaltzaindiaren Gomendioak . . . . .	85-88	
– Udal diktamenak (Onomastiko batzordearen gidaritzapean: <i>Fo- rua, Berriatua, Ibarrangelu, Legazpi</i> ) . . . . .	89-90	
– 1989.ean eta 1990.urteetan Euskaltzaindiko batzarretara joan di- renen zerrenda . . . . .	329-332	
– Araba eta euskara/Alava y el euskera . . . . .	337-340	
– Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama . . . . .	351-356	
I. Euskaltzaindiaren erregela bereziak . . . . .	439-440	
II. Euskaltzaindiaren erabakiak:		
1. <i>Iruñeari</i> buruzko erabakia . . . . .	441-442	
2. Euskaltzaindiaren Erabaki-Proposamena . . . . .	443-444	
III. Euskaltzaindiaren Adierazpenak:		
1. Euskaltzaindiaren bigarren Agiria euskal hitzei buruz . . . . .	445-446	
2. Declaración segunda de la Real Academia de la Lengua Vasca/ Euskaltzaindia acerca del vocabulario del euskara . . . . .	446-448	
IV. Euskaltzaindiaren batzar Agiriak (1991-I,-II, III, IV) . . . . .	449-472	
– Euskaltzaindiaren aurkitegia . . . . .	679-694	
– Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak . . . . .	751-770	
– Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak (1991-V, VI, IX, X, XI, XII) . . . . .	771-800	
– Burtsako hiztegia . . . . .	1153-1156	
– Literatura-sariak, 1991 . . . . .	1181-1186	
– Aurkibidea, 1991 . . . . .	1205-1210	
GARMENDIA, Mari Karmen: Euskaltzaindiaren hiztegi gintzako III.ihardunaldiak . . . . .		1095-1096
GOENAGA, Patxi: Georgiarako bidaiaren txostena . . . . .	325-326	
GOIKOETXEA ARRIETA, Juan Luis: Axularren estilotik . . . . .	619-654	
GOMEZ I OLIVER, Valentí: Un toro estilista: Del diálogo platónico al monólogo del autor . . . . .	655-670	

## HARITSCHELHAR, Jean:

- Manuel Larramendiren III.mendeurrena ..... 33-36
- R. M. Azkue: *Cancionero Popular Vasco* liburukien berrargitarapena ..... 307-310
- *Orotariko Euskal Hiztegia IV.* liburukiaren aurkezpena ..... 313-318
- *Letrakit* ..... 319-324
- Euskaltzaindia Israelen ..... 327-328
- J. Duvoisin Kapitainaren heriotze-mendeurrenean ..... 373-374
- L. L. Bonaparteren erakusketa ..... 403-406
- Euskaltzaindiaren egoitza berriaren hartzea ..... 428-428
- Euskaltzaindiko egoitzara sartzea ..... 707-710
- *Ye tiens à vous remercier* ..... 727-732
- Beñat Oihartzabalen Euskaltzaindian sartzea ..... 743-748
- *Opera Omnia Vasconice* aurkeztean ..... 1167-1168
- *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* bi liburuki aurkeztean ..... 1173-1174

## KNORR, Endrike:

- Noiz hil zen Axular? ..... 125-128
- Georgiarako bidaiaren txostena ..... 325-326
- Antonio Berrueta Alzola (1917-1991) ..... 675-676

## LABORDE, Eduardo: ..... 805-806

## LARRE, Emile:

- Jean Baptiste Etcheberry (bere biziaren ilun nabarrean 13 liburu idatzi dituena) ..... 481-490
- J. P. Iratchet ..... 1203-1204

LARROUY, Roger: *La chanson narrative au Béarn* ..... 903-912

## LEKUONA, Juan Mari:

- Euskaltzaindiaren laguntzaileak (1933) ..... 491-500
- Kontapoesiaren modulu metrikoak Hegoaldeko usuarioan ..... 825-852

## LIZUNDIA, José Luis: 1992.urterako Euskaltzaindiaren egutegia .. 333-336

MENDIBOURE, Victor: *Permettez au Gascon* ..... 723-726

## MORVAN, MICHEL:

- La notion d'âge dans le terme "ami" en basque et en tcherkesse ..... 993-996
- A propos d'un ancien nom du vaurien en japonais ..... 997-1000

## MURUA, Imanol: M. Larramendiren III.mendeurrenean ..... 29-32

## OIHARTZABAL, Beñat: Euskaltzaindian Sartzeko mintzaldia .... 733-742

OLARREAGA, Fco.: R. M. Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. Euskaltzaindia 1990 ..... 303-304

## ONDARRA, Francisco: Fr. Juan Ajuriaren idazlanak (1800-1825) . 923-992

ORTUONDO, Josu: Euskaltzaindiaren egoitzaren inaugurazioa ...	711-712
PEILLEN, Txomin: Leku eta jendeak XV. mendeko Zuberotar eresietan .....	879-902
PERY, Albert: Jean Duvoisinen heriotzearen mendeurrena .....	371-372
PRADERA, J. A.: Euskaltzaindiko egoitza berria .....	425-426
RÈBES, Salvador: Ultimas investigaciones sobre el romancero catalán .....	807-824
SAGARNA, Andoni: EEBS proiektuaren 2.fasea: abiaburua, helburu estrategikoak eta epe laburreko asmoak .....	1119-1132
SALABURU, Pello:	
– L.L. Bonaparteren erakusketa .....	415-420
– Baztango hizkeraz ohar batzuk .....	915-922
SAN MARTIN, Juan:	
– J. M. Mokoroa .....	347-350
– Erdi Aroko etxe-izenak Elgetan .....	1001-1012
– Repertorio toponomástico de Elgueta .....	1013-1050
SANZ DIEZ DE URE, Carlos: Manuel Larramendiren III.mendeurrenean .....	27-28
SARASOLA, Ibon:	
– <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> / D.G.V. ....	313-318
– LEF batzordearen proposamena .....	475-480
– Exotoponimoen euskal formaz .....	1051-1080
– Hiztegi batua lanketa-eta onespren prozedurak .....	1135-1146
SATRUSTEGI, J. M.: Euskararen eboluzioa Lizarrerrian/El euskera en Tiella Estella. Evolución histórica .....	93-124
SETIEN, J. M.: Jesusen lagundiko A. Manuel Larramendiren jaiotzako III.mendeurrena .....	53-56
SMETHURST, J. M.: Gratefulness (Azken agurra) .....	421-422
TELLETXEA IDIGORAS, José Ignacio: Larramendi, un guipuzcoano transplantado y vuelto a implantar .....	51-52
MANUEL LOPEZ, JON: Manuel Larramendiren hirugarren mendeurrenean .....	11-26
URIBARREN, Patxi: Lino Akesolo Olibares .....	1189-1202
URIBEETXEBARRIA, Tomás: Euskaltzaindiko egoitzara sartzea ..	713-714

## VILLASANTE, Luis:

- Gernikako Euskal Jaien (1888) oroitzapenetan estilistikaz .... 603-608
- Estilistika-jardunaldiak. Azken hitzak ..... 671-672

WEST, Geoffrey: Presentation (Sarrera hitzak) ..... 401-402

YRIZAR, Pedro: *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* ..... 1175-1180

## ZALBIDE, Mikel:

- Hiztegegintza. Bilera-akta ..... 1091-1094
- Euskaltzaindia euskal hitz-altxorraren berrikuntza-lanean: egin-  
kizuna eta jardupidea ..... 1097-1114

ZATARAIN'darr, Ambrosi: Piztia hitza eta abar ..... 1085-1088

